



GAZTE JUSTIZIAREN V. PLANA (2020-2024)



Vitoria-Gasteiz, 2021



AURKIBIDEA

AURKEZPENA	9
0. SARRERA	13
1. GAZTE-JUSTIZIAREN ARLOKO TRESNAK: NAZIOARTEA, ESPAINIAKO ESTATUA ETA EAE	15
1.1 Nazio Batuen tresna nagusiak	15
1.1.1 Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala	15
1.1.2 Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmena	15
1.1.3 Gutxieneko Arauak Adingabeen Justiziaren Administrazioarako (Beijingeko Arauak)	19
1.1.4 Gazte Delinkuentziaren Prebentziorako Nazio Batuen 1989ko Zuzentarauak (Riadeko Zuzentarauak)	20
1.1.5 Nazio Batuen Gutxieneko Arauak askatasuna kendu zaien adingabeak babesteko (Habanako Arauak), 1990	21
1.2 Europako Kontseiluaren tresna nagusiak	28
1.2.1 R (87) 20 zenbakiko Gomendia, 1987ko irailaren 17koa, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak estatu-kideei egina, gazteen delinkuentziaren aurreko gizarte-erreakzioei buruz	28
1.2.2 Rec (2003) 20 Gomendia, 2003ko irailaren 24koa, Ministroen Batzordeak estatu-kideei egina, gazte-delinkuentzia tratatzeko modu berriei eta gazte-justiziaren zereginari buruz	31
1.2.3 Rec (2008) 11 Gomendia, 2008ko azaroaren 5koa, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak estatu-kideei egina, zehapenak edo neurriak bete behar dituzten adingabeentzako arau europarrei buruz	32
1.3 Europar Batasunaren tresna nagusiak	34
1.3.1 Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordearen irizpena, "Gazte-delinkuentziaren prebentzioa, gazte-delinkuentziaren tratamendu-moduak eta adingabearen justiziak Europar Batasunean duen eginkizuna" hizpide	34



1.3.2	Europako Parlamentuaren 2007ko ekainaren 21eko Ebazpena, gazte-delinkuentziari buruzkoa, eta emakumeen, familiaren eta gizartearen paperari buruzkoa (2207/2011(INI))	37
1.4	Espainiako estatuko tresna nagusiak	40
1.4.1	5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa, Adingabeen Zigor Erantzukizuna arautzen duena (AZELO).....	40
1.4.2	1774/2004 Errege Dekretua, uztailaren 30ekoa, Adingabeen Zigor Erantzukizunari buruzko urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa garatzen duen Erregelamendua onartzen duena.....	44
1.5	EAEko tresna nagusiak	46
1.5.1	3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzekoa eta Babestekoa	46
1.5.2	163/2008 Dekretua, irailaren 30ekoa, Erakunde laguntzaileak baimentzeari, homologatzeari, ikuskatzeari eta erregistratzeari buruzkoa, EAEko adingabeko arau-hausleei zuzendutako gizarte- eta hezkuntza-jarduerari dagokionez.....	46
1.5.3	80/2009 Dekretua, apirilaren 21ekoa, askatasunaz gabetzeko neurriak betearazten dituzten EAEko hezkuntza-zentroi buruzkoa.....	47
2.	GAZTE-JUSTIZIAREN IV. PLANAREN (2014-2018) EBALUAZIOA	48
2.1	Sarrera.....	48
2.2	1. kapitulua: Justizia Zuzendaritzatik kanpoko iturrien datu orokorrak	49
2.2.1	Estatuko Fiskaltza Nagusiaren memoriak	50
2.2.2	Estatistikako Institutu Nazionala.....	57
2.2.3	Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia.....	71
2.3	2. kapitulua: Justizia Sailburuordetzaren informazioa.....	73
2.3.1	Talde psikosozialen jarduera: Adituen txostenak eta bitartekaritzako, kontziliazioko eta erreparazioko prozesuak adingabeen jurisdikzioan	73
2.3.2	Neurrien bilakaera: Alderdi orokorrak.....	77



2.3.3	Neurrien bilakaera: Kautela-neurriak.....	81
2.3.4	Neurrien bilakaera: Neurri irmoak.....	88
2.3.5	Adingabe arau-hausleak.....	109
2.3.6	Neurriak betearazteko baliabideak: Egoitza-zerbitzuak eta ingurune irekiko zerbitzuak	117
2.4	3. kapitulua: Barneko beste iturri batzuei buruzko informazio orokorra ematea Eusko Jaurlaritzari	122
2.4.1	Segurtasun Saila (aurretik, Herrizaingo Saila)	122
2.4.2	Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila (aurretik, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila).....	124
2.4.3	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila (aurretik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila)	125
2.4.4	Osasun Saila.....	127
2.4.5	Lan eta Justizia Saila (aurretik, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila)	129
2.5	4. kapitulua: Hezkuntzako esku-hartzearen eraginkortasunerako ebaluazio-txostenak eta hobekuntza-adierazleak (Kriminologiaren Euskal Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea)	142
2.5.1	Gazte Justizian atzera egiteari buruzko azterketa	142
2.5.2	Delitu-jardueraren adierazleak: aurreintzidentzia, intzidentzia anitza, berrerortzea eta delitua errepikatzea.....	144
2.5.3	Arau-hausteetan behin edo behin baino gehiagotan berrerori diren adingabeen profila.....	148
2.5.4	Zaintzapeko askatasuneko neurriari buruzko azterketa	149
2.5.5	Gizarte- eta hezkuntza-zereginen neurriari buruzko azterketa	156
2.5.6	Barneratzeko neurriari buruzko azterketa	164
2.5.7	Neurrien aldaketei buruzko azterketa.....	169
2.6	5. kapitulua: Laburpena eta ondorioak	174



2.6.1	Kanpo-informazioaren 1. iturriaren ondorioak: Estatuko Fiskaltza Nagusia	174
2.6.2	Kanpo-informazioaren 2. iturriaren ondorioak: Estatistikako Institutu Nazionala	174
2.6.3	Kanpo-informazioaren 3. iturriaren ondorioak: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia	175
2.6.4	Justizia Sailburuordetzaren ondorioak.....	175
2.6.5	Neurriak betearazteko baliabideei buruzko ondorioak: Egoitza-zerbitzuak, zerbitzuak ingurune irekian eta baliabide ekonomikoak.	177
2.6.6	Sail bakoitzaren helburu espezifikoetako buruzko ondorioak.....	178
2.7	Atal ekonomikoa.....	179
2.7.1	Talde psikosozialen gastuak	179
2.7.2	Ingurune irekiko programa eta zerbitzuetako gastuak	180
2.7.3	Gazte Justiziako hezkuntza-zentroetako gastuak	182
2.7.4	Gazte Justiziako hezkuntza-zentroetako segurtasun-gastuak.....	185
3.	2019KO NEURRIEN ESKARIAREN MEMORIA.....	186
3.1	Sarrera.....	186
3.2	Justizia Zuzendaritzako datu orokorrak.....	186
3.2.1	Alderdi orokorrak.....	186
3.2.2	Kautela-neurriak	191
3.2.3	Neurri irmoak	191
3.2.4	Neurri irmoen eskaria, “jaioterria” aldagaiaren arabera.....	193
3.2.5	Neurri irmoen eskaria, “delitu-egitateak” aldagaiaren arabera.....	193
3.2.6	EAEko eta beste autonomia-erkidego batzuetako neurri irmoen eskaria... ..	194
3.3	Delitu-egitateak	197
3.3.1	Neurri irmoa jaso duten delitu-egitateak.....	197



3.3.2	Neurri irmoak jaso dituzten delitu-egitateak, “sexua” aldagaiaren arabera	199
3.3.3	Neurri irmoak jaso dituzte delitu-egitateak “jaioterrria” aldagaiaren arabera	199
3.4	Adingabe arau-hausleak.....	200
3.4.1	Delitu-jarduera	200
3.4.2	Profil psikosoziala	202
3.5	Neurriak betearazteko baliabideak: Egoitza-zerbitzuak eta ingurune irekiko zerbitzuak.	206
3.5.1	Egoitza-zerbitzuak	206
3.5.2	Ingurune irekiko zerbitzuak.....	209
3.6	Ondorioak	211
4.6.1	Neurri irmoak eta kautelazkoak: Alderdi orokorrak	211
4.6.2	Adingabe arau-hausleak.....	212
4.6.3	Neurriak betearazteko baliabideak: Hezkuntza-zentroak	213
4.6.4	Neurriak betearazteko baliabideak: Ingurune irekiko zerbitzuak	213
5	EAE-KO GAZTE JUSTIZIAREN JOERAK.....	214
6	JAURLARITZAREN PROGRAMAN SARTZEA.....	216
7	GAZTE JUSTIZIAREN PRINTZPIOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN	220
7.1	Zigor-erantzukizuneko eredia: izaera zehatzaile-hezitzailea.....	222
7.2	Sistema berme-emailea: eskubide guztiak zorrotz baino zorrotzago errespetatzea	224
7.3	Erantzukizuna hartzea	224
7.4	Behar den gutxienerako esku-hartzea	225
7.5	Goi-mailako interesa: banakako egokitzapena	227
7.6	Erkidegoaren ikuspegiaren normalizazioa	228
8.	ILDO ESTRATEGIKOAK	229



8.1	Prebentzioa	229
8.2	Sailartekotasuna eta erakundeen arteko lankidetzaz	230
8.3	Esku-hartzearen kalitatea: ebidentzian oinarritutako tratamendu-programak	230
8.4	Erantzukizun publikoa eta kudeaketa-eredu mistoa.....	231
9.	HELBURU OROKORRAK.....	233
10.	SAILEN ARABERAKO HELBURUAK.....	234
10.1	Segurtasun Saila	234
10.1.1	Helburuak	234
10.1.2	Funtzionamendu-jarduerak, aldia eta ebaluazioa.....	234
10.1.3	Hobekuntza-ekintzak, aldia eta betearazpen-adierazleak	234
10.2	Osasun Saila.....	235
10.2.1	Helburuak	235
10.2.2	Funtzionamendu-jarduerak, aldia eta ebaluazioa.....	236
10.2.3	Hobekuntza-ekintzak, aldia eta betearazpen-adierazleak	237
10.3	Hezkuntza Saila	238
10.3.1	Helburuak	238
10.3.2	Funtzionamendu-jarduerak, aldia eta ebaluazioa.....	238
10.3.3	Hobekuntza-ekintzak, aldia eta betearazpen-adierazleak	239
10.4	Lan eta Enplegu Saila	239
10.4.1	Helburuak	239
10.4.2	Funtzionamendu-jarduerak, aldia eta ebaluazioa.....	239
10.4.3	Hobekuntza-ekintzak, aldia eta betearazpen-adierazleak	240
10.5	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.....	240
10.5.1	Helburuak	240
10.5.2	Justizia Administrazioako Zuzendaritzaren funtzionamendu-jarduerak, aldia eta ebaluazioa	241



10.5.3	Justizia Administrazioiko Zuzendaritzaren hobekuntza-ekintzak, aldia eta betearazpen-adierazleak.....	242
10.5.4	Justizia Zuzendaritzaren funtzionamendu-jarduerak, aldia eta ebaluazioa	244
10.5.5	Justizia Zuzendaritzaren hobekuntza-ekintzak, aldia eta ebaluazio-adierazleak.....	244
10.5.6	Giza Eskubide eta Bizikidetzaren Zuzendaritzaren ekintzak, aldia eta ebaluazioa	248
11.	KUDEAKETA EREDUA.....	249
11.1	Zuzendaritza koordinatzailea: Justizia Zuzendaritza	249
11.2	Gazte Justiziaren V. Planaren (2020-2024) ebaluazioa.....	249
12.	AURREIKUSPEN EKONOMIKO OROKORRAK (2020-2024)	252
12.1	Talde psikosozialen gastuak	252
12.2	Ingurune irekiko programa eta zerbitzuetako gastuak	253
12.3	Gazte Justiziako hezkuntza-zentroetako gastuak	255
12.4	Gazte Justiziako hezkuntza-zentroetako segurtasun-gastuak.....	256
13.	GIZA BALIABIDEAK: ZENTROAK ETA ZERBITZUAK.....	258
13.1	Ingurune irekiko zerbitzuak/programak: profesionalak.....	258
13.2	Hezkuntza-zentroak: profesionalak	259



AURKEZPENA

2020-2024 aldirako Gazte Justiziako V. Plan hau 2021eko martxoaren 12an onartu zen. Ondoren, 2021eko martxoaren 16an, Gobernu Kontseiluak aztertu zuen, eta Eusko Legebiltzarrari jakinarazi zitzaion.

Duela gutxi, ehun urte bete ziren Bilbon adingabeen tutoretzako lehen auzitegia sortu zenetik. Gertaera hura aurrerapen nabarmena izan zen adingabeak babesteko orduan, adingabe horien epaketak ohiko jurisdikziotik atera zituelako eta gazteen zigorrari izaera hezitzailea eman ziolako.

Lehen ahalegin horiei jarraikiz, denboraren poderioz, gazte-justiziako sistema modernoa eratu zen. Hartara, tutoretzan, ikerketan eta paternalismoan oinarritutako ereduko hutsuneak gainditu nahi izan ziren, ez baitzen bereizketarik egiten akusazioaren eta erabakiaren artean, ez eta jurisdikzioaren eta asistentziaren artean ere. Tutoretzako eredu hartan, adingabeei ezin zitzaien zigor-arloko kargurik egotzi, baina bai, ordea, gizartean egokitzeko neurriak. Hala ere, ez zitzaizkien helduen zigorzuzenbideko berezko bermeak aitortzen.

Tutoretzan oinarritutako ikuspegi hori gainditu egin zen nazioarteko hainbat tresnak 4D izenekoan aldeko apustua egin zutenean: due process edo bidezko prozesua, diskriminalizazioa, desjudizializazioa eta desinstituzionalizazioa. Halaxe finkatu zen gure antolamenduan, adingabeen zigor-erantzukizuna arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren bidez, 14 urtetik gorako eta 18 urtetik beherako adingabeek egin zituzten delitu-egitatei erantzukizunean eta hezkuntzan oinarritutako erantzun bat emateko asmoz. Justizia-eredu horrek, 2006ko erreforma gogortu arren, aurre egin die ordainsarietako eta prebentzio orokorreko alderdietan fokua jartzen duten korronteen arteko talkei. Halaber, eredu hori indartu egin da, zigor-prozesuetako susmagarri edo akusatu adingabeen prozesu-bermei buruzko 2016ko maiatzaren 11ko 800/2016 Zuzentaraua barne-zuzenbidera sartzean.

Gazte-justiziako eredu honek jurisdikzio espezializatua bultzatzen du, akusazioa, aukera, gutxieneko esku-hartzea, proportzionaltasuna eta adingabeen interes gorena bezalako printzipioetan oinarrituta. Eredu horretan, helduen zigor-justiziaren pareko



eskubide eta bermeak ematen zaizkie adingabeei, gutxienez. Halaxe egiten da, gainera, adingabeen fiskaltzak zeregin garrantzitsua bete ahala.

Horrenbestez, adingabe arau-hausleei ezarritako neurriak betetzeko prozedura kudeatzen duen gazte-justiziako euskal ereduak honako ezaugarri hauek ditu: neurrien izaera zigortzaile-hezitzailea, eskubide guztiekiko errespetu zorrotza, erantzukizuna, beharrezko gutxieneko esku-hartzea, banakako egokitzapena eta erkidego-ikuspegia.

Nerabezaroa bizitzako etapa esanguratsua da, aldaketa ugari sortzen baitira emozioetan, gizarte-loturetan, familietan, prestakuntzan eta abar. Aldaketa horiek askotan gatazkak sortzen dituzte inguruarekin eta helduen munduarekin, eta, zenbaitetan, legearen aurkako gertaerak eragin ditzakete.

Nahiz eta jarrera bihurriak, arau-hausleak edo urratzaileak nerabezaroarekin edo gaztaroarekin lotuta egon ohi diren, Epaitegietatik pasatzen diren eta erantzun zigortzaile-hezitzailearen bat jasotzen duten adingabeak gutxiengoa dira. Legearekin izaten diren gatazka gehienak neurri judizialak jarri behar izanik gabe ebazten dira, garrantzi gutxikoak direlako edo konponketa-bide informala goetan ebazten direlako.

Neurri zigortzaile-hezitzaile bat jartzen direneko kasuak gutxiengoa dira. Normalean, bilakaera-prozesuetan eta zaurgarritasun handiko egoeretan dauden nerabeei lotuta egoten dira, familia desegituratuak, eskolaratze baxua, gizarte-gaitasun urriak eta bestelako hutsune batzuk tarteko. Hala ere, pertsona horiek badituzte beste gaitasun eta ahalmen batzuk, tratamendu hezitzailearen bidez aztertu eta sustatu behar direnak.

Horrek ez du zertan esan gazte-justizia izan behar denik haur eta nerabeak babestu eta haiei arreta eskaintzeko sistemaren balizko defiziten hartzailea eta zuzentzailea.

Aitzitik, beharrezkoa da prebentzioaren gaineko ahaleginak bikoiztea, bai hezkuntzaren eremutik, bai familiatik eta osasunetik, eta, batez ere, familien, hezkuntzaren eta laneratzeko eta gizarteratzeko laguntzaren gainean. Guztia, betiere, oro har adingabeekiko prebentzio-ikuspuntu batetik begiratuta, baita babesgabetasun-edo arrisku-egoeran dauden adingabeekiko edo portaera arau-hauslea dela-eta jada zehazpen bat jaso duten adingabeekiko ere.

Gazte-justiziako azken bi planak aplikatzean, zentroen, baliabide materialen eta giza baliabideen sarea eta funtzionamendu-eredua finkatu ahal izan dira, egungo



beharrizanen eta aurreikuspenen arabera. Era berean, hezkuntza-kalitatea igo da, sailen eta erakundeen artean koordinazio hobea ezarri da, eta esku-hartzea neurriak betearazteko prozesuan sartu da. Horretarako, prebentziozko orientazioa aplikatu da sail guztien jarduera-eremuetan, baldin eta horien politikak loturarik badute haurren, nerabeen, eta, oro har, gazteen gainean.

Azken hamarkadetan zehar antzeman ahal izan denez, apurka-apurka jaitsi egin da gazteen delinkuentzia. Halaber, azken urteetan, oro har, egindako arau-hausteen kopuruak joera nahiko egonkorrari eutsi dio eta neurrien eskariak apur bat igo dira.

Gazte-justiziaren sistemaren funtzionamenduak halako gertaeren bilakaeran duen eragina zehaztea ausartegia izan daitekeen arren, hezkuntza-arloan egiten ari den lana eraginkorra izaten ari dela baieztatu genezake, aldaketa nabarmenak egiaztatu baitira adingabeen jarreran. Berrerortzeari gagozkiola, neurri judiziala amaitu ondoren berrerortze globaleko tasa % 20 baino baxuagoa da.

Badaude beste datu esanguratsu batzuk ere: eremu irekiko esku-hartzeen eredia finkatu egin da, neurri irmoen aldean kontziliazio eta konponketarako prozesuen ehuneko garrantzitsu bat finkatu da (10etik 3), eta beste erakunde batzuen jardueren eragina izan dute gazte-justiziako prozesuetan (hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, enplegua, osasuna, atzerriartasuna...).

Gazte Justiziako V. Planak (2020-2024) honako helburu hauek ditu: adingabeen epaitegien ebazpenak garaiz betearaztea; kontziliazio eta erreparazioarako programetarako sarbidea erraztea eta erantzuna pertsona bakoitzaren arabera egokitzea, eskariari jarraikiz egokitzen diren programan bidez; adingabeen arau-haustek prebenitzea eta murriztea; gazte-justizian parte hartzen duten agenteei prestakuntza ematea; informazioa biltzeko sistema hobetzea, eta gazte-justiziako sistemaren mekanismoak ebaluatzea.

Haur, nerabe eta gazteengan eragina duten erakunde eta agente guztien arreta osoa eta koordinatua da Plan honen gakoetako bat.

Hori dela eta, helburu orokorrez gain, sailen arabera beste helburu batzuk ere badaude, 60 ekinbide baino gehiagotan banakatuta, Eusko Jaurlaritzako honako sail hauek inplikatzeko dituztenak: Segurtasuna; Osasuna; Lana eta Enplegua; Hezkuntza eta



Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak, azken horri dagokiolarik planaren kudeaketa gidatu eta dinamizatzea.

Neurri horien arabera, hurrekin eta nerabeekin nahiz haurrentzat eta nerabeentzat lan egiten duten eremu instituzionaletan prebentzioa landu beharra dago, bai hezkuntza-eremutik, bai familiaratik edo osasunetik, bai eta familiaren, hezkuntzaren eta gizarteratzeko nahiz laneratzeko laguntzaren gainean ere. Guztia, betiere, oro har adingabeekiko prebentzio-ikuspuntuko batetik begiratuta, baita babesgabetasun- edo arrisku-egoeran dauden adingabeekiko edo portaera arau-hauslea dela-eta jada zehazpen bat jaso duten adingabeekiko ere.

Gainera, Gobernu honen konpromiso eta ekinbideetako askok eragin zuzena dute gazte-justiziak arrakasta izan dezan. Horren adibide dira gazte-enpleguko eta lanbide-heziketako planak, gizarteratzeko eta gizarte-zerbitzuetako planak, etxebizitza eskuratzeko, osasuneko eta genero-indarkeriaren aurka egiteko planak eta beste batzuk.

Bestalde, Gazte Justiziako V. Planak adingabeen jurisdikzioan bitartekaritza-prozesuen aldeko bultzada eta apustua indartzen du neurri irmoen ordez.

Era berean, adingabeen zerbitzuentzako erantzukizun publiko eta kudeaketa mistoko egungo ereduari eusten dio, titulartasun eta kudeaketa publikoko zerbitzuen gune batekin, hirugarren sektorea titulartasun publikoko zerbitzu jakin batzuetan itundurik eta beharrezkoak diren beste zerbitzu batzuen laguntzaz.

Azken batean, gure asmoa da plan hau tresna ezin hobea bihur dadila gizarte-alarmak desaktibatzen, aniztasunari balioa emateko, estereotipoak gainditzeko, eta, zelan ez, tolerantzian aurrera egiteko.



O. SARRERA

2020-2024 aldirako Gazte Justiziaren V. Plan hau (behin-behineko agiria) bosgarren plana da, Eusko Jaurlaritzak 1996. urtean adingabe arau-hausleak gizarteratzeko eskuduntza hartu zuenetik.

Plan honek argi eta garbi jarraitzen du lehen ere 2014-2018ko IV. Planean zehazten zen zeharkakotasunaren joera. Hala, ezartzen diren lerro estrategiko, helburu eta ekintzen garapenak berariaz konprometitzen eta lotzen ditu adingabeekin zerikusia duten gaietan eskumena duten Eusko Jaurlaritzako hainbat sail, hala nola Segurtasun Saila, Lan eta Enplegu Saila, Hezkuntza Saila, Osasun Saila eta, jakina, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. Hau da, horiek guztiak lotzen dituen elementua da plana.

2020-2024ko V. Plana Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailaren 2014-2018ko IV. Planaren Ebaluazioaren ondorio nagusietatik sortu da. Ebaluazio hori Euskal Herriko Unibertsitateak egin berri du, erakunde publikoa eta Eusko Jaurlaritzatik kanpokoa bera. Horrez gain, kontuan hartu dira gure ingururik hurbilenean gazte-justiziaren arloan antzeman eta egiaztatu diren joerak, bai eta gainerako erkidegoetan eta urrunagoko beste errealitate batzuetan antzeman eta egiaztatutakoak ere, elkarlanean egindako nazioarteko ikerketa-lanen, jarduera-memorien, nazioarteko kongresu eta foroetako partaidetzaren eta abarren bidez.

Hauek dira 2020-2024ko V. Plana egituratzen duten hamar atalak:

Lehenik eta behin, gazte-justiziarekin eta gizarte-arriskuan dauden adingabeekin zuzenean lotutako nazioarteko, estatuko eta autonomia-erkidegoetako arau-tresna nagusiak hautatu eta aurkeztu dira, hau da, 2020-2024ko V. Planaren, eta, azken batean, EAEn arau-hausle adingabeekin egiten diren ekintza guztien ardatz diren oinarritzko erregelamenduak.

Ondoren, 2014-2018ko Gazte Justiziaren IV. Planaren ebaluazioaren laburpena aurkeztu da, funtsezko elementua baita datozen urteetan gure inguruko gazte-justiziaren arloaren lan-ildoak zehazteko.



Horrelako plan batean, beharrezkoa da gaia Eusko Jaurlaritzaren plangintza orokorrean txertatuta egotea, bai eta EAEko gazte-justiziaren printzipio eta ildo estrategikoak ezartzea ere. Izan ere, ezinbesteko elementuak dira 2020-2024ko V. Plana egiteko prozesuan.

Beste atal handi bat plan honetan inplikaturako sail bakoitzeko helburu orokorrei eta helburu espezifikoei buruzkoa da. Era berean, funtzionamendu-jarduera eta hobekuntza-ekintza batzuk aurkeztu dira, guztiak ere gauzatze-egutegi baten inguruan egituratuta, berariaz ebaluatu behar diren kontzeptuak baitira.

Azkenik, plan honen kudeaketa-eredua zehaztu da, aurreikuspen ekonomikoen, giza baliabideen eta baliabide materialen atalekin batera, garrantzi berezia emanik plan honen kanpo-ebaluazio publikoari.



1. GAZTE-JUSTIZIAREN ARLOKO TRESNAK: NAZIOARTEA, ESPAINIAKO ESTATUA ETA EAE

Adingabe arau-hausleei buruzko nazioarteko, estatuko eta autonomia-erkidegoetako tresna ugari daude. Hori dela eta, oso garrantzitsua da gazte-justiziari buruzko politikaren plangintzan horien guztien edukia kontuan hartzea.

Atal honetan, EAEko Gazte Justiziaren V. Planaren (2020-2024) oinarrian dauden nazioarteko, estatuko eta autonomia-erkidegoko araudi nagusien ikuspegi laburtua azaltzen da.

1.1 Nazio Batuen tresna nagusiak

1.1.1 Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala

Giza eskubideen historian mugarrria izan zen Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala. Munduko eskualde guztietako ordezkariak egin zuten, aurrekari juridiko eta kultural desberdinak izanik, eta Nazio Batuen Biltzar Nagusian aldarrikatu zuten, Parisen, 1948ko abenduaren 10ean. Herri eta nazio guztiek ideal bateratua edukitzea izan zen xedea. Aldarrikapenak lehen aldiz ezarri zuen zeintzuk ziren mundu osoan babestu beharreko oinarritzko giza eskubideak. Jorratzen ari garen gaiarekin lotuta, nabarmentzekoak dira honako hauek: 10. artikulua, *“Pertsona orok eskubidea du, berdintasun osoan, auzitegi burujabe eta alderdikierarik gabean jendaurrean hitz egin eta zuzentasunez entzun diezaioten, nahiz bere eskubide eta betebeharrak erabakitzeko, nahiz bere aurkako salaketa penalak aztertzeko*; 11.1. artikulua, *“Delituagatik salatutakoak eskubidea du errugabetzat jo dezaten, errudun dela legez eta jendaurreko epaiketan frogatzen ez den bitartean. Epaiketan bere burua zaintzeko berme guztiak ziurtatuko zaizkio”*; 11.2. artikulua, *“Egintzak edo behar-uzteak izandakoan, herrialdeko edo nazioarteko legeriaren arabera delitu ez baziren, ezingo da inor kondenatu. Delitua egitean ezargarri den zigorra baino larriagorik ere ezingo zaio jarri.”*; eta, azkenik, 25.2. artikulua, *“Amek eta haurrek laguntza bereziak jasotzeko eskubidea dute. Haur guztiek, senar-emazteengandik nahiz ezkontzatik kanpo jaiotakoek, gizartearen babes berbera izateko eskubidea dute”*.

1.1.2 Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmena

1959an, Nazio Batuek Haurren Eskubideei buruzko Aldarrikapena onartu zuten. Bertan, hamar printzipio jasotzen ziren. Legez, Aldarrikapen hori ez zen nahitaezkoa,



eta, beraz, ez zen nahikoa haurren eskubideak babesteko. Mundu osoko gobernuekin, GKEekin, buruzagi erlijiosoekin eta beste erakunde batzuekin urte luzez negoziatu ondoren, 1989ko azaroaren 20an onartu zen Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren azken testua. Haurren eskubideak jasotzen dituen nazioarteko tratatu bat da, 195 estatu sinatzaileek nahitaez bete beharrekoa (besteak beste, Espainiak, 1990eko azaroaren 30ean sinatu baitzuen). Herrialde horiek Hitzarmenean ezarritakoa aplikatzeko hartu dituzten urratsei buruzko informazioa ematen diote Haurren Eskubideen Batzordeari (haurren eskubideetan adituak diren 18 pertsonak osatzen dute, herrialde eta ordenamendu juridiko desberdinetatik datozenak)¹.

Hitzarmena osatzen duten 54 artikuluek haur guztien (18 urtetik beherako gizakiak) eskubide ekonomiko, sozial, kultural, zibil eta politikoak jasotzen dituzte, eta garapen fisiko, mental eta sozial osorako eskubidea eta beren iritziak askatasunez adierazteko eskubidea duten norbanako gisa aitortzen dituzte adingabeok. Gobernuek nahitaez aplikatu behar dute Hitzarmena, baina beste eragile batzuek dituzten betebeharrak eta erantzukizunak ere zehazten ditu: gurasoek, osasun-arloko profesionalek, ikertzaileek eta haurrek dituztenak, hain zuzen ere.

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak hura osatzen duten hiru protokolo ditu: haurren salmentari eta haur-prostituzioari buruzkoa; haurrek gatazka armatuetan parte hartzeari buruzkoa, eta Haurren Eskubideen Batzordean salaketak aurkezteko komunikazio-prozedura bati buruzkoa.

Hizpide dugun eremuan², baieztapen bat nabarmentzen da: haurraren interes gorena kontuan hartzea funtsezkoa izan behar da adingabeei buruzko esku-hartze administratibo edo judiziala dela-eta arreta ematean (3. artikulua). Gainera, Hitzarmenak:

- Adingabe orok torturarik edo bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarririk ez jasateko duen eskubidea aldarrikatzen du.

¹ Informazio gehiago hemen: www.unicef.es

² Informazio gehiago hemen:
http://cvb.ehu.es/open_course_ware/castellano/social_juri/menores/ciencias-sociales-y-juridicas/menores-infractores-y-sistema-penal/derecho-penal-menoresocw-2010.pdf



- Hemezortzi urtetik beherakoek egindako delituengatik heriotza-zigorra eta biziarteko espetxealdia (espetxetik ateratzeko aukerarik gabe) ezartzea debekatzen du.
- Haurrak legez kanpo edo arbitrarioki askatasunik gabe ez uzteko eskatzen du; atxiloketa, espetxeratzea edo kartzela legearen arabera egin behar da, eta azken neurri gisa baino ez da erabiliko, dagokion eperik laburrenean.
- Askatasunaz gabetutako haur oro gizakiari datxekion duintasunak merezi duen gizatasunarekin eta errespetuarekin tratatua izan dadila ezartzen du, bere adineko pertsonen beharrak kontuan hartuta; bereziki, askatasunaz gabetutako haur oro helduengandik bananduta egongo da, hori bere interes gorenaren aurkakotzat jotzen ez bada, eta bere familiarekin harremanetan egoteko eskubidea izango du, korrespondentzia eta bisiten bidez, salbuespenezko egoeretan izan ezik.
- Adierazten du, halaber, askatasunaz gabetutako adingabe orok eskubidea izango duela laguntza juridikoa eta bestelako laguntza egokia laster eskuratzeko, bai eta askatasunaz gabetzearen legezkotasuna auzitegi edo beste agintaritza eskudun, independente eta inpartzial baten aurrean aurkaratzeko eta ekintza horri buruzko berehalako erabakia hartzeko ere.

Hitzarmenaren 40. artikulua honako hau arautzen du: "Lege penalak haustea leporatzen zaion haur orok duen eskubidea, edo lege horiek hautsi izanaz akusatzen denak edo errudun deklaritzen denak duen eskubidea, bere duintasunaren eta balioaren zentzuaren sustapenarekin bat etorriz tratatua izateko; hala, haurrak hirugarrenen giza eskubideekiko eta oinarritzko askatasunekiko duen errespetua indartu beharko da, eta kontuan hartu beharko dira haurren adina eta haurren birgizarteratze eraikitzailea sustatzearen garrantzia, azken horrek gizartean funtzio eraikitzailea izan dezan".

Adingabeen gaineko esku-hartze judizialari dagokionez (gutxieneko esku-hartzearen eta subsidiaritatearen printzipioan oinarritu behar da), Hitzarmenaren 40.



artikuluak bete-betean aitortzen du prozesu egokirako eskubidea. Horren arabera (40.2 b artikulua):

“Lege penalak hautsi dituela leporatzen zaion haur orori edo lege horiek hautsi izana leporatzen zaionari, gutxienez, honako hau bermatzea:

- *Errugabetzat joko dela, legearen arabera erruduna dela frogatzen ez den bitartean;*
- *Berandutu gabe eta zuzenean edo, bidezkoa denean, bere gurasoen edo legezko ordezkarien bitartez, bere aurka dituen karguen berri emango zaiola, eta laguntza juridikoa edo bestelako laguntza egokia izango duela bere defentsa prestatu eta aurkezteko;*
- *Agintari edo organo judizial eskudun, independente eta inpartzial batek atzerapenik gabe ebatziko duela auzia, legearen arabera bidezko entzunaldi batean, aholkulari juridiko edo bestelako aholkulari egoki baten aurrean, eta hori haurraren interes gorenaren aurkakoa dela uste denean izan ezik, haren adina edo egoera eta gurasoak edo legezko ordezkariak bereziki kontuan hartuta;*
- *Ez dela behartuta egongo lekukotza ematera edo bere burua erruduntzat jotzera; galdeketa egin ahal izango duela edo karguko lekukoak galdekarazi ahal izango dituela, eta deskarguko lekukoaren parte-hartzea eta galdeketa berdintasun-baldintzetan lortu ahal izango dituela;*
- *Uste bada zigor-legeak hautsi dituela, erabaki hori eta horren ondorioz ezarritako neurri oro agintari edo goragoko organo judizial eskudun, independente eta inpartzial baten mende jarriko direla, legearen arabera;*
- *Haurrak interprete baten doako laguntza izango duela, erabilitako hizkuntza ulertzen edo hitz egiten ez badu;*
- *Bizitza pribatua erabat errespetatuko dela prozeduraren fase guztietan.”*

Era berean, Hitzarmenak erabateko izaera ematen dio zigor-arloko gutxieneko esku-hartzeari, eta hori, gutxienez, lau alderditan islatu behar da (40.3. eta 4. artikulua):

- oro har, helduen sistema aplikatzean, haur arau-hausleentzat "lege, prozedura, agintari eta erakunde espezifikoak" ezarriz;

- bereziki,



* alde batetik, prozedura judizialetara jotzeko errekurtsioan; ahal den neurrian saihestu behar baita, baina legezko bermeei eta giza eskubideei inolako kalterik eragin gabe,

* era berean, erantzukizun penala eskatzean; horretarako, estatuei agintzen zaie "gutxieneko adin bat ezartzea, zeinaren aurretik hurrek lege penalak hausteko gaitasunik ez dutela ulertuko baita";

- barneratze-neurrietan; Hitzarmenean aitortutako helburu da (40.4. artikulua) erabaki-organoek "erakundeetan barneratzearen ordezkoko aukera alternatibo" ugari izango dituztela ziurtatzea, hala nola "zaintza, orientazio- eta gainbegiratze-aginduak, aholkularitza, zaintzapeko askatasuna, zaintza-etxeak, irakaskuntzako eta lanbide-heziketako programak" edo beste batzuk. Halaxe egingo da, hain zuzen ere, "haurrak beren ongizaterako modu egokian tratatuak izango direla ziurtatzeko" eta ezarritako neurria "inguruabarrekin eta arau-haustearekin proportzionala" dela ziurtatzeko."

1.1.3 Gutxieneko Arauak Adingabeen Justiziaren Administrazioarako (Beijingeko Arauak)

Nazio Batuen Gutxieneko Arauak Adingabeen Justiziaren Administrazioarako (Beijingeko Arauak) Biltzar Nagusiek hartu zituzten 1985eko azaroaren 29ko 40/33 Ebazpenaren bidez, Zazpigarren Kongresuak hala gomendatuta. Aurretik, Seigarren Kongresuak, Nazio Batuetako Krimenaren Prebentzioarako eta Kontrolerako Batzordeak, 4. Ebazpenean, arau horiek garatzen lagundu zuen, eskualdeko eta eskualdeen arteko Nazio Batuen erakundeekin lankidetzan. Arau horiek sakonago landu zituen 1984an Beijingen, Txinan, "Gazteria, Krimena eta Justizia"ri buruzko Zazpigarren Kongresurako eskualdeen arteko prestatze-bilerak.

Arauek nazio-mailako esparruak eta legezko egiturak dituzte kontuan, gazte-justiziaren helburuak eta izaera islatzen dituzte, eta printzipio egokiak eta gazteentzako justizia-administrazioarako praktikak azaltzen dituzte. Nazioartean onartutako gutxieneko baldintzak erakusten dituzte, legearekin gatazkan dauden gazteak tratatzeko. Beijingeko Arauen arabera, gazte-justiziaren helburuak dira gaztearen ongizatea sustatzea eta gazte delitugileentzako edozein erantzun beti gaztearen eta delituaren egoerekin proportzioan egongo dela ziurtatzea. Arauetan, gazte-justiziaren faseak betetzen dituzten neurri bereziak aurreikusten dira. Era



berean, erakunde batean sartzea azken baliabide gisa erabiltzeko azpimarratzen dute, eta ahalik eta eperik laburrenerako.

Arau horien arabera, adingabea da, dagokion sistema juridikoari jarraikiz, heldu baten zigorraren bestelakoa jaso dezakeen umea edo gaztea. Delitua da legez, dagokion sistema juridikoaren arabera, zigortzen den edozein jokabide (ekintza edo ez-egitea), eta adingabe delitugilea da delitua egin izanaren egozpena jaso duen edo delitu bat egin izanagatik errudunaren egozpena jaso duen edozein ume edo gazte.

Zigor-arloko adin-nagusitasuna zehaztean, adingabeei dagokienez, zigor-arloko adin-nagusitasunaren kontzeptua onartzen duten sistema juridikoetan, muga horren hasiera ez da oso adin goiztiarrean ezarri behar, kontuan hartuta heldutasun emozionalarekin, mentalarekin eta intelektualarekin batera datozen gertakariak. Zigor-erantzukizunaren ondorioetarako gutxieneko adina aldatu egiten da, nabarmen, alderdi historiko eta kulturalen arabera. Ikuspegi modernoa da aztertzea ea umeek zigor-erantzukizuneko elementu moralak eta psikologikoak berenganatuta dituzten; alegia, aztertzea umea, bereizketa eta ulermen indibidualen arabera, funtsean antisoziala den jokabide baten arduraduntzat hartu ahal den. Zigor-arloko adin-nagusitasuna adin goiztiarrean ezartzen bada edo gutxieneko adinik ezartzen ez bada, erantzukizunaren kontzeptuak zentzua galduko du. Oro har, harreman estua dago delitu- edo krimen-jokabidearen ondoriozko erantzukizunaren kontzeptuaren eta beste eskubide eta erantzukizun sozial batzuen artean (besteak beste, egoera zibila, adin-nagusitasuna ondorio zibiletarako etab.). Ondorioz, ahalegina egin behar da nazioarte-mailan aplikatzekoa den arrazoizko gutxieneko adina hitzartzeko.

1.1.4 Gazte Delinkuentziaren Prebentziorako Nazio Batuen 1989ko Zuzentarauak (Riadeko Zuzentarauak)

Prestatze-jarduera batzuen ondoren, Zortzigarren Kongresuak Nazio Batuen Batzar Nagusiari gomendatu zion gazte-delinkuentziaren prebentziorako Nazio Batuen Zuzentarauak hartzeko. Batzar Nagusiak Zuzentaru horiek 1990eko abenduaren 14ko 45/112 Ebazpenean hartu zituen.

Laburbilduz, zuzentaruetan jasotzen diren puntu hauek nabarmenduko genituzke:



- Gazte-delinkuentziaren prebentzioa funtsezkoa da gizarteko delituaren prebentzian. Gazteak legezko eta sozialki baliagarri diren jardueretan aritu eta gizarterantz bideratzen badira, eta bizitza irizpide humanistez aztertzen badute, krimenarekin zerikusirik ez duten jarrerak berengana ditzakete.
- Gazte-delinkuentzia modu eraginkorrean prebenitu ahal izateko, gizarte osoak ahalegindu behar du nerabeen garapen orekatua lortzen eta haien nortasuna haurtzarotik errespetatu eta zaintzen.
- Honako Zuzentarau hauen interpretazio-xedeetarako, arreta haurrarengan jarri behar da. Gazteek eginkizun eraginkor eta parte-hartzailea bete behar dute gizartean, eta ez da pentsatu behar sozializazio- edo kontrol-objektu hutsak direnik.

Honako Zuzentarau hauek aplikatzerakoan, herrialdeetako antolamendu juridikoen arabera, prebentzio-programek gazteen ongizatean jarri behar dute beren arreta haurtzaroko lehen urteetatik.

1.1.5 Nazio Batuen Gutxieneko Arauak askatasuna kendu zaien adingabeak babesteko (Habanako Arauak), 1990

Batzar Nagusiak 1990eko abenduaren 14ko 45/113 Ebazpenean hartu zituen arau horiek; horien helburua izan da askatasunaz gabetu diren adingabeak babesteko Nazio Batuek onetsitako gutxieneko arauak ezartzea, funtsezko giza eskubideekin eta askatasunekin bateragarriak, mota guztietako atxiloketaren ondorio kaltegarriei aurre egiteko eta gizarteratzea sustatzeko. Arauak erreferentziazko eredu praktikoa izateko eta adingabeen justizia-sistemaren administrazioan parte hartzen duten profesionalentzat eragingarriak izateko eta orientazioa emateko hartu dira. Adingabeen justizia-sistemak adingabeen eskubideak eta segurtasuna errespetatu beharko ditu, eta haien ongizate fisiko eta mentala sustatu.

Arauak inpartzialki aplikatu beharko zaizkie adingabe guztiei, inolako bereizkeriarik egin gabe arraza, kolore, sexu, adin, hizkuntza, erlijio, naziotasun, iritzi politiko edo bestelako iritzi, praktika edo sinesmen kultural, ondare, jaiotza, familia-egoera, jatorri etniko edo soziala edo ezgaitasuna direla eta. Erlijio- eta kultura-



sinesmenak errespetatu beharko dira, bai eta adingabeen praktika eta agindu moralak ere. Arauak adingabeen justiziako langileen eskura jarri beharko dira, haien hizkuntza nazionaletan. Agintari eskudunak jendea sentsibilizatzen saiatuko dira etengabe, atxilotuta dauden adingabeak zaintzea eta horiek gizartean berriz integratzeko prestatzea garrantzi handiko gizarte-zerbitzua dela jakin dezaten, eta, horretarako, neurri eraginkorrak hartu beharko dira adingabeen eta tokiko komunitatearen artean harreman irekiak sustatzeko.

Arauen irismenari eta aplikazioari dagokienez, honako definizio hauek aplikatu behar dira: a) Adingabetzat jotzen da 18 urtetik beherako pertsona oro. b) Askatasunaz gabetzea da atxilotzeko edo espetxeratzeko modu oro, bai eta establezimendu publiko edo pribatu batean barneratzea ere, baldin eta establezimendu horretatik adingabea ezin bada irten bere borondatez, edozein agintaritzak judizial, administratibo edo bestelako agintaritzak publikok aginduta. Askatasunaz gabetzeko prozesu hori, zehazki, adingabeen giza eskubideen errespetua bermatzen duten baldintza eta inguruabarretan egin beharko da. Zentroetan dauden adingabeei bermatu beharko zaie beren garapen osasuntsua sustatu eta ziurtatzeko balio duten jarduera eta programa erabilgarriez gozatzeko eskubidea. Euren izaeragatik askatasunik gabe dauden adingabeei ez zaizkie ukatu behar dagozkien eskubide zibil, ekonomiko, politiko, sozial edo kulturalak. Arauak estatu-kide bakoitzean nagusi diren baldintza ekonomiko, sozial eta kulturalen testuinguruan aplikatuko dira.

Atxilotuta edo prebentziozko espetxealdian dauden adingabeak errugabeak direla ulertuko da, eta hala tratatu beharko dira. Adingabeen auzitegiek eta ikerketa-organismoek lehentasun osoa eman beharko diote kasu horiek ahalik eta azkarren izapidetzeari, atxiloketa ahalik eta laburrena izan dadin. Epaiketaren zain dauden adingabeek errudun deklaratuakotatik bananduta egon beharko dute. Epaitu ez den adingabe bat atxilotzeko baldintzek honako arau hauek bete beharko dituzte: a) Adingabeek aholkularitza juridikorako eskubidea izango dute, eta doako laguntza juridikoa eskatu ahal izango dute. b) Ahal denean, adingabeei aukera eman beharko zaie ordaindutako lan bat egiteko eta beren ikasketak edo trebakuntza egiten jarraitzeko, baina ez dira hori egitera behartuta egongo. c) Adingabeek baimena izango dute



justizia-administrazioaren interesekin bateragarria den entretenimendu- eta jolas-materiala jaso eta gordetzeko.

Adingabeen zentroak administratzean, txosten guztiek (erregistro juridikoak eta medikoak barne), diziplina-jarduketan aktek eta tratamenduaren formarekin, edukiarekin eta datuekin zerikusia duten gainerako dokumentu guztiek espediente pertsonal eta konfidentzial bat osatu beharko dute. Espediente hori eguneratu egin beharko da, baimendutako pertsonentzat bakarrik egongo da eskuragarri, eta erraz ulertzeko moduan sailkatu beharko da. Ahal den guztietan, adingabe orok eskubidea izango du bere espedientearen agertzen den edozein egitate edo iritzi aurkaratzeko, hots, baieztapen zehaztugabeak, funsgabeak edo bidegabeak zuzendu ahal izateko. Eskubide hori baliatzeko, prozedurak ezarri beharko dira, hirugarren egoki batek espedientea ikusteko eta kontsultatzeko aukera izan dezan, hala eskatzen badu. Adingabe bat aske geratzen denean, bere espedientea itxi eta, behar den unean, suntsitu egingo da. Atxilotutako adingabeak dauden leku guztietan, onartutako adingabe bakoitzari buruzko informazio honen erregistro osoa eta fidagarria eraman beharko da: a) Adingabearen nortasunari buruzko datuak; b) Barneratzearen inguruabarrak, bai eta horretarako arrazoiak eta agindua zein agintaritzarekin eman den ere; c) Adingabearen barneratze, lekualdatze eta askatze bakoitza bere gurasoei edo barneratzearen unean haren tutore direnei jakinarazteko egintzaren zehaztasunak; d) Ezagutzen diren osasun fisiko eta mentaleko arazoei buruzko zehaztasunak, drogen eta alkoholaren erabilera desegokia barne. Barneratzeari, barneratze-lekuari, lekualdaketari eta askapenari buruzko informazioa berehala jakinarazi beharko zaie adingabearen guraso edo tutoreei edo ahaidetik hurbilenari. Barneratu ondoren, lehenbailehen prestatu eta zuzendaritzari aurkeztuko zaizkio adingabe bakoitzaren egoera pertsonalari eta inguruabarrei buruzko txosten osoak eta gainerako informazio egokia. Barneratzeko unean, adingabe guztiek atxiloketa-zentroan aplikatzen den erregelamenduaren kopia jaso beharko dute, bai eta beren eskubideen eta betebeharren idatzizko deskribapena ere, uler dezaketen hizkuntza batean. Adingabe guztiei honako hauek ulertzen lagundu beharko zaie: zentroaren barne-antolaketa arautzen duten erregelamenduak; emandako tratamenduaren helburuak eta metodologia; diziplina-eskakizunak eta -prozedurak; informazioa lortzeko eta kexak egiteko baimendutako beste metodo batzuk; eta barneratzean dituzten eskubideak eta betebeharrak behar bezala ulertzea



ahalbidetzen dien beste edozein gai. Adingabea onartu ondoren, ahalik eta lasterren egingo zaio elkarrizketa, eta txosten psikologiko eta sozial bat prestatuko da, adingabeak behar dituen tratamendu- eta programa-mota eta -maila zehatzei buruzko datuak jasoko dituena. Atxiloketa-zentro guztietan, adingabeek helduengandik bananduta egon beharko dute, familia berekoak izan ezean. Egoera kontrolatuetan, adingabeak arreta handiz hautatutako helduekin bildu ahal izango dira, programa berezi baten esparruan, baldin eta programa hori adingabe interesdunentzat erabilgarria dela frogatu bada. Adingabeen atxiloketa-zentro irekiak antolatu behar dira. Atxiloketa-zentro irekiak dira segurtasun-neurri urriak edo deusezak dituztenak. Askatasunaz gabetutako adingabeek eskubidea izango dute higienaren eta giza duintasunaren eskakizun guztiak betetzen dituzten lokalak eta zerbitzuak izateko. Adingabeen atxiloketa-zentroen diseinuak eta ingurune fisikoak haien xedeari erantzun beharko diote, hau da, barnetegi-tratamenduan dauden adingabeak birgaitzea izan beharko dute helburu, behar bezala kontuan hartuta adingabearen beharrak direla intimitatea, zentzumen-estimuluak, lankideekin elkartzeko aukerak eta aisialdiko jardueretan parte hartzeko aukerak. Adingabeen atxiloketa-zentroen diseinuak eta egiturak egokiak izan beharko dute sute-arriskua ahalik eta txikiena izan dadin, eta lokalen ebakuazio segurua bermatu behar dute. Suteen kasuan, alarma-sistema eraginkor bat egon beharko da, bai eta adingabeen segurtasuna bermatzeko ezarritako prozedurak eta alerta-sistemak ere. Atxiloketa-zentroak ez dira egongo osasunerako arrisku ezagunak dituzten guneetan edo beste arrisku batzuk dauden lekuetan. Normalean, talde txikientzako logelak edo banakako logelak izan behar dute lo egiteko lokalek, tokian tokiko arauak kontuan hartuta. Gauez, logela kolektiboetarako gune guztiak erregulartasunez eta diskretuki zaindu beharko dira, adingabe guztien babesari ziurtatzeko. Adingabe bakoitzak, tokiko edo estatuko erabileren arabera, oheko arropa nahikoa izango du. Arropa hori garbi entregatu beharko da, egoera onean mantendu beharko da, eta erregulartasunez aldatu beharko da, garbiketa-arrazoiengatik. Norberaren gauzak edukitzea intimitaterako eskubidearen funtsezko elementua da, eta ezinbestekoa da adingabearen ongizate psikologikorako. Aitortu eta errespetatu beharko da adingabe orok gauza pertsonalak izateko eta horiek gordetzeko leku seguruak izateko duen eskubidea. Ahal den neurrian, adingabeek beren jantziak erabiltzeko eskubidea izango dute. Atxiloketa-



zentroek zainduko dute adingabe guztiek badituztela klimarako egokiak diren arropa pertsonalak, osasun onean mantentzeko nahikoak direnak. Jantzi horiek ez dute inola ere iraingarri edo umiliagarriak izan behar. Atxiloketa-zentro guztiek bermatu behar dute adingabe guztiek ohiko orduetan behar bezala prestatutako eta zerbitzatutako elikadura dutela, kalitate eta kantitate egokian, dietetikaren, higienearen eta osasunaren arauak eta, ahal den neurrian, eskakizun erlijiosoak eta kulturalak betetzeko moduan. Derrigorrezko eskolatze-adinean dauden adingabe guztiek eskubidea izango dute beren behar eta gaitasunei egokitutako irakaskuntza jasotzeko, berriz gizarteratzeko prestakuntza eman dakien. Derrigorrezko eskolatze-adina gainditu duten eta ikasketak egiten jarraitu nahi duten adingabeei baimena eta adorea eman beharko zaie, eta ahal den guztia egin, irakaskuntza-programa egokiak eskura ditzaten. Atxilotuta egon diren aldian adingabeei emandako diplomak edo ikasketaziurtagiriek ez dute inola ere adierazi beharko adingabeak preso egon direnik. Adingabe orok izango du prestakuntza jasotzeko eskubidea, etorkizuneko enplegu baterako prestatuko duen lanbide batean jarduteko. Askatasunaz gabetutako adingabeei aplikatu beharko zaizkie haurren eta langile gazteen lanari aplikatzen zaizkien babes-arau guztiak, nazionalak eta nazioartekoak. Ahal den guztietan, adingabeei ordaindutako lan bat egiteko aukera eman beharko zaie, ahal bada toki-komunitatearen esparruan, emandako lanbide-heziketa osatzeko, enplegu bat aurkitzeko aukera handitze aldera. Adingabe guztiek egunero izan beharko dute aire zabalean ariketa fisikoak egiteko behar adina denbora, klimak horretarako aukera ematen badu; denbora horretan, normalean, jolas- eta gorputz-hezkuntza egokia emango da. Adingabe orori baimena eman beharko zaio bere erlijio-betebeharrak betetzeko eta bere beharrizan espiritualak asetzeko. Halaber, establezimenduan antolatutako zerbitzu edo bileretan parte hartzeko edo bere zerbitzu propioak egiteko aukera eman beharko zaio, eta bere esku izan beharko ditu bere konfesioko kultuko eta erlijio-irakaskuntzako liburuak edo objektuak. Adingabe guztiek jaso beharko dute arreta mediko egokia, bai prebentiboa bai zuzentzailea, horren barruan sartzen direlarik arreta odontologikoa, oftalmologikoa eta osasun mentalekoa, baita mediku batek errezetatutako farmazia-produktuak eta dieta bereziak ere. Adingabe orok eskubidea izango du, adingabeentzako zentro batean sartu eta berehala, mediku batek azter dezan, aurreko tratu txarren edozein froga agerrarazteko eta mediku-arreta



behar duen edozein egoera fisiko edo mental egiaztatzeko. Gaixotasun mental bat duen adingabe orok erakunde espezializatu batean jaso beharko du tratamendua, medikuak gainbegiratuta. Neurriak hartuko dira, erakunde eskudunekin bat etorritz, askapenaren ondoren behar den osasun mentaleko edozein tratamenduk jarrai dezan. Adingabeen atxiloketa-zentroek drogen erabilera desegokia prebenitzeko eta errehabilitazioa ahalbidetzeko programak antolatu beharko dituzte, langile kualifikatuek administratuta.

Programa horiek adinera, sexura eta interesa duten adingabeen beste inguruabar batzuetara egokitu beharko dira, eta desintoxikazio-zerbitzuak eskaini beharko zaizkie adingabe toxikomanoei edo alkoholikoei, langile kualifikatuen bidez. Adingabe baten familiak edo tutoreak, edo adingabe horrek izendatutako beste edozein pertsonak, eskubidea du, hala eskatzen badu, adingabearen osasun-egoerari buruzko informazioa jasotzeko, bai eta aldaketa garrantzitsuren bat gertatzen bada jakinaren gainean egoteko ere. Atxiloketa-zentroko zuzendariak berehala jakinarazi beharko dio adingabearen familiari edo tutoreari, edo hark izendatutako beste edozein pertsonari, adingabearen heriotza gertatuz gero, adingabea zentrotik kanpoko osasun-zentro batera eramatea eskatzen duen gaixotasuna izanez gero, edo atxiloketa-zentroko zerbitzu klinikoan 48 ordu baino gehiagoko tratamendua eskatzen duen egoeraren bat izanez gero. Adingabe atzerritarra herritarra den estatuko kontsuletzeko agintariei ere jakinarazi beharko zaie. Askatasunaz gabetutako aldian adingabe bat hiltzen bada, senide hurbilenak eskubidea izango du heriotza-ziurtagiria aztertzeko, gorpua erakuts diezaiotela eskatzeko eta azken destinoa erabakitzeko, berak nahi duen moduan. Adingabe bat barneratuta dagoen bitartean hiltzen bada, heriotzaren arrazoiei buruzko ikerketa independente bat egin beharko da, eta horren ondorioak senide hurbilenaren esku geratuko dira. Adingabeari berehala jakinarazi behar zaio senide hurbil baten heriotza edo gaixotasun edo istripu larria, eta aukera eman behar zaio hildakoaren hiletara joateko, edo, senide batek gaixotasun larria izanez gero, gaixo-ohetan bisita egiteko. Ahal diren bitarteko guztiak erabili beharko dira adingabeek kanpoko munduarekin komunikazio egokia izan dezaten; izan ere, tratamendu justu eta humanarioa izateko eskubidearen parte da hori, eta ezinbestekoa da adingabeak gizarteratu daitezen prestatzeko. Adingabeei baimena eman beharko zaie beren



senideekin, lagunekin eta kanpoko erakunde ospetsuetako ordezkariekin komunikatzeko eta atxiloketa-zentroetatik irteteko beren etxea eta familia bisitatzeko, eta baimen bereziak emango zaizkie establezimendutik irteteko, hezkuntza- edo lanbide-arrazoiengatik edo bestelako arrazoi garrantzitsuengatik. Adingabe orok bisita erregularrak eta sarriak jasotzeko eskubidea izango du, printzipioz astean behin eta, gutxienez, hilean behin, halako moldez non errespetatuta egongo den adingabearen intimitate-beharra, bai eta familiarekin eta defentsako abokatuarekin mugarik gabe harremanetan jartzeko eta komunikatzeko beharra ere. Adingabeek aldizka gertaeren berri izateko aukera izan beharko dute, egunkariak, aldizkariak edo bestelako argitalpenak irakurriz, irrati- eta telebista-programez eta zinemaz gozatzeko aukeraren bidez, bai eta adingabeak interesa duen edozein klub edo erakunde legitimoren ordezkarien bisiten bidez ere.

Salbuespenezko kasuetan bakarrik erabili ahal izango dira indarra edo hertsapen-tresnak, baldin eta gainerako kontrol-bide guztiak agortu badira eta porrot egin badute, eta lege edo erregelamendu batek berariaz baimendutako eta deskribatutako moduan bakarrik. Tresna horiek ez dute umiliaziorik edo degradaziorik eragin behar, eta modu murriztailean eta behar-beharrezkoa den denbora-tartean bakarrik erabili beharko dira.

Diziplina-neurri eta -prozedura guztiek segurtasuna eta bizitza komunitario ordenatua lortzen lagundu beharko dute, eta bateragarriak izan beharko dute adingabearen berezko duintasuna errespetatzearekin eta tratamendu instituzionalaren funtsezko helburuarekin, hau da, justizia-sentimendua hedatu beharko dute eta norberarekiko eta pertsona ororen oinarrizko eskubideekiko errespetu-sentimendua sortu. Administrazio-agintaritza eskudunak onartutako legeek edo erregelamenduek honako elementu hauei buruzko arauak ezarri beharko dituzte, adingabearen ezaugarriak, beharrak eta oinarrizko eskubideak erabat kontuan hartuta: a) Diziplina hausten duen jokabidea; b) Aplikatu daitezkeen diziplina-zehapenen izaera eta iraupena; c) Zehapen horiek ezartzeko eskumena duen agintaritza; d) Apelazio-mailan eskumena duen agintaritza.

Ikuskatzaile kalifikatuek edo zentroko administraziokoa ez den baina maila baliokidekoa den eta behar bezala eratuta dagoen agintari batek ahalmena izan behar



dute aldizkako bisitak egiteko, bai eta horiek aldeztu gabe egiteko ere, beren ekimenez, eta independentzia-berme guztiak izateko eginkizun hori betetzean. Ikuskatzaileek mugarik gabe egon ahal izango dute askatasunaz gabetutako adingabeak dauden edo egon daitezkeen establezimendu edo instalazioetan lan egiten duten pertsona guztiekin eta adingabe guztiekin eta, halaber, establezimenduetako dokumentazio guztia eskuratu ahal izango dute. Ikusapena amaitutakoan, ikuskatzaileak bere ondorioei buruzko txostena aurkeztu beharko du. Adingabe orok aukera izan beharko du une oro establezimenduko zuzendariari edo haren ordezkari baimenduari eskaerak edo kexak aurkezteko.

Adingabe guztiek, aske utzi ondoren, gizartean, familia-bizitzan eta hezkuntzan edo lanean berriz sartzen laguntzeko neurriak hartu ahalko dituzte.

Langileek gaitasuna izan beharko dute, eta behar adina espezialista izan beharko dituzte, hala nola hezitzaileak, trebatzaile profesionalak, aholkulariak, gizarte-laguntzaileak, psikiatrak eta psikologoak. Administrazioak kontu handiz hautatu eta kontratatu beharko ditu mota eta kategoria guztietako langileak; izan ere, atxiloketa-zentroen martxa ona haien osotasunaren, jarrera humanitarioaren, adingabeekin lan egiteko gaitasun profesionalaren eta lanerako trebetasun pertsonalen arabera da. Helburu horiek lortzeko, funtzionario profesionalak izendatu beharko dira, eta ordainsari nahikoa jarri, zeregin hori betetzeko gai diren gizon eta emakumeak lan horretara erakarri eta bertan gera daitezten. Adingabeen atxiloketa-zentroetako funtzionarioei pizgarriak eman beharko zaizkie une oro, beren eginkizun eta betebeharrak modu humanitarioan, dedikatuan, profesionalan, bidezkoan eta eraginkorrean bete ditzaten.

1.2 Europako Kontseiluaren tresna nagusiak

1.2.1 R (87) 20 zenbakiko Gomendioa, 1987ko irailaren 17koa, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak estatu-kideei egina, gazteen delinkuentziaren aurreko gizarte-erreakzioei buruz

Ministroen Batzordeak, Europako Kontseiluaren Estatutuaren 15.b artikulua honako hauek hartzen ditu kontuan:
- Gazteak eboluzioan dauden izakiak dira eta, ondorioz, haiei buruz hartutako neurri



guztiek izaera hezitzailea izan beharko lukete.

- Gazteen delinkuentziaren aurreko gizarte-erreakzioek aintzat izan behar dituzte adingabeen nortasuna eta beharrizan espezifikokoak, eta kasu horietan esku-hartzeak behar dira, bai eta, hala badagokio, tratamendu espezializatuak ere, nagusiki Nazio Batuek aldarrikatutako Haurren Eskubideei buruzko Aldarrikapenean jasotako printzipioetan inspiratuko direnak.

- Adingabeen zigor-sistemak hezkuntzaren eta gizarteratzearen aldeko helburuak sustatu behar ditu, eta, ondorioz, ahal den neurrian, adingabeen espetxeratzea ezabatu.

- Adingabeengandik hurbil egiten den esku-hartzea, lehentasunez, haien ingurune naturalean egin behar da, eta kolektibitatea konprometitu, batez ere toki-mailan.

- Helduei aitortutako prozedura-berme berberak aitortu behar zaizkie adingabeei.

- Europako Kontseiluak gazteen delinkuentziaren arloan egindako aurreko lanak hartuko dira aintzat, eta, batez ere, gazteen delinkuentziari eta gizarte-eraldaketari buruzko (78) 62 Ebazpena, bai eta Ikerketa Kriminologikoen 14. Konferentziako ondorioak ere, honako gai honetan: “gazteen delinkuentziaren prebentzioa: sozializazio-erakundeen zeregina eboluzionatzen ari den gizarte batean”.

- Nazio Batuen Gutxieneko Arauak Adingabeen Justizia Administrazioarako (Beijingeko arauak) aintzatesi behar dira.

Hala, horren arabera, gomendioa egiten die estatu-kideetako gobernuari, beharrezkoa bada, haien legeria eta jarduna berrikus ditzaten, honako helburu hauekin:

- Gazteen egokitzeko ezintasuna eta delinkuentzia prebenitzeko ahalegin bereziak hedatzea edo sustatzea.
- Desjudizializazio- eta bitartekaritza-prozeduren garapena sustatzea, bai jarraipen-organoaren mailan (jazarpenik gabeko sailkapena), bai poliziaren mailan, Poliziak jazarpen-funtzioak dituen herrialdeetan, adingabeei zigor-arloko justizia-sistema aplikatu ez dakien eta horrek dakartzan ondorioak saihestu daitezten; haurrak babesteko zerbitzuak edo batzordeak prozedura horien aplikazioarekin lotzea.
- Beharrezkoak diren neurriak hartzea, prozedura horietan adingabeak desjudizializazioa baldintzatzen duten balizko neurriak onartzen dituela ziurtatzeko, eta, beharrezkoa bada, familiaren lankidetzat bermatzeko, eta arreta egokia emateko biktimaren zein adingabearen eskubide eta interesei.



- Adingabeen justizia azkarragoa bermatzea, gehiegizko atzerapenak saihestuz, justizia horrek hezkuntza-ekintza eraginkorra izan dezan.
- Adingabeak helduen jurisdikziora igortzea saihestea, adingabeen jurisdikzioak daudenean.
- Ahal den neurrian, adingabeen atxiloketa prebentiboa saihestea, eta, hori egitekotan, agintari eskudunak animatzea horren baldintzak kontrola ditzaten.
- Adingabeentzako behin-behineko atxiloketaren baliabidea baztertzea, salbuespen gisa adin handieneko adingabeek egindako arau-hauste oso larriengatik izan ezik; kasu horretan, behin-behineko atxiloketaren iraupena mugatzea eta adingabeak helduengandik bereiztea; hasiera batean, horrelako erabakiak hartzea aurreikustea, gizarte-zerbitzu bati bestelako proposamenei buruzko kontsulta egin ondoren.
- Adingabeen legezko posizioa indartzea prozedura osoan, polizia-fasean barne.
- Xedapenak har daitezten bultzatzea, prozeduraren fase desberdinetan esku hartzen duten pertsona guztiek (polizia, abokatuak, prokuradoreak, epaileak, gizarte-langileak) prestakuntza espezializatua izan dezaten adingabeen zuzenbidearen eta gazte-delinkuentziaren esparruan.
- Zigortuen erregistroan adingabeei buruzko erabakien idatzoharrak isilpekoak direla eta agintari judizialei edo agintari baliokideei soilik jakinarazten zaizkiela ziurtatzea; idatzohar horiek interesdunen adin-nagusitasunaren ondoren ez aipatzea, lege nazionalak aurreikusitako premiazko arrazoirik gabe.
- Delitugile gazteei buruzko esku-hartzeak ahal dela haien bizitzako ingurune naturalean egiten direla ziurtatzea, eta esku-hartze horiek hezkuntzarako eskubidea eta nortasuna errespetatzen dituztela eta haien garapen osoa errazten dutela egiaztatzea.
- Esku-hartzearen iraupena zehaztea eta iraupen hori agintaritza judizialak edo administrazio-agintaritza baliokideak bakarrik finkatu ahal izatea eta agintaritza horrek esku-hartzea epea baino lehen amaitu ahal izatea aurreikustea.
- Espetxeratzearen baliabidea arian-arian ezabatzeko eta espetxeratzea ordezteko neurriak biderkatzeko: lehentasuna ematea gizarteratzeari, bai



eskola- eta lanbide-heziketaren bidez, bai aisialdiko distrakzioen eta askotariko jardueren erabileraren bidez.

- Beharrezkoa bada, delitugile gazte helduei buruzko legeria berrikustea, jurisdikzio eskudunek hezkuntza-arloko erabakiak hartzeko aukera izan dezaten, interesdunen nortasuna kontuan hartuta gizarteratzea errazte aldera.
- Ikerketa konparatiboak sustatzea eta bultzatzea gazte-delinkuentziaren esparruan, arlo horretako politikaren oinarri izan daitezkeenak.

1.2.2 Rec (2003) 20 Gomendioa, 2003ko irailaren 24koa, Ministroen Batzordeak estatu-kideei egina, gazte-delinkuentzia tratatzeko modu berriei eta gazte-justiziaren zereginari buruz

Ministroen Batzordeak, Europako Kontseiluaren Estatutuaren 15.b artikulua arabera, kontuan hartuta gazteen delinkuentziaren arazoak kezka handia sortzen duela Europako herrialde jakin batzuetan; jakitun izanik ezen, gazte-delinkuentziaren indize globaletan egonkortasun erlatiboa dagoen arren, arazoaren izaerak eta larritasunak erantzun berriak eta esku hartzeko metodo berriak eskatzen dituela; kontuan hartuta zigor-arloko sistema judizial tradizionalak ezin duela, berez, irtenbide egokirik eskaini delitugile gazteen tratamenduaren esparruan, haien hezkuntza- eta gizarte-premia espezifikokoak ez baitatoz bat helduen premiekin; sinetsita gazteen delinkuentziari aurre egiteko hartutako neurriak diziplina eta erakunde anitzeko kudeaketan oinarritu beharko lirakekeela, eta gizartearen geruza desberdinetan (gizabanakoa, familia, eskola eta komunitatea) zeregin bat betetzen duten faktoreen multzoa lantzeko moduan ulertu beharko lirakekeela; aintzat hartuta legezko adin-nagusitasuna ez datorrela nahitaez bat heldutasunaren adinarekin, eta gazte heldu delitugileek delitugile adingabeei egokitutako neurriekin aldera daitezkeen neurri jakin batzuk baliatu beharko lituzketela; gogoan izanda, gainera, delitugile gazteen mota jakin batzuek, hala nola gutxiengo etnikoen taldeetakoek, emakume gazteek eta taldean jarduten duten gazteek, esku-hartze programa espezifikokoak behar izan ditzaketela; aztertuta, bestek beste, Europako Kontseiluaren gomendioak –R (87) 20 zk., gazteen delinkuentziaren aurreko gizarte-erreakzioei buruzkoa; R (88) 6 zk., gazteen delinkuentziaren aurreko gizarte-erreakzioei buruzkoa, familia etorkinetatik datozen gazteen artean; eta Rec (2000) 20, kriminalitatearen prebentzioan esku-hartze psikosozial goiztiarrak duen



eginkizunari buruzkoa-; ikusita gaizkile gazte helduei eta zigor-arloko politikari buruzko X. Mahai-inguru Kriminologikoaren ondorioak (1991); kontuan hartuta Giza Eskubideak Babesteko Europako Hitzarmena, Haurren Eskubideak Babesteko Europako Hitzarmena, Haurraren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Aldarrikapena, Adingabeen Justizia Administrazioarako Nazio Batuen gutxieneko arauen multzoa (Beijingeko Arauak), Gazteen delinkuentzia Prebenitzeko Nazio Batuen Zuzentarauak (Riadeko Zuzentarauak) eta askatasunaz gabetutako adingabeak babesteko Nazio Batuen Arauak, honako hau gomendatu die estatu-kideetako gobernuei:

- gomendio honetan jasotako printzipioetan eta neurrietan oinarritu daitezela, beren legeriak eta politikak eta praktikak egitean;
- gomendio hau eta haren zioen azalpena dagozkien erakunde guztiei jakinarazi diezazkietela, bai eta komunikabide guztiei eta publiko orokorrari ere; eta
- talde horri aplikatu dakizkiokeen zehapen eta neurriei buruzko Europako arauak emateko beharra onartu dezatela, bai eta adingabeentzat espezifikokoak eta zehatzak diren Europako espetze-arauak emateko beharra ere.

1.2.3 Rec (2008) 11 Gomendia, 2008ko azaroaren 5koa, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak estatu-kideei egina, zehapenak edo neurriak bete behar dituzten adingabeentzako arau europarrei buruz

Ministroen Batzordeak, Europako Kontseiluaren Estatutuaren 15 b) artikuluan ezarritakoaren arabera, kontuan hartuta Europako Kontseiluaren helburua kideen artean batasun handiagoa lortzea dela, interes komunekoa gaietan legeak harmonizatuz.

Eta, aintzat hartuta, bereziki:

- Giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak babesteko Hitzarmena eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzia.
- Tortura eta tratu edo zigor anker edo umiliagarriak prebenitzeko Europako Hitzarmena eta Batzorde ordezkariak horiek ezartzeko egiten dituen lanak.
- Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmena.

Gogoan izanda:

- Rec (2006) 2 Gomendia, espetzeetako arau europarrei buruzkoa.



- Rec (2005) 5 Gomendia, egoitza-erakundeetan bizi diren hurren eskubideei buruzkoa.
- Rec (2004) 10 Gomendia, buruko gaixotasunak dituzten pertsonen giza eskubideak eta duintasuna babesteari buruzkoa.
- R (97) 12 Gomendia, zehapenak edo neurriak betearazten dituzten langileei buruzkoa.
- R (92) 16 Gomendia, askatasunaz gabetzen ez duten zehapenei eta neurriei buruzko arau europarrei buruzkoa.
- R (87) 20 Gomendia, gazteen delinkuentziaren aurkako erreakzio sozialei buruzkoa.
- Gazte-delinkuentziaren prebentzioari buruzko Nazio Batuen arauak (Riadeko arauak).
- Nazio Batuen Gutxieneko Arauak Adingabeen Justizia Administrazioarako (Beijingo arauak).
- Askatasuna kentzen ez duten neurriei buruzko Nazio Batuen gutxieneko arauak (Tokioko arauak).
- Askatasunaz gabetutako adingabeak babesteko Nazio Batuen gutxieneko arauak (Habanako arauak).

Kontuan hartuta Europako Kontseiluko Estatuburuen eta Gobernuburuen Hirugarren Goi Bileran (Varsovia, Polonia, 2005eko maiatzaren 16-17a) onartutako azken adierazpena eta Ekintza Plana, eta, bereziki, "Haurrentzako Europa bat eraikitzen" izeneko Ekintza Planaren III.2 zatia; gogoan izanda, halaber, Europako Justizia Ministroen hogeita zortzigarren Konferentzian (Lanzarote, Espainia, 2007ko urriaren 25-26a) hartutako 2. Ebazpena; aintzat harturik, beraz, Europa mailako ekintza bateratua beharrezkoa dela, Legearekin gatazkan dauden adingabeen eskubideak eta ongizatea hobeto babesteko eta beren estatu-kideetan hurren aldeko justizia-sistema bat garatzeko; eta jakinik garrantzitsua dela Europako Kontseiluko estatu-kideek gazte-justiziarri buruzko politika eta praktika nazionalei buruzko printzipio komunak hobetzen, eguneratzen eta betetzen jarraitzea, eta arlo horretako nazioarteko lankidetzari indartzea, estatu-kideetako gobernuak honako hau gomendatzen zaie:



- Bideratu ditzatela beren legeria, politikak eta praktikak gomendio honen gehigarrian jasotako arauen bidez.
- Ziurtatu dezatela gomendio hau eta honekin batera doazen iruzkinak ahalik eta gehien eta modu espezifikoagoan itzuliko eta hedatuko direla agintari judizialen eta poliziaren artean, adingabe arau-hausleei zuzendutako zehapenak eta neurriak betearazteaz arduratzen diren zerbitzuen artean, adingabe arau-hausleak barneratuta dauden espetxe-erakundeen, gizarte-ongizateko erakundeen eta osasun mentaleko erakundeen artean, eta horien langileen artean, bai eta komunikabideetan eta, oro har, jendearen artean ere.

1.3 Europar Batasunaren tresna nagusiak

1.3.1 Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordearen irizpena, "Gazte-delinkuentziaren prebentzioa, gazte-delinkuentziaren tratamendu-moduak eta adingabearen justiziak Europar Batasunean duen eginkizuna" hizpide

2005eko otsailaren 10ean, Barne Araudiko 29. artikuluko 2. paragrafoarekin bat etorritik, Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordeak gai honi buruzko ekimen-irizpen bat egitea erabaki zuen: "Gazte-delinkuentziaren prebentzioa, gazte-delinkuentziaren tratamendu-moduak eta adingabearen justiziak Europar Batasunean duen eginkizuna". Irizpenaren sarrerako alderdi batzuk jaso ditugu, laburpen gisa:

Gaur egun, gazteen delinkuentzia Europako gizartearen kezkan lekua irabazten joan den fenomenoetako bat da, eta, joan den mendetik, nazioartean etengabe behatu den arazo kriminologikoetako bat da. Hala ere, komeni da aipatzea gazteek protagonizatutako jokabideek, sarritan, garrantzi sozial handiagoa lortzen dutela helduek egindakoek baino, bereziki negatiboak badira; horrela, pertzepzio sozial bereziki kaltegarria sortzen da adingabe arau-hausleekiko. Era berean, egokia da adieraztea kasu askotan gazteak eurak izaten direla gazteen delinkuentziaren biktimak. Ildo horretan, Europako gizarteak gazte-delinkuentziaren fenomenoari ematen dion garrantziak eskatzen du erantzun eraginkorrek garatzea, nagusiki hiru zutabe edo ekintza-ildotan oinarrituta: prebentzioa, neurri zigortzaileak/hezitzaileak, eta adingabe eta gazte arau-hausleen gizarteratzea eta integrazioa.



CESeren iritziz, arreta handiagoa eskaini beharko litzaioke Europar Batasunaren (EB) barruan gazte-delinkuentziaren aurka borrokatzeko estrategia komun bat diseinatzeari, ez bakarrik biztanleriaren zati bereziki sentikor bati eragiten diolako (adingabeak eta gazteak, eta, sarritan, horien barruan, gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden kolektiboetako kideak), bai, halaber, egun prebentzio-ekintzak egitea eta adingabe eta gazte arau-hausleekin esku hartzea lagungarria delako kolektibo hori gizarteratzen saiatzeko, etorkizunean heldu delitugile bilaka ez daitezen. Gazteen delinkuentziaren prebentzioan modu kolateralean eragin dezaketen Europako proiektu eta politika batzuk badauden arren (1997ko azaroko Luxenburgoko Kontseilu Europarrean onartutako Enplegurako Estrategia Europarra, 2000ko abenduan Nizako Kontseiluan onartutako Europako Agenda Soziala, 2005eko martxoan Bruselako Kontseilu Europarrak onartutako Gazteentzako eta Herritartasun Aktiboaren Sustapenerako Europako Ituna, etab.), bai eta gazteriari zuzendutako zenbait akordio eta ebazpen ere³, biztanleriako sektore horiek beren gizarteetan modu normalean birgizarteratzen laguntzeko, adingabeek egindako delinkuentziaren fenomeno espezifikoari berariaz zuzendutako tresnak eta neurriak falta dira.

EBko herrialdeetan gaiaren egoera aztertzea ez da erraza, herrialde horietako bakoitzak gazteen delinkuentzia zer den zehazten baitu, aldagai desberdinetan oinarrituta. Hala, herrialde batzuetan, kontzeptu horretan sartzen dira adingabeak protagonista dituzten jokabideak, dagokien legean edo zigor-kodean aurreikusitako figuretako batean sartzen direnak. Beste herrialde batzuetan, gazte-justiziaren sistema hezkuntza- edo ongizate-ereduaren gainean eraikitzen denean, justizia-sistemaren bidez jazar daitezkeen jokabideen eremua zabaldu egiten da, adingabeek egiten dituztenean. Izan ere, helduek egingo balituzte administrazio-bidetik edo bide zibiletik bakarrik jazar litezkeen egintzak sartzen dira, bai eta jazarriko ez liratekeen egintzak ere⁴. Era berean, alde handiak daude zehapen-araubidean. Izan ere, herrialde batzuek

³ Kontseiluaren eta Kontseiluan bildutako estatu-kideetako gobernuen ordezkarien ebazpena, 2000ko abenduaren 14koa, gazteen gizarteratzeari buruzkoa (2000ko abenduaren 28ko EEAO C 374); Kontseiluaren eta Kontseiluan bildutako estatu-kideetako gobernuen ordezkarien ebazpena, 2002ko ekainaren 27koa, gazteriaren eremuko Europako lankidetzaren esparruari buruzkoa (2002ko uztailaren 13ko EEAO C 168); Batzordearen Liburu Zuria, 2001eko azaroaren 21ekoa, Europako gazteriarentzako bultzada berri bati buruzkoa – COM (2001) 681 azkena; Batzordeak Kontseiluari gazteriaren arloko Europako politikei buruz egindako komunikazioa. COM (2005) 206 azkena.

⁴ Horren adibide dira "Estatus delituak" izenez ezagutzen direnak, hala nola etxetik ihes egitea, kalean bizitzea, etab.



gazteen zigor-zuzenbidea egin dute, berariazko zehapen-araubidearekin, eta beste batzuek helduei ezartzen zaizkien zigor berberak ezartzen dizkiete adingabeei, nahiz eta zigorren muga eta arintze jakin batzuk aurreikusten dituzten. Horri guztiari gazteen erantzukizun penala eskatzeko adin-tartearen mugaketa desberdina gehitu behar zaio. Izan ere, gehieneko mugan antzekotasun handiagoa badu ere (18 urte, herrialde batzuetan 21 urtera luzatzeko aukerarekin), ez da gauza bera gertatzen gutxieneko mugan, aldeak agerikoak baitira (adin-tartea 7 eta 16 urte bitartean mugitzen da)⁵.

Desadostasun horiek eragiten dituzten mugak kontuan hartuta, adierazi behar dugu, EBko estatu-kideen estatistika konparatuen arabera, gazteen delinkuentzia, batez beste, delinkuentzia orokor osoaren % 15 dela, nahiz eta herrialde batzuetan % 22ra irits daitekeen. Nolanahi ere, komeni da aipatzea kriminalitatearen "zifra beltza" deritzona (kontrol sozial formaleko instantziek, hau da, poliziek eta auzitegiek ezagutzen ez duten delitu-ekintzen ehuneko edo kopurua) neurri handiagoan gertatzen dela adingabeek egindako delitugintzan, batez ere, oro har, ekintzen izaera arinagatik, eta, sarritan, biktimak ere adingabeak direlako, eta, beraz, instantzia horietara jotzeko joera txikiagoa dutelako.

Estatistikek une bakoitzean ematen duten emaitza gorabehera, egia da Europako herrialdeetan oso zabaldua dagoela gazteen delinkuentzia areagotzen ari delako eta gazteek egiten dituzten delituak gero eta larriagoak direlako sentipena. Egoera horren aurrean, herritarrek kontrol-mekanismo eraginkorragoak eskatzen dituzte, eta, ondorioz, herrialde askotan gogortu egin dira adingabeen legediak. Horren guztiaren ondorioz, fenomenoaren gobernantza europarra erraztuko duten koordinazio- eta orientazio-neurriak hartu behar dira, baina baita informazio-politika

⁵ Gehieneko mugan, hurbiltasun handiagoa dago EBko herrialdeen artean; izan ere, adingabeen zigor-sistema osorik aplikatzen da kasu guztietan 18 urte bete arte. Hala ere, zenbait herrialdek (Austria, Alemania, Grezia, Italia, Holanda eta Portugal) sistema hori 21 urte arteko gazteei aplikatzeko aukera aurreikusten dute, maila desberdinetan eta kasuen arabera. Gutxieneko mugan, zigor-adinaren aldeak nabarmenagoak dira: 7 urteko tartean ezartzen du Irlandak; Eskoziak eta Greziak, 8 urteko tartean; Ingalaterrak, Galesek eta Frantziak, 10 urteko tartean; Herbehereek eta Portugalek, 12 urteko tartean; Poloniak, 13 urteko tartean; Austriak, Estoniak, Alemaniak, Hungariak, Italiak, Letoniak, Lituaniak, Esloveniak eta Espainiak, 14 urteko tartean; Txekiar Errepublikak, Danimarkak, Finlandiak, Eslovakiak eta Suediak, 15 urteko tartean, eta Belgikak 16 urteko tartean.



egokiak ere, irizpen honen lehen paragrafoan aipatzen zen gehiegizko pertzepzio negatiboa desdramatizatzen eta termino justuetan kokatzen laguntzeko.

Inola ere baztertu gabe gazte-delinkuentziaren fenomenoaren kausak aztertzearen garrantzia (gai horri, laburbilduta, hurrengo atala eskaintzen zaio), bai eta prebentzio-politiketan sakontzeko beharra ere (dokumentu honetan ere aipatzen dira, baina, nolana ere, aipatutako kausak ezabatzea bideratuta egon beharko dute), irizpen honen helburu nagusia da zigor-legearen aurkako jokabideagatik gazte-justiziaren sistemen mende dauden adingabeen egoera aztertzea, bai eta horiek babesteko, berrezteko eta gizarteratzen laguntzeko erabil daitezkeen esku hartzeko tresnak aztertzea ere, jokabide desbideratuetan berriro eror ez daitezen.

1.3.2 Europako Parlamentuaren 2007ko ekainaren 21eko Ebazpena, gazte-delinkuentziari buruzkoa, eta emakumeen, familiaren eta gizartearen paperari buruzkoa (2207/2011(INI))

Europako Parlamentuak, ebazpen horretan, honako alderdi hauek hartu zituen kontuan: - Adingabeen delitu-jokabideak helduen delitu-jokabideak baino arrisku handiagoak dakartza, beren nortasuna eraikitzeko fasean biztanlerian bereziki sentikorra den segmentu bati eragiten baitio, adingabeak, oso txikitatik, gizarte-bazterkeriaren eta estigmatizazioaren arriskuan jarritz.

- Ez eskolatzea da gazteen delinkuentziaren arriskuak areagotzen dituen faktoreetako bat.
- Espainiako, Europako eta nazioarteko ikerketen arabera, gazteen delinkuentziaren fenomenoak gorakada kezagarria izan du azken bi hamarkadetan, eta gazteen delinkuentzia kezagarria da, luze-zabal hedatu delako, delituak egiten hasteko adinak behera egin duelako, 13 urtetik beherakoek egindako delituen kopuruak gora egin duelako eta haien ekintzak gero eta ankerragoak direlako.
- Gaur egun gazteen delinkuentziari buruzko datu estatistikoak erregistratzeko eta aurkezteko moduak ez die erantzuten benetako premiei eta egungo egoerei, eta, beraz, premia eskatzen dira datu estatistiko nazional fidagarriak; jakinik



zaila dela adingabe bat delituzko jokabide batera eramaten duten kausak erabat sailkatzea, gizartean desbideratuta dauden eta azkenik delituzkoak diren jokabide-moduetarako bilakaera kasu indibidualizatu eta espezifikoko bat baita aldi bakoitzean, eta bere bizipenei eta haur eta nerabe bakoitzaren inguruko polo nagusiei erantzuten die (familia, eskola, lagunak eta, oro har, beren inguru ekonomiko eta soziala).

- Gazteen delinkuentziaren faktore nagusi gisa aipatzen dira erreferentziako elementurik eza, familiaren barruko komunikaziorik eza eta eredu egokien sustapenik eza, sarritan gurasorik ez dagoelako eta inguruko pertsonen tratu txarrekin edo sexu-jazarpenarekin lotutako arazo psikopatologikoak nahiz hezkuntza-sistemen gabeziak daudelako gizarte-balioen transmisioari, pobreziari, langabeziari, gizarte-bazterketari eta arrazakeriari dagokienez; azpimarratuta, halaber, faktore garrantzitsuak direla gazteek beren nortasunaren eraketa-fasean garatzen duten mimetismorako joera berezia, alkoholaren eta drogen kontsumoarekin lotutako nortasun-nahasmenduak eta hedabideek eta Interneteko eta bideo-jokoetako zenbait gunek sustatzen duten doako, gehiegizko eta justifikaziorik gabeko indarkeria-ereduak.
- Gazteen portaera desbideratu baten jatorria ez dago sistematikoki familiaren testuinguruan.
- Nerabeen artean kalamuaren eta beste droga batzuen edo alkoholaren kontsumoak izan duen hazkundera korrelazioan jarri behar da gazteen delinkuentziaren hazkunderarekin.
- Migratzaileak eta are gehiago adingabeak kontrol sozialarekiko askoz ahulagoak dira, eta, beraz, jendeak pentsatzen du gazteen delinkuentziaren arazoak batez ere migratzaileen komunitateari eragiten dio, eta ez gizarte osoari (ikuspegi hori okerra izateaz gain, sozialki arriskutsua ere bada).
- Gazteen delinkuentziaren bi modu "moderno" daude: "gazte-bandak" sortu izana eta eskola-ingurunean indarkeria areagotu izana (estatu-kide jakin batzuetan bereziki hedatutako fenomenoak dira eta aztertzeke eta eteteko zailak dira).



- Indarkeria darabilten gazte-talde antolatuen fenomenoak areagotzearen ondorioz, estatu-kide batzuek eztabaida piztu dute adingabeen arloko zigorzuzenbidea berrikusteko beharrari buruz.
- Estatu-kide jakin batzuetan, eskolen inguruak eta baita patioak ere, auzo erosoenetakoak ere, legez kanpoko eremu bihurtu dira (droga eskaintza, indarkeria -batzuetan arma zuriekin-, estortsioak eta joko arriskutsuen garapena —adibidez, "Happy slapping" fenomeno, hau da, telefono mugikorrek hartutako indarkeria-eszenak dituzten argazkiak edo bideoak Interneteko guneetan eskegitzea—).
- Azken urteotan, mailaz maila berrikusi dira adingabeen arloko estatu-mailako zigor-arloko legediak.
- Prebentzio-neurriak, neurri judizialak eta judizioz kanpokoak eta berreziketa-neurriak eta errehabilitazio-neurriak hartu beharko lirateke, terapia bat barne, halakorik ezartzen den kasuetan. Hala ere, komeni da nabarmentzea neurri berri horiek aplikatzea askotan ez dela bideragarria praktikan, azpiegitura material eta tekniko egoki eta modernorik eta langile espezializatu kualifikaturik ez dagoelako, finantzaketa mugatua delako eta, batzuetan, alderdi interesdunek borondaterik ez dutelako edo sistemak berezko dituen gabeziak daudelako.
- Muturreko indarkeriazko eszenen irudiek eta komunikabide eta ikus-entzunezkoetan transmititzen diren material pornografikoak (jokoak, telebista eta Internet, adibidez) eta komunikabideek biktima edo arau-hausle adingabeen irudia ustiatzeak, askotan, haurren oinarritzko eskubideen urraketa eragiten dute, eta indarkeriaren banalizazioa hedatzen laguntzen dute.
- Estatu-kide jakin batzuetan argitaratutako estatistikek adierazten dutenez, lehen delitua egin ostean zigortutako delitugile adingabeen % 70etik % 80ra bitartean ez da berriro delitugintzan erortzen.
- Zenbait estatu-kidetan argitaratutako azterketa eta artikuluen arabera, gora egin du nerabeek gurasoen aurka egindako indarkeria-ekintzen kopuruak, eta gurasoengan ezintasuna nagusitzen da halako kasuetan.



- Antolatutako delinkuentzia-sareek, batzuetan, delitugile adingabeengana jotzen dute beren jarduerak egiteko.
- Delinkuentzia Prebenitzeko Europako Sarearen esparruan (REPD), 2001ean sortua, gazte-delinkuentziari aurre egiteko lantalde espezifiko bat sortu zen, 27 estatu-kideetan azterketa konparatibo xehea egiteaz arduratu zena, azterketa hori izan zedin Batasunak eremu horretan izango duen politikaren etorkizuneko bilakaeraren oinarria. Hala, horien arabera, politika nazionaleri eta Europako esparru-estrategia edukitzeari buruzko ebazpena eratu zuen.

1.4 Espainiako estatuko tresna nagusiak

Gaia eztabaidatu eta aurreproiektuak prestatzeko epe luze baten ondoren, 2000ko urtarrilaren 13an, Adingabeen Erantzukizun Penala arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa argitaratu zen BOEn. Izan ere, ekainaren 5eko 4/1992 Lege Organikoan (Adingabeen Epaitegien eskumena eta prozedura erreformatzeari buruzkoan) adingabeak erreformatzeko legedia lehenbailehen aldatzeko beharra adierazi zenetik espero zen Lege hori. Lege hau formalki penala baina materialki zehatzaile eta hezitzailea da, eta berariaz aitortzen ditu adingabearen oinarritzko bermeak eta eskubideak.

Bestalde, uztailaren 30eko 1774/2004 Errege Dekretuak 5/2000 Lege Organikoa honako hiru gai hauen inguruan garatzen du, partzialki: Polizia Judizialaren eta talde teknikoaren jarduna, kautela-neurrien eta behin betikoen betearaztea, eta zentroen diziiplina-araubidea.

1.4.1 5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa, Adingabeen Zigor Erantzukizuna arautzen duena (AZELO)

Gure herrialdean adingabe batek, 14 eta 18 urte bitartean dituen adingabe batek, Zigor Kodean edo lege berezietan delitu gisa tipifikatuta dagoen egitatea eginez gero, urtarrilaren 12koa 5/2000 Lege Organikoa (Adingabeen Zigor Erantzukizuna arautzen duena) aplikatzen da; lege hori 2000ko urtarrilaren 12an eman zen, eta hurrengo urteko urtarrilaren 13an jarri zen indarrean.



Urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa printzipio orokor batzuei jarraikiz egin zen:

- ✓ Adingabe arau-hausleei aplikatzekoak diren neurrien eta prozeduraren izaera formalki penala eta materialki zehatzaile eta hezitzailea.
- ✓ Eskubide konstituzionalen eta adingabearen intereseko eskaera berezien errespetutik ondorioztatzen diren berme guztien esanbidezko errekonozimendua.
- ✓ Adingabe arau-hausleen kategoriako prozesuko eta zehapeneko ondorioetarako tarteen bereizketa.
- ✓ Malgutasuna kasu zehatzaren egoerek gomendatutako neurriak hartzeko eta betearazteko.
- ✓ Adingabeen erreformarekin eta babesarekin lotutako erakunde autonomikoen eskumena, epaian ezarritako neurriak betearazteko.
- ✓ Betetze horren kontrol judiziala.

Adingabeen zigor-erantzukizunak, helduenaren aurrean, izaera hezitzailea du, funtsean, eta "adingabearen interes nagusia" prozeduraren eta hartzen diren neurrien elementu zehatzaile gisa nagusitzen da.

AZELOren 7. artikuluari jarraikiz, Eusko Jaurlaritzaren Justizia Zuzendaritzak aplikatzekoak diren neurrien kasuan, erreformaren mende dagoen adingabe subjektuari aplika dakizkiokeen neurriak honako hauek dira:

1. Barneratzea: neurri honek arriskugarritasun handiagoari erantzuten dio, egitateen izaera larriak erakusten duen bezala, kasurik nabarmenetan indarkeria, larderia edo pertsonentzako arriskua ezaugarri direla. Neurriaren helburu nagusia da hezkuntza-baldintza egokiak ematen dituen giroa izatea, adingabeak bere jokabide antisoziala ekarri duten xedapen edo urritasunak berriro orientatu ahal izan ditzan, baldin eta, horretarako, behintzat aldi baterako, arau-hauslea bere askatasuna fisikoki murrizten duen erregimenean dagoela ziurtatu behar bada.

- a) Erregimen itxiko barneratzearen helburua da adingabeak gizarte-gaitasunerako nahiko baliabide eskuratzea, erkidegoan jokabide arduratsua



eduki ahal izateko, kontrol-kudeaketaren bidez giro murriztailean eta pixkanaka autonomoan.

b) Erregimen erdi-irekiko barneratzean, hezkuntza-proiektua dago; proiektu horretan, hasieratik, funtsezko helburuak erkidegoko beste pertsona eta erakunde batzuekin harremanetan egiten dira, eta adingabeak egoitza zentroan du, horren programa eta barne-erregimenean.

c) Erregimen irekiko barneratzean, adingabeak hezkuntza-proiektuko jarduera guztiak gauzatu dituzte ingurune normalizatuetan, zentroan biziko dela, ohiko bizileku gisa.

2. Barneratze terapeutikoa aurreikusten da adingabeek, alkoholarekiko edo drogekiko duten mendekotasunagatik edo psikismoan duten disfuntzio esanguratsuengatik, testuinguru egituratua behar dutenean, programazio terapeutikoa egiteko, alde batetik, adingabearengan edo bere ingurunean tratamendu ambulatoriorako baldintza egokiak ematen ez direlako eta, beste alde batetik, adingabeari erregimen itxiko barneratzea aplikatzeko eskatzen duten arrisku-baldintzak daudelako.

3. Tratamendu ambulatorioa da mendekotasun-prozesuak edo psikismoaren disfuntzio esanguratsuak gainditzen laguntzeko programa terapeutikoen onurak jasotzeko bizi-baldintza egokiak dituzten adingabeei ezartzen zaien neurria. Alkoholarekiko edo drogekiko mendekotasuna duten eta erkidegoan trata daitezkeen adingabeentzat aurreikusita, tratamendu ambulatorioan asistentzia mediko eta psikologikoko mota desberdinak konbina daitezke. Oso egokia da barneratzerik gabe arreta jaso dezaketen desoreka psikologikoaren edo psikismoaren nahasmenduaren kasuetarako. Gizarte- eta hezkuntza-zereginarekin dagoen bereizketa argiena da horren bidez gaitasuna lortu nahi dela, hau da, ikaskuntza bat lortu nahi dela, metodologia bat erabiliz, ez hain klinikoa, baizik eta psikologia eta hezkuntzara bideratuagoa.

4. Eguneko zentro batera joatean, adingabeak erkidegoan erabat integratuta dagoen zentro batera joaten dira; bertan, beren gizarte-gaitasunari laguntza emateko



hezkuntza-jarduerak egiten dira. Neurri horrek egunaren zati handi batean ingurune egituratua eskaintzen die; ingurune horretan, gizarte-hezkuntzako zenbait jarduera egiten dira, familia-giroko gabeziak konpentsatzeko. Eguneko zentroan adingabearen gizarte-hezkuntzako proiektuaren mamia gauzatzen da; horixe da, hain zuzen ere, eguneko zentroaren ezaugarria. Dena den, adingabeak beste toki batzuetan ere erabil ditzake aisialdiko nahiz kulturako beste baliabide batzuk.

5. Asteburuko egonaldia da adingabe batek ostiral arratsalde edo gauetik igande gauera arte etxean geratzeko beharra ezartzen duen neurriak zehazten duen adierazpena, epaileak esleitutako gizarte- eta hezkuntza-zereginak egiten dituen denbora salbu. Neurri hau egoki gerta daiteke adingabe jakin batzuekin, horiek asteburuetan txikizio-egintzak edo eraso arinak burutzen dituztenean.

6. Ezarritako neurria zaintzapeko askatasuna denean, adingabea zaintza eta jagotzapean dago epaian ezarritako denboran zehar. Langileria espezializatuak burutzen ditu zaintza eta jagotza horiek, adingabeak trebetasun, gaitasun eta jarrera egokiak beregana ditzan, gizabanako moduan eta gizartearen barruan bere nortasuna behar bezala gara dadin. Zaintzapeko askatasunak dirauen bitartean, adingabeak bete beharko ditu, orobat, epaileak AZELorekin bat etorritik ezar diezazkiokeen betebeharrak eta debekuak.

7. Pertsona, familia edo hezkuntza-talde batekin bizitzea adingabeei gizarteratze-giro positiboa emateko neurria da; giro hori lortzen da bizikidetzaren bidez, epaileak zehaztutako epe batez, pertsona batekin, berea ez den familia batekin edo berengan gizarte- eta afektu-urratsak garatzeari dagokionez familiaren funtzioa betetzeko bere burua eskaintzen duen hezkuntza-talde batekin.

9. Gizartearentzako lanen neurri horren bidez aurretik finkatutako saio kopuruan egiten dute jarduera bat, dela gizarte orokorraren, dela edozein arazoirengatik urritasun-egoeran dauden pertsonen onuragarri. Ahal dela, dena delako neurriari dagokion jardueraren izaera adingabeak gauzatutako egitateek kaltetutako ondasun juridikoekin lotuta egon dadin saiatuko da. Neurri hauen berezitasuna da ulertaraztea bere jokabidearen ondorioz talde edo pertsona batzuek bidegabeki ondorio kaltegarriak jasan dituztela. Subjektuak ulertu behar du okerretara



jardun zuela, gizartearen gaitzespen formal merezi duela, eta berari eskatutako lanak kaltea konpontzeko egintza zuzenak direla.

10. Gizarte- eta hezkuntza-zereginak betetzea da adingabeak bere gizarteratzea bideratuko duten hezkuntza-erakunde bideratzaileak egitea. Neurri hau autonomia, edo, osterantzean, beste neurri konplexuago baten osagarria izan daiteke. Neurria autonomia izanez gero, horren xedea da beharizan zehatzak asetzea, halako beharizanak igarri direlako eta beharizan horiek haren oso-osoko garapena oztopatzen dutelako. Izan daiteke erkidegoan dagoeneko badagoen programa batera joatea edo bertan parte hartzea, edo neurria betearazteko ardura duten profesionalak *ad hoc* sortutako batera joatea. Gizarte- eta hezkuntza-zereginen adibide gisa, honakoak aipa daitezke: zereginetarako tailer batera, konpentsazio-hezkuntzako gela batera edo enplegua prestatzeko ikastaro batera joatea; gizarte-kulturaren sustapenerako jardura egituratueta parte hartzea; gizarte-gaitasuna ikasteko tailerretara joatea eta abar.

AZELOn jasotako neurrien izaera aztertu ondoren ikusten den bezala, lege hau inflexio-puntua izan zen zigor-arloko arau-hausteak egiten dituzten adingabeak tratatzeko eremuan. Gazte-justiziaren eredu tradizionala alde batera utzi, protekzionistagoa edo paternalistagoa dena, eta modu esanguratsuan sustatzen da hezkuntza-erantzulearen eredu. Umearen erantzukizuna funtsezkoa da prozesuan eta egitatean, bai eta bere hezkuntza-beharrak ere; horiek biak izango dira prozesua eta aplikatu beharreko neurriak markatuko dituzten bi tesiak.

1.4.2 1774/2004 Errege Dekretua, uztailaren 30ekoa, Adingabeen Zigor Erantzukizunari buruzko urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa garatzen duen Erregelamendua onartzen duena

1774/2004 Errege Dekretuak, uztailaren 30ekoak, 5/2000 Lege Organikoa honako hiru gai hauen inguruan garatzen du, zati batean: Polizia Judizialaren eta talde teknikoaren jarduna, kautela-neurrien eta behin betikoen betearazpena eta zentroen diziiplina-erregimena.

Polizia Judizialaren eta talde teknikoaren jarduketari buruzko II. kapituluak bi kolektibo horien esku-hartzea arautzen du. 2. eta 3. artikulua Polizia Judizialaren



jarduketari buruzkoak dira; Polizia Judiziala funtzionalki Fiskaltzaren eta Adingabeen epailearen mendekoa da, eta arreta berezia eskaintzen dio adingabeen atxiloketarako moduari. 4. artikulua talde teknikoaren jarduketari buruzkoa da (psikologoak, hezitzaileak, gizarte-langileak, adingabea atxilotzen dutenetik asistentzia emateko arduraduna, adingabeen epaileei asistentzia emateko arduradunak eta Fiskaltzari asistentzia emateko arduradunak eta bitartekaritzan esku hartzeko arduradunak).

"Neurriak betearazteko arauak" deritzan III. kapitulua hiru apartatutan banatzen da: Arau komunen araubidea dela eta, neurrien eta adingabeen eskubideak gauzatzeko oinarri izan behar duten printzipioak dira. Gainera, erakunde publikoaren jarduketa arautzen du, askatasuna kentzeko eta ez kentzeko neurrien kasuetan. Adingabeak kaltea konpondu nahi duen eta biktimarekin adiskidetu nahi duen kasuetan arautzen da, eta zeregin hori erakunde publikoari esleitzen zaio; erakunde publikoak izango du bitartekaritza egiteko ardura. Bestalde, askatasuna ez kentzeko neurriak betearazteko arau bereziak aurreikusten ditu, bai eta betearazteko programa indibidualizatua egiteko beharra ere. Azkenik, askatasuna kentzeko neurriak direla eta, sartzeko, adingabeari asistentzia emateko, komunikazio-erregimenerako eta abarrerako neurriak eta izapideak arautzen ditu, eta xedapenak jasotzen ditu barneratze-erregimenei (23-29, 34. eta 53. art.), zentrozen funtzionamenduari (30., 33., 35. eta 53-58 art.), adingabearen sarrerari eta askatasunari (31., 32., 34. eta 36. art.), adingabeari asistentzia emateari (37., 38. eta 39. art.), jakinarazpenei (40-44 art.) eta irteera eta baimenei buruz (45-52 art.).

Azkenik, zentrozen diziplina-araubideari buruzko IV. kapitulua zenbait gaimultzotan banatzen da: 59. eta 60. artikuluetan oinarria eta aplikazio-eremua eta diziplina-ahala arautzen dira. Diziplina-hutsak oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke, eta 61. artikulutik 64.era bitartean arautzen dira. Zehapen orokorrak eta zalantzagabeak 65. artikulutik 69.era bitartean arautzen dira. Zehapenak ezartzeko prozedurak 70. artikulutik 80.era bitartean arautzen dira. Eta, azkenik, zehapenei (gauzatzea eta betetzea, murrizketa, etetea eta ezabatzea, iraungitzea eta preskripzioa) eta pizgarri edo sariei buruzko arau bereziak 81. artikulutik 85.era bitartean jasotzen dira.



1.5 EAEko tresna nagusiak

Euskal Autonomia Erkidegoan ere araudi propio ugari dago, zentzu zabalean, adingabeak babesteko. Zehazki, atal honetan, legearekin gatazkan dagoen eta neska-mutilekin lotura zuzenena duena nabarmenduko dugu, labur-labur.

1.5.1 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzekoa eta Babestekoa

Legearen helburua lehenengo artikuluan zehazten da, honako puntu hauen bidez:

- ✓ Konstituzioak, Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmenak, Haurren Eskubideei buruzko Europako Gutunak eta, oro har, antolamendu juridikoak Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren edo dauden haur eta nerabeei onartzen dizkieten eskubideak gauza daitezzen bermatzea.
- ✓ Haur eta nerabeen eskubideak eta ongizatea sustatzeko jarduerak eta haur eta nerabeak zaindu eta babesteko esku-hartzeak gauzatu behar diren jardun-esparrua ezartzea, familian eta gizartean haur eta nerabeen garapena bermatzeko.
- ✓ Babesgabezia-egoeran edo arrisku-egoeran dauden haur eta nerabeak babesteko arloan eta arau-hausle adingabeekin egin behar diren esku-hartzeen arloan jarduteko printzipioak zehaztea, bai eta eginkizun horretan eskumenen eta erakundeen esparrua mugatzea ere.

1.5.2 163/2008 Dekretua, irailaren 30ekoa, Erakunde laguntzaileak baimentzeari, homologatzeari, ikuskatzeari eta erregistratzeari buruzkoa, EAEko adingabea arau-hausleei zuzendutako gizarte- eta hezkuntza-jarduerari dagokionez

Bestalde, irailaren 30eko 163/2008 Dekretua onetsita, adingabe arau-hausleentzako gizarte- eta hezkuntza-arloko arreta ematen duten erakunde laguntzaileen antolaketa-arauak ezartzen dira. Zehazki, honako jarduketa hauek arautzen dira: administrazio-baimena arreta egokia bermatu ahal izateko behar diren eskakizunak eta baldintzak betetzen dituzten erakunde laguntzaileentzat; erakunde laguntzaile horien homologazioa, EAEko administrazioarekin hitzarmenak ezartzeko aurretiko baldintza gisa; erakunde laguntzaile horien ikuskaritza eta, azkenik, erakunde laguntzaile horien erregistroa.



1.5.3 80/2009 Dekretua, apirilaren 21ekoa, askatasunaz gabetzeko neurriak betearazten dituzten EAEko hezkuntza-zentroei buruzkoa

Azkenik, apirilaren 21eko 80/2009 Dekretuak (askatasunaz gabetzeko neurriak betearazten dituzten EAEko hezkuntza-zentroei buruzkoak) helburu du hezkuntza-zentroek bete beharko dituzten eskakizun materialak, funtzionalak eta langileenak arautzea, 5/2000 Legean aurreikusitako askatasunaz gabetzeko neurriak betearazteko. Horrela, adingabeen neurrien betearazpenaren printzipio gidariak, eskubideak eta betebeharrak jasotzen dira, bai eta hezkuntza-zentroetan lan egiten duten profesionalen eskubide eta betebeharrak ere. Bestalde, hezkuntza-zentroetan hartutako pertsonen arreta emateko eta horiekin esku hartzeko arloak ere arautzen ditu, bai eta hezkuntza-zentroen ezaugarriak, tipologia eta antolaketa, zaintzari eta segurtasunari buruzko kontuak, baimenak, diziplina-araubidea eta kexak eta ikuskaritza ere.



2. GAZTE-JUSTIZIAREN IV. PLANAREN (2014-2018) EBALUAZIOA

2.1 Sarrera

2014-2018 aldirako Gazte Justiziaren Plana Gobernu Kontseiluak onetsi zuen 2015eko irailaren 22an. IV. Plana da, Eusko Jaurlaritzak 1996. urtean adingabe arau-hausleak gizarteratzeko eskuduntza hartu zuenetik.

IV. Planaren helburua argia zen: zeharkakotasuna, ildo estrategikoetan jasotzen den bezala. Planaren helburuek eta ekintzek honako gai hauetan eskumena duten sailak inplikarazten dituzte: justizia, enplegua, hezkuntza, osasuna, segurtasuna, gizarte-politikak, etxebizitza, prestakuntza, etab. Testuinguru horretan, Lan eta Justizia Saileko Justizia Zuzendaritzari prozesuaren lidergo-funtzioa esleitzen zaio; hala egin izan du plana indarrean egon den aldian.

Honako hauek dira planean zehazten diren bederatzi helburu orokorrak:

- EAEko administrazio orokorraren mendeko adingabeen epaitegiek hartzen dituzten ebazpen guztien exekuzioa ahalik eta denborarik laburrenean bermatzea.
- Gazte-justiziarekin harremanetan jartzen diren pertsona guztiei, prozeduraren edozein fasetan kontziliazio nahiz erreparazioko programetarako sarbidea bermatzea.
- Gazte-justiziaren erantzunak pertsona bakoitzaren errealitatera egokitzea eta, horrela, gizarteratzea hobetzea.
- Adingabeek egiten dituzten arau-haustek prebenitzea eta gutxiaraztea.
- Gazte-justizian inplikaturik dauden eragileei prestakuntza espezializatua eta espezifikoa eskaintzea.
- Programa, zerbitzu eta zentro aukera handia edukitzea, eskarietara egoki daitezkeenak, neurri zehatzailea nahiz hezitzailea bete behar duten adingabe guztientzako bikaintasunean oinarritutako erantzuna bermatzen dutenak.
- Informazioa biltzeko sistema hobetzea, esku-hartze efizienterako eta eraginkorrerako aukera emango duena.
- Adingabeek egindako zigor-arloko arau-hausteen erakunde-erantzunaren kudeaketa ebaluatzea.



- Gazte-justiziaren neurriak bete dituzten pertsoneri lotutako atzera egiteko adierazleei buruz ikertzea.
Hurrengo orriotan, planteatutako helburuak zenbateraino bete diren jakiteko aukera emango duen informazioa emango da.

Informazioa lortzeko, batez ere honako iturri hauetara jo da:

- Lan eta Justizia Saileko (lehenago, Herri Administrazio eta Justizia Saileko) Justizia Zuzendaritza.
- Segurtasun Saila (lehenago, Herrizaingo Saila), Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila (lehenago, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila), Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila (lehenago, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila), Osasun Saila eta Lan eta Justizia Saila (lehenago, Herri Administrazio eta Justizia Saila); eta
- Euskal Herriko Unibertsitatea (Kriminologiaren Euskal Institutuaren bidez).

Txostenak sei kapitulu ditu:

- ✓ Justizia Zuzendaritzatik kanpoko iturrien datu orokorrak.
- ✓ Justizia Zuzendaritzako datu orokorrak.
- ✓ Neurriak betearazteko baliabideak: egoitza-zerbitzuak eta ingurune irekiko zerbitzuak.
- ✓ Sail bakoitzaren helburu espezifikoak: ekintzak.
- ✓ Gazte-justiziako hezkuntza-arloko esku-hartzearen eraginkortasun-adierazleak.
- ✓ Laburpena eta ondorioak.

2.2 1. kapitulua: Justizia Zuzendaritzatik kanpoko iturrien datu orokorrak

Eusko Jaurlaritzaren Gazte Justiziaren IV. Planaren (2014-2018) azkeneko ebaluazioa egiteko erabili ditugun Justizia Zuzendaritzatik kanpoko datuen informazio-iturriak honako hauek izan dira:

- Estatuko Fiskaltza Nagusia
- Estatistikako Institutu Nazionala
- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia



Iturri guztiek ikuspegi panoramikoa ematen dute gazte-justiziari buruz, bai gure autonomia-erkidegoan, baita beste erkidego batzuetan ere. Horrek aukera ematen digu eremu bien egoera erkatzeko. Estatuko Fiskaltza Nagusiaren, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren eta Estatistikako Institutu Nazionalaren urteko memoriak baliatu ditugu datuak lortzeko. Memoria horietan atal espezifiko bat egituratu da arau-hausle adingabeei buruz.

Dokumentu honetan jaso diren taulak *ad hoc* egin dira, memoria hau prestatzeko. Datuak, ondorioz, epigrafe handien arabera aurkeztu dira, erakunde bakoitzak emandako informazioaren arabera; beraz, ezinezkoa da, erabat, hiru iturri horietako datuak erkatzea. Hala ere, hasieran esan dugun bezala, horien irakurketaren eta analisiaren bidez, adingabeek azkeneko ebaluazioaren aldi egin dituzten arau-hausteen joera orokorra ikus dezakegu.

2.2.1 Estatuko Fiskaltza Nagusiaren memoriak

Gure autonomia-erkidegoko adingabe arau-hausleei buruzko Fiskaltzaren jardueraren erkaketa bat egiteko, *Estatuko Fiskaltza Nagusiaren Memoriak* berrikusi dira, 2014-2018ko aldi; horietan, Fiskaltzak argitaratu aurreko urtean garatutako jarduera jasotzen da, bai eta kriminaltasunaren bilakaera, delituaren prebentzioa eta justizia eraginkorragoa izateko komeni diren erreformak ere. Bertan, organoetako fiskalek aldi berean Estatuko Fiskal Nagusiari bidalitako memorien oharra ere jasotzen dira. Atalean aztertzen diren eremuak arau-haustek, neurriak, epaiak eta eginbide eta espedienteen izapidetzea dira. Oso zaila da datuak erkatzea; izan ere, aldatu egiten dira, bai aurkezteko formatuari dagokionez, bai epigrafe batzuen izendapenari dagokionez. Epigrafe bakoitza aztertzeko, 2014-2018 aldia hartzen duen taula bakarra egin da.

2.2.1.1 Arau-haustek

2014-2018 aldiko delituak eta falta edo delitu arinak jaso dira taulan, baina faltak, berez, 2015ean ezabatu ziren⁶. Ikus bezala, guztira, 11.672 arau-hauste egin dira: gehienak delituak dira (% 61, 7.177 arau-hauste); eta % 39 falta eta delitu arinak dira

⁶1/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, honako lege organiko hau aldatzen duena: 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodearena.



(4.495 arau-hauste). Aztertutako aldiaren pixkanaka egin du gora arau-hausteen guztizkoak: 2014an, 2.047; 2018an, 2.609. Horrek % 22ko igoera eragin du.

Delituei dagokienez, nabarmentzekoa da askotarikoak direla: gehien egiten diren delituak hamar dira, eta, gehienez ere, % 14 osatzen dute; eta delituen % 28, ordea, «beste batzuk» atalean jasota dago. Ez dago gehiengoa duen kategoriarik, baina etxeko indarkeria eta genero-indarkeria da maiztasun handienez egiten dena (% 14); ondoren, lesioak (% 13); gero, pertsonen aurkako indarkeria edo larderia erabiliz egindako lapurreta (% 12), ebasketak eta indarra erabiliz egindako lapurretak (% 9, hurrenez hurren); eta kalteak (% 7). Sei delitu horiek maiztasun handienez egin dituzte gure erkidegoko gazteek aldi aztertuan, eta, guztira, delitu horiek % 65,2 osatzen dute.

Familia barruko indarkeriari edo etxeko indarkeriari dagokienez, EAEko Fiskaltzaren 2015-2018 txostenetan (2014-2017 ekitaldiei buruzkoak) aipatzen da 2012tik delitu horrek lehen postua hartu duela adingabe arau-hausteen delitu-figuren zerrendan (Gipuzkoako Fiskaltzak azaldu du egitate horien protagonistak emakumeak izaten direla gero eta gehiago); halaber, deigarria da adingabeen indarkeria-alderdi hori etxean soilik agertzea, talde teknikoen txostenean azaldu den bezala. Gainera, nabarmentzekoa da gurasoek erru-sentimenduak izaten dituztela, eta edozein familian gertatzen direla (hau da, ohiko egitura duten eta baliabide ekonomiko nahikoak dituzten familietan ere bai). Bizkaiko Fiskaltzak 2015eko txostenean adierazi zuen komeni zela hezkuntza-taldearekiko bizikidetzaren neurria ezartzea, eta Eusko Jaurlaritzak oraindik ez zeukala horrelako baliabiderik. 2019an zentro bat zabaldu da Bizkaian. 20 plaza ditu, horrelako egitatei lotutako neurriak betetzeko.

Falta edo delitu arinei dagokienez (guztira 4.495, hots, % 39), aztertu diren urte guztietan gora doaz pixkanaka: 2014an, 628; 2018an, 989. Jabetzaren edo ondarearen aurkako falta edo delitu arinek % 57 osatzen dute: 2014an, 288; eta 2018an, 606. Pertsonen aurkako falta edo delitu arinek guztizkoaren % 39 osatzen dute: 2014an, 277; eta 2018an, 357.



1. taula. Fiskaltzak jasotako arau-hausteak (2014-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua.
Iturria: Estatuko Fiskaltza Nagusia.

ARAU-HAUSTEAK		2014	2015	2016	2017	2018	GUZTIRA
DELITUAK	Etxeko indarkeria edo genero-indarkeria ⁷	174	194	171	245	231	1.015 (% 14,1)
	Lesioak	260	109	176	202	155	902 (% 13,4)
	Indarkeriaz eta larderiez eginiko lapurretak	143	158	177	218	185	881 (% 12,3)
	Ebasketak	198	104	89	134	153	678 (% 9,4)
	Lapurreta indarrez	181	114	103	126	120	644 (% 9)
	Kalteak	120	66	73	123	117	499 (% 7)
	Trafikoaren segurtasunaren aurkakoak ⁸	48	35	32	39	48	202 (% 2,8)
	Sexu-askatasunaren aurkakoak ⁹	19	25	35	36	43	158 (% 2,2)
	Osasun publikoaren aurkakoak	25	22	8	28	37	120 (% 1,7)
	Bizitzaren aurkakoak ¹⁰	1	1	---	4	2	8 (% 0,1)
	Bestelakoak	250	308	508	475	529	2.070 (% 28)
DELITUAK, GUZTIRA		1419	1136	1372	1630	1620	7.177 (% 61)
FALTAZ EDOTA DELITU ARINAK	Jabetza ¹¹	288	489	597	597	606	2.577 (% 57)
	Pertsonak	277	398	354	378	357	1.764 (% 39)
	Bestelakoak	63	46	9	15	26	159 (% 4)
FALTAZ EDOTA DELITU ARINAK, GUZTIRA		628	933	955	990	989	4.495 (% 39)
GUZTIRA		2047	2069	2327	2620	2609	11.672 (% 100)

⁷Delitu honetan, honako arau-hauste hauek jasotzen dira: etxeko indarkeria eta genero-indarkeria.

⁸Aurrekoa bezalakoak: alkoholaren edo drogen eraginpean gidatzea; gidatze ausartegia eta baimenik gabe gidatzea.

⁹ Aurrekoa bezalakoak: sexu-erasoa, sexu-abusua.

¹⁰Arau-hauste honen izendapena aldatu da, eta giza hilketako delitu/erailketako dolo delitu jarri da.

¹¹Arau-hauste honen izendapena aldatu da, eta «ondarea» deitu zaio.



2.2.1.2 Neurriak

Taula honetan, Fiskaltza Nagusiak 2014-2018 urteetan aldi horretan delitu-egitateren bat gauzatu duten adingabeei ezarritako neurriei buruz emandako datuak erakusten dira.

Lehenik eta behin, gehien erabili den neurria zaintzapeko askatasuna izan da (% 38); ondoren, gizartearentzako lanak (% 22); eta hirugarrenik, barneratzea (% 17).

Era berean, aztertu dugun aldi gora egin dute honako neurri hauek: barneratze-neurriak (barneratze irekiko neurriak, ordea, behera egin dute); zaintzapeko askatasunak; gizartearentzako lanak; familiako edo hezkuntza-taldearekiko bizikidetzak (nahiz eta ia berdin jarraitu); eta «beste batzuk» atalean biltzen direnak. Bestalde, komeniko litzateke ezarritako neurri guztien datuak eskuragarri izatea, adingabeen epaitegiek ezarri dituzten neurrien argazkia gehiago zehaztu ahal izateko. Aitzitik, behera egin dute barneratze irekiko neurriak eta asteburuko egonaldiak.

Neurrien eraldaketari buruzko atalari dagokionez, aldi aztertuan gehien erabili direnak neurria urratzeari buruzkoak izan dira (5/2000 Zigor Legearen 50.2 artikulua); eta bigarrenik, murrizketak eta ordezkapenak (5/2000 Zigor Kodearen 13. eta 51. artikulua). Neurria aurretiaz ezerezteko kasuek % 6 osatzen dute. Bestalde, espetxeetara bidaltzeari edo barneratze-kasu bihurtzeari buruzko kasuak gutxi-gutxi batzuk baino ez dira izan.



2. taula. Fiskaltzak jasotako neurriak (2014-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Estatuko Fiskaltza Nagusia.

NEURRIAK		2014	2015	2016	2017	2018	GUZTIRA
BARNERATZEAK	Itxita	3	3	5	8	7	26
	Erregimen erdi-irekia	51	76	104	108	107	446
	Irekita	21	8	6	8	9	52
	Terapeutikoa	15	17	15	20	17	84
ASTEBURUKO EGONALDIA		123	54	39	49	48	313 (% 9)
ZAINTZAPEKO ASKATASUNA		162	290	286	285	313	1.336 (% 38)
GIZARTEARENTZAKO LANAK		111	160	127	161	171	730 (% 22)
FAMILIAKO/HEZKUNTZAKO BIZIKIDETZA		10	4	3	7	11	35 (% 1)
BESTE BATZUK ¹²		67	88	100	107	104	466 (% 13)
GUZTIRA		563	700	685	753	787	3.488 (% 100)
NEURRIEN ERALDAKETA	50.2. artikulua urratzea	27	60	71	82	59	299 (% 48)
	Murrizketak eta ordezkapenak (13. eta 51. artikulua ¹³)	68	78	57	32	46	281 (% 45)
	Neurria aurretiaz ezereztea	16	6	11	4	1	38 (% 6)
	Espetxeetara bidaltzea	----	1	2	----	----	3 (% 1)
	Barneratze itxia bihurtzea	----	----	1	----	1	2 (%----)
GUZTIRA		111	145	142	118	107	623 (% 100)

¹² Beste batzuk: Eguneko zentrora joatea; tratamendu ambulatorioa; eta gizarte- eta hezkuntza-zereginak.

¹³ Kasu 1 barneratze itxia bihurtu da (51.2 artikulua). Gipuzkoako Fiskaltza, 2015. urtean.



2.2.1.3 Epaiak

Atal honetan, 2014-2017 aldian Euskal Autonomia Erkidegoko adingabeek eginiko delitu-egitateen gainean ezarritako epaiak erakusten dira.

Ikusi bezala, aztertutako aldian absoluzio-epaiak behera egin dute (2014an, 93; 2018an, 73). Guztira, 403 absoluzio-epai eman dira ebaluatu ditugun bost urteetan. Epai kondenatzaileei dagokienez, gehienak adostasunez eman dira (2.209 epai kondenatzaile, % 74), bai aldi aztertuan, bai azertu den urte bakoitzean. Dena den, 2015ean gora egin zuten adostasunik gabeko epaiak, eta harrezkero, balioak 2014koak baino handiagoak izan dira beti.

Azkenik, fiskaltzaren apelazio bidezko baliabideak aztertzen baditugu, ikus dezakegu igoera txiki bat gertatu dela (2014an, 13; 2018an, 24). Fiskalaren errekurtsio guztiak 96 izan dira aldi horretan.

3. taula. Fiskaltzak jasotako epaiak (2014-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua.
Iturria: Estatuko Fiskaltza Nagusia.

EPAIAK		2014	2015	2016	2017	2018	Guztira	
ABSOLUZIO-EPAIAK		93	82	77	78	73	403	
KONDENA-EPAIAK	Adostasunik gabe	120	200	166	168	132	786 (% 26)	2995
	Adostasunez	467	385	396	436	525	2.209 (% 74)	
FISKALAREN ERREKURTSOAK (apelazioa)		13	16	19	24	24	96	

2.2.1.4 Eginbideak eta espedienteak izapidetzea

Taula hau irakurtzean, 2014-2018 aldian eskuratutako datuei beha diezaiekegu, espediente eta eginbideen izapidetzearen ingurukoei.



Lehenik eta behin, atariko eginbideei dagokienez, gero eta eginbide gehiago hasten dira urtez urte: 2014an, 2.155; 2018an, 2.696. Halaber, honako hauek ere apur bat igo dira: eginbidea hasteko erabakian atzera egin dutenak (18. artikulua), beste kausa batzuentatik artxibatu direnak eta abenduaren 31n hasteke zeudenak. 14 urtetik behera izategatik artxibatu direnak dira behera egin duten bakarrak.

Bestalde, erreforma-espedienteetan ere ikusi dugu espediente gehiago zabaldu direla: 2014an, 1.140; eta 2018an, 1.237. Bestalde, epaiketaz kanpoko irtenbideek gora egin dute: 60tik 147ra; alegazio-idazkiak (30. artikulua): 572tik 667ra. Abenduaren 31n ebazteke zeuden espedienteak: 2014an, 229; 2018an, 353. Largespen-kasuei buruzko datuak (27.4. artikulua) dira behera egin duten bakarrak: 2015ean, 93; 2018an, 36.



4. taula. Fiskaltzak izapidetu dituen eginbideak eta espedienteak (2014-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Estatuko Fiskaltza Nagusia.

EGINBIDEAK ETA ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEA		2014	2015	2016	2017	2018
PRESTAERAKO EGINBIDEAK	Hasi direnak	2155	2406	2528	2891	2696
	14 urtetik behera izateagatik artxibatu direnak	239	243	235	268	212
	Hasteko erabakian atzera egiteagatik artxibatu direnak (18. art.)	365	375	361	403	478
	Beste kausa batzuegatik artxibatu direnak	520	392	729	432	709
	Abenduaren 31n ebazteke zeudenak	104	273	272	358	243

ERREFORMA- ESPEDIENTEAK	Hasi direnak	1140	1076	1031	1214	1237
	27.4 artikuluko largestea	93	133	65	43	36
	Epaiketaz kanpoko irtenbideak	60	77	104	146	147
	Alegazioen idatzia, 30. art.	572	660	578	612	667
	Abenduaren 31n ebazteke zeudenak	229	212	287	324	353

2.2.2 Estatistikako Institutu Nazionala

Estatistikako Institutu Nazionala beste informazio-iturri bat da. Bertako datuak Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Adingabeen Zigor Erantzukizunaren Epaien Erregistro Nagusiaren ustiapenetik abiatuta jasotzen dira, 2007ko uztailean Justizia Ministerioarekin, erregistro horren titularrarekin, sinatutako lankidetzaz hitzarmenari jarraikiz. Atal honetan jaso dugun informazioa erregistroan inskribatu diren epai irmoei buruzko nazioko zein erkidegoko datuak esplotatuz lortu da. Hiru atal handitan



banatu ditugu, eta honako hauek dira: adingabe arau-hausleak; egindako arau-haustek; eta erabili diren neurriak.



2.2.2.1 Adingabeak (Konparazioa: EAE eta beste autonomia-erkidego batzuk)

EAE gainerako autonomia-erkidegoekin erkatzeko lehen analisisian kontuan hartu ditugu: lehen delitua zein adinekin egin zuten, eta emakumeen eta gizonen arteko bereizketa.

Lehenik eta behin, datuak bi adin-tartetan taldekatu ditugu datuak errazago irakurtzeko: 2015ean arau-hausteren bat 14 edo 15 urterekin egin zutenen ehunekoa % 44 izan zen (handiena), eta 2018an % 33 izan zen (txikiena). Gainerako autonomia-erkidegoetan handiagoa da egonkortasuna (% 40). Laburbilduz, delituak egiten dituzten adingabeen ehunekoa handiena (% 60) 16 eta 17 urte arteko adingabeek osatzen dute, bai EAEn, bai gainerako erkidegoetan.

5. taula. Adingabeen kopurua / Adina (Estatuan eta EAEn, 2014-2018 aldian, guztira). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala.



Adingabe kopurua / Adina	2014		2015		2016		2017		2018	
	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn
14-15	5.974 (% 40)	199 (% 39)	5.646 (% 40)	230 (% 44)	5.381 (% 42)	175 (% 36)	5.640 (% 41)	202 (% 39)	5.660 (% 41)	175 (% 33)
16-17	9.074 (% 60)	309 (% 61)	8.335 (% 60)	291 (% 56)	7.547 (% 58)	307 (% 64)	8.003 (% 59)	320 (% 61)	8.004 (% 59)	353 (% 67)
HAURRAK, GUZTIRA	15048	508	13981	521	12928	482	13643	522	13664	528

Arau-hausleen sexuari dagokionez, mutilen eta nesken ehunekoen arteko egonkortasuna ondorioztatu da, bai EAEn, bai estatuan. Neskek talde bietan % 20 osatzen dute aztertutako ia aldi osoan. Aurrerago, gizonak eta neskek egindako delituei buruzko datuak xehetasun handiagoz aztertzen ditugunean, ikusiko dugu delitu-egitate batzuk gizonak egiten dituztela ia eskusiboki; eta, beste batzuk, ordea, gizonak eta neskek egiten dituztela.



6. taula. Adingabeen kopurua / Sexua (estatuan eta EAEn, 2014-2018 aldian, guztira). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala.

Adingabe kopurua / Sexua	2014		2015		2016		2017		2018	
	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn
Gizonezkoak	12.147 (% 81)	401 (% 79)	11.141 (% 80)	409 (% 79)	10.346 (% 80)	387 (% 80)	10.819 (% 79)	420 (% 80)	10.753 (% 79)	425 (% 80)
Emakumeak	2.901 (% 19)	107 (% 21)	2.840 (% 20)	112 (% 21)	2.582 (% 20)	95 (% 20)	2.824 (% 21)	102 (% 20)	2.911 (% 21)	103 (% 20)
HAURRAK, GUZTIRA	15048	508	13981	521	12928	482	13643	522	13664	528

Honako taula honetan arau-hausleen jatorria aztertuko dugu. EAEn ikusi dugu atzerriko arau-hausleen kopuruak behera egin duela: 2014an, % 25; eta 2017an, % 22. Hala eta guztiz ere, 2018an igoera nabarmena egon da, aurreko urtearekin erkatuta; izan ere, aztertutako aldiko ehuneko handiena da. Estatuan, ordea, 2014an hasi zen beherakadak (% 22) jarraitu egin du: 2018an, % 18 izan da ehuneko hori. Nabarmentzekoa da, beraz, atzerriko arau-hausleen ehunekoa handiagoa dela EAEn, Estatuko gainerako erkidegoekin erkatuta; zehazki, hiru edo lau puntu handiagoa da. Horren azalpena izan daiteke, duda barik, bidaiderik gabeko adingabe asko daudela, besteak beste.



7. taula. Adingabeen kopurua / Jatorria (Estatuan eta EAEn, 2014-2018 aldian, guztira). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala.

Adingabeak / Nazionalitatea	2014		2015		2016		2017		2018	
	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn
Espainiarra	11.674 (% 78)	383 (% 75)	11.128 (% 80)	396 (% 76)	10.340 (% 80)	365 (% 76)	10.993 (% 81)	407 (% 78)	11.162 (% 82)	388 (% 73)
Atzerritarra	3.284 (% 22)	125 (% 25)	2.853 (% 20)	125 (% 24)	2.588 (% 20)	117 (% 24)	2.650 (% 19)	115 (% 22)	2.502 (% 18)	140 (% 27)
HAURRAK, GUZTIRA	15048	508	13981	521	12928	482	13643	522	13664	528

Bestalde, interesgarria da adingabeek egin dituzten arau-hauste penalen kopurua ere aztertzea. Estatistikako Institutu Nazionalak EAEn eta gainerako erkidegoei buruz eman dituen datuen arabera, urte guztietan (2018an izan ezik, EAEn), arau-hauste penal bakarra egiten dutenen taldea handiena da. Alabaina, ehuneko hori EAEn baino askoz ere handiagoa da Estatuaren batezbestekoan (Estatuaren batezbestekoa % 65 da; eta EAEn, % 54), eta alderik handiena 2018an gertatu da.



8. taula. Adingabeen kopurua / Arau-hauste penalen kopurua (Estatuan eta EAEn, 2014-2018 aldian, guztira). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala.

Adingabeak / Arau-hauste penalen kopurua	2014		2015		2016		2017		2018	
	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn
Arau-hauste 1	9.666 (% 64)	302 (% 59)	9.097 (% 65)	277 (% 53)	8.479 (% 66)	249 (% 52)	9.001 (% 66)	290 (% 56)	8.621 (% 63)	257 (% 49)
Arau-hauste 2 edo gehiago	5.382 (% 36)	206 (% 41)	4.884 (% 35)	244 (% 47)	4.449 (% 34)	233 (% 48)	4.642 (% 34)	232 (% 44)	5.043 (% 37)	271 (% 51)
HAURRAK, GUZTIRA	15048	508	13981	521	12928	482	13643	522	13664	528

Hartu diren neurrien kopurua ere aztertu dugu. Aurreko taulan jasotako datuak gorabehera, ez dago alde esanguratsurik EAEn eta Estatuko gainerako erkidegoen artean: EAEn, neurri (1) bakarreko taldearen batezbestekoa % 66 ingurukoa da, eta gainerako erkidegoetan % 67. Horrez gain, edonola ere, bi neurri edo gehiago erabili dituztenen taldeak gora egin du batez ere EAEn (2014an, % 30; eta 2018an, % 38); eta gainerako erkidegoetan (2014an, % 32; eta 2018an, % 33).



9. taula. Adingabeen kopurua / Hartu diren neurrien kopurua (Estatuan eta EAEn, 2014-2018 aldian, guztira). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala.

Adingabeak / Zenbat neurri hartu diren	2014		2015		2016		2017		2018	
	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn
Neurri 1	10.182 (% 68)	355 (% 70)	9.407 (% 67)	339 (% 65)	8.665 (% 67)	313 (% 65)	9.064 (% 66)	344 (% 66)	9.134 (% 67)	328 (% 62)
Neurri 2 edo gehiago	4.866 (% 32)	153 (% 30)	5.574 (% 33)	182 (% 35)	4.263 (% 33)	169 (% 35)	4.579 (% 34)	178 (% 34)	4.530 (% 33)	200 (% 38)
HAURRAK, GUZTIRA	15048	508	13981	521	12928	482	13643	522	13664	528

2.2.2.2 Egin diren arau-haustek (EAEn eta gainerako erkidegoen arteko konparazioa)

Egin diren arau-haustek erreferentzia-unitatetzat hartzen baditugu, EAEn mila arau-hauste egin dira urtean. Nabarmentzekoa da 2018an gora egin duela kopuruak, eta 1.269 egin direla.

Sexuari dagokionez, aztertu ditugun ia urte guztietan, emakumeek egin dituzten arau-hausteen kopurua % 20 da EAEn eta Estatuan. Neskek egindako arau-hausteen kopuruak, ordea, nabarmen egin du behera (2014an, % 20; eta 2018an, % 15).



10. taula. Arau-hausteen kopurua / Sexua (Estatuan eta EAEn, 2014-2018 aldian, guztira). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala.

Arau-hausteen kopurua / Sexua	2014		2015		2016		2017		2018	
	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn
Gizonezkoak	21.001 (% 82)	839 (% 80)	19.511 (% 81)	935 (% 82)	17.907 (% 81)	847 (% 82)	18.621 (% 81)	841 (% 82)	19.595 (% 81)	1.077 (% 85)
Emakumeak	4.716 (% 18)	207 (% 20)	4.494 (% 19)	208 (% 18)	4.079 (% 19)	186 (% 18)	4.429 (% 19)	186 (% 18)	4.745 (% 19)	192 (% 15)
ARAU-HAUSTEAK, GUZTIRA	25717	1046	24005	1143	21986	1033	23050	1027	24340	1269

Lehen delitu penala egin zuten pertsonen adinari dagokionez, talde bietako ehunekorik handiena 16 eta 17 urte artekoek osatzen dute, eta kasu guztietan gainerako erkidegoetan baino handiagoak dira EAEn osatutako datuak; batez ere, 2017. eta 2018. urteetan. Era berean, EAEn ehuneko hori nabarmen igo da 16 eta 17 urteko gazteen taldean: 2014an, % 58; eta 2018an, % 67. Alderdi hori, duda barik, ona da, horrek erakusten baitu gazteagoek delitu gutxiago egiteko joera dutela.



11. **taula.** Arau-hausteen kopurua / Adina (Estatuan eta EAEn, 2014-2018 aldian, guztira). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala.

Arau-hausteen kopurua / Adina	2014		2015		2016		2017		2018	
	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn
14-15	9.913 (% 39)	440 (% 42)	9.601 (% 40)	506 (% 44)	8.898 (% 40)	361 (% 35)	9.358 (% 41)	346 (% 34)	9.924 (% 41)	413 (% 33)
16-17	15.804 (% 61)	606 (% 58)	14.404 (% 60)	637 (% 56)	13.088 (% 60)	672 (% 65)	13.692 (% 59)	681 (% 66)	14.416 (% 59)	856 (% 67)
ARAU-HAUSTEAK, GUZTIRA	25717	1046	24005	1143	21986	1033	23050	1027	24340	1269

Azkenik, Estatistikako Institutu Nazionalak biltzen dituen datuen arabera, arau-hausteak egiten dituzten gazteen adina kontuan hartzen badugu, ondoriozta dezakegu espainiar herritarren ehunekoa % 78 (2017an) eta % 67 (2018an) artekoa dela. Halaber, aztertutako aldian hamaika puntu egin du gora. Antzeko egoeran daude gainerako autonomia-erkidegoak (baina kopuruak txikiagoak dira kasu guztietan): 2014an, % 76; eta 2017an eta 2018an, % 79.



12. taula. Arau-hausteen kopurua / Jatorria (Estatuan eta EAEn, 2014-2018 aldian, guztira). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala.

Arau-hausteen kopurua / Nazionalitatea	2014		2015		2016		2017		2018	
	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn
Espainiarra	19.670 (% 76)	775 (% 74)	18.721 (% 78)	836 (% 73)	17.095 (% 78)	731 (% 71)	18.252 (% 79)	797 (% 78)	19.294 (% 79)	848 (% 67)
Atzerritarra	6.047 (% 24)	271 (% 26)	5.284 (% 22)	307 (% 27)	4.891 (% 22)	302 (% 29)	4.798 (% 21)	230 (% 22)	5.046 (% 21)	421 (% 33)
ARAU-HAUSTEAK, GUZTIRA	25717	1046	24005	1143	21986	1033	23050	1027	24340	1269

2.2.2.3 Neurri aplikagarriak

Datuak adinaren arabera aztertzen baditugu, honako taula honetan ikus dezakegun bezala, 16 eta 17 artekoak dira aztertutako aldi neurri kopuru handiena duten adingabeak, bai EAEn, bai Estatuko gainerako autonomia-erkidegoetan. EAEn alderik handiena 2018an osatu zen: % 67, 16 eta 17 urte arteko taldean.



13. taula.

Adinaren arabera neurriak (beste autonomia-erkidego batzuk eta EAE, 2014-2018 aldian). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala.

NEURRIAK / ADINA	2014		2015		2016		2017		2018	
	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn
14-15	9.489 (% 39)	349 (% 42)	9.172 (% 40)	397 (% 45)	8.749 (% 41)	275 (% 35)	9.250 (% 40)	318 (% 37)	9.283 (% 41)	322 (% 33)
16-17	15.007 (% 61)	477 (% 58)	13.869 (% 60)	494 (% 55)	12.777 (% 59)	518 (% 65)	13.666 (% 60)	549 (% 63)	13.529 (% 59)	665 (% 67)
Neurriak, guztira	24496	826	23041	891	21526	793	22916	867	22812	987

Neurriak adingabe arau-hausleen jatorriaren arabera aztertzen baditugu, ikus dezakegu atzerritarren ehunekoa EAEn handiagoa dela, gainerako autonomia-erkidegoekin erkatuta, aztertu ditugun lau urteetan. Aldea bereziki handia da 2015ean (4 puntu), 2016an (5 puntu) eta, batez ere, 2018an (13 puntuko aldea osatzen da).

Horrez gain, gainerako autonomia-erkidegoetan behera egin du atzerriko herritarrei ezarritako neurri kopuruak: 2014an, % 24; eta 2018an, % 21. Hala eta guztiz ere, beherakada hori 2016tik 2017ra gertatu zen EAEn, aldi horretan sei puntu egin baitzuen behera (2014tik 2016ra, gora egiteko joera zegoen), eta 2018an nabarmen igo da.



14. taula.

Jatorriaren arabera neurri kopurua (beste autonomia-erkidego batzuk eta EAE, 2014-2018 aldian). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala.

NEURRIAK / NAZIONALITATEA	2014		2015		2016		2017		2018	
	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn
Espainiarra	18.535 (% 76)	612 (% 74)	17.769 (% 77)	651 (% 73)	16.668 (% 77)	572 (% 72)	17.997 (% 79)	676 (% 78)	18.032 (% 79)	656 (% 66)
Atzerritarra	5.961 (% 24)	214 (% 26)	5.272 (% 23)	240 (% 27)	4.858 (% 23)	221 (% 28)	4.919 (% 21)	191 (% 22)	4.780 (% 21)	331 (% 34)
Neurriak, guztira	24496	826	23041	891	21526	793	22916	867	22812	987

Azkenik, adingabe arau-hausleei ezarritako neurriak sexuaren arabera aztertzen baditugu, aurreko datuak eta datu horiek oso antzekoak dira, eta ehunekoak ia berdinak dira EAEn eta gainerako autonomia-erkidegoetan, aztertutako aldian.



15. taula.

Sexuaren araberako neurri kopurua (beste autonomia-erkidego batzuk eta EAE, 2014-2017 aldian). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala.

NEURRIAK / SEXUA	2014		2015		2016		2017		2018	
	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn	Estatuan, guztira	EAEn
Emakumezkoa	4.254 (% 17)	147 (% 18)	4.036 (% 17,5)	155 (% 17)	3.785 (% 18)	147 (% 19)	4.160 (% 18)	149 (% 17)	4.201 (% 18)	158 (% 16)
Gizonezkoa	20.242 (% 83)	679 (% 82)	19.005 (% 82,5)	736 (% 83)	17.741 (% 82)	646 (% 81)	18.756 (% 82)	718 (% 83)	18.611 (% 82)	829 (% 84)
Neurriak, guztira	24496	826	23041	891	21526	793	22916	867	22812	987



2.2.3 Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia

Atal honetan, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren estatistika judizialeko ataletik ateratako 2014tik 2018ra arteko datuen konparazioa jaso dugu. Arlo hauek aztertu dira epigrafe honetan:

- Gai kopurua.
- Auzien ebazpena.
- Epaien betearazpena.

2.2.3.1 Gai kopurua

Gaiei dagokienez, sartu den auzi kopurua izan da zigor-arloko jurisdikzioari buruzko daturik esanguratsuen; kopuru horretako datuak egonkor samarrak dira, baina 2014. urtea erreferentziatzat hartzen badugu, 1.008 auzi sartu dira, eta, 2018an, ordea, 1.241. Ebatzi diren auziei dagokienez, ez da aldaketa nabarmenik egon: 2014an, 1.162 auzi; eta 2018an, 1.171 auzi.

16. taula. BJKNren Adingabeen Jurisdikzio Zibileko eta Zigor-arloko Jurisdikzioko auzi kopurua, 2014-2018 aldian. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia.

GAI kopuruA		2014	2015	2016	2017	2018
JURISDIKZIO ZIBILA	Organoak	4	4	4	4	4
ZIGOR-ARLOKO JURISDIKZIOA	Organoak	4	4	4	4	4
	Izapidetzen, epealdiaren hasieran	521	425	408	453	514
	Sartutakoak	1008	1070	1032	1203	1241
	Ebatzitakoak	1162	1116	1011	1182	1171
	Izapidetzen, epealdiaren amaieran	425	408	453	514	623



2.2.3.2 Auzien ebazpena

Zigor-arloko jurisdikzioan ebatzi diren auziei dagokienez, honako taula honetan ikus dezakegu epai kopuruak gora egin duela: 2014an, 692; eta 2018an, 749.

17. taula. BJKNren Adingabeen Jurisdikzio Zibileko eta Zigor-arloko Jurisdikzioko gai kopurua, 2014-2018 aldian. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia.

AUZIEN EBAZPENA		2014	2015	2016	2017	2018
JURISDIKZIO ZIBILA	Organoak	4	4	4	4	4
	Epaiak	0	2	0	0	0
	Autoak	0	0	3	0	3
	Dekretuak	195	184	297	256	222
ZIGOR-ARLOKO JURISDIKZIOA	Organoak	4	4	4	4	4
	Epaiak	692	710	639	684	749
	Autoak	457	422	371	484	425
	Dekretuak	0	9	0	3	13

2.2.3.3 Epaien betearazpena

Azkenik, zigor-arloko jurisdikzioa berriro kontuan hartzen badugu, ikus dezakegu, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak eman dituen datuen arabera, ebatzitako epai kopuruak behera egin duela: 2014an, 738; eta 2018an, 503. Urte bakoitzaren amaieran: 2014an, 487 izapidetzen ari ziren; eta 2018an, 565.

18. taula. BJKNren Adingabeen Jurisdikzio Zibileko eta Zigor-arloko Jurisdikzioko epaiak, 2014-2018 aldian. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia.

EPAIEN BETEARAZPENA		2014	2015	2016	2017	2018
JURISDIKZIO ZIBILA	Erregistratuak	256	249	0	0	0
	Ebatziak	325	278	0	0	0
	Izapidetzen, epealdiaren amaieran	309	325	0	0	0
ZIGOR-ARLOKO JURISDIKZIOA	Erregistratuak	580	642	445	515	555
	Ebatziak	738	622	493	483	503
	Izapidetzen, epealdiaren amaieran	487	511	468	508	565



2.3. kapitulua: Justizia Sailburuordetzaren informazioa

2.3.1 Talde psikosozialen jardura: Adituen txostenak eta bitartekaritzako, kontziliazioko eta erreparazioko prozesuak adingabeen jurisdikzioan

Talde Psikosozial Judizial horrek (TPJ), bitartekaritza-programak egiteaz gain – jarraian zehazten dira datuak–, 5/2000 Lege Organikoak talde teknikoaren eskumen eta zeregin gisa esleitzen dituen jarduketak egiten ditu (27., 28., 35.,37., 47. artikulua, etab.).

19. taula. Talde psikosozialek gazte-justizian eginiko jardura (2014-2018). Geuk sortua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.

Talde psikosozialen jardura: Txostenak	2014	2015	2016	2017	2018	GUZTIRA
Txostenak. Aholkularitza	1220	1295	844	1001	1147	5507
Txostenak. Exhortoak	72	59	51	72	48	302
Txostenak. Betearazleak	118	104	38	53	97	410
<i>Guztira</i>	<i>1410</i>	<i>1458</i>	<i>933</i>	<i>1126</i>	<i>1292</i>	<i>6219</i>
Txostenak. Kautela-agerraldiak	61	82	43	60	53	299
Bertaratzea. Entzunaldi-egunak	206	221	207	213	211	1058
<i>Guztira</i>	<i>267</i>	<i>303</i>	<i>250</i>	<i>273</i>	<i>264</i>	<i>1357</i>

Talde Psikosozial Judizialen lanean agerikoa da hasierako urte bietan aholkularitza-txostenak egiteko eskaera egonkortu dela, eta 2016an beherakada nabarmena egon dela; gero, 2017an eta 2018an berriro igo da, baina ez da inola ere iritsi 2014ko eta 2015eko datuetara. Bestalde, kautela-neurrietako agerraldi-txostenak guztira 299 izan dira; eta entzunaldietara joateko egunak 1.058 izan dira, eta aztertutako aldian egonkortasuna behatu da.

Horrez gain, nahiz eta neurri bat ez izan, zentzu zorrotzenez, bitartekaritza-, kontziliazio- edo erreparazio-prozesuek gazte-justiziaren identitate-zeinuetako bat



osatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoan. Prozedura horiek Justizia Sailburuordetzako langileek betetzen dituzte, eta, zehatzago esateko, Talde Psikosozial Judiziala eratzen duten profesionalek. Adingabeen Zigor Erantzukizunari buruzko 5/2000 Lege Organikoak eta haren araudiak prozesu horien forma eta edukia arautzen dute, eta pisu handia ematen diete gizarteko eta hezkuntzako tresna gisa, gatazkak epaiketaz kanpo ebazteko. Adingabeen jokabideen eta horien ondorioen erantzukizunean zuzenean dute eragina, eta, horrela, protagonismoa ematen zaie biktimei.

20. taula. Gazte-justiziako bitartekaritzari buruzko datu orokorrak (2014-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.

Bitartekaritza-prozesuak	2014	2015	2016	2017	2018	GUZTIRA
Emaitza positiboa	221	333	270	322	287	1.433 (% 79)
Emaitza negatiboa	42	51	85	94	107	379 (% 21)
GUZTIRA	263	384	355	416	394	1.812 (% 100)

Aurreko taulan jasotako datuekin bat, 2014-2018 aldian egindako bitartekaritza guztietatik, % 79k emaitza positiboa izan zuten, alegia, aurreikusitako helburuak bete ziren, eta % 21 ez ziren bete. Bigarren kasu horretan, hots, bitartekaritza-prozesuak huts egiten duenean, zigor-arloko prozesuari berriro ekin zaio, eta dagokion entzunaldia egin da.

21. taula. Neurri irmoak eta bitartekaritzak (2014-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.

N. irmoak / Bitartekaritza	2014	2015	2016	2017	2018	GUZTIRA
Neurri irmoak	753 (% 74)	854 (% 69)	729 (% 67)	764 (% 65)	898 (% 69)	3.998 (% 69)
Bitartekaritza-prozesuak	263 (% 26)	384 (% 31)	355 (% 33)	416 (% 35)	394 (% 31)	1.812 (% 31)
GUZTIRA	1.016 (% 100)	1.238 (% 100)	1.084 (% 100)	1.180 (% 100)	1.292 (% 100)	5.810 (% 100)



Neurri irmoak eta bitartekaritzak lotzen baditugu, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan esku hartzeko eredu bat lortzen dugu. Eredu horren ezaugarri nagusia egonkortasuna izan da 2014-2018 aldian, baina 2016tik aurrera gora egiteko joera egon da. 2014an, neurriek % 74 osatu dute; eta bitartekaritzek, % 26. Aztertu den aldia 2018an amaitu da, eta bitartekaritza-prozesuen kopurua handiagoa (% 31) izan da. Oro har, bitartekaritza-prozesuek jarduera guztien % 31 hartzen dute.

22. taula. Bitartekaritza-prozesuak: Adinaren arabera (2014-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.

Adina	2014	2015	2016	2017	2018	GUZTIRA	
14 urte	48	32	18	32	11	141	538 (% 30)
15 urte	45	88	71	110	83	397	
16 urte	81	95	101	118	90	485	1.265 (% 70)
17 urte	77	122	83	72	98	452	
> 18 urte edo gehiago¹⁴	3	47	82	84	112	328	
GUZTIRA	254	384	355	416	394	1.803 (% 100)	

Bitartekaritza-prozesua bete duten neska-mutilen adina kontuan hartzen baldin badugu, ikus dezakegu 16 urteko edo urte gehiagoko taldeak guztizkoaren % 70 hartzen duela.

Azkenik, Gazte Justiziaren IV. Planeko (2014-2018) ekintzetan (9.5.3.2 ekintza) jaso den bezala, Justizia Zuzendaritzak Kriminologiaren Euskal Institutuari ematen dion dirulaguntza izendunaren esparruan, zigor-arloko bitartekaritza-prozesuen memoriak urtero egin dira EAEko lau epaitegietan. Ebaluazio horiek egin zirenean, ondorioztatu zen ez zegoela EAEko Adingabeen Epaitegietan datuak hartzeko prozedura homogeneorik edo arauturik. Horrek ebaluazio orokorra oztopatzen zuen, baita lurralde historikoen arteko konparazioa ere. Hori dela eta, 2015ean prozedura horri lotutako informazio-bilketa hobetzeko ahalegin handia egin zuten zigor-arloko

¹⁴Bitartekaritza hasten den uneko adina hartzen da kontuan, ez delitu-egitateak gauzatu zireneko adina.



bitartekaritzan parte hartzen zuten pertsona guztiek. Zehazki, Kriminologiaren Euskal Institutuak proposatu zuen informazioa biltzeko txantiloia bat egin eta ezarri zuten, eta EAeko Adingabeen Epaitegietan bitartekaritza-lanak egin dituzten talde psikosozial guztiek adostu zuten. Lehenik, Access txantiloia bat egin zen, epaitegietan zegoen eredu oinarri hartuta. Lehen bertsioa hartu ondoren, hiru bilera egin ziren (bilera bana lurralde bakoitzean). Bileretan zalantzak, desabantailak, hobekuntzak eta iradokizunak jakinarazi zitzaizkion KREI institutuari, txantiloia azkeneko bertsioa lortu arte. Azkenik, KREI institutuak txantiloia ezarri zuen lurralde bakoitzeko epaitegietan. Prozedura osoa 2015. urtean martxan jarri zen, eta, duda barik, eragina izan zuen bildutako datuetan.

Urtero aztertzen ditugun aldagaiak lau multzotan taldekatzen dira: arauhauslea, biktima, delitu-egitatea eta bitartekaritza-prozesua.

- ✓ 2016tik aurrera aldagai berriak ezarri dira bitartekaritza behar duen adingabearen profila sakontasun handiagoz aztertu ahal izateko. Labur esanda, orokorrean, hauexek dira ezaugarriak: gizona da, EAEn jaioa, jatorrizko familiarekin bizi da, DBHko ikaslea da, eta egiten den lehen delitu-egitatea da. Gainera, erreparazio-ekintza egiten du: adiskidetzeari, gutun bat edo idazki bat edota diru-erreparazioa.
- ✓ Biktima ohikoenak gizon adingabeak izaten dira.
- ✓ Delitu-egitate ohikoenak eraso edota lesioa, ebasketak, kalteak eta irainak edota mehatxuak dira. Gutxi gorabehera, bi bitartekaritza-prozesutatik bat aurrez aurreko topaketarik gabe egiten da (askotan, biktimak eskatuta). Aurrez aurreko topaketa egin denean, gehien erabiltzen den erreparazio-jarduera adiskidetzeari da; eta bigarrenik, diru-erreparazioa. Biktimak eskatuta, aurrez aurreko topaketa egin ez denean, gehien erabili den erreparazio-jarduera gutunak edo idazkiak idaztea izan da, eta, bigarren postuan, diru-erreparazioak daude. Azkenik, beste arrazoi batzuegatik aurrez aurreko topaketarik egin ez denean, batez ere gizarteko eta hezkuntzako jarduerak egin dira; eta bigarren postuan, gutunak eta idazkiak daude.



- ✓ Halaber, bitartekaritza-prozesuen azterketa bat egin da hiru lurraldeetan, eta diferentziak ikusi dira haien artean, hainbat aldagairi dagokionez. Hona hemen aldagai horien adibide batzuk: bitartekaritzan egiten den prozesu-mota, zuzenean sartuta dauden alderdien arteko topaketa, arau-hausleen hezkuntza-egoera, delitu-egitateen tipologia ohikoena, etab.

Kriminologiaren Euskal Institutuko ikerketa-taldeak talde psikosozialen proposamenak ere jaso ditu. Haren ustez, ebaluazioa hobetuko bada, ezinbestekoa da gazteei ezarritako zigor-arloko bitartekaritza-prozesuetan parte hartzen duten pertsonen gogobetetzeari buruzko galdera-sorta txikia ezartzea. Oraingoz, talde psikosozialei aurkeztu bazaie ere, hobekuntza-ekintza hori ez da martxan jarri.

2.3.2 Neurrien bilakaera: Alderdi orokorrak

Atal honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko eta beste autonomia-erkidego batzuetako Justizia Zuzendaritzan sartu diren neurriei buruzko datuen laburpen txikia aurkezten da, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren adingabe eta gazteen datuei buruzkoa, 5/2000 Legearen 45. artikuluan ezarritakoa oinarri hartuta betearazteko.

Garrantzitsua da adieraztea neurri batzuk, daukaten izaeragatik eta edukiagatik, ez direla Justizia Zuzendaritzara bidaltzen, neurriak betearazteko erakunde publiko eskuduna den aldetik. Honako hauek dira: kargu-hartzea, urruntze-aginduak eta administrazio-izaerako neurriak (gidabaimenak eta armak).

Bestalde, Justizia Zuzendaritzak honako neurri hauek betearazi behar ditu materialki:

- Gazte-justiziaren sareko hezkuntza-zentroetan betearazten diren neurriak:
 - Zentroetako barneratze irmoak eta kautelazkoak, edozein erregimen eta modalitatetan.
 - Hezkuntza-taldearekiko bizikidetzak, irmoak eta kautelazkoak.
 - Asteburuko egonaldiak hezkuntza-zentroan.
- Ingurune irekiko zerbitzuetan eta eguneko zentroan betearazten diren neurriak:
 - Tratamendu ambulatorioa.



- Eguneko zentrora joatea.
- Zaintzapeko askatasuna.
- Gizartearentzako lanak.
- Gizarte- eta hezkuntza-zereginak.
- Asteburuetan bizilekuan egon beharra.



23. taula. Neurri irmoak eta kautelazkoak (2014-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.

NEURRIA	2014	2015	2016	2017	2018	GUZTIRA
Barneratzea	109 (% 14)	124 (% 15)	161 (% 22)	135 (% 18)	160 (% 18)	689 (% 17)
Asteburuko egonaldia	59 (% 8)	69 (% 8)	44 (% 6)	65 (% 9)	65 (% 7)	302 (% 7)
Hezkuntza-taldearekiko bizikidetza	2 (% 0)	4 (% 0)	3 (% 0)	6 (% 1)	10 (% 1)	25 (% 1)
Tratamendu ambulatorioa	12 (% 2)	5 (% 1)	1 (% 0)	10 (% 1)	6 (% 1)	34 (% 1)
Eguneko zentrora joatea	41 (% 5)	53 (% 6)	32 (% 4)	31 (% 4)	44 (% 5)	201 (% 5)
Zaintzapeko askatasuna	226 (% 30)	322 (% 38)	309 (% 42)	312 (% 41)	391 (% 44)	1.560 (% 39)
Gizartearentzako lanak	177 (% 24)	180 (% 21)	99 (% 14)	115 (% 15)	141 (% 15)	712 (% 18)
Gizarte- eta hezkuntza-zereginak	127 (% 17)	97 (% 11)	80 (% 11)	90 (% 11)	81 (% 9)	475 (% 12)
NEURRI IRMOAK, GUZTIRA	753 (% 93)	854 (% 92)	729 (% 92)	764 (% 91)	898 (% 89)	3.998 (% 91)
Barneratzea	29 (% 51)	36 (% 48)	30 (% 46)	33 (% 44)	70 (% 64)	198 (% 52)
Hezkuntza-taldearekiko bizikidetza	4 (% 7)	3 (% 4)	3 (% 5)	9 (% 12)	3 (% 3)	22 (% 6)
Zaintzapeko askatasuna	24 (% 42)	36 (% 48)	32 (% 49)	32 (% 33)	36 (% 33)	160 (% 42)
Biktimarengana hurbiltzeko debekua	----	----	----	1 (% 1)	----	1 (% 0)
KAUTELA-NEURRIAK, GUZTIRA	57 (% 7)	75 (% 8)	65 (% 8)	75 (% 9)	109 (% 11)	381 (% 9)
NEURRIAK, GUZTIRA	810	929	794	839	1007	4379




Aurreko taulako datuetatik ikus daiteke, lehenengo ondorio gisa, honako hau:

- Neurri irmo eta kautela-neurriak, guztira, ebaluatu den aldian, 4.379 izan dira. Horietatik, 3998 (% 91) irmoak izan dira eta 381 (% 9) kautelazkoak.
- Neurrien guztizko kopuruak nabarmen egin du gora 2014tik (810 neurri) 2018a bitartean (1.007). Aldi horretan, beherakada handia gertatu zen 2015. eta 2016. urteen artean, eta berriz ere gora egin zuten neurriek, 2018ko 1.007ra iritsi arte.
- Neurri irmoak % 93 ingurukoak izan dira 2014an eta % 89 ingurukoak 2018an, urte horretan kautela-neurriak nabarmen igo direlako.
- Neurri irmoak aztertuta, gehien ezarri diren hiru neurriak honako hauek izan dira: zaintzapeko askatasuna (% 39), gizartearentzako lanak (% 18) eta barneratzeak (% 17). 2014. eta 2018. urteak erreferentziatzat hartuta, barneratzeak (% 14tik % 18ra) eta zaintzapeko askatasunak (% 30etik % 44ra) areagotu egin dira. Era berean, nabarmentzekoa da gizartearentzako lanak % 24tik % 15era eta gizarte- eta hezkuntza-zereginak % 17tik % 9ra jaitsi direla.
- Kautela-neurriei dagokienez, barneratzeak (% 52) eta zaintzapeko askatasunak (% 42) dira neurri-mota hori ia erabat azaltzen dutenak. Talde horretan, barneratzeek gorakada handia izan dute aldi horretan: 2014an % 51 ziren, eta 2018an, berriz, % 64. Hala ere, hezkuntza-taldearekiko bizikidetzak eta zaintzapeko askatasunak jaitsi egin dira.

Bestalde, ingurune irekian eta hezkuntza-zentroan egin beharreko neurrien ehunekoak ere aipatu behar dira. Hala, ikus dezakegu plana gauzatzeko epean ezarritako neurri irmo guztien % 25 hezkuntza-zentroan egin direla.

1. grafikoa. Neurri irmoen motaren ehunekoa 2014-2018 aldian. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.



c



Ingurune irekiko neurriak 2.982 izan dira, hau da, neurri irmo guztien % 74,6, eta zaintzapeko askatasuna, gizartearentzako lanak eta gizarte- eta hezkuntza-zereginak dira neurri irmoen taldetik ingurune irekian gehien ezarritako neurriak.

Gazte-justiziako hezkuntza-zentroan bete beharreko neurriak 1.016 izan dira, hau da, neurri irmoen % 25,4. Barneratzea da gehien jarri den neurria eta, ondoren, asteburuetakako egonaldiak eta hezkuntza-taldearekiko bizikidetzak.

2.3.3 Neurrien bilakaera: Kautela-neurriak

5/2000 Lege Organikoak, 28. artikuluan, adingabeen epaitegiek kautelaz ezar ditzaketan neurriak ezartzen ditu:

- Zentroetan barneratzea (edozein erregimenetan).
- Zaintzapeko askatasuna.
- Beste pertsona, familia edo hezkuntza-talde batekin biziitzea.
- Urruntzea.

Lau kautela-neurri horietatik, Eusko Jaurlaritzak, erakunde publikoa den aldetik, lehenengo hirurak betearazten ditu. Urruntzea polizia-kidegoek zaindu edo kontrolatzen dute.

2.3.3.1 Zentroetan barneratzeko kautela-neurria

Adingabeen epaileak, gertakarien larritasun-maila, adingabearen egoera, justiziaren ekintza baztertzeko arriskua, biktimari kalte eragitea eta bestelako kontu batzuk kontuan hartuta, zentroetan barneratzeko kautela-neurria har dezake edo zentroetako egonaldi terapeutikoaren neurria (erregimen itxian, erdi-irekian edo irekian), gehienez sei hilez eta beste hiruz luzagarria.

Aldi horretan, 183 kautela-neurri ezarri dira zentroetan barneratzeko. Neurrien kopuruak gora egin zuen 2014tik 2015era, eta nabarmen egin zuen behera 2016an. Harrezkero, nabarmen egin du gora, eta 2018an kautelazko 70 neurri hartu ziren zentroetan barneratzeko.

Bestalde, 122 neurri Bizkaian ezarri dira (% 66), beste 33 Gipuzkoan (% 19), 26 gehiago Araban (% 14) eta horietatik 2 bakarrik (% 1) datoz beste epaitegi batzuetatik.



24. taula. Barneratzeko kautela-neurriak, epaitegiaren arabera (2014-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.

EPAITEGIA	2014	2015	2016	2017	2018	Guztira
Bilbo, 1	11	11	5	12	31	70 (% 38)
Bilbo, 2	10	10	5	8	19	52 (% 28)
Donostia	5	7	3	7	11	33 (% 19)
Gasteiz	3	6	2	6	9	26 (% 14)
Beste batzuk	----	2	----	----	----	2 (% 1)
GUZTIRA	29	36	15	33	70	183 (% 100)

25. taula. Zentroetan barneratzeko kautela-neurriak, sexuaren eta adinaren arabera (2014-2018). Geuk sortua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.

ADINA/SEXUA	2014	2015	2016	2017	2018	Guztizko partziala	Guztira
14 urte	Mutilak	1	1	1	2	9	14
	Neskak	----	2	----	----	----	2
15 urte	Mutilak	8	6	2	8	4	28
	Neskak	----	1	----	----	2	3
16 urte	Mutilak	10	9	5	6	25	55
	Neskak	1	----	1	----	1	3
17 urte edo gehiago	Mutilak	8	15	6	16	28	73
	Neskak	1	2	----	1	1	5
GUZTI-RA	Mutilak	27	31	14	32	66	170 (% 90)
	Neskak	2	5	1	1	4	13 (% 10)
							183 (% 100)



Lehenengo datu esanguratsua da 17 urterekin ezartzen direla zentroetan barneratzeko kautela-neurri gehien: % 43. Ondoren, 16 urtean datoz, % 32rekin.

Gainera, kautelazko barneratzea batez ere mutilei ezartzen zaien neurria da (zentroetan barneratzeko kautela-neurrien % 90 gizonei ezarri zaie), datuak orokorrean zein urtez urte aztertzen baditugu ere.

Beste aldagai garrantzitsu bat zentroetan barneratzeko kautela-neurriaren iraupena da. Ebaluatutako aldian, iraupena honako taula honetan adierazitakoa izan da:

26. taula. Zentroetan barneratzeko kautela-neurriak, epaitegiaren eta neurrien iraupenaren arabera (2014-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.

EPAITEGIA / EGUNAK / URTEA		0-90	91-120	121-180	181-240	241 edo gehiago	GUZTIRA
Bilbo, 1	2014	4	1	6	---	---	11
	2015	4	2	3	1	1	11
	2016	2	---	3	---	---	5
	2017	3	3	6	---	---	12
	2018	4	1	19	3	4	31
Bilbo, 2	2014	3	1	3	2	1	10
	2015	2	4	3	1	---	10
	2016	3	---	2	---	---	5
	2017	1	2	3	1	1	8
	2018	1	1	11	2	4	19
Donostia	2014	5	---	---	---	---	5
	2015	1	1	5	---	---	7
	2016	---	---	3	---	---	3
	2017	1	4	1	1	---	7
	2018	7	2	2	---	---	11
Gasteiz	2014	---	1	2	---	---	3
	2015	1	2	2	1	---	6
	2016	1	---	1	---	---	2
	2017	2	---	4	---	---	6
	2018	---	---	6	3	---	9
Beste batzuk¹⁵	2015	2	---	---	---	---	2
GUZTIRA		47 (% 26)	25 (% 14)	85 (% 46)	15 (% 8)	11 (% 6)	183 (% 100)

¹⁵ Ebaluatutako gainerako urteetan ez da kautela-neurririk izan.



Taula aztertuta, ikus dezakegu % 46k 4 eta 6 hilabete arteko iraupena dutela, eta zentroetan barneratzeko kautela-neurrien % 26k ez dutela 3 hilabete baino gehiago irauten. Soilik 11 neurri (% 6) daude 8 hilabeteko iraupenetik gora. Epaitegiei dagokienez, Bilboko 1 zenbakiko Epaitegia eta Bilboko 2 zenbakiko Epaitegia dira gehien erabiltzen dutenak, eta horietan hazkunde handia izan da 2017tik 2018ra.

Tarteko ebaluazioan aurreratu dugun bezala, neurriak betearaztearen ikuspegitik, hiru edo lau hilabetetik gorako iraupenak esan nahi du zaila dela gertaeren erantzukizunaren gainean lan egitea, erantzukizun penala ez dagoelako tasatuta. Adingabearen ikuspegitik, "behin-behinekotasun" egoerak askotan eragiten du esku hartzeko ereduaren betebeharrak betetzean zentratzeko inplikazio falta edo zailtasuna, besteak beste, ez baitakigu zentroan zenbat denbora emango duen. Jokabidearen eta zigor-erantzunaren arteko behin-behineko kontingentzia, halaber, are garrantzitsuagoa da, askatasuna gabetzeko kautela-neurriak hartzen direnean. Nerabeen ikuspegia helduen ikuspegiaren oso bestelakoa da, bai eta "denboraren" balioa ere.

2.3.3.2 Zaintzapeko askatasuneko kautela-neurria

Adingabeen epaileak zaintzapeko askatasuneko kautela-neurria ezar dezake, delitua dakarten gertakariez ari garenean, adingabearen egoera pertsonala, familiarra, soziala, eskolakoa eta abar kontuan hartuta, luzamendurik gabe esku hartu behar denean eta eguneroko bizitzako inguruneak oinarrizko baldintza batzuk betetzen dituztenean, haren urrutzerik gabe esku hartu ahal izateko. Zentroetan barneratzeko kautela-neurriak ez bezala, ez dauka gehieneko iraupen baloraturik, eta epai irmoa ezarri arte luza daiteke.

Hurrengo taulan ikus daitekeenez, zaintzapeko askatasunaren kautela-neurria Bizkaian ezarritako neurri nagusia da, % 85eko tasarekin. Horietatik 11 bakarrik jarri dira Gipuzkoan eta beste 10 Araban.

Bestalde, erreferentziatzat 2014. urtea (24 neurri) eta 2018. urtea (36 neurri) hartzen baditugu igoera antzeman badezakegu ere, datuek egonkortasun erlatiboa erakusten dute ebaluatutako aldi osoan.



27. taula. Zaintzapeko askatasuneko kautela-neurriak, epaitegiaren arabera (2014-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.

EPAITEGIA	2014	2015	2016	2017	2018	Guztira
Bilbo, 1	10	22	10	10	14	66 (% 45)
Bilbo, 2	10	11	7	13	17	58 (% 40)
Donostia	3	1	1	3	3	11 (% 7)
Gasteiz	----	2	----	6	2	10 (% 7)
Beste batzuk	1	----	1	----	----	2 (% 1)
GUZTIRA	24	36	19	32	36	147 (% 100)

Adinari buruzko datuak ikustean, 16 urte edo gehiagoko neska-mutilei ezarritako neurriak % 55 direla antzemango dugu. Sexuari dagokionez, beste neurri batzuetan gertatzen den bezala, mutilak dira (% 84) mota horretako neurrien xede direnak, neskak baino askoz gehiago (% 16).



28. taula. Zaintzapeko askatasuneko kautela-neurriak, sexuaren eta adinaren arabera (2014-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.

ADINA/SEXUA		2014	2015	2016	2017	2018	Guztizko partziala	Guztira
14 urte	Mutilak	3	2	7	4	4	20	25 (% 17)
	Neskak	2	1	1	1	----	5	
15 urte	Mutilak	4	10	4	8	10	36	41 (% 28)
	Neskak	3	1	----	----	1	5	
16 urte	Mutilak	4	10	3	6	6	29	35 (% 24)
	Neskak	1	1	1	1	2	6	
17 urte edo gehiago	Mutilak	5	8	2	12	11	38	46 (% 31)
	Neskak	2	3	1	----	2	8	
GUZTIRA	<i>Mutilak</i>	16	30	16	30	31	123 (% 84)	147 (% 100)
	<i>Neskak</i>	8	6	3	2	5	24 (% 16)	



29. taula. Zaintzapeko askatasuneko kautela-neurriak, epaitegiaren eta neurrien iraupenaren arabera (2014-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.

EPAITEGIA / EGUNAK / URTEA	0-90	91-120	121-180	181-240	241 edo gehiago	GUZTI-RA	
Bilbo, 1	2014	2	----	3	4	1	10
	2015	7	4	8	3	----	22
	2016	1	----	6	3	----	10
	2017	3	1	4	----	2	10
	2018	2	1	6	2	3	14
Bilbo, 2	2014	3	2	3	2	----	10
	2015	4	2	2	3	----	11
	2016	1	3	2	1	----	7
	2017	3	4	3	2	1	13
	2018	5	3	6	2	1	17
Donostia	2014	3	----	----	----	----	3
	2015	----	----	1	----	----	1
	2016	----	----	----	----	1	1
	2017	2	----	1	----	----	3
	2018	----	2	----	----	1	3
Gasteiz	2014	----	----	----	----	----	----
	2015	----	----	----	2	----	2
	2016	----	----	----	----	----	----
	2017	1	----	5	----	----	6
	2018	1	----	2	----	----	3
Beste batzuk¹⁶	2014	1	----	----	----	----	1
	2016	----	----	----	1	----	1
GUZTIRA	39 (% 28)	22 (% 14)	52 (% 32)	25 (% 24)	10 (% 2)	79 (% 100)	

Epaitegiek neurri horren gainean egiten duten ezarpenean, ikusten da egonkortasuna dagoela epaitegi guztietan ebaluatutako urte guztietan. Bilboko 1 zenbakiko epaitegia eta Bilboko 2 zenbakiko Epaitegia dira gehien erabiltzen dutenak.

Iraupenari dagokionez, zaintzapeko askatasunaren neurri gehienek 6 hilabetetik beherako iraupena dute (guztizkoaren % 74), eta 8 hilabetetik gorakoak gutxi batzuk baino ez dira.

¹⁶ Ebaluatutako gainerako urteetan ez da kautela-neurririk izan.



2.3.3.3 Hezkuntza-taldearekiko bizikidetzako kautela-neurria

Aurreko neurria bezala, pertsona, familia edo hezkuntza-taldearekiko bizikidetzarako neurriak ez du gehieneko iraupena ezarrita; haren iraupenak, oro har, neurri irmo ezarri arte irauten du.

Neurri hori 22 aldiz baino ez da ezarri ebaluatutako aldian, eta Gasteizko Adingabeen Epaitegiak ezarri du gehienbat, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala. Beraz, ez dugu analisi handiagorik egin, ez bailitzateke EAE osoa hartuko.

30. taula. Bizikidetzako kautela-neurriak, epaitegiaren arabera (2014-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.

EPAITEGIA	2014	2015	2016	2017	2018	Guztira
Bilbo, 1	----	----	1	1	1	3 (% 13,5)
Bilbo, 2	2	----	----	----	1	3 (% 13,5)
Gasteiz	2	3	2	8	1	16 (% 73)
GUZTIRA	4	3	3	9	3	22 (% 100)

2.3.4 Neurrien bilakaera: Neurri irmoak

5/2000 Lege Organikoaren 7. artikulua adingabeen epaileek neurri horien epaietan ezar ditzaketen neurrien katalogoa ezartzen du. Eusko Jaurlaritzak, neurri horiek betearazteko erakunde publiko eskuduna den aldetik, horien ardura hartzen du, dagokion adingabeen epaitegiak hala eskatuta. Atal honetan, Justizia Zuzendaritzan sartu diren neurri irmoen analisia egingo dugu. Neurri horiek Bilboko 1 eta 2 zenbakiko Adingabeen Epaitegiek, Donostiakoak, Gasteizkoak eta beste autonomia-erkidego batzuetakoek eman dituzte, EAEn bizi diren adingabeen edo, salbuespen gisa, zenbait arrazoiengatik, neurria ezarri ezin zelako beste autonomia-erkidego batzuetako adingabeen kasuan.



2.3.4.1 Neurri irmoen banaketa: Sexua, jaioterria, eta delitu-egitateak

Lehenik eta behin, neurri irmoak aztertuko ditugu, neurri irmoen xede diren pertsonen "sexua" aldagaia kontuan hartuta. Horrela, ikus dezakegu % 17 neskei ezarri zaiela eta gainerako % 83a mutilei. Bi taldeen banaketak nahiko egonkor jarraitzen du, eta 2018. urtea nabarmentzen da, adingabeko gizonei ezarritako neurriek gora egin baitute. Bestalde, gizarte- eta hezkuntza-zereginari, tratamendu anbulatorioari, zaintzapeko askatasunari eta gizartearentzako lanei buruzko neurrien kasuan soilik, nesken ehunekoak % 20tik gorakoa da; beraz, hezkuntza-zentroan betetzeko neurri guztiak, eguneko zentrorra joateko neurriez gain, gehienbat gizonei ezartzen zaizkie.



31. taula. Neurri irmoak, sexuaren arabera aplikatuta (2014-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.

NEURRIA / SEXUA / URTEA		2014	2015	2016	2017	2018	GUZTIRA	
Barneratzea	Mutilak	99	110	140	124	148	621 (% 90)	689
	Neskak	10	14	21	11	12	68 (% 10)	
Asteburuko egonaldia	Mutilak	50	57	33	59	63	262 (% 87)	302
	Neskak	9	12	11	6	2	40 (% 13)	
Hezkuntza-taldearen barruko bizikidetza	Mutilak	2	3	3	6	10	24 (% 96)	25
	Neskak	----	1	----	----	----	1 (% 4)	
Tratamendu ambulatorioa	Mutilak	9	3	1	9	5	27 (% 79)	34
	Neskak	3	2	----	1	1	7 (% 21)	
Eguneko zentrora joatea	Mutilak	41	50	28	29	42	190 (% 95)	201
	Neskak	----	3	4	2	2	11 (% 5)	
Zaintzapeko askatasuna	Mutilak	181	252	253	241	325	1.252 (% 80)	1560
	Neskak	45	70	56	71	66	308 (% 20)	
Gizartearentzako lanak	Mutilak	141	150	73	96	107	567 (% 80)	712
	Neskak	36	30	26	19	34	145 (% 20)	
Gizarte- eta hezkuntza-zereginak	Mutilak	98	75	69	65	61	368 (% 77)	475
	Neskak	29	22	11	25	20	107 (% 23)	
Gutzizko partzialak	Mutilak	621 (% 82,5)	700 (% 82)	600 (% 82)	629 (% 82)	761 (% 85)	3.311 (% 83)	
	Neskak	132 (% 17,5)	154 (% 18)	129 (% 18)	135 (% 18)	137 (% 15)	687 (% 17)	
IRMOAK, GUZTIRA		753	854	729	764	898	3998	

Neurri irmoen xede diren pertsonen "jaioterrria" aldagaiari dagokionez, 2014-2018 urteetan izandako betearazpen-eskaria azaltzen duen aldagaietako bat den aldetik, lehenik eta behin, ikusi dugu aztertutako aldi osoan neurri irmoen % 35 atzerrian jaiotako adingabeei ezartzen zaizkiela. Ehuneko hori nabarmen handitu da 2018an: neurri irmoen % 42 atzerritarrei ezarri zitzaizkien. 2015ean eta 2017an, berriz, ehuneko txikienak ezarri ziren, % 32.



Bigarrenik, batezbestekotik gora dauden neurriak honako hauek dira: gizartearentzako lanak (% 36), barneratzeak (% 38), asteburuetako egonaldiak (% 41) eta hezkuntza-taldearekiko bizikidetza (% 48). Hau da, hezkuntza-zentroan betetzeko neurri irmo guztiak, gizartearentzako lanez gain.



32. taula. Neurri irmoak, jaioterriaren arabera (2014 -2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.

NEURRIAK / JAIOTERRIA / URTEA		2014	2015	2016	2017	2018	GUZTIRA	
Barneratzea	EAE + gainerako AUTONOMIA ERKIDEGOAK	68	79	98	86	93	424 (% 62)	689
	Atzerria	41	45	63	49	67	265 (% 38)	
Asteburuko egonaldia	EAE + gainerako AUTONOMIA ERKIDEGOAK	33	40	27	51	26	177 (% 59)	302
	Atzerria	26	29	17	14	39	125 (% 41)	
Hezkuntza-taldearen barruko bizikidetzak	EAE + gainerako AUTONOMIA ERKIDEGOAK	---	4	3	4	2	13 (% 52)	25
	Atzerria	2	---	---	2	8	12 (% 48)	
Tratamendu ambulatorioa	EAE + gainerako AUTONOMIA ERKIDEGOAK	10	4	1	4	4	23 (% 68)	34
	Atzerria	2	1	---	6	2	11 (% 32)	
Eguneko zentrora joatea	EAE + gainerako AUTONOMIA ERKIDEGOAK	28	34	28	24	25	139 (% 69)	201
	Atzerria	13	19	4	7	19	62 (% 31)	
Zaintzapeko askatasuna	EAE + gainerako AUTONOMIA ERKIDEGOAK	160	225	189	212	243	1.029 (% 66)	1560
	Atzerria	66	97	120	100	148	531 (% 34)	
Gizartearentzako lanak	EAE + gainerako AUTONOMIA ERKIDEGOAK	117	122	64	76	80	459 (% 64)	712
	Atzerria	60	58	35	39	61	253 (% 36)	
Gizarte- eta hezkuntza-zereginak	EAE + gainerako AUTONOMIA ERKIDEGOAK	93	74	57	65	49	338 (% 71)	475
	Atzerria	34	23	23	25	32	137 (% 29)	
Guztizko partzialak	EAE + gainerako AUTONOMIA ERKIDEGOAK	508 (% 67)	582 (% 68)	467 (% 64)	522 (% 68)	522 (% 58)	2.596 (% 65)	
	Atzerria	245 (% 33)	272 (% 32)	262 (% 36)	242 (% 32)	376 (% 42)	1.397 (% 35)	
IRMOAK, GUZTIRA		753	854	729	764	898	3998	



Azkenik, aurreko taulak informazio ugari ematen du gertakarien inguruan (epaian jasotakoak), eta horrek neurrien ezarpena ekarri du. Ikus daitekeenez, delitu-egitateen aldakortasuna oso handia da; horregatik, "Beste batzuk" atal orokor bat jaso da, guztizkoaren % 24koa.

Sarrien egin diren delitu-egitateak indarkeriaz edo larderiez egindako lapurretak izan dira, neurri irmo bat eragin duten arau-hauste penalen % 19 baitira; bigarrenik, lesioak eta indarrezko lapurretak (biak ala biak % 12) eta, azkenik, ebasketak (hamar delitu-egitateetatik bat). Familia-indarkeria (344 gertakari) eta genero-indarkeria (beste 46) ere multzo garrantzitsua dira, delitu-egitate guztien % 10 baitira.

Bost gertakari ohikoenak aztertuta, hainbat neurri ezarri direla antzeman dezakegu. Hala, honako hau ikus daiteke:

- Indarkeria/larderia bidezko lapurretek, batez ere, zaintzapeko askatasuna (% 38) eta barneratzeak (% 33) bezalako neurriak eragiten dituzte.
- Lesioen erantzuna zaintzapeko askatasuna (% 31) eta gizartearentzako lanak (% 30) dira.
- Indarra erabiliz egindako lapurreten ondorioz, funtsean, zaintzapeko askatasuna (% 32) eta barneratze-askatasuna (% 27) ezartzen dira.
- Ebasketek zaintzapeko askatasuna (% 37) eta gizartearentzako lanak (% 32) dakartzate.
- Azkenik, familia-indarkeriako eta genero-indarkeriako gertaerei argi eta garbi erantzuten zaie zaintzapeko askatasunaren neurriekin (% 55).



33. taula.

Neurri-motak, delitu-egitateen arabera, (2014-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.

NEURRI IRMOAK / DELITU-EGITATEAK / SEXUA		Ind./lar d. lapurre ta	Lesioak	Indarre zko lapurre ta	Ebaske ta	Familia/ge nero indarkeria	Kalteak	Mehat xuak	Trafiko-segurt. kontr	Beste batzuk ¹⁷	GUZTIRA
Barneratzea	Mutilak	222	42	128	18	77	7	7	7	98	621
	Neskak	28	7	4	3	15	1	1	---	9	68
Asteburuko egonaldiak	Mutilak	23	25	38	44	4	14	17	6	91	262
	Neskak	3	12	3	4	1	---	3	---	14	40
Bizikidetzta	Mutilak	1	---	---	---	16	3	---	---	4	24
	Neskak	---	---	---	---	1	---	---	---	---	1
Eguneko zentrora joatea	Mutilak	55	14	48	6	23	5	5	7	27	190
	Neskak	2	1	---	1	3	1	---	---	3	11
Tratamendu ambulatorioa	Mutilak	9	---	2	2	3	---	2	---	9	27
	Neskak	1	---	---	---	4	---	---	---	2	7
Zaintzapeko askatasuna	Mutilak	247	120	143	114	163	45	37	34	352	1255
	Neskak	43	32	10	41	51	9	13	---	106	305
Gizarte- eta hezkuntza-zereginak	Mutilak	53	69	32	34	18	12	10	25	115	368
	Neskak	11	22	1	16	7	3	3	---	44	107
Gizartearentzako lanak	Mutilak	47	108	71	103	2	37	14	15	170	567
	Neskak	11	37	3	33	2	3	6	1	49	145
GUZTIRA		756	489	483	419	390	140	118	95	1093	3998

¹⁷ Tratu txarren 69 delitu daude.



2.3.4.2 Delitu-egitateen banaketa sexuaren eta jaioterriaren arabera

Hurrengo taulan, delitu-egitateetako neska-mutilen jaioterriaren arabera banaketari buruzko informazio asko ematen da.

Oro har, ikusten dugu delitu-egitateen % 17,1 soilik egin dutela neskek, eta % 82,9 mutilek. Gainera, argi eta garbi ikus daiteke zenbait delitu-ekintzatan emakumeen presentzia ia bakana dela, eta lesio-delituetan, indarkeria eta/edo larderia bidezko lapurretetan, ebasketetan eta familia-indarkeriako delituetan biltzen dela.

Jaioterriari dagokionez, ebaluatutako aldiaren sarrien egiten diren bost delituetatik, atzerritarrek egin dituzte indarkeria/larderia bidezko lapurretak kasuen % 39an, lesioak izan dira % 39, indarrezko lapurretak % 30, ebasketak % 40 eta familia-edo genero-indarkeria % 25a.



34. taula.

Delitu-egitateen mota, jaioterriaren eta sexuaren arabera (2014-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.

DELITU-EGITATEAK / JAIOTERRIA / SEXUA		EAEn	BESTE AUTONOMIA- ERKIDEGO BATZUK	HEGO-AMERIKA / ERDIALDEKO AMERIKA	MAGREB	EKIALDEKO EUROPA	BESTELAKOAK	Guztizko partziala	GUZTIRA
Indarkeriaz eta larderiez eginiko lapurreta	Mutilak	333	39	107	134	16	27	657	756
	Neskak	81	7	8	2	---	1	99	
Lesioak	Mutilak	204	16	60	70	15	12	378	489
	Neskak	72	6	21	1	8	2	111	
Indarrezko lapurreta	Mutilak	284	34	32	75	13	24	462	483
	Neskak	19	1	---	---	1	---	21	
Ebasketa	Mutilak	148	25	35	86	12	15	321	419
	Neskak	68	10	10	5	4	1	98	
Familia/genero indarkeria	Mutilak	197	22	57	11	12	7	306	390
	Neskak	67	5	9	---	2	1	84	
Kalteak	Mutilak	75	6	13	25	2	2	123	140
	Neskak	13	2	---	---	2	---	17	
Mehatxuak	Mutilak	48	1	11	22	6	4	92	118
	Neskak	22	2	1	---	1	---	26	
Trafikoaren segurtasunaren aurkakoak	Mutilak	69	6	5	5	5	4	94	95
	Neskak	1	---	---	---	---	---	1	
Beste batzuk	Mutilak	460	62	100	169	38	32	862	1087
	Neskak	155	19	34	3	11	3	225	
Guztizko partziala	MUTILAK	1830	214	423	598	119	127	3314	684
	NESKAK	500	52	83	11	29	8	684	
GUZTIRA		2330	266	506	609	148	135	3998	



2.3.4.3 Neurri irmoa: barneratzea¹⁸

Guztira 689 barneratze-neurri ezarri dira ebaluatutako urtean. Horietako gehienek (% 84) 360 egun baino gutxiagoko iraupena dute. Hiru hilabetetik beherako iraunaldia duten barneratze-neurriak % 2 besterik ez dira. Iraunaldi oso luzekoak, urte eta erditik gorakoak, barneratze-neurrien % 10 dira. Hurrengo taulan agertzen diren datuen arabera, joera goranzkoa da ebaluatutako urteetan, 2017an izan ezik, orduan beherakada handia gertatu baitzen, eta 2018an berriz ere gora egin zuen.

35. taula. Zentroetan barneratzeko neurrien iraupena (2014-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza.


Egun kopurua / Urtea	0-90	91-180	181-360	361-450	+ 450	GUZTIRA
2014	4 (% 4)	22 (% 20)	63 (% 58)	7 (% 6)	13 (% 12)	109 (% 100)
2015	7 (% 6)	33 (% 27)	65 (% 52)	7 (% 5)	12 (% 10)	124 (% 100)
2016	1 (% 1)	37 (% 23)	105 (% 65)	5 (% 3)	13 (% 8)	161 (% 100)
2017	2 (% 1)	29 (% 22)	81 (% 60)	10 (% 7)	13 (% 10)	135 (% 100)
2018	1 (% 1)	40 (% 25)	94 (% 59)	10 (% 6)	15 (% 9)	160 (% 100)
GUZTIRA	15 (% 2)	161 (% 23)	408 (% 59)	39 (% 6)	66 (% 10)	689 (% 100)

Beheko grafikoan ikus daiteke zein den barneratze-neurrien banaketa epaitegien arabera.

¹⁸ Barneratze-fasea eta zaintzapeko askatasunaren fasea sartzen dira.




2. grafikoa. Barneratze-neurrien banaketa, epaitegien arabera (2014-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.



Grafikoak aukera ematen du urte hauetan EAEko epaitegietan barneratze-neurriak izan duen bilakaera ikusteko, eta 2014 eta 2018 urteak erreferentziazat hartuz gero, ikusten da neurri horrek nabarmen egin duela gora Bilboko 1 zenbakiko Epaitegian (% 28tik % 38ra) eta Bilboko 2 zenbakiko Epaitegian (% 20tik % 27ra), eta apur bat gutxiago Gasteizen (% 7tik % 9ra). Donostiako Epaitegian beherakada handia izan da (% 38tik % 24ra). EAetik kanpoko epaitegien kasuan ere % 7tik % 2ra jaitsi da.

Bestalde, ebaluatutako aldi osoan, ikusten dugu barneratze-neurria Bilboko 1 zenbakiko Epaitegian ezartzen dela gehienbat (% 33), eta, ondoren, Donostiako Epaitegian (% 29) eta Bilboko 2 zenbakiko Epaitegian (% 23). Hamarretik bat baino pixka bat gehiago Gasteizko Epaitegiari dagozkio (% 11), eta bakan batzuk beste epaitegi batzuei (% 4).

3. grafikoa. Barneratze-neurrien banaketa, epaitegien arabera (2014-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.





2.3.4.4 Neurri irmoa: asteburuko egonaldia

Asteburuan hezkuntza-taldean egoteko neurria asteburu kopuruaren arabera neurtzen da, eta ez egun kopuruaren arabera. Hala, horietako gehienak iraupen laburrekoak direla ikus dezakegu (% 62 lau asteburutik gorako iraupena ez duten neurriei dagokie). Bestalde, 2014tik 2015era gora egin duela ikus daiteke, eta 2016an nabarmen jaitsi da, 2017an berriz ere gora egin du eta 2018an mantendu egin da.


36. taula. Asteburuetako egonaldi-neurrien iraupena (2014-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza.

Asteburuko egonaldien kopurua / urtea	1-2	3-4	5-6	7 edo gehiago	GUZTIRA
2014	24 (% 41)	25 (% 42)	7 (% 12)	3 (% 5)	59 (% 100)
2015	29 (% 42)	24 (% 35)	12 (% 17)	4 (% 6)	69 (% 100)
2016	11 (% 25)	11 (% 25)	16 (% 36)	6 (% 14)	44 (% 100)
2017	8 (% 12)	23 (% 35)	21 (% 32)	13 (% 20)	65 (% 100)
2018	13 (% 20)	20 (% 31)	18 (% 28)	14 (% 21)	65 (% 100)
GUZTIRA	85 (% 28)	103 (% 34)	74 (% 25)	40 (% 13)	302 (% 100)

EAEko lau epaitegien arteko neurriaren banaketa hurrengo grafikoan adierazten da. Grafiko horretan Donostiako Epaitegia nabarmentzen da modu deigarrian, EAEko beste Adingabeen Epaitegien aldean. Nolanahi ere, epaitegi honek neurriaren erabilera murriztu du, 2014 eta 2018 erreferentziazat hartuta. Bilboko 2 zenbakiko Epaitegiak ere neurriaren erabilera jaitsi du. Gasteizko Epaitegiak eta, neurri handiagoan, Bilboko 1 zenbakiko Epaitegiak, aldiz, erabilera areagotu dute.



4. grafikoa. Asteburuko egonaldien neurrien banaketa, epaitegien arabera (2014-2018).
Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.



2.3.4.5 Neurri irmoa: Hezkuntza-taldearen barruko bizikidetza

Hezkuntza-taldearekiko bizikidetza-neurrian, ezin dugu ondorio askorik atera; izan ere, 25 neurri irmo baino ez dira ezarri ebaluatutako aldian, baina, egia esan, igoera motela baina esanguratsua izan da; izan ere, 2014an izaera horretako 2 neurri baino ez ziren ezarri, eta 2018an, berriz, 10. Gehienek (% 60) 6 hilabete eta urtebete arteko iraunaldia dute.


37. taula. Hezkuntza-taldearekiko bizikidetza deritzon neurriaren iraupena (2014-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza.

Egun kopurua urtean	91-180	181-360	361-450	+ 450	GUZTIRA
2014	----	1 (% 50)	1 (% 50)	----	2 (% 100)
2015	----	4 (% 100)	----	----	4 (% 100)
2016	3 (% 100)	----	----	----	3 (% 100)
2017		3 (% 50)	1 (% 17)	2 (% 33)	6 (% 100)
2018	2 (% 20)	7 (% 70)	1 (% 10)	----	10 (% 100)
GUZTIRA	5 (% 20)	15 (% 60)	3 (% 12)	2 (% 8)	25 (% 100)



Bestalde, hurrengo grafikoan argi ikusten denez, hezkuntza-taldearekiko bizikidetzaren neurria nagusitzen da aldi osoan Gasteizko Adingabeen Epaitegian (2015ean eta 2016an, modu eskusiboan). Donostiako Epaitegiak ez du neurririk ezarri IV. Planak iraun duen bitartean.

5. grafikoa. Hezkuntza-taldearekiko bizikidetzaren neurrien banaketa, epaitegien arabera (2014-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.



2.3.4.6 Neurri irmoa: eguneko zentrora joatea

Eguneko zentrora joateko neurriari dagokienez, neurri horien % 47k 200 egunetik beherako iraupena izan dute (7 hilabete), eta antzeko ehunekoak (% 43) 201 eta 300 egun arteko iraupena izan du (7-10 hilabete). Laburbilduz, eguneko zentrora joateko neurri gehien-gehienek 10 hilabetetik beherako iraupena dute (% 90).

Neurri hori 2014tik 2015era pixka bat igo da, 41etik 53ra, 2016an eta 2017an behera egin du, eta 2018an berriz ere gora egin du, 2014ko balioetan kokatuz.




38. taula. Eguneko zentrora joateko neurrien iraupena (2014-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.

Egun kopurua / Urtea	1-100	101-200	201-300	301 edo gehiago	GUZTIRA
2014	2 (% 5)	15 (% 36)	20 (% 49)	4 (% 10)	41 (% 100)
2015	----	23 (% 43)	24 (% 45)	6 (% 12)	53 (% 100)
2016	6 (% 19)	11 (% 34)	12 (% 38)	3 (% 9)	32 (% 100)
2017	3 (% 10)	14 (% 45)	11 (% 35)	3 (% 10)	31 (% 100)
2018	1 (% 3)	19 (% 43)	19 (% 43)	5 (% 11)	44 (% 100)
GUZTIRA	12 (% 6)	82 (% 41)	86 (% 43)	21 (% 10)	201 (% 100)

EAEko epaitegien arteko banaketa hurrengo grafikoan ikusten da. Hala, erreferentziatzat 2014. eta 2018. urteak hartzen baditugu, egonkortasuna ikusten da Donostiako eta Bilboko 1 zenbakiko Epaitegietan; Bilboko 2 zenbakiko Epaitegian, berriz, behera egin du, eta gora, berriz, Gasteizkoan.



6. grafikoa. Eguneko zentrora joateko neurriaren banaketa, epaitegien arabera (2014-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.



2.3.4.7 Neurri irmoa: tratamendu ambulatorioa

Tratamendu ambulatorioaren neurria ez da oso ohikoa EAEko epaitegietan; beraz, datu horiekin ezin da ondorio esanguratsurik atera neurri horri buruz. Hala ere, gaiaren gaineko zenbait datu bildu ditugu.


Aztertutako bost urte hauetan 34 aldiz baino ez da ezarri, eta ebaluatutako aldiari beherakada nabarmena hautematen da 2014. urtea (12 neurri) eta 2018. urtea (6 neurri) erreferentziatzat hartuz gero.

39. taula. Tratamendu ambulatorioko neurrien iraupena (2014-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.

Egun kopurua / Urtea	1-150	151-300	301 edo gehiago	GUZTIRA
2014	2 (% 16)	5 (% 42)	5 (% 42)	12 (% 100)
2015	----	4 (% 80)	1 (% 20)	5 (% 100)
2016	----	1 (% 100)	----	1 (% 100)
2017	1 (% 10)	3 (% 30)	6 (% 60)	10 (% 100)
2018	1 (% 17)	2 (% 33)	3 (% 50)	6 (% 100)
GUZTIRA	4	15	15	34



7. grafikoa. *Tratamendu ambulatorioko neurrien banaketa, epaitegien arabera (2014-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.*



Epaitegiek neurri horien gainean egiten duten ezarpenari dagokionez, argi ikusten da Bilboko 2 zenbakiko Adingabeen Epaitegiak erabiltzen duela gehienbat.

2.3.4.8 Neurri irmoa: zaintzapeko askatasuna

Hurrengo taulan ikus dezakegunez, aztertutako bost urteetan zaintzapeko askatasunaren neurri gehienek 90 eta 270 egun arteko iraupena dute (% 66). Beste % 14 271 eta 360 egun arteko tartean daude. Zaintzapeko askatasunaren neurrien % 9k soilik gaintitzen dute urtebeteko iraupena ebaluatutako aldi osoan.

Horrez gain, neurri horren erabilerak gora egin du; izan ere, 2014an 226 neurri zeuden, eta 2018an, berriz, 391. 2014-2015 eta 2017-2018 arteko gorakadak esanguratsuak dira.




40. taula. Zaintzapeko askatasunaren neurrien iraupena (2014-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.

Egun kopurua / Urtea	1-90	91-180	181-270	271-360	361 edo gehiago	GUZTIRA
2014	17 (% 7)	103 (% 46)	61 (% 27)	31 (% 14)	14 (% 6)	226 (% 100)
2015	29 (% 9)	123 (% 39)	107 (% 33)	34 (% 10)	29 (% 9)	322 (% 100)
2016	36 (% 12)	116 (% 38)	87 (% 28)	41 (% 13)	29 (% 9)	309 (% 100)
2017	42 (% 13)	109 (% 35)	89 (% 29)	43 (% 14)	29 (% 9)	312 (% 100)
2018	55 (% 14)	121 (% 31)	105 (% 27)	70 (% 18)	40 (% 10)	391 (% 100)
GUZTIRA	179 (% 11)	572 (% 37)	449 (% 29)	219 (% 14)	141 (% 9)	1.560 (% 100)

Neurri hori epaitegiek aplikatzen dutela kontuan hartuta, hurrengo grafikoan ikusten dugu Donostiako Epaitegiak erabiltzen duela gehien neurri hori, baina gero eta gutxiago erabiltzen dela; Gasteizen, ordea, nabarmen egin du gora. Bizkaian, zaintzapeko askatasunaren neurri irmoa egonkortzeko joera dago.

8. grafikoa. Zaintzapeko askatasunaren neurrien banaketa, epaitegien arabera (2014-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.



2.3.4.9 Neurri irmoa: gizarte- eta hezkuntza-zereginak

Gizarte- eta hezkuntza-zereginen neurria 475 aldiz ezarri da ebaluatutako aldirian. 2014tik nabarmen murriztu da, 127 neurri baikenituen eta 2018rako gizarte- eta



hezkuntza-zereginen 81 neurri ezarri baitira. Ia erdiek 3 eta 6 hilabete arteko iraupena izan dute, eta, nolana ere, % 66k ez dute sei hilabete baino gehiago iraun.


41. taula. Gizarte- eta hezkuntza-zereginen neurrien iraupena (2014-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.

Egun kopurua / Urtea	1-90	91-180	181-270	271-360	361 edo gehiago	GUZTIRA
2014	35 (% 28)	64 (% 50)	16 (% 13)	4 (% 3)	8 (% 6)	127 (% 100)
2015	23 (% 24)	52 (% 54)	16 (% 16)	5 (% 5)	1 (% 1)	97 (% 100)
2016	12 (% 15)	35 (% 44)	23 (% 29)	6 (% 7)	4 (% 5)	80 (% 100)
2017	14 (% 16)	40 (% 44)	29 (% 32)	7 (% 8)	---	90 (% 100)
2018	13 (% 16)	29 (% 36)	31 (% 38)	5 (% 6)	3 (% 4)	81 (% 100)
GUZTIRA	97 (% 20)	220 (% 46)	115 (% 24)	27 (% 6)	16 (% 4)	475 (% 100)

Neurriak EAeko Adingabeen Epaitegien arabera duen banaketa aztertzen badugu, Bizkaiko epaitegietan nolabaiteko egonkortasuna ikusten da. Gipuzkoan, igoera handia egon zen 2016an, eta ordutik behera egin zuen, nahiz eta 2018ko maila 2014an lortutakoa baino askoz handiagoa izan. Gasteizen sei puntuko jaitsiera izan zen 2015ean, eta ordutik antzeko ehunekoetan mantendu da. Beste epaitegi batzuen pisua ez da oso garrantzitsua, baina, nolana ere, 2018an, % 12 da.



9. grafikoa. Gizarte- eta hezkuntza-zereginen neurriaren banaketa, epaitegien arabera (2014-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.



2.3.4.10 Neurri irmoa: gizartearentzako lanak

Azkenik, gizartearentzako lanen neurriari buruzkoak jaso dira jarraian. Iraupena orduka adierazita duen neurri bakarra da. Ikusten den bezala, gehienek (% 67) iraupen laburra dute (gehienez 40 ordukoa). Gutxi dira 61 ordutik gorakoak, % 9 baizik ez.

Bestalde, datuek erakusten dute neurri horren erabilerak behera egin duela 2014. eta 2018. urteak erreferentziatzat hartuz gero, batez ere 2015. eta 2016. urteen artean, eta une horretatik aurrera gorakada izan dela.




42. taula. Gizartearentzako lanetarako neurrien iraupena (2014-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.

Urteko ordu kopurua	0-20	21-40	41-60	61-80	GUZTIRA
2014	34 (% 19)	81 (% 46)	47 (% 26)	15 (% 9)	177 (% 100)
2015	34 (% 19)	89 (% 49)	44 (% 24)	13 (% 7)	180 (% 100)
2016	10 (% 10)	50 (% 50)	27 (% 27)	12 (% 12)	99 (% 100)
2017	29 (% 25)	52 (% 45)	26 (% 23)	8 (% 7)	115 (% 100)
2018	39 (% 27)	58 (% 41)	29 (% 21)	15 (% 11)	141 (% 100)
GUZTIRA	146 (% 21)	330 (% 46)	173 (% 24)	63 (% 9)	712 (% 100)

EAEko Adingabeen Epaitegien arteko banaketari dagokionez, urtez urte ikusten dugu Donostiako Epaitegiak ezartzen duela gehien neurri hori, nahiz eta erabilera murriztu den. Bilboko 1 zenbakiko Epaitegiak neurriaren erabilera handiagoa du, baita Gasteizko epaitegiak ere.

10. grafikoa. Gizartearentzako lanen neurriaren banaketa, epaitegien arabera (2014-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.





2.3.5 Adingabe arau-hausleak

2.3.5.1 Delitu-jardueren tasa

Aldi horretan Justizia Zuzendaritzan erregistratutako jardueraren azterketan garrantzitsua den beste gai bat ere badago: hezkuntza-neurri irmoen xede diren neska-mutilen guztizko kopurua, guztira 2.101 pertsona hartzen baititu (gogoan izan ebaluatutako aldian 3.998 neurri irmo sartu direla).

Horietatik, 1.339 pertsonari neurri irmo bakarra ezarri zaie (% 64), eta beste 388ri bi neurri irmo ezarri zaizkie (% 19).

Beraz, datuen arabera, EAEko gazte-justiziako sisteman sartzen diren neska-mutilen % 83k gehienez ere bi neurri irmo hartu dituzte Gazte Justiziaren IV. Planaren aldian. Beste 156 pertsonari hiru neurri irmo ezarri zaizkie, eta, azkenik, 218 pertsonak lau neurri irmo edo gehiago bete dituzte; hau da, mutil eta neska guztien % 10ek. Azken batean, bost urteko epean neurri irmoak kontuan hartzen baditugu, neurrien proportzioa 1,9koa da adingabe bakoitzeko ebaluatutako aldian.

43. taula. Neurri irmoaren eskaria izan duten adingabeen kopurua (2014-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza.

<i>Adingabeen kopurua / Neurri kopurua</i>		<i>GUZTIRA</i>
		<i>Adingabe desberdinak</i>
NEURRI IRMOAK	1	1.339 (% 64)
	2	388 (% 19)
	3	156 (% 7)
	4 edo gehiago	218 (% 10)
GUZTIRA		2.101 (% 100)



2.3.5.2 Profil psikosoziala

Adingabe arau-hausleen profil psikosozialari buruz jarraian aipatuko ditugun datuak 2014tik 2018ra bitarteko urteetan ebaluatutako aldian talde psikosozialek egindako aholkularitza-txosten psikosozialetatik lortutako informazioari dagozkio.

Garrantzitsua da zehaztea urteotan neurri bat baino gehiago izan duten neska-mutilei txosten bat baino gehiago egin dietela talde psikosozialek. Hala ere, ebaluatutako aldian neurri bat eskatu zaien adingabeen profil psikosoziala lortze aldera, eskuragarri dauden txostenetako bat baino ez da hautatu (zehazki, aztertutako pertsonari buruzko informazio gehien zuena eta berriena zena). Era berean, ez daukagu 2014. urteko informaziorik; izan ere, 2015. urtetik aurrera hasi zen urtero datu horiek biltzen. Horrela, atal hau egiteko, 1.393 txosten psikosozialen lagina hartu da kontuan, Gazte Justiziaren IV. Plana (2014-2018) indarrean egon den urteetan neurriren bat ezarri zaien neska-mutilak oinarri hartuta.


Ahalik eta modu homogeneoenean, txosten psikosozial guztietan errepikatzen diren aldagaiak aztertu dira, baita horiek biltzeko modua ere.

Sexua kontuan hartuta, 1104 gizonetzkoak dira (% 79), eta 289 emakumezkoak (% 21).

Hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, gehienak EAEn *jaiotakoak* dira (861 pertsona, % 62), eta 87 pertsona beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotakoak. Denak batuta, % 68 Espainian jaiotako neska-mutilak dira. Beraz, % 32 atzerritarak dira, gehienak Magrebeko herrialdeetakoak eta gero Hego Amerikakoak, % 11ko tasarekin hurrenez hurren. Garrantzitsutzat jotzen dugun eta 2017. urtetik jasotzen hasi den gai bat adoptatutako pertsonen kopurua da. Oraingoan, pertsona gutxi dira (2017. eta 2018. urteak batuta 24), baina, nolana ere, gai hori aztertzen jarraituko dugu urteko memoriaren eta dagozkion ebaluazioetan.



11. grafikoa. Neurri irmoen eskaria izan duten adingabeen jaioterrria (2015-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.




Egoera zibilarri dagokionez, hamaika pertsona bakarrik zeuden ezkondata elizan edo ijitoen errituan, hau da, guztien % 1. Eta *seme-alaben kopuruarekin* datu oso antzekoa lortu da. Pertsona guztien % 2k soilik (24 pertsona) izan dute seme-alabaren bat edo haurdun egon dira (beraiek edo beren bikotekidea).

Bizikidetza-nukleoa aztertuz gero, esan dugun bezala, talde psikosozialarekin elkarrizketa egin zen unean lortu zen informazioa eta, hori kontuan hartuta, % 70 jatorrizko familiarekin, familia zabalarekin edo harrera-familiarekin bizi da, eta % 20 babes-zentro batean bizi da. Era berean, 84 adingabe Gazte Justiziako zentro batean zeuden (guztien % 6).



12. grafikoa. Neurri irmoaren eskaria izan duten adingabeen bizikidetzak-nukleoa (2015-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.



Neska-mutilen familien *maila sozioekonomikoari* buruzko aldagaiak aztertuz gero, hasieran ikusten dugunez kasuen % 70ean ez dakigu aldagai horri buruzko informaziorik, ez delako informazio hori jasotzen talde psikosozialen txostenetan. % 12an gutxienez gurasoetako batek modu egonkorrean lan egiten du; % 3an lana du, nahiz egoera prekarioan; % 4an ere lan egiten du baina gizarte-laguntzak jasotzen ditu eta, azkenik, % 11k laguntza publikoak baino ez ditu jasotzen.

Etxebizitzari buruzko informazioari dagokionez, esan dezakegu kasuen % 75ean adingabeak etxebizitza, apartamentu edo familia bakarreko etxebizitza batean bizi direla. Adingabeen % 23 erakunde publiko batean bizi dira (gazteen babeserako edo justiziarako zentroa) eta % 2k ez dute etxebizitza finkorik edo ez dakigu non bizi diren. Etxebizitza berean bizi diren pertsonen kopuruari dagokionez, kasuen % 33an, lau edo bost pertsona bizi dira; % 27an, hiru pertsona edo gutxiago; % 8an, bost pertsona baino gehiago, eta kasuen % 32an ez da informazio hori jasotzen.

Familiari buruzko aldagairen bat gehiago aztertuz gero, ikusten da familien % 12k espezialista batek behar bezala diagnostikatutako arazo fisikoren bat dutela, eta beste % 9k osasun mentalari lotutako problematikaren diagnostiko bat dutela. Familia-kriminalitateari dagokionez, halakotzat hartuta espetxeratzea eragin duen deliturik egin izana, adibidez, aldagai hori familien % 15ean ikusten da. Halaber, familia guztien % 14an toxikomania-arazoak daude.



Azkenik, alderdi azpimarragarriak dira gurasoen aldetik *etxean indarkeria* egotea, nahiz eta, zorionez, neska-mutilen % 5ek soilik ikusi dituen indarkeriazko gertakariak noizean behin edo modu kroniko edo larrian. Adingabeek edo haien zuzeneko familiek *gizarte-zerbitzuen* gainean egiten dute erabilera, bestalde, % 68koa da.

Aztertutako *esku-hartze judizial eta hezitzailearen* aurrean neska-mutilek izan duten *jarrerari* dagokionez, ikusten dugu % 55k a priori jarrera positiboa izan dutela, % 5ek ez dutela esku hartzeko premiarik ikusten eta kasuen % 40an ez dela informazio hori agertzen.


Nesken eta mutilen eboluzio-etapa honetan aztertzeko aldagai garrantzitsu bat *inpultsibitatea* da. Aztertutako adingabeen % 41ek arriskuak hartzeko edo inpultsibitateko jokabide garrantzitsuak dituzte, araurik eta kontrolik ezari berezko zaizkionak; % 1ek halako portaera txikiak edo garrantzi txikikoak ditu, adinari dagozkionak, eta % 6k ez dute arazorik arlo horretan, txostenean berariaz jasotzen denez. Nolanahi ere, kasuen % 52an bakarrik daukagu alderdi horri buruzko informazioa.

Loturak hausteari buruzko kontuei dagokienez, lehenik eta behin ikusten da aztertutako adingabeen % 9k ama, aita edo bi gurasoak galdu dituztela.

Interesgarriak dira, halaber, familia-arretarik ezari buruzko datuak; izan ere, neska-mutilen % 41ak amaren (% 4), aitaren (% 13) edo bi gurasoen (% 24) arreta falta handia jasan dute edo pairatzen du. Adingabeen % 21ek ez dute gabeziarik alde horretatik, argi eta garbi, eta gainerako % 38an ez da informazio hori jasotzen; beraz, ulertzen da ez dutela alderdi horri lotutako gabeziarik.




13. grafikoa. *Neurri irmoaren eskaria izan duten adingabeek gurasoen arretarik ez jasotzea (2015-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.*



Arestian azaldutako guztiaz gainera, gurasoen kontrola funtsezko elementua da aztergai diren neska-mutilen artean. Eskura dugun informazioaren arabera, % 33k argi eta garbi ez dute gurasoen inolako kontrolik, eta % 12k ere ez dute kontrol zorrotzik, baina gurasoek, gutxienez, kontrolatzeko ahalegin batzuk egiten dituzte. Adingabeen % 28k gurasoen kontrola dute, baina koherentziarik gabeko kontrola (hau da, gurasoek ez dute irizpide bera, edo gertaera berean erantzun desberdinak ematen dituzte), eta % 21ek gurasoen kontrola dute, ohikotasunez eta etengabe. Kasuen % 6an ez dago informazio hori.

14. grafikoa. *Neurri irmoen eskaria izan duten adingabeen gaineko gurasoen kontrola (2015-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.*




Beste aldagai batzuk ere aztertu ditugu, neska-mutilek kontsumitzen dituzten toxikoen aldagaia, adibidez; kasu horretan, % 56k diote ohikotasunez kontsumitzen dituztela toxikoak, kontsumo horrek eragin desberdina badu ere haien eguneroko



bizitzan. Beheko grafikoan ikus daiteke zein diren kontsumo-motak. Dena den, kasuen % 37an ez daukagu horri buruzko informaziorik.

15. grafikoa. Neurri irmoen eskaria izan duten adingabeek egindako toxikoen kontsumoa (2015-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.




Era berean, garrantzitsua da jakitea adingabeen artean *osasan mentalari lotutako arazorik* dagoen: % 13k dute espezialista batek behar bezala egindako diagnostikoren bat.

Eskola-mailari dagokionez, datu hauek ikusten dira taulan: adingabeen % 46k lehen hezkuntza gainditu dute; % 22k, DBHko 1. zikloa, eta % 12k, DBHko 2. zikloa. Prestakuntza, beraz, beren adinagatik zegokiena baino askoz baxuagoa da. Beste % 2k egoera prekarioagoak ditu. Nabarmentzekoa da, alabaina, ez dagoela adingabeen % 18aren informaziorik.




16. grafikoa. Neurri irmoen eskaria izan duten adingabeen ikasketa-maila (2015-2018).
Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.



Txosten psikosoziala egiteko unean garatzen ari ziren ikasketak sakonago aztertuz gero, ikusten dugu % 32 enplegurako prestakuntza (LHI, HLPP, etab.) egiten ari zirela, eta % 26 DBHn zeudela. Hala ere, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, datu kezkarri bat daukagu: % 26 eskolatu gabe egon dira.


17. grafikoa. Neurri irmoaren eskaria izan duten adingabeak egiten ari ziren ikasketak (2015-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.




Amaitzeko, beste aldagai sozialago batzuk aztertu dira, hala nola berdin taldea edo aisialdi antolatua. Bada, berdin taldeari dagokionez arrisku-aldagaiak aurkitu dira; izan ere, % 45ek adierazi dute gizarte-arriskuko egoeran dauden lagunak dituztela eta % 56k adierazi dute ez dutela egiten aisialdi antolatuko inolako jarduerarik (kirolen bat edo jolas- eta musika-jardueraren bat).



18. grafikoa. Neurri irmoen eskaria izan duten adingabeen berdinkideen taldea (2015-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.



19. grafikoa. Neurri irmoen eskaria izan duten adingabeen aisia-jarduera antolatua (2015-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.



2.3.6 Neurriak betearazteko baliabideak: Egoitza-zerbitzuak eta ingurune irekiko zerbitzuak

Adingabeen jurisdikzioan ezarritako neurriak betearazteko, edozein nerabek edo gaztek gure erkidegoan eskura dituen baliabide ia guztiak erabiltzen dira. Hezkuntza-sareko zerbitzuez dihardugu, osasun-zerbitzuez, enplegura jotzeko zerbitzuez, enplegu-zerbitzuez, prestakuntza, aisia eta denbora libreko zerbitzuez, gizarte-prestazioez, haurrak babesteko zerbitzu eta programez, eta abar.

Zerbitzu komun horiez gainera, Euskal Autonomia Erkidegoan badaude berariazko baliabide batzuk, neurri judizialak betetzeko. Horiek, eskematikoki, bi kategoriatan azpisaailka ditzakegu:

- A. Egoitza-zerbitzuak = Gazte Justiziako hezkuntza-zentroen sarea.
- B. Ingurune irekiko zerbitzuak.



2.3.6.1 Egoitza-zerbitzuak

Gazte Justiziako hezkuntza-zentroen sarean zentro espezifikoak daude, langile espezializatuekin, eta arau-hausle adingabeak hartzen dituzte, honelako neurri irmo edo kautelazkoren bat bete behar dutenean: barneratzea –nolanahikoa dela ere erregimena–, asteburuko egonaldiak, eta, salbuespen modura, hezkuntza-taldearekiko bizikidetzak.

Plaza librean kopuruak gora egin du 2014tik barneratze-eskarien arabera, eta punturik gorenenera heldu da 2018. urtean, 115 plazarekin. Aurreikuspena txikiagoa zen (103 plaza), baina igo egin da, aldi horretan eskaria bera ere igo egin baita.

44. taula. Gazte Justiziako hezkuntza-zentroen sarean dauden plaza erabilgarriak (2014-2018).
Geuk sortua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza.

	2014	2015	2016	2017	2018
IBAIONDO HZ	39	39	39	39	39
URIBARRI HZ	8	12	16	16	18
URGOZO HZ	10	10	10	12	12
BILBO AE	6	6	6	6	6
ANDOIU/GORBEIA HZ¹⁹	15	15	16	16	16
TXEMA FÍNEZ HZ²⁰	11	15	18	18	24
GUZTIRA:	89	97	105	107	115

Planean ezarritakoarekin bat, zentro horiek hiru mailatan sailkatu beharko lirateke:

Modu sinplifikatuan esan dezakegu I. mailako zentroak erantzukizun eta kudeaketa publikoko zentroak direla eta, horietan, eskubideen neurri murriztaileenak eta iraupen luzeena dutenak betetzen direla. EAEn mota horretako bakarra dago: Ibaiondo Hezkuntza Zentroa, mutilentzat bakarrik.

¹⁹ Bi unitate ditu: bata Andoiun eta bestea Apodakan.

²⁰ Hiru unitate ditu: lehenengoa Aramaion, bigarrena Donostian eta hirugarrena Gasteizen.



II. mailakoak erantzukizun eta kudeaketa publikokoak dira, irabazi-asmorik gabeko erakunde batekin itunduta daudenak, tamaina txikikoak: erregimen erdi-irekiko eta irekiko neurriak betetzen dira, edo erregimen itxian, laburrak badira. Jende gehien batzen dutenak dira. IV. Planaren aldia, lau hezkuntza-zentro izan dira II. mailakoak: Uribarri Hezkuntza Zentroa, Txema Fínez Hezkuntza Zentroa, Urgozo Hezkuntza Zentroa (hirurak mutilentzat) eta Andoiu/Gorbeia Hezkuntza Zentroa (neskentzat bakarrik).

III. mailakoak, "autonomia-egoitzak", oso tamaina txikikoak dira, gehienez 6 plazakoak, erkidegoan erabat integratuta, erregimen irekiko edo erdi-irekiko azken barneratze-faseak betetzeko zentroetan. EAEn Bilboko Autonomia Egoitza dugu (mistoa).

Gazte Justiziako hezkuntza-zentroetan lan egiten duten pertsona gehienak hezitzaileak dira (hurrengo taulan ikus daitekeen bezala). Pertsona horiek, txandaka, zentroko mutilekin eta neskekin bizi dira modu iraunkorrean, «eguneroko bizitzarako» espazio deitzen duten eremuan. Ikusten dugu, gainera, pertsona kopuruak gora egin duela 2014tik: 2018an 112 hezitzaile genituen, eta urtea 144 pertsonarekin itxi zen.

Bigarren taldea «ikasgela» eta «tailerrez» arduratzen diren pertsonak osatzen dute, alegia, zentroko prestakuntzaz arduratzen direnek. 2014an 24 pertsona zeuden, 2015-2017 urteetan bat gehiago eta 2018an beste bat (26 guztira).

Hirugarren taldekoek zuzendaritza-funtzioak (urtean 9 pertsona) eta koordinazio-funtzioak betetzen dituzte: eguneroko bizitzako taldeak eta esku-hartze soziofamiliarreko eta psikologikoko arloetan esku hartzen duten teknikariak ere hartzen dituzte. Koordinazio tekniko horrek gora egin du, halaber, 2014an 19 pertsona izatetik 2018an 22 izatera.

Azkenik, zerbitzuetako eta administrazioko eginkizunak betetzen dituztenak 6 pertsona izaten jarraitzen dute urtero. Zuzenean diharduten langileez gainera, I. eta II. mailako zentro batzuek segurtasuneko langileak dituzte, hezkuntza-taldeei laguntza emateko.

Atal guztietan (zuzendaritza, koordinazioa, etab.) profesionalen kopuruak gora egin du, zentroetan 12 plaza gehiago daudelako.



45. taula. Gazte-justiziako hezkuntza-zentroen plantillak (2014-2018). Geuk sortua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.

	ZUZENDARIA	KOORDINAZIO TEKNIKOA			LANGILE HEZITZAILEAK					TAILERREKO MAISU- MAISTRAK			ZERBITZUAK ETA ADMINISTRAZIOA
	2014-2018	2014- 2015	2016- 2017	2018	2014	2015	2016	2017	2018	2014	2015- 2017	2018	2014-2018
IBAIONDO HZ	5	9	9	9	50	50	50	50	50	13	13	13	1 ²¹
URIBARRI HZ	1	2	4	4	11	17	20	20	23	2	3	4	2
URGOZO HZ	1	2	2	2	12	12	12	15	15	3	3	3	-
BILBO AE	-	1	1	1	7	7	7	7	7	-	-	-	-
ANDOIU/GORBEIA HZ	1	3	3	3	20	20	20	20	20	3	3	3	2
TXEMA FÍNEZ HZ	1	2	2	3	12	18	22	22	29	3	3	3	1
GUZTIRA:	9	19²²	21²³	22	112	124	131	134	144	24	25	26	6²⁴

²¹ Sukaldeko eta garbitegiko langileak ez dira sartzen, zerbitzu horiek kanpoko enpresek ematen dituztelako.

²² Pertsona kopuru bera mantendu da 2014. eta 2015. urteetan.

²³ Pertsona kopuru bera mantendu da 2016. eta 2017. urteetan.

²⁴ Urtero pertsona kopuru bera mantentzen da ebaluatutako aldi osoan.



2.3.6.2 Ingurune irekia

Zerbitzu horien barruan sartzen dira ingurune irekiko ekipoak (zaintzapeko askatasunak betetzeko, gizarte- eta hezkuntza-zereginak egiteko, gizartearentzako lanak egiteko, tratamendu ambulatorioak egiteko eta asteburuko egonaldiak etxean egiteko) eta eguneko zentroak (eguneko zentrorra joateko neurriak betetzeko).

46. taula. Ingurune irekiko zerbitzuetako plantilla (2014-2018)²⁵. Geuk sortua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza.

Ingurune irekia	2014 - 2018 ²⁵
BIZKAIA	14
GIPUZKOA	8
ARABA	4
GUZTIRA:	26

Eguneko zentroa	2014	2015-2018
BIZKAIA	7	8
GIPUZKOA	6	6
ARABA	---	---
GUZTIRA:	13	14

Ingurune irekiko zerbitzuak hezitzaileek osatzen dituzte. Pertsona horiek arduratzen dira zuzenean ingurune irekiko neurriak betearazteaz, neska-mutil bakoitzarekiko eta haren inguruarekiko hezkuntza-harreman pertsonalaren bidez. Ebaluatutako aldian, 26 pertsonak egin dute lan hori urtero.

²⁵ Pertsona kopuru bera mantendu da ebaluatutako aldi osoan.



Eguneko zentroetako zerbitzuak hezitzaileek eta tailerreko irakasleek osatzen dituzte. 2014an 13 pertsona izan ziren, eta 2014an pertsona bat gehiago sartu zen, kopuru hori 2018ra arte mantenduz.

2.4.3. kapitulua: Barneko beste iturri batzuei buruzko informazio orokorra ematea Eusko Jaurlaritzari

Atal honetan, Eusko Jaurlaritzaren barneko beste informazio-iturri batzuetatik jasotako datuak jasotzen dira, hala nola Segurtasun Saisetik, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saisetik, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saisetik, Osasun Saisetik eta Lan eta Justizia Saisetik eratorritakoak.

Horietan guztietan, hainbat ekintza, betearazpen-aldi bat, adierazle batzuk eta betetze-maila bat ezarri ziren. Halaxe jaso zuten, hain zuzen ere, gazte-justiziarekin zerikusia duten Eusko Jaurlaritzako sailek 2014-2018 IV. Planean.

Ekintza bakoitzaren betearazpenari buruz jarraian agertzen den informazioa, Justizia Zuzendaritzak 2019. urte honetan eskatutakoa, sail bakoitzak eman du.

2.4.1 Segurtasun Saila (aurretik, Herrizaingo Saila)²⁶

- **9.1.2.1. ekintza:** Justizia Zuzendaritzak eskatuta, askatasunaz gabetzeko neurriak betetzen ari diren adingabeen lekualdaketak egitea.

Aldia: 2014-2016

Adierazleak: Lekualdaketen kopurua.

Betetze-maila: Lekualdaketa guztiak egin dira.

- **9.1.2.2. ekintza:** Gazte-justiziari buruzko prestakuntza espezifikoa ematea Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren oinarritzko eskalan sartzeko ikastaroetan. Era berean, adingabeekin lotura duten espezializazio-ikastaroak ematea.

Aldia: 2014-2016

Adierazleak: Prestakuntza-jardueren kopurua eta prestatutako ikasleen kopurua.

²⁶ 2014ko urtarriletik 2016ko ekainera bitarteko datuak baino ez ditugu.



Betetze-maila: Informazioa tarteko ebaluazioan jaso zen.

- **9.1.2.3. ekintza:** Adingabeekin jarduketan urteko estatistika espezifikoko antolatzea.

Aldia: 2014-2016

Adierazleak: Urteko estatistikak.

Betetze-maila: Estatistikak egiten dira, aldagai sozio-demografikoen artean adinarena kontuan hartuta. Alde horretatik, aldagai hori sarritan sartzen da hainbat instantziatik eskatzen diren datuetan.

- **9.1.2.4. ekintza:** Gazte Justiziako Zerbitzuetako profesionalei mugikortasun seguruaren inguruko prestakuntza ematea.

Aldia: 2014-2016

Adierazleak: Egindako ikastaro kopurua, prestatutako ikasleak eta emandako materialak.

Betetze-maila: Ikastaro bat egin da - Prestakuntza duen pertsona kopurua: 15 pertsona. Emandako materialak: 1) Mugikortasun segururako hezkuntzari buruzko eskuliburua, Gaitasunen gida eta 2) Segurtasunerako eskumenak. Bizitzarako eskumenak. Mugikortasun segururako hezkuntzako programazioak.

- **9.1.2.5. ekintza:** Adingabeekin esku-hartzeak egitean jaso beharreko gutxieneko aldagaiak zehaztea.

Aldia: 2015

Adierazleak: Aldagaien zerrenda.

Betetze-maila: - Haren identitateari buruzko datuak. - Atxiloketaren inguruabarrak, zergatiak eta zein agintarik agindu zuen. - Zer egunetan eta ordutan sartu den, lekualdatu den edo utzi den aske. - Zaintzen ari den edo diren pertsonak. - Atxiloketa gurasoari edo lege-ordezkaritari eta Fiskaltzari jakinarazi izanaren xehetasuna. - Inguruabar psikofisikoen adierazpena. - Atxiloketaren inguruabarren eta bere eskubideen berri eman zaion adierazpena.



- **9.1.2.6. ekintza:** Egun adingabeekin egiten den jardunaren eremuan indarrean dagoen polizia-instrukzioa berrikustea eta, hala badagokio, eguneratzea.

Aldia: 2015-2016

Adierazleak: Instrukzio berriaren izapidea eta, hala badagokio, argitalpena balioztatze txostena.

Betetze-maila: Azken bi urteotan, barne-arauen tipologia berri bat ezartzearen ondorioz, dauden arauak berregituratu eta eguneratzeko prozesua egin da, eta, horrekin batera, sortzen ari diren segurtasun-egoerei erantzun behar dieten forma berriak landu dira. Prozesu horretan guztian, aurreikusita dago instrukzioa berrikusi eta bertsio berri bat argitaratuko dela.

- **9.1.2.7. ekintza:** Adingabeekin egiten diren jarduketetan berariaz erabiltzen diren baliabideei buruzko ebaluazioa egitea.

Aldia: 2015-2016

Adierazleak: Ertzain-etxe bakoitzeko balioespen-txostena.

Betetze-maila: Lekualdatzeko ibilgailu espezifikoek beharrak aztertu dira. Gaur egun 5 ibilgailu daude eta beste 7 unitate gehiago egoteko zain daude, ibilgailu berriak jasoko baitira.

2.4.2 Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila (aurretik, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila)

- **9.4.2.1. ekintza:** Justizia Zuzendaritzak ematen dituen ziurtagiriak definitzea, pertsona horiei edo beren familiei prestazio espezifikoetarako sarbidea emateko (espetxetik ateratzearen subsidioa, DSBE, prestakuntza-ikastaroetara sarbidea, inklusio-hitzarmenerako gizarte-esklusioaren ziurtagiria etab.).

Aldia: 2016-2018

Adierazleak: Ziurtagiri estandarizatuak.



Betetze-maila: Ziurtagiriak egin dira: Gazte Justiziako zentroetan dauden pertsonen DSBE ziurtagiriak, espetxetik ateratzeko sorospena kobratzeko ziurtagiria, udaleko gizarte-laguntzak kobratzeko ziurtagiria, bizitzeko baliabideak izatearen ziurtagiria eta helduentzako egoitza-baliabideak eskuratzeko ziurtagiria.

- **9.4.2.2. ekintza:** Lanbideko eta gazte-justiziako teknikariek eraturako lantaldea sortzea, neurri judizialak betetzen dituzten pertsonen zuzendutako ekintza bereziak aztertzeko eta proposatzeko.

Aldia: 2016-2018

Adierazleak: Lantaldearen eraketa eta bilera kopurua.

Betetze-maila: Ez da egin.

2.4.3 Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila (aurretik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila)

Sail honek planteatutako ekintzak zenbateraino bete diren jakiteko, gainerakoekin egin den bezala, horri buruzko informazioa eskatu du Justizia Zuzendaritzak.

Hemen aurkezten dena egungo Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak 2019ko irailean emandako datuen azterketa da.

- **9.3.2.1. ekintza:** Gazte-justiziako zentroetako hezkuntza-arretari buruz, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren arteko agindu bateratua eguneratzea.

Aldia: 2014-2016

Adierazleak: Agindua EHAA-n argitaratzea.

Betetze-maila: Bi sailen baterako Aginduak indarrean jarraitzen du.

- **9.3.2.2. ekintza:** Zumarragako Ibaiondo Hezkuntza Zentroan ikasgelako eta tailerreko irakasleak hornitzen direla bermatzea.

Aldia: 2014-2018

Adierazleak: Esleitutako irakasleak eta ikasgelako eta tailerreko orduen betetzea.



Betetze-maila: Esleitutako irakasle kopurua: 13 irakasle. Urteko estaldura: 13 irakasle. Ikasleak: 63 pertsona 2014an, 71 pertsona 2015ean, 65 2016an, 70 2017an eta 85 2018an.

- **9.3.2.3. ekintza:** Gazte-justiziako zentroetan neurri judiziala betetzen ari diren neska-mutilen matrikulazioa mantentzen dela eta aipatutako hezkuntza-zentroak horien jarraipena egiten duela bermatzea²⁷.

Aldia: 2014-2018

Adierazleak: Matrikulatutako ikasle kopurua.

Betetze-maila: Matrikulazioari eta jarraipenari eutsiko zaiela bermatuta dago Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutuaren bidez, zeina ikasleen erreferentziazko zentroekin koordinatzen baita.

- **9.3.2.4. ekintza:** Barneratzeko edo eguneko zentroetako neurri judizialak betetzen dituzten 16 urtetik gorako mutil eta neskek “urrutiko hezkuntza” programetan sartzen direla bermatzea²⁸.

Aldia: 2014-2018

Adierazleak: Onartuak izan diren eta izan ez diren ikasleen kopurua eta eskuratutako prestakuntza.

Betetze-maila: Ibaiondo Hezkuntza Zentroan onartutako ikasleen kopurua: 29. Jasotako prestakuntza: 2015ean, 2 graduatu DBHn eta 2016an, 3 graduatu DBHn.

- **9.3.2.5. ekintza:** Erdi-mailako irakaskuntza-zentroetako arduradun, irakasle eta ikasleei zuzendutako zabalkunderako ekintzak egitea: material didaktikoak argitaratzea eta aurrez aurreko hitzaldiak ematea.²⁹

Aldia: 2016-2018

Adierazleak: Egindako jardueren kopurua eta horietan parte hartu dutenen kopurua.

Betetze-maila: Ezezaguna.

²⁷ 2019-2010 urteko datuak baino ez dira ematen, egiazki Gazte Justiziaren IV. Planari ez dagozkionak.

²⁸ Ez dago 2014., 2017. eta 2018. urteetako daturik. Gainera, aurreko oharreko berdina.

²⁹ Ez da informaziorik eman.



2.4.4 Osasun Saila

- **9.2.2.1. ekintza:** Neurri judiziala betetzen ari diren adingabe guztiei Osasun Identifikazioko Txartela ematea.
Aldia: 2014-2018
Adierazleak: Artatuak izan diren eta OTI duten pertsonen kopurua.
Betetze-maila: Gazte Justiziako zentroyen sarean artatutako pertsona guztiek izan dute OTI txartela (Gazte Justiziako hezkuntza-zentroyen sarean neurria bete duten adingabeen kopurua).

- **9.2.2.2. ekintza:** Gazte-justiziako hezkuntza-zentroetan hartutako adingabe guztiei asistentzia sanitarioa bermatzea adingabea kokatua dagoen hurbileneko osasun-zentroan.
Aldia: 2014-2018
Adierazleak: Egindako asistentzien kopurua eta ukatutakoen kopurua.
Betetze-maila: Gazte Justiziako hezkuntza-zentroyen sarean hartutako pertsona guztiei eman zaie arreta.

- **9.2.2.3. ekintza:** Beren neurria dela-eta, osasun-zentrora joan ezin duten adingabeei asistentzia sanitarioa ahalbidetzea gazte-justiziako hezkuntza-zentroetan. Arreta hori ethez etxeko arreta balitz bezala emango da.
Aldia: 2014-2018
Adierazleak: Egindako asistentzien kopurua eta ukatutakoen kopurua.
Betetze-maila: Gazte Justiziako hezkuntza-zentroyen sarean hartutako pertsona guztiei eman zaie arreta.

- **9.2.2.4. ekintza:** Egunero osasun-arreta ematea, astelehenetik ostiralera bitartean, 2 orduz, Zumarragako Osasun Zentroko mediku baten eskutik. Ordu berean, erizain bat joango da, 4 egun astean, Zumarragako Ibaiondo Hezkuntza Zentroyaren bulegoetara.
Aldia: 2014-2018
Adierazleak: Asteko asistentzia-orduak eta egindako asistentziak.
Betetze-maila: Astean 4 egunetan 2 orduz. 30 asistentzia astean. Guztira, 527 asistentzia egin dira ebaluatutako aldian.



- **9.2.2.5. ekintza:** Aldian behin laguntza psikiatrikoa ematea Zumarragako Ibaiondo Hezkuntza Zentroaren bulegoetan.

Aldia: 2014-2018

Adierazleak: Asteko ordu kopurua eta artatutako pertsona kopurua.

Betetze-maila: Ibaiondo Hezkuntza Zentroko asistentzia psikiatrikoa Aita Menni Ospitalearekin egindako lankidetzakontratu baten bidez gauzatu da; hilean 12 ordu egin dira, eta batez beste 10/12 mutil artatu dira hileroko.

- **9.2.2.6. ekintza:** Haurren, gazteen eta helduen osasun mentaleko zentroetako laguntza hobetzea, zabaltzea eta neurri judiziala betetzen dutenen beharretara egokitzea.

Aldia: 2014-2018

Adierazleak: Lehen hitzordurako epeak, hitzorduen arteko epeak, terapia indibidualak, familiakoak edo taldekoak baliatzeko aukera.

Betetze-maila: Neurri judizialak betetzen dituzten pertsonen kasuan, ohikoena da neurri judiziala hartu aurretik haur eta gazteen zentroetan artatuta egotea. Hala ez bada, jakinarazpena iritsi bezain laster emango zaie hitzordua. Epeak sare publikoak ezartzen dituenak dira (bi edo hiru astean behin). Bestalde, kasu jakin batzuk sare pribatuko profesional edo erakundeetara bideratu behar dira (San Inazioko modulu psikosoziala, Lagungoa, Etorikintza, Gizakia Proiektua, Aita Menni, etab.). Urteko batezbestekoa 1.225 esku-hartzekoa da (toxikoen kontsumoaren kontrola egiten zaien pertsonen hilean esku-hartze bakarra egiten zaie, nahiz eta, batzuetan, hileko lau kontrol ere egin daitezkeen). Adikzioen kontrolerako eta tratamendurako, Osakidetzaren sareko Motz zentroak (Mendekotasunen Orientazio eta Tratamendu Zentroa) artatzen ditu Arabako kasuan.

- **9.2.2.7. ekintza:** Osasunaren sustapenari eta drogaren kontsumoa eta beste adikzio batzuk prebenitzeari buruzko prestakuntza-programetarako sarbidea erraztea gazte-justiziako hezkuntza-arloko langileei.

Aldia: 2014-2018



Adierazleak: Prestakuntza-egitekoen kopurua eta prestatutako langileen kopurua.

Betetze-maila: Ez da berariazko ekintzarik egin. Arlo horretako prestakuntza-ekintzetara joatea eskatu duten langileei ekintza horietara joateko aukera eman zaie (baldintzek, lan-txandek eta abarrek aukera ematen bazuten).

- **9.2.2.8. ekintza:** Gazte-justiziako zentro eta zerbitzuei osasunaren sustapenari eta drogaren kontsumoa eta beste adikzio batzuk prebenitzeari buruzko material espezifikoak ematea.

Aldia: 2014-2018

Adierazleak: Hornitutako materialak.

Betetze-maila: Herritar guztientzat komunak diren materialak eman dira.

- **9.2.2.9. ekintza:** Neurri judizial bat betetzen ari diren adingabe guztiei osasun-arreta emateko indarrean dagoen protokoloa berrikustea.

Aldia: 2015-2016

Adierazleak: Balioespen-txostena edo protokolo berriaren sinadura.

Betetze-maila: Sinatutako protokoloari eutsi zaio.

- **9.2.2.10. ekintza:** Gazte Justiziako hezkuntza-zentroetan osasunerako, jarduera fisikorako eta elikadura osasungarrirako hezkuntza-jarduerak garatzea.

Aldia: 2014-2018

Adierazleak: Jardueren eta parte-hartzaileen kopurua.

Betetze-maila: Programa hori Gazte Justiziako hezkuntza-zentroen sarean garatzen da, eta zentroetako langileek ematen dute. Jarduera horietan hezkuntza-zentroetan dauden neska-mutil guztiek parte hartzen dute.

2.4.5 Lan eta Justizia Saila (aurretik, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila)

- **9.5.2.1. ekintza:** Talde psikosozialetako psikologoak osasun-arloko psikologo gisa aitor daitezela lortzea.

Aldia: 2014-2015

Adierazleak: Onarpenen eraginkortasuna.



Betetze-maila: Jasota daude Osasun Saileko Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako lurralde-ordezkarien ebazpenak, talde psikosozial judizialaren hiru lurraldeetako funtzionamendurako baimen sanitarioa ematen dutenak. Plantillan halakorik eskatzen duten pertsona guztiei aitortzen zaie.

- **9.5.2.2. ekintza:** Fiskaltzetan eta adingabeen epaitegietan lanean ari diren langileen egitura eta prestakuntza-sistemak egokitzea.

Aldia: 2014-2018

Adierazleak: Langileen lan-karga eta jasotako prestakuntza.

Betetze-maila: Plantillek beren horretan jarraitu dute.

- **9.5.2.3. ekintza:** Ibaiondo Hezkuntza Zentroko mantentze-lanak egitea, bai eta gainerako gazte-justiziako zentroak mantentzeko lanen inguruko betebeharrak betetzea ere.

Aldia: 2014-2018

Adierazleak: Egindako zereginen kopurua.

Betetze-maila: Lan jarraitua da, eta C.C.C: C02/017/2012 espedientearen 4. lotearen bidez egiten da. Giroa enpresarekin sinatutako kontratuak ofizial bat atxikitzen zuen zentroko lanaldi osoko mantentze-lanetarako. Kontratuaren helburua instalazioen eta ekipoen mantentze teknikoa egitea izan da, industria- eta osasun-araudiekin bat etorritz, eta helburu nagusia instalazioen funtzionamendu jarraitua eta eraginkorra bermatzea izan da.

- **9.5.2.4. ekintza:** Beharrezko segurtasun-langileez hornitzea gazte-justiziako I. eta II. mailetakoko zentroak.

Aldia: 2014-2018

Adierazleak: Atxikitako langile kopurua.

Betetze-maila: 2014ko urrian, zehazki, urriaren 27tik aurrera, Ibaiondo zentroko segurtasuna indartu zen: segurtasun-zaintzaile bat jarri zen, astelehenetik ostiralera, 12 orduz. Era berean, 2014ko abenduaren 9tik aurrera, beste segurtasun-zaintzaile batekin indartu zen zerbitzua, asteko egun guztietan 12 orduz. Egoera 2015eko maiatzaren 15era arte mantendu zen; une hartatik aurrera, astelehenetik



ostiralera ez zen indartze horrekin jarraitu. Gaur egun, Ibaiondo Adingabeen Barneratze Zentroan eguneko 7 segurtasun-zaintzailek eta gaueko 3 segurtasun-zaintzailek ematen dute zerbitzua, egun guztietan, asteburu eta jaiegunetan barne.

- **9.5.2.5. ekintza:** Beharrezko baliabide teknikoek eta materialez hornitzea, segurtasun-zereginak betetzeko gazte-justiziako zentroyen sarean.

Aldia: 2014-2018

Adierazleak: Eskura jarritako baliabideak.

Betetze-maila: Segurtasunaren arloan, zenbait esku-hartze egin dira telebista-sistema itxiko (CC.TV) ekipoak mantentzeko eta hobetzeko. Paketeak eta detektatze-arkuak ikuskatzeko ekipoen mantentze-lanak egin dira, eta urteko batez besteko gastua 2.885,5 €-koa izan da. Jaurlaritzako langileek kudeatzen ez dituzten gainerako zentroetako gastua ez da esanguratsua izan.

- **9.5.2.6. ekintza:** Fiskaltzentzako eta adingabeen epaiketetarako berezko espazioak eta instalazioak mantentzea.

Aldia: 2014-2018

Adierazleak: Berezko espazioen kopurua.

Betetze-maila: 4 gune espezifiko mantendu dira (Adingabeen Epaitegi bakoitzeko), 3 gune espezifiko adingabeen fiskaltzentzat, 3 gune espezifiko talde psikosozialentzat, eta adingabeentzako azterketa-gela berri bat egokitu da Kalkutako Teresaren Justizia Jauregian.

- **9.5.2.7. ekintza:** Prestakuntza-ekintzak programatzea, Justizia Zuzendaritzarekin lankidetzan, talde psikosozialei zuzenduta, gazte-justiziari buruzko bitartekaritza eta aholkularitzaren inguruan.

Aldia: 2014-2018

Adierazleak: Prestakuntza-jardueren kopurua eta parte-hartzaileen kopurua.

Betetze-maila: Bi ekintza burutu dira: 2015ean, talde psikosozial judizialeko kideak 25 izan ziren, eta 2016an (talde psikosozial eta judizialeko eta Justizia Zuzendaritzako kideak) 30.



- **9.5.2.8. ekintza:** Gazte-justiziako zentroyen sarearen segurtasunari buruzko eskuliburua eguneratzea eta, Justizia Zuzendaritzarekin lankidetzan, gazte-justiziari buruzko prestakuntza berezia eskaintzea gazte-justiziako zentroyen sarean lanean ari diren segurtasuneko langileei.

Aldia: 2014-2018

Adierazleak: Prestakuntza-jardueren kopurua eta parte-hartzaileen kopurua.

Betetze-maila: Ibaiondo Hezkuntza Zentroan eta Uribarrikoan segurtasun-protokolo batzuk egin dira, zentroetako profesional guztiei eragiten dietenak eta dagozkien arduradunen esku daudenak. Era berean, 4 prestakuntza-ekintza espezifiko egin dira sareko zentro guztietan segurtasun-zerbitzua ematen duen enpresa aldatzeagatik.

- **9.5.2.9. ekintza:** Justizia Zuzendaritzarekin lankidetzan, talde psikosozialen jarduketa-protokoloak eta informazio-bilketa homogeneizatzea, bitartekaritzari eta aholkularitzari dagokienez.

Aldia: 2015-2017

Adierazleak: Protokolo berriak argitaratzea eta datuak biltzeko tresnak sortzea.

Betetze-maila: Access formatuko datu-base espezifiko bat sortu da bitartekaritza-prozesuetarako, eta talde psikosozialen tresna informatikorako euskarria izan diren aholkularitza-txostenak egiteko datuak biltzeko itemak definitu dira.

- **9.5.2.10. ekintza:** Talde psikosozialei beren jarduera kudeatzeko behar diren informatikako tresnak ematea, txostenak bidaltzea eta estatistikak egitea.

Aldia: 2015-2016

Adierazleak: Tresna abiaraztea.

Betetze-maila: Proba-fasearen ondoren, 2018an tresna hori talde psikosozialen eskura dago.

- **9.5.2.11. ekintza:** Taldeen ordezkarien eta Justizia Zuzendaritzaren artean lantalde egonkorra sortzea, artatutako adingabeen datuak biltzeko, entzunaldi eta agerraldietarako informazioa elkarrekin trukatzeko, neurriak betearazteko zerbitzuak bisitatzeko eta abar.



Aldia: 2015-2018

Adierazleak: Egindako bilera kopurua eta adostutako protokoloak eta dokumentuak.

Betetze-maila: Lankidetzaren protokolo baten bidez, adingabeei buruzko informazioak unean-unean helarazten dira, honako zeregin hauek betetzeko: txostenak eguneratzea, entzunaldi eta agerraldietarako fitxak, etab. (eguneratzeak astero egiten dira). Protokolo horrek EAEko adingabeetako lau epaitegietako edozeinetan egiten diren entzunaldi edo agerraldi bakoitzerako informazio-trukea ezartzen du. Truke horiek astean behin egiten dira. Justizia Zuzendaritzak adingabearen egoera judizialari, egindako txostenei eta, hala badagokio, eguneratze-fitxari buruzko informazioa ematen du.

- **9.5.2.12. ekintza:** Talde psikosozialei beren jarduera kudeatzeko behar diren informatikako tresnak ematea, txostenak bidaltzea eta estatistikak egitea.

Aldia: 2016-2018

Adierazleak: Tresnak abiaraztea.

Betetze-maila: Gaur egun, berriazko tresna bat dago.

- **9.5.2.13. ekintza:** Talde psikosozialen, fiskaltzen eta adingabeen epaiketen eta gazte-justiziako zerbitzuen arteko konexio informatikoa sustatzea, gazte-justiziaren inguruan.

Aldia: 2017-2018

Adierazleak: Egindako konexioa.

Betetze-maila: Ez da egin.

- **9.5.2.14. ekintza:** Talde psikosozialek gazte-justiziaren inguruan eginiko jarduketari buruzko urteko ebaluazioak eta txostenak egitea.

Aldia: 2014-2018

Adierazleak: Urteko memoriak.

Betetze-maila: Jurisdikzio bakoitzean egindako jarduketei buruzko oinarritzko memoriak egiten dira. Hobetzeko eta zabaltzeko zain dago, aplikazio informatikoa martxan jartzean.



- **9.5.2.15. ekintza:** Talde psikosozialen jarduketaren inguruko iradokizun eta kexen protokoloa egitea eta onestea.
Aldia: 2016-2018
Adierazleak: Protokoloaren onarpena eta jasotako kexa- eta/edo iradokizun kopurua.
Betetze-maila: Kexen protokolo-zirriborro bat dago, talde psikosozialek jasotzen dituzten kexak konpontzeko erabiltzen dutena (4 kexa 2014an eta 2015ean, hurrenez hurren, 3 kexa 2016an, 1 2017an eta 5 2018an; hau da, 17 kexa guztira). Ofizialki ez da protokolorik onartu.

- **9.5.2.16. ekintza:** Barne-tutoretzen sistema bat antolatzea, TPJra heltzen diren teknikariak prestatzeko.
Aldia: 2016-2018
Adierazleak: Egindako tutoretza kopurua.
Betetze-maila: Ez da egin.

- **9.5.3.1. ekintza:** Aldian behin azterketak egitea, neurri judizialen eta berrerortzearen eraginkortasunerako.
Aldia: 2015 (2012-2015) eta 2018 (2015-2018).
Adierazleak: Egindako azterketak (KREI – EHU).
Betetze-maila: Bi azterketak egin dira (informazio gehiago dagokion kapituluan).

- **9.5.3.2. ekintza:** Talde psikosozialek egindako bitartekaritza-prozesuak ebaluatzea: eraginkortasuna eta berrerortzea.
Aldia: 2015 (2012-2015) eta 2018 (2015-2018).
Adierazleak: Egindako azterketak (KREI – EHU).
Betetze-maila: Ebaluazioa egin da (informazio gehiago dagokion kapituluan).

- **9.5.3.3. ekintza:** Talde psikosozial judizialaren araudia eguneratzea.
Aldia: 2016-2018
Adierazleak: Egindako eguneratzea.
Betetze-maila: Etenda dago.



- **9.5.3.4. ekintza:** Gazte-justiziari buruzko web-orrialde berria egitea.
Aldia: 2015
Adierazleak: Web sortzea.
Betetze-maila: Edukiak eguneratu dira.

- **9.5.3.5. ekintza:** Luzetarako ikerketa egitea, gazte-justiziatik igaro diren pertsonen delituan atzera egiteari buruz.
Aldia: 2016-2018
Adierazleak: Egindako ikerketa.
Betetze-maila: 2016-2018 aldian delituan atzera egiteari buruzko aurretiazko azterketa egin da (informazio gehiago dagokion kapituluan).

- **9.5.3.6. ekintza:** Gazte-justiziaren inguruko eskariari, betearazpenari eta kudeaketari buruzko urteko memoriak egitea.
Aldia: 2014-2018
Adierazleak: Urteko memoriak egitea.
Betetze-maila: Urteko memoriak egin dira (informazio gehiago dagokion kapituluan).

- **9.5.3.7. ekintza:** Justiziako hezkuntza-zentroen dekretu arautzailea berrikustea.
Aldia: 2016-2017
Adierazleak: Berrikusketa aztertzea edo dekretu berria EHAAan argitaratzea.
Betetze-maila: Dekretua berrikusteko lanak hasi dira.

- **9.5.3.8. ekintza:** Gazte-justiziako mailen araberako zentroen sailkapena berrikustea.
Aldia: 2015-2016
Adierazleak: Zentroen sailkapenari buruzko dokumentua.
Betetze-maila: Mailak berrikusi dira eta dauden hiru mailak mantendu dira.

- **9.5.3.9. ekintza:** Gazte-justiziaren sarean dauden plazen eskaintza egokitzea.
Aldia: 2014-2018



Adierazleak: Urtero erabilgarri dauden zentro eta plazen kopuruak.

Betetze-maila: Informazioa dokumentu honetan dagokion kapituluan agertzen da.

- **9.5.3.10. ekintza:** Prestakuntzako jardunaldi bereziak egitea, erakunde laguntzaileekin eta Unibertsitatearekin batera.

Aldia: 2014-2018

Adierazleak: Jasotako prestakuntza-jardunaldien kopurua.

Betetze-maila: Eguneko Zentroei buruzko Jardunaldia (Berriztu-2014). Zaintzapeko askatasunaren neurriaren betearazpenari buruzko jardunaldia (KREI-2016). Gizarte-arriskuan dauden adingabeei buruzko jardunaldia (KREI-2017).

- **9.5.3.11. ekintza:** Zentro, zerbitzu eta programei buruzko dibulgazio-materialak egitea.

Aldia: 2016-2018

Adierazleak: Materialen argitaratzea eta dibulgazioa.

Betetze-maila: Egindako materialak mantentzen dira.

- **9.5.3.12. ekintza:** Beste autonomia-erkidego, herrialde eta nazioarteko erakunde batzuekin gazte-justiziaren inguruko lankidetzaren sustatzea.

Aldia: 2014-2018

Adierazleak: Sinatutako hitzarmen kopurua eta egindako ekintza kopurua.

Betetze-maila: Autonomia-erkidegoekin ezarritako lankidetzari eusten zaio, neurriak ezartzen duen adingabeen epaitegiak bestelako autonomia-erkidego batean bizi diren neska-mutilentzako neurriak betearazteko. Halaber, beste herrialde batzuetan esku hartzen duten estatuko unibertsitateekin eta irabazi-asmorik gabeko erakundeekin harremanak mantentzen dira (2014. urtea: Txile). Gazte Justiziari buruzko Munduko Kongresuan esku hartu da. Paris. 2018

- **9.5.3.13. ekintza:** Talde psikosozialekin eta fiskaltzekin eta adingabeen epaitegiekin komunikazio-kanal etengabeak sustatzea.

Aldia: 2014-2018



Adierazleak: Irekitako kanal kopurua eta egindako bilera eta topaketen kopurua.

Betetze-maila: Komunikazio-kanal iraunkorrak daude hiru instantziekin.

- **9.5.3.14. ekintza:** Neurriak ingurune irekian betearazteko zerbitzuen egitura egonkorri eustea, eta Bilbon, Gasteizen eta Donostian izatea egoitzak, gehienezko arreta-ratioa 1/15 izanik.

Aldia: 2014-2018

Adierazleak: Zerbitzu erabilgarriak eta zerbitzu bakoitzeko profesionalak.

Betetze-maila: Informazioa dokumentu honetan dagokion kapituluan agertzen da.

- **9.5.3.15. ekintza:** Neurriak betearaztean bitartekaritza-prozesuak areagotzea.

Aldia: 2014-2018

Adierazleak: Egindako prozesu kopurua.

Betetze-maila: Neurrien esku-hartze proiektu guztietan, erantzukizun-prozesuaren barruan, bitartekaritza-prozesu bat egiteko aukera jorratzen da.

- **9.5.3.16. ekintza:** Urtero ezarritako diziiplina-espedientei buruzko azterketa bat egitea.

Aldia: 2014-2018

Adierazleak: Egindako azterketak.

Betetze-maila: Informazioa biltzeko eta ustiatzeko prozedura estandarizatua dago, eta, beraz, urtero txosten bat egiten da.

- **9.5.3.17. ekintza:** Neurriak betearaztean egindako aldaketari buruzko azterketa egitea, urtero.

Aldia: 2014-2018

Adierazleak: Egindako azterketak.

Betetze-maila: 2016., 2017. eta 2018. urteetan egin dira azterketak (informazio gehiago dagokion kapituluan).



- **9.5.3.18. ekintza:** Txosten-eredu estandarizatuak egitea, AZELOren 7. artikuluan jasotako neurri bakoitzerako.
Aldia: 2015-2016
Adierazleak: Estandarizatutako ereduak.
Betetze-maila: Gazte-justiziaren datu-basea garatzearen eta gaur egun egiten ari diren neurrien ebaluazio-txostenak berrikustearen mende dago jarduketara hau.

- **9.5.3.19. ekintza:** Adingabeak egitateetan duen erantzukizuna eta kontziliaziorako edo kaltearen erreparaziorako aukerak berrikustea. Barneratzeko, eguneko zentroetara joateko eta zaintzapeko askatasuneko neurrietan esku hartzeko eredia proposatzea.
Aldia: 2016-2017
Adierazleak: Eredua berrikusteko eta proposatzeko txostena.
Betetze-maila: Betetze-faseko kontziliazioari buruzko zirkularretik abiatuta (2007), neurrien gaineko esku-hartzeen proiektu guztietan, erantzukizun-prozesuaren barruan, bitartekaritza-prozesu bat egiteko aukerari heltzen zaio.

- **9.5.3.20. ekintza:** Neurriak hautatzeko adierazleak ebaluatzea eta berrikustea.
Aldia: 2015-2016
Adierazleak: Adierazleei buruzko txostena.
Betetze-maila: Adierazleak berrikusi dira, baina ez da txostenik egin.

- **9.5.3.21. ekintza:** Gazte-justiziaren arloari atxikitako plazen zereginak berrikustea.
Aldia: 2015-2016
Adierazleak: Ebaluazio-txostena.
Betetze-maila: Lanpostuen zerrenda mantendu da, monografiatan jasotako zereginekin.

- **9.5.3.22. ekintza:** Haurrak eta nerabeak babesteko Foru Aldundiek dituzten zerbitzuek eta autonomia-erkidegoko gazte-justiziaren arloko eskumena duen sailak lankidetzan jarduteko eta koordinatzeko protokoloa eguneratzea.



Aldia: 2016-2017

Adierazleak: Protokoloa eguneratzea.

Betetze-maila: Onartutako protokoloei eutsi zaie, eta eguneratu egin da askatasunaz gabetzen ez duten neurrietarako Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan aritzeko protokoloa.

- **9.5.3.23. ekintza:** AURRERABIDE programaren oinarrizko edukiak ezartzea Gazte Justiziaren Zerbitzuan.

Aldia: 2015-2018

Adierazleak: Eredua ezartzea: urteko plangintza eta ebaluazioa.

Betetze-maila: Ez da egin.

- **9.5.3.24. ekintza:** Osasun mentalari eta gazte-justiziari buruzko ikerketa bat egitea.

Aldia: 2015-2017

Adierazleak: Egindako ikerketa.

Betetze-maila: Ez da ikerketarik egin, baina osasun mentaleko arazoak dituzten adingabeen kopuruari eta tipologiari buruzko datu estatistikoak eskura daude. Erabilitako informazio-iturriak honako hauek izan dira: haur eta gazteen osasun mentaleko zentroetan, unitate psikiatrikoetan, eta sare publikotik kanpoko terapeutek artatutako toxikoen eta neska-mutilen kontsumoa kontrolatzeko eta prebenitzeko programetan artatutako barneratze terapeutikoko eta tratamendu ambulatorioko neurri espezifikoak dituzten neska-mutilen eta talde psikosozialen txostenak.

- **9.5.3.25. ekintza:** Osasun-zerbitzuekin koordinatuta, neurri judizialen ordezt, osasuna sustatzeko eta drogen kontsumoa eta beste adikzio batzuk prebenitzeko programa berezietan parte hartzea sustatzea.

Aldia: 2015-2018

Adierazleak: Osasun-zerbitzuetan betetako neurri kopurua.

Betetze-maila: Barneratze-neurri baten ordezt komunitate terapeutikoko laguntza ezarri da, eta zenbait barneratze-neurri bete dira, partzialki behintzat, zentro



soziosanitarioetan (Zamudioko Ospitalea, Arabako Psikosi Errefraktarioko Unitatea eta Arrasateko Aitamenni Ospitalea). Ingurune irekiko neurri ugari (askatasunaz gabetzen ez dutenek) barne hartzen dute osasun mentaleko programetan parte hartzea, batez ere, toxikoen kontsumoa kontrolatzeko eta prebenitzeko programetan.

- **9.5.3.26. ekintza:** "Adingabe"en txanda berezia eratzen duten letradunen hasierako eta etengabeko prestakuntza-prozesuan laguntzea.

Aldia: 2015-2018

Adierazleak: Egindako lankidetzakopurua.

Betetze-maila: Abokatuen elkargo ofizialek urtero antolatzen dituzten ikastaroetan parte hartzen da.

- **9.5.3.27. ekintza:** Sarearen bidez, artxiboen kudeaketan eta trukean datuen babesa bermatuko duen prozedura onestea.

Aldia: 2016

Adierazleak: Prozedura martxan jartzea.

Betetze-maila: DBLOaren auditoretza egin da, eta komunikazio seguruko prozedura abiarazi da (EJIEk diseinatua) Justizia Zuzendaritzaren eta Gazte Justiziako erakunde laguntzaileen artean.

- **9.5.3.28. ekintza:** Ingurune irekian zaintzapeko askatasuneko eta gizarte- eta hezkuntza-zereginak egiteko neurrien helburu, ekintza, emaitza eta balioespenari buruzko azterketa egitea.

Aldia: 2015-2016

Adierazleak: Ebaluazio-txostenak.

Betetze-maila: Bi txostenak egin dira (informazio gehiago dagokion kapituluan).

- **9.5.3.29. ekintza:** Hezkuntza-zentroan barneratzeko neurrien helburu, ekintza, emaitza eta balioespenari buruzko azterketa egitea.

Aldia: 2016

Adierazleak: Ebaluazio-txostena.



Betetze-maila: Txostena egin da (informazio gehiago dagokion kapituluan).



2.5.4. kapitulua: Hezkuntzako esku-hartzearen eraginkortasunerako ebaluazio-txostenak eta hobekuntza-adierazleak (Kriminologiaren Euskal Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea)

Gazte Justiziaren IV. Plana indarrean egon den bitartean, etengabeko lankidetzan da Euskal Herriko Unibertsitatearekin; zehazki, Kriminologiaren Euskal Institutuarekin. Hainbat ebaluazio-txosten garatu dira, eta horien emaitzak zabaltzen lagundu da. Horrela, EAEko gazte-justiziari buruzko ezagutza sakona lortu da. Laburbilduta, txosten horietako batzuk aurkeztuko ditugu jarraian.

2.5.1 Gazte Justizian atzera egiteari buruzko azterketa

2016an, eta Justizia Zuzendaritzaren enkarguz, KREIko gazte-justiziaren ikerketa-taldeak ikerketa-lerro bat hasi zuen EAEko adingabeen arau-hauste penaletan atzera egiteari buruz.

Zehazki, 2016. urtearen amaieran aurkeztu zen azterketa teoriko bati ekin genion, eta, bertan, besteak beste, gaur egun gai horri buruz estatuan eta nazioartean dauden azterketa eta ikerketen ikuspegi zehatza eskaini genuen.

Lan honen testuinguruan, azterketa teorikoa lagunduko zuen azterketa enpiriko bat diseinatu genuen. Azterketa horretan, delitu-historian zenbait neurri zituzten ehun pertsona ingururekin jarri ginen harremanetan, ezarri zitzaizkien neurriak bete ondoren izan zuten bizi-gorabeheraren alderdi zehatzak ezagutzeko. Neurri horiek berebiziko garrantzia izan zuten gure azterketaren xede diren atzera egiteko prozesuak aztertzeko. KREI erakundeak, Justizia Zuzendaritzaren onarpena jaso ondoren, zuzenean posta bidez harremanetan jartzeko prozedura abiatu zuen. Hala ere, prozedura horrek ez zuen arrakastarik izan, gure lankidetzak ez baitzuen erantzun nahikorik jaso. Beraz, 2017an ikerketa-ildo horri jarraipena ematea pentsatu genuen, kontuan hartuta, gainera, 2014-2018 Gazte Justiziaren IV. Planaren helburu orokorretako bat dela horixe bera. Egoera ikusita, informazioa biltzeko beste prozedura bat planteatu genuen orduan, Justizia Zuzendaritzarekin elkarlanean diharduten erakundeen laguntzarekin, EAEko Adingabeen Epaitegiek ematen dituzten neurriak betearazteko. Proposatutako ideia zen erakunde laguntzaileei eskatzea zuzenean



harremanetan jar zitezela adingabe izanik beren zerbitzuen erabiltzaile izan ziren eta, sortutako loturen arabera, harreman egonkor samarra izaten jarraitzen zuten banakoekin. Pertsona horien inguruabarrak desberdinak ziren: batzuk delitu-jardueran erabat atzera egin izanaren frogak ematen zituzten eta, beste batzuek, hainbat arrazoi tarteko, Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeetan sartu-irtenak izan zituzten heldutan. Ikuspuntu horretatik, espero genezakeen kasuistika bi parametroren arabera osatuko zen: batetik, adingabe horiek Gazte Justiziaren sistemarekin kontaktua izan zutenean egin zituzten delituen kopurua, eta, bestetik, gaur egun duten bizi-egoera, zeina egokitu edo desegokitu gisa defini genezakeen. Jarraitu zen prozedura honako hau izan zen: erakunde laguntzaileek, beren zerbitzuetan ezagututako ahalik eta pertsona gehienekin harremanetan jarri ondoren, KREiko taldeak ad hoc egindako inkesta bat emango zieten, gure intereseko aldagaiak ebaluatzeko hainbat materialetan oinarrituta, hala nola, nortasun pertsonala, helburuak lortzeko legezko prozedurak erabiltzeko arrazoia eta gizarte-euskarriaren kalitatea. Gure ikerketa-taldeari bereziki interesatzen zitzaigun "gaizkile" gisa duen nortasunarekin lotutako alderdia, guretzat benetan garrantzitsua baita atzera-egite primarioaren eta sekundarioaren arteko bereizketa. Izan ere, duela gutxiko ikerketek iradokitzen dutenez, "delitugile" izatetik "ez-delitugile" izatera igarotzea (atzera-egite sekundarioa) garrantzitsuagoa izan daiteke atzera egitearen teoria ulertzeko, delitu-jokabideei utzi izana baino (atzera-egite primarioa).

Laburpen gisa, eta erakutsitako literatura espezializatuari esker, egiaztatu dugu atzera egitea ez dela gerora sortutako gertaera bat, baizik eta, funtsean, delitu-jardueraren desazelerazioa ezaugarri duen prozesua dela, eta, azkenean, erabat bertan behera uzten dela. Atzera egitearen azterketa *kausazio asimetriko* baten oinarritik abiatzen da, hau da, delitu-karreraren *sartzeko* faktoreak ez dira nahitaez *irteera*-faktoreak bezalakoak. Irteera-prozesu horretan, garrantzi berezia eman diogu *atzera-egite sekundarioari*. Hau da, nortasuna *arau-hausletik ez arau-hauslera* pasatzeari buruzko adierazleari. Ikuspegi horretatik, identitate ez-kriminala azaltzeko proposatutako eredua honako hauek osatuko lukete: baliabide zilegien bidez bizi-helburuak lortzeko motibazioak, pentsamendu antisozialaren estilorik ezak eta, aurretik emandako neurriez gain, hautemandako gizarte-babesak.



Hala ere, eta Justizia Zuzendaritzaren erakunde laguntzaileei esker lortu ahal izan dugun laginarekin dagozkion analisiak egin ondoren, egiaztatu dugu, espero zitekeenaren aurka, gizarte-babesak ez duela inolako eraginik nortasun ez-kriminala konfiguratzeko orduan. Eta harremanik ez hori mantentzen da, gainera, azterketan parte hartu duten pertsonen delitu-ibilbidea osatu duten neurrien kopurua edozein dela ere.

Ondorioz, hausnarketa esanguratsu bat egin genezake. Izan ere, beharbada, atzera egiteko prozesuan benetan garrantzitsua da subjektu bakoitzak bere bizi-gorabeherari buruz egiten duen barne-lanketa. Izan ere, nortasun ez-kriminal bat sendotzeko aurrekaritzat honako hau baino ez daiteke aipa: zilegi diren helburuak eta estilo kognitibo prosozial bat lortzeko motibazioa.

Logikoa denez, baieztapen hori tentuz planteatu behar da, laginaren tamaina (46 pertsona) eta ikerketaren prozedura azaltzean aipatu ditugun joera posibleak direla eta. Lagin zabalagoa eta heterogeneoagoa duten azterketak beharko dira, "barne-aldagaiak" (motibazioa eta pentsamendu-estiloa, esaterako) deritzogun horren garrantzia berresteko eta "kanpoko aldagaiak" (gizarte-euskarria, adibidez) deritzegun horien balizko garrantzirik eza berresteko.

Edonola ere, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailaren eta iragan hurbilean EAEko Adingabeen Epaitegiek ezarritako hezkuntza-neurriak jaso zituzten pertsonen artean harremana duen lehen ikerketa da hau. Nolabait ere, ariketa hori sistema baten eraginkortasunaren adierazle ona izan daiteke. Sistema horren helburua, azken batean, adingabe arau-hausleak epe ertain eta luzera birgaitzea eta gizarteratzea da. Egoerak uzten badigu, lanean jarraituko dugu.

2.5.2 Delitu-jardueraren adierazleak: aurreintzidentzia, intzidentzia anitza, berrerortzea eta delitua errepikatzea

KREIk azken urteotan Gazte Justiziako ondoz ondoko planetan egin dituen ebaluazioen beste helburu bat arau-hausle adingabeei gure erkidegoan egiten zaizkien hezkuntzako esku-hartzeen eraginkortasun-maila zehaztea izan da.




Horretarako, neska-mutilei buruzko txosten zehatzak egiten dira aldizka (hiru urtean behin), hiru helbururekin: haien profil psikosoziala ezartzea, delitu-ibilbidea aztertzea eta adingabeen epaileek ezarritako hezkuntza-neurriak neska-mutilengan eragin positiboa duen zehaztea. Informazio horrek guztiak luzetarako panoramika oso garrantzitsua eskaintzen du, eta, neurri batean, aurreko ataletan partzialki aurkeztu bada ere eta, beraz, hemen jasoko ez badugu ere (informazio guztia eranskinean aurkezten da), adierazle oso interesgarri batzuk erakusten dizkigu, jarraian aurkeztuko ditugunak eta kontuan hartu beharrekoak direnak. Aipatu dugun bezala, 2003. urteaz geroztik, hiru urtez behin, hezkuntzako esku-hartzearen eraginkortasunari buruzko lau adierazleren azterketa egiten da, honako urte hauek erreferentziazat hartuta: 2003, 2006, 2009, 2012 eta 2015, ondoren hiru urtetik gorako jarraipena eginda. Hala, aztertutako tarreak azkenean honako hauek izan dira: 2003-2007, 2006-2010, 2009-2012, 2012-2016 eta 2015-2019. Orain arte egindako azken azterketen adierazle horien ehunekoak aurkezten dira, datuen bilakaera ikusteko.

Aurreintzidentzia

Aurreintzidentzia da ebaluatutako urteko delitu-egitatea egin aurretik gauzatutako delitu-egitateen intzidentzia (2000. urteaz ari gara, Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritzak datuak jaso dituenetik). Hau da, adingabeak epai irmoaren ondorioz dituen espedienteen kopurua da, non eta epai horiek neurri bat betetzea badakarte eta Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritzan jasota badaude, ebaluatutako delitu-egitatearen data baino lehenagoko egikaritzata-kin. Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, ebaluatutako neurrien aurreintzidentzia % 38tik % 23ra jaitsi da lehen azterketan, hau da, aztertutako neska-mutilek gero eta neurri gutxiago zituzten aurretik.




Aurreintzidentzia (Alderaketa: 2006-2010, 2009-2013, 2012-2016 eta 2015-2019). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Kriminologiaren Euskal Institutua.



Intzidentzia anitza

Intzidentzia anitza, zehazki, ebaluatutako aldiaren amaierako delitu-egitatearen dataren eta dagokion neurria amaitu den dataren artean gauzatutako delituen intzidentzia da. Hau da, adingabeak epai irmotik eratorrita dituen espedienteen kopurua da, neurri bat betetzea dakarten kasuetan. Hautatutako egitatea gertatu eta hurrengo aldiaren eta dagokion hezkuntza-neurriaren amaiera-dataren artean egindako delituak sartzen dira bertan. Erraz ikusten denez, intzidentzia anitzak behera egin du hurrengo azterketetan ere: 2006-2010 aldiaren % 38 zen, eta 2015-2019 aldiaren berriz, % 22.

Intzidentzia askotarikoa (Alderaketa: 2006-2010, 2009-2013, 2012-2016 eta 2015-2019). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Kriminologiaren Euskal Institutua.






Berrerortzea

Berrerortzea ebaluatutako hezkuntza-neurriaren amaierako dataren ondoren gauzatutako delitu-egitateen intzidentzia da (adin-nagusitasunera heltzean espetxeratzea ekarri duten delitu-egitateak kontua hartuta). Hau da, adingabearen epai irmotik eratorri diren eta neurri bat betetzea dakarten espedienteen kopuru osoa da, ebaluatutako delitu-egitatearen hezkuntza-neurria amaitu eta hurrengo egunetik aurrera. Atal honetan, Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritzaren datu-basea ez ezik, espetxeek³⁰ emandako informazio guztia ere izan dugu, adingabea adin-nagusitasunera heltzean berrerori ahal izan denean. Adierazle horretarako, erreferentzia gisa hartzen ditugu, halaber, EAEko adingabe arau-hausleen berrerortze-tasaren pixkanakako jaisiera argi eta garbi ikus dadin egindako azterketa guztiak.

Berrerortzea (Alderaketa: 2003-2007, 2006-2010, 2009-2013, 2012-2016 eta 2015-2019).
Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Kriminologiaren Euskal Institutua.



Delitua errepikatzea


Eta, azkenik, delitua errepikatzea esaten zaio Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritzan jasotzen diren epai irmoaren ondoriozko neurri guztiak eta espetxeek emandako informazioa biltzen dituen horri. Hau da, adingabeak historian zehar pilatu dituen delitu-egitateen kopurua da, epai irmoaren ondorioz neurri bat betetzea eragin denean. Aldagai horretan, halaber, egindako lau azterketak hartu ditugu

³⁰ Eskerrak eman nahi dizkiogu Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiari azterketa honetan laguntzeagatik.



erreferentziatzen, eta errepikapen-ehunekoak behera egin duela ikusi dugu, batez ere 2006-2010eko azterketatik (% 58,8) 2012-2015ekora (% 50,9).

Delitua errepikatzea (Alderaketa: 2003-2007, 2006-2010, 2009-2013, 2012-2016 eta 2015-2019). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Kriminologiaren Euskal Institutua.



Beraz, ondorio orokor gisa honako hau esan dezakegu soilik: ebaluatutako adierazleen ehuneko guztiek behera egiten dutela (neurri handiagoan edo txikiagoan) 2003tik gaur arte egindako azterketetan.

2.5.3 Arau-hausteetan behin edo behin baino gehiagotan berrerori diren adingabeen profila

Urte anitzeko azterketa horien beste atal batean, arau-hausteetan behin edo behin baino gehiagotan berrerori diren neska-mutil berrerorleek eta berrerorle anitzen profil psikosoziala aztertzen daan datza.. Lortu dugun informazioaren arabera, hain zuzen ere, berrerorleek arrisku-adierazle nabarmenagoak dituzte delitu-egitate bakarra egiten duten pertsonen baino, eta lagin orokorrarekin desberdintasun nabarmenak ikusten dira zenbait aldagaitan, hala nola gurasoen kontrolean, toxikoen kontsumoan, arriskuan dauden berdinkideen presentzian, antolatutako aisialdi-jarduerarik ez izatean, etab.

Bestalde, berrerorle anitz adingabeen taldeak gutxienez lau delitu-egitate izan behar ditu; horietako bik, gutxienez, delituak izan behar dute, eta berrerorlea izan behar dute, arestian deskribatutako definizioa kontuan hartuta.



Talde hori % 6 eta % 8 artekoa da ebaluatutako aldi osoan, eta gure erkidegoan delitu-egitateak egiten dituzten gainerako neska-mutilen aldean ezaugarri psikosozialak, hezkuntzakoak eta delituzkoak ditu. Horregatik, 2016an interes zientifiko nabarmena duen azterketa bat egiten hasi ginen, KREIrekin lankidetzan, adingabe arau-hausleek delituan atzera egiteari buruz. Ikerketa-lerro honen emaitzek talde honetako hezkuntza-arloko esku-hartzeak hobetzen lagunduko dutela espero dugu; izan ere, talde hori ez da ugaria adingabe arau-hausle guztien artean, baina nabarmena da historia osoan egiten dituzten delitu-egitateen kopuru osoa.

2.5.4 Zaintzapeko askatasuneko neurriari buruzko azterketa

Zaintzapeko Askatasunaren neurriari buruzko azterketa KREIk Justizia Zuzendaritzarekin batera 2016rako definitu zituen ikerketa-ildoetako bat da, eta Eusko Jaurlaritzaren Gazte Justiziaren IV. Planaren (2014-2018) 9.5.3.28. ekintzan jasota dago. Ekintza horretan, zehazki, "**Zaintzapeko Askatasunaren helburuak, ekintzak, emaitzak eta balorazio orokorra aztertzea**" ezartzen da, ingurune irekian betetzeko neurrien katalogoan ezarritako neurrietako bat baita, Adingabearen 5/2000 Zigor Legean ezarritakoari jarraikiz.

Helburu horrekin, neurri horren ebaluazioa egin zen EAEko gazte-justizian 2016an. Egia da azterketa 2015ean amaitu diren zaintzapeko askatasunei dagokiela, baina zaintzapeko askatasunaren neurria ehuneko esanguratsua da EAEko adingabeen epaitegiek ezarri ohi dituzten neurri guztietan (ikus hurrengo taula). Hala, eta neurri irmoak bakarrik kontuan hartuta, 2015ean, Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritzako Gazte Justiziako Zerbitzuan sartu ziren 854 neurri irmoetatik, 322 zaintzapeko askatasunak ziren, hau da, neurri irmo guztien % 37,7. Bestalde, neurri horrek azken urteetan izan duen bilakaera aztertuz gero, goranzko joera ikusten da, 2012ko % 32,5etik gorakoa.

Azken batean, gure erkidegoan delituak egiten dituzten neska-mutilei sarrien ezartzen zaien neurria da.



47. taula. Zainpeko askatasunaren azterketa: Neurri irmoen eskariaren banaketa (2012-2015).
Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza.

NEURRIA	2012	2013	2014	2015
Zaintzapeko askatasuna	297 (% 32,5)	241 (% 31,5)	226 (% 30)	322 (% 37,7)
Gizartearentzako lanak	229 (% 25,1)	182 (% 23,8)	177 (% 23,5)	180 (% 21,1)
Barneratzea	120 (% 13,2)	104 (% 13,6)	109 (% 14,5)	124 (% 14,5)
Gizarte- eta hezkuntza-zereginak	101 (% 11)	116 (% 15,2)	127 (% 16,9)	97 (% 11,3)
Asteburuko egonaldia	121 (% 13,3)	76 (% 9,9)	59 (% 7,8)	69 (% 8,1)
Eguneko zentrora joatea	29 (% 3,2)	37 (% 4,8)	41 (% 5,4)	53 (% 6,2)
Tratamendu ambulatorioa	8 (% 0,9)	5 (% 0,7)	12 (% 1,6)	5 (% 0,6)
Hezkuntza-taldearekiko bizikidetza	7 (% 0,8)	4 (% 0,5)	2 (% 0,3)	4 (% 0,5)
NEURRI IRMOAK, GUZTIRA	912 (% 100)	765 (% 100)	753 (% 100)	854 (% 100)
Barneratzea	41 (% 51,3)	18 (% 58)	29 (% 50,9)	36 (% 48)
Zaintzapeko askatasuna	36 (% 45)	11 (% 35,5)	24 (% 42,1)	36 (% 48)
Hezkuntza-taldearekiko bizikidetza	3 (% 3,7)	2 (% 6,5)	4 (% 7)	3 (% 4)
KAUTELA-NEURRIAK, GUZTIRA	80 (% 100)	31 (% 100)	57 (% 100)	75 (% 100)
NEURRIAK, GUZTIRA	992	796	810	929

Zaintzapeko askatasunaren 102 neurri ebaluatu ziren, eta honako baldintza hauek bete dituzte:

- EAE-n egin dira.



- Neska-mutil desberdinek egin dituzte.
- 2015. urtean zehar amaitu dira.

Jatorrizko neurri-motari dagokionez, % 83,3 zaintzapeko askatasun "puru" batetik datoz, % 13,7 barneratze erdi-irekiei dagozkien zaintzapeko askatasunetatik eta, azkenik, % 2,9 barneratze irekietatik. Zaintzapeko askatasun bateratuen kasuan, besteak bateratzen dituen neurria hartu dugu erreferentziatzat.

Iraupenari dagokionez, ia % 52k 6 hilabete baino gutxiago irauten dute, eta % 8k soilik betetzen dute 12 hilabete baino gehiago.

Ebaluatutako neurriek berekin dakartzaten **delituak** aztertuz gero, aldakortasuna nahiko handia dela ikusiko dugu. Hala ere, esan dezakegu arau-hauste ohikoena indarra erabiliz egindako lapurreta edo indarkeria eta/edo larderia erabiliz egindako lapurreta dela (% 36,2), eta, ondoren, familia- edo genero-indarkeria (% 18,6).

Talde psikosozialak, berriz, **neurri-proposamen** bat egiten du batzuetan. Zaintzapeko askatasun ebaluatuen kasuan, % 63. Proposatutako neurriak aztertuz gero, ikus daiteke guztien % 54 soilik izan direla zaintzapeko askatasunak edo barneratzeak. Hau da, gainerako % 40,6k ez dute talde psikosozialaren proposamenik izan, edo proposamena beste neurri batekoa izan da (tratamendu ambulatorioa, gizarte- eta hezkuntza-zereginak, asteburuko egonaldiak edo gizartearentzako lanak). Aldagai horri buruzko informazioak txosten psikosozialean berariaz jasotakoari egiten dio erreferentzia.

Bestalde, beste kontu interesgarri bat honako hau da: talde psikosozialek proposatzen dituzten **jokabide-arauen** eta adingabeen epailek azkenean ezartzen dituztenen arteko baliokidetasunen azterketa. Hala, ikus dezakegunez, kasuen % 21,6an ez dago jokabide-araurik, ez taldeen aldetik, ez epaian. Beste % 21,6an, taldeek proposamenak egin dituzte, baina adingabeen epailek epaian horiek ez aplikatzea erabaki du. Bestalde, gainerakoetatik (% 56,9), epaian jokabide-arau bat edo batzuk jasotzen dira (guztien % 10,8 ez zituen talde psikosozialak proposatu).

Adingabe bakoitzaren banako hezkuntza-proiektuetan (aurrerantzean, BHP) planteatzen diren **helburuen** atalean sartuta, sei atal handiren inguruan biltzen direla ikus dezakegu:

- Prestakuntza eta lanaren alorra
- Psikosoziala



- Biologia eta gorputza
- Gizartea eta familia
- Aisia eta denbora librea
- Arlo afektiboa

Horrela, ikusten da prestakuntza eta lanaren arloa ebaluatutako zaintzapeko askatasun ia guztietan jasota dagoela; zehazki, aztertutako 102 askatasunetatik 101etan (% 99). Arlo psikosozialak ere presentzia handia du (97 zaintzapeko askatasunetan agertzen da, % 95,1). Biologiaren eta gorputzaren arloa zaintzapeko 72 askatasunetan ageri da (% 70,6), eta, ondoren, gizarte- eta familia-arloan eta aisialdiko eta denbora libreko arloan, antzera (zaintzapeko 67 askatasunetan helburu horiek jasotzen dira, % 65,7 horietako bakoitzean). Azkenik, eremu afektiboa da zaintzapeko askatasunetan gutxien agertzen dena. Horien % 50etan agertzen da.

Atal bakoitza ere aztertu dugu, eta ikusi dugu **prestakuntza- eta lan-helburua** betetzen dela, kasuen % 55ean bere eskakizun-mailari eutsiz; ondoren, % 16k ere betetzen du helburua, baina behera egin du eskakizunak BHPn planteatutakoarekin alderatuta. Helburuen % 20 ez dira betetzen, eta % 6k ez dute informazio eztabaiaezinik.

Biologia eta gorputzeko helburuari dagokionez, kasuen % 54an eskakizun-mailari eusten zaio, eta, ondoren, helburua betetzen duen % 14a dator, baina behera egiten du eskakizunak BHPn planteatutakoarekin alderatuta. Nabarmendu behar dugu helburuen % 18an horiek ez direla betetzen, eta % 9k ez dutela informazio eztabaiaezina eman BHPn planteatutako helburua bete den ala ez erabakitzeke.

Helburu psikosozialari dagokionez, kasuen % 54an eskakizun-mailari eusten zaio, eta, ondoren,% 20k betetzen du helburua, baina jaitsi egiten da eskakizuna BHPn planteatutakoarekin alderatuta. Helburuen % 19 ez dira betetzen, eta % 6k ez dute informazio eztabaiaezinik.

Gizarte- eta familia-helburua ere betetzen da kasuen % 56an. Beste % 15ek betetzen dute, baina eskakizun-maila jaitsiz. % 9k ez dute betetzen, eta hamar



askatasunetatik ia bitan ez dago informazio eztabaidaekin helburua bete den ala ez jakiteko.

Aisialdiko eta denbora libreko helburuari dagokionez, eskakizun-mailari eusten zaio kasuen % 58an; ondoren, % 8k betetzen dute helburua, baina jaitsi egiten da eskakizuna BHPn planteatutakoarekin alderatuta. Nabarmentzekoa da helburuen % 23an ez direla betetzen, eta arlo horretan, % 3an bakarrik falta dugu informazio eztabaidaekin BHPn planteatutako helburua bete den ala ez zehazteko.

Helburu afektiboa, gutxien erabili dena izan arren, % 63an bete da, eskakizun-maila mantenduz. Beste % 8 ere bete da, eskakizuna jaitziz. % 20 ez da bete, eta % 8an ez dugu informazio eztabaidaekin.

Laburbilduz, 102 zaintzapeko askatasunetan planteatutako helburu guztiak kontuan hartuta, 454 helburu deskribatu dira guztira, eta banako hezkuntza-proiektu bakoitzeko batezbestekoa 4,45 da.

Hala ere, azterketa hau partziala baino ez da. Ebaluatutako zaintzapeko askatasun bakoitzaren betetze-maila ere jakin behar zela ulertu dugu. Hala, egiaztatu ahal izan dugu betetze-mailaren aldakortasuna oso handia dela. 2015ean amaitutako zaintzapeko askatasunek 19 modu desberdinetan itxi dituzte beren helburuak: Horietatik 29k (% 28,4) behar bezala bete dituzte helburu guztiak, beste 13k (% 12,7) behar bezala bete dituzte horietako batzuk, eta beste batzuek, berriz, eskakizuna murriztu dute. Hala, beraz, esan dezakegu 41,1ek behar bezala amaitzen dituztela beren helburu guztiak, edo behera egiten duela BHPn planteatutako eskakizunak.

Ondorio eta gomendio gisa, nabarmentzekoa da txosten honetan ez direla aztertu zaintzapeko askatasunaren neurrien egokitasuna eta efizientzia, baina horien bidezkoasuna eta eraginkortasuna aztertzea interesgarritzat jotzen dela. Hala ere, bidezkoasuna deitzen zaionez jarduerak helburuak lortzeko duen moldakortasunari, eta ebaluatutako neurrietan ez denez planteatzen argi eta garbi bereizterik helburu espezifikoak –hala nola gaitasun psikosozial jakin batzuk eskuratzea– eta horiek lortzera bideratutako jarduerak edo ekintzak, ezinezkoa da aipatutako bidezkoasuna behar bezala balioestea.

Bestalde, eta hori kezagarriagoa izango litzateke, zaintzapeko askatasunaren neurrien *eraginkortasuna* ere ezin da behar bezala baloratu; izan ere, neurri horiek



behar bezala aztertzeko, lehen ere aurreratu dugun bezala, banakako hezkuntza-proiektu bakoitzean ezarritako helburu espezifikoak zein mailatan bete diren zehaztu behar da. Ildo horretan, helburuen lorpenaren balorazioak duen ziurgabetasun-marjina ez da onargarria: helburu batzuk behar bezala bete dira, beste batzuk jaitsi egin dira, beste batzuk hezkuntza-programatik desagertu dira, beste batzuk ez dira bete, eta beste batzuetan ez dago informazio nahikorik bete den ala ez zehazteko. Hutsune horiek guztiek, esan bezala, oso arrisku larrian jartzen dute programaren *ebaluagarritasuna*.

Hezkuntza-programaren eraginkortasuna **ebidentziekin** zehazten benetan lagun dezaketen helburuak behar bezala definitzeko, helburu horiek funtsezko agindu batzuk bete behar dituzte.

- Lehenik eta behin, adingabearengan nahi diren aldaketak gertatu direla zehazteko, ebaluatu diren BHPren helburu espezifikoek berberak izan behar dute programaren hasieran eta amaieran. Edozein aldaketa behar bezala azalduta egon behar da.
- Bigarrenik, ezinbestekoa da helburu espezifikoaren definizioak baldintza jakin batzuk betetzea. Honelakoak izan behar dira:
 - o **Zehatzak:** Argi eta zalantzarik gabe definituta. Ezinezkoa da jarduera baten eraginkortasuna zehaztea, baldin eta lortu nahi den helburuak ziurgabetasuna sortzen badu.
 - o **Egingarriak:** Kasu honetan, adingabearen aldaketa-gaitasuna neurtuko litzateke. Helburuak arrakastarako aukeren gainetik jartzen badira, logikoa da helburuaren eskakizun-maila aldatu behar izatea, baina ustezko lorpena faltsutzen ariko litzateke.
 - o **Zenbakarriak:** zuzenean nahiz zeharka. Hau da, helburua zein mailatan lortu den neurtzen duten *ad hoc* test edo eskala baliozkotu eta fidagarriak egon behar dira, edo, hori posible ez den kasuetan, ahalik eta balorazio hurbilenak.

Ildo horretan, esan behar da jakin badakigula batzuetan BHP baten helburuak zehaztugabeak direla, esku-hartzaileari diskrezionalitate-tarte zabal samarra eskaintzen baitiote balorazioa egiteko. Baina alderdi hori ezin da aitzakia edo alibi izan



uko egiteko zehazte- eta kuantifikatze-ahaleginari. Ikus ditzagun **BETETZE-MAILAREN** zehaztapenari buruzko adibide batzuk:

Helburu batzuen formulazioak ez du inolako zalantzarik eragiten betetze-mailari buruz. Halaxe gertatzen da, esaterako, "Heziketa-ziklo jakin bat osatzea" helburuarekin. Helburu hori planteatzeko moduak berak argi uzten du zertan datzan. Prestakuntza osatzen bada, helburua bete da, eta helburua erdiesten ez bada, ez da bete. Partzialki osatzen badu, ez da bete, eta, beraz, hala jaso behar da.

Baina badira beste helburu batzuk ere, aurreko adibidean ikusi dugun izaera absolutuzko kontzeptuak sartzen ez dituztenak. Horren adibide da, esaterako, "Kirol-jarduera bat modu egonkorrean egitea" motako helburua; izan ere, gomendioko "modu egonkorrean" interpretatzeak oso tarte zehaztugabea ahalbidetzen du balorazioa egiteko. Kasu horretan, teknikariek zehaztu beharko lukete zein izango litzatekeen maiztasun egokia (adibidez, astean bi edo hiru aldiz?), kontuan hartuta, edonola ere, jarduera horren bidez adingabearen ongizate-sentsazioa hobetu nahi dela. Kirol-jarduera egiteak adingabearen ongizatean inolako eraginik izango ez balu, eta hori gertatzea zaila da baina posiblea, horrek esan nahi luke helburua ez dela egokia lortu nahi denerako. Gainera, adierazi dugun bezala, ezarritakoa baino kirol-jarduera gutxiago egiteak helburua ez betetzea ekarriko luke. Alde horretatik, esku-hartzaileak egokitzat jotzen duen adinako malgutasuna ezar daiteke, baina ez luke zentzurik izango lortu nahi den helburua lortzen benetan lagundu ez duen jarduera bat arrakastatzat jotzeak.

Azken batean, komenigarria litzateke adingabeak lagundu, bereganatu, erantzukizuna hartu eta abar egiteko helburuak ezartzen direnean, ahalik eta argien uztea **zenbat** lagundu behar duen, bereganatu behar duen edo erantzukizuna hartu behar duen, helburua benetan bete dela uste izateko. Betetze-maila horrek erabakiko du, hain zuzen ere, neurriaren eraginkortasuna. Helburua argi eta garbi definitu ondoren eta lortu dela ondorioztatzeko beharrezko betetze-maila ezarri ondoren, bideragarria izango litzateke, gutxienez, lorpen-hierarkia bat ezartzea, hiru mailakoa: lortu gabeko helburua, partzialki lortutako helburua (horrek esan nahiko luke azpian bilakaera positiboa egon dela) eta lortutako helburua. Horrela, zaintzapeko askatasunaren benetako eraginkortasuna egiaztatu ahal izango genuke.



2.5.5 Gizarte- eta hezkuntza-zereginen neurriari buruzko azterketa

Jarraian aurkezten dugun azterketa KREIk Justizia Zuzendaritzarekin batera 2017rako definitu zituen ikerketa-ildoetako bat da, eta Eusko Jaurlaritzaren Gazte Justiziaren IV. Planaren (2014-2018) 9.5.3.27. ekintzan jasota dago. Ekintza horretan, zehazki, "**Gizarte- eta hezkuntza-zereginen neurriaren helburuak, ekintzak, emaitzak eta balorazio orokorra aztertzea**" ezartzen da. Horixe da, hain zuzen ere, ingurune irekian betetzeko neurrien katalogoan aurreikusitako neurrietako bat, adingabearen 5/2000ko Zigor Legean ezarritakoari jarraikiz.

Gizarte- eta hezkuntza-zereginen neurria ez da sarritan ezartzen EAEko adingabeen epaitegietan. Gazte Justiziako Zuzendaritzaren azken urteko memoriak aztertuz gero (hurrengo taula), ikus daiteke azken lau urteotan neurri irmo guztien % 11tik % 16ra bitarteko tartea irudikatzen duen neurria dela. Horri erantsita, azken bi urteotan, gainera, beherakada handia izan du; hala, 2015ean, 97 aldiz ezarri zen hezkuntza-neurri hori (% 11,3), eta 2016an, berriz, 80 aldiz (% 11). Nolanahi ere, interesgarria da ikustea neurri horren adierazgarritasuna eta helburuak betetzean duen irismena gizarte- eta hezkuntza-zereginak ezartzen zaizkien neska-mutilengan.



48. taula. Gizarte- eta hezkuntza-zereginen azterketa: Neurri irmoen eskariaren banaketa (2013-2016). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza.

NEURRIA	2013	2014	2015	2016
Zaintzapeko askatasuna	241 (% 31,5)	226 (% 30)	322 (% 37,7)	309 (% 42)
Gizartearentzako lanak	182 (% 23,8)	177 (% 23,5)	180 (% 21,1)	161 (% 22)
Barneratzea	104 (% 13,6)	109 (% 14,5)	124 (% 14,5)	99 (% 14)
Gizarte- eta hezkuntza-zereginak	116 (% 15,2)	127 (% 16,9)	97 (% 11,3)	80 (% 11)
Asteburuko egonaldia	76 (% 9,9)	59 (% 7,8)	69 (% 8,1)	44 (% 6)
Eguneko zentrora joatea	37 (% 4,8)	41 (% 5,4)	53 (% 6,2)	32 (% 4)
Tratamendu ambulatorioa	5 (% 0,7)	12 (% 1,6)	5 (% 0,6)	1 (---)
Hezkuntza-taldearekiko bizikidetza	4 (% 0,5)	2 (% 0,3)	4 (% 0,5)	3 (---)
NEURRI IRMOAK, GUZTIRA	765 (% 100)	753 (% 100)	854 (% 100)	729 (% 100)
Barneratzea	18 (% 58)	29 (% 50,9)	36 (% 48)	32 (% 49)
Zaintzapeko askatasuna	11 (% 35,5)	24 (% 42,1)	36 (% 48)	30 (% 46)
Hezkuntza-taldearekiko bizikidetza	2 (% 6,5)	4 (% 7)	3 (% 4)	3 (% 5)
KAUTELA-NEURRIAK, GUZTIRA	31 (% 100)	57 (% 100)	75 (% 100)	65 (% 100)
NEURRIAK, GUZTIRA	796	810	929	4.1.1



Azterketa honetan, **gizarte- eta hezkuntza-zereginetako 61 neurri** ebaluatu ditugu. Neurri horiek honako baldintza hauek bete dituzte:

- EAE-n egin dira.
- Neska-mutil desberdinek egin dituzte.
- 2016. urtean zehar amaitu dira.

Gizarte- eta hezkuntza-zereginak bete dituzten neska-mutilen **sexua** aztertuz gero, 14 neska (% 23) eta 47 mutil (% 77) ditugu. EAEko gazte-justiziari buruzko beste ebaluazio batzuetan ohiko batezbestekoa (% 18, gutxi gorabehera) baino emakume gehiago ageri dira.

Jatorrizko epaitegiei erreparatuz gero, % 26,2 Bilboko 1 zenbakiko Epaitegitik etorri dira, % 32,8 Bilboko 2 zenbakiko Epaitegitik (Bizkaian dago, beraz, gizarte- eta hezkuntza-zereginen % 59), % 9,8 Donostiako Epaitegitik, % 26,2 Gasteizko Epaitegitik eta % 4,9 beste autonomia-erkidego batzuetako beste epaitegi batzuetatik.

Iraupenari dagokionez, % 65ek 6 hilabete baino gutxiago irauten dute, eta soilik % 7k betetzen dute 12 hilabete baino gehiago.

Ebaluatutako neurriek berekin dakartzaten **delituak** aztertuz gero, aldakortasuna nahiko handia dela ikusiko dugu. Hala ere, esan dezakegu arau-hauste ohikoenak erasoak/lesioak (% 27,9), ebasketa (% 19,7) eta indarkeria/larderia bidezko lapurreta (% 16,4) direla. Hiru delitu horiek delitu guztien % 64 dira.

Talde psikosozialak, berriz, **neurri-proposamen** bat egiten du batzuetan. Ebaluatutako gizarte- eta hezkuntza-zereginen kasuan, % 96,7. Proposatutako neurriak aztertuz gero, ikusten da guztien % 90,2 gizarte- eta hezkuntza-zereginak izan direla, eta gainerako % 6,5ean beste neurri baten proposamena izan dela (zaintzapeko askatasuna % 3,3an, eguneko zentzura joatea % 1,6an edo gizartearentzako lanak % 1,6an). Aldagai horri buruzko informazioak txosten psikosozialean berariaz jasotakoari egiten dio erreferentzia.

Bestalde, beste kontu interesgarri bat ere badago: talde psikosozialek proposatzen dituzten **jokabide-arau edo -jarraibideen** eta adingabeen epaileek azkenean ezartzen dituztenen arteko baliokidetasunen azterketa. Hala, ikus dezakegu



kasuen % 1,6an ez dagoela jokabide-araurik, ez talde psikosozialen aldetik, ez epaian. Beste % 23an taldeek proposamenak egin dituzte, baina adingabeen epaileak horiek epaian berariaz ez aipatzea erabaki du. Bestalde, gainerakoetatik (% 75,4), epaian jokabide-arau bat edo batzuk jasotzen dira (guztien % 8,2 ez zituen talde psikosozialak proposatu).

Adingabe bakoitzaren banako hezkuntza-proiektuetan (aurrerantzean, BHP) planteatzen diren **helburuen** atalean sartuta, hamalau atal handitan biltzen direla ikus dezakegu:

- Bulkadak kontrolatzeko programa
- Gatazken konponketa baketsurako programa
- Bere prestakuntza-ekintzaren jarraipena
- Toxikoen kontsumoko prebentzioa
- Pertsonaren ezagutzaren hobekuntza
- Gaitasun sozialen ikaskuntza
- Prestakuntzako inplikazioa, DBH gaindituta
- Enplegua lortzea erraztuko duen prestakuntza
- Aisia osasungarria
- Gertaeren gaineko erantzukizuna
- Etxeko arauen betearazpena
- Bide-hezkuntzari buruzko programa
- Gurasotasuna ikasteko zereginak
- Genero-berdintasunaren eta harreman afektiboen gaineko prestakuntza

Horrela, ikusten da gizarte-trebetasunak eskuratzea dela neurrietan gehien jasotzen den eredu, aztertutako 61 pertsonetatik 24tan zehazki (% 39,34). Enplegua lortzen laguntzen duen prestakuntzak ere presentzia handia du (gizarte- eta hezkuntza-zereginetako 23tan agertzen da, % 37,7). Aisialdi osasungarria, gertaeren erantzukizuna eta prestakuntza-ekintzaren jarraitutasuna gizarte- eta hezkuntza-zereginetako 19, 18 eta 16an agertzen dira (% 31,15; % 29,51; % 26,23, hurrenez hurren), eta, ondoren, gatazkek modu baketsuan konpontzeko programei buruzko jarraibideak (15 kasu, % 24,59), bulkadak kontrolatzeko programak (14 kasu, % 22,95), ezagutza pertsonalaren hobekuntza (12 kasu, % 19,67) eta toxikoen kontsumoaren gaineko



prebentzioari buruzko ekintzak (10 kasu, % 16,39), neurri txikiagoan. Azkenik, gutxien agertzen diren jarraibideak DBH lortzeko prestakuntzarekin (5 kasu, % 8,2), bide-hezkuntzarekin, gurasotasuneko zereginekin eta genero-berdintasunarekin eta harreman afektiboekin lotuta daude (4 kasu bakoitzean, % 6,56) eta, azkenik, etxean arauak betetzearekin (3 kasu soilik, % 4,92).

Jarraian, helburu bakoitza aztertzeari ekin genion, hain zuzen ere egiaztatzeko ea zein neurritan lortzen diren modu egokian. Horretarako, BHPei buruzko txostenak eta azken txostenak irakurri ditugu, eta epaileen arteko akordio bat egin dugu, helburu bakoitza betetzen den ala ez baloratzeko. Horrela, helburu bakoitzaren aukerak honela sailkatu ditugu:

- Helburua betetzen du, eta azken txostenean ezarritako eskakizun-mailari eusten dio BHPn planteatutakoari dagokionez
- Helburua betetzen du, baina azken txosteneko eskakizun-mailak behera egiten du BHPn planteatutakoari dagokionez
- Helburua betetzen du, baina azken txostenean eskakizun-maila handitzen du BHPn planteatutakoari dagokionez
- Helburu berria ezarri da eta bete da
- Ez da bete
- BHPn planteatutako helburua azken txostenetik desagertu da
- Ez dago informazio eztabaidaezinik (ikerketa-taldeak uste du ez dagoela informazio nahikorik edo argirik BHPn planteatutako helburua bete den modu eztabaidaezinean zehaztu ahal izateko).

Profesionalek markatutako jarraibideak aztertzerakoan, kasu batzuetan helburu berean banakatu dira zenbait jarraibide, eta horiek banan-banan aztertu dira azterketa honetan. Eta kontrakoa gertatu den beste kasu batzuetan, helburuak jarraibide bakar batean bildu dira, horien izaera berdina edo antzekoa baitzen.

Hala, ikusten dugu ***gizarte-trebetasunak eskuratzeko helburua*** bete dela kasuen % 91,66an eskakizun-mailari eutsiz, eta, ondoren, % 4,16k bete dutela helburua, baina jaitsi egin dutela eskakizuna BHPn planteatutakoarekin alderatuta. Azkenik, beste % 4,16k ez dute informazio eztabaidaezinik.



Enplegua lortzen lagunduko duen prestakuntza-helburua kasuen % 82,61ean bete da eskakizun-mailari eutsiz; ondoren, % 13,04an, helburua bete da, baina behera egin du eskakizunak BHPn planteatutakoarekin alderatuta. Nabarmentzekoa da % 4,35ean handitu egiten direla BHPn planteatutako helburuarekiko eskakizunak, nahiz eta benetan kasu bakar bat den.

"Aisialdi osasungarria eskuratzea" helburuan, kasuen % 78,95ean eutsi zaio eskakizun-mailari; ondoren, % 10,52an, helburua bete da, baina behera egin du eskakizunak BHPn planteatutakoarekin alderatuta. Helburuen % 5,26 ez dira bete, eta beste % 5,26 desagertu egin dira.

Gertaeren erantzukizuna hartzeko helburua ere kasuen % 50ean bete da, eskakizun-mailari eutsiz. Beste % 38,88k bete dute, baina eskakizun-maila jaitsiz. % 5,55ek ez dute bete, eta beste % 5,55ek ez dute informazio eztabaidaezinik helburua bete den ala ez jakiteko.

"Prestakuntza-ekintzaren jarraitutasuna" helburuan, kasuen % 93,75ean eutsi zaio eskakizun-mailari, eta gainerakoan, % 6,25, ez dugu informazio eztabaidaezinik BHPn planteatutako helburua bete den ala ez zehazteko.

Gatazkak modu baketsuan konpontzeko programaren helburua % 93,33an bete da, bere eskakizun-mailari eutsiz, eta % 6,66an ez da bete.

Beste helburuetako bat **"bulkadak kontrolatzeko programa"** da. Programa hori bete egin da kasuen % 92,86an eskakizun-mailari eutsiz, eta % 7,14an bete da helburua, baina jaitسي egin da eskakizuna BHPn planteatutakoarekin alderatuta.

"Ezagutza pertsonala hobetzeko" helburua³¹ bete egin da kasuen % 75ean eskakizun-mailari eutsiz, eta % 8,33an helburua bete da, baina eskakizuna jaitسي egin da BHPn planteatutakoarekin alderatuta. Gainera, % 8,33an helburua bete da, eta eskakizun-mailak gora egin du. Hori nabarmentzekoa da. Azkenik, beste % 8,34an helburu berri bat agertu da, eta bete egin da.

³¹ Kasuetako batean, eguneko zentrora joatea hartu da norberaren ezagutza hobetzeko helburutzat, tratamendu medikoarekin jarraitzeko.



"Toxikoen kontsumoa prebenitzeko" helburuan kasuen % 70ean bete da eskakizun-maila, eta % 20an bete da helburua, baina eskakizuna jaitsi egin da BHPn planteatutakoarekin alderatuta. Gainera, kasuen % 10ean helburua desagertu egin da.

DBH gaindituta prestakuntzan inplikatzeko helburua kasuen % 100ean bete da, eskakizun-mailari eutsita.

"Bide-hezkuntzako prestakuntzaren" helburua aztertuz gero, ikusten da nola bete den bere eskakizun-mailari eutsiz kasuen % 50ean; % 25ean ez da helburua bete, eta beste % 25ean helburu berri bat agertu da eta bete egin da.

Gurasotasuneko zereginen helburua bete da kasuen % 100ean, eskakizun-mailari eutsiz.

Genero-berdintasunaren eta harreman afektiboen helburua kasuen % 75ean bete da, eskakizun-maila eutsiz, eta % 25ean helburua desagertu egin da.

Azkenik, **etxean arauak betetzeko helburua** bete da kasuen % 100ean, eskakizun-mailari eutsiz.

Laburbilduz, gizarte- eta hezkuntza-arloko 61 zereginetan planteatutako helburuak kontuan hartuta, guztira 171 helburu deskribatu dira, eta banako hezkuntza-proiektu bakoitzeko batezbestekoa 2,8 da.

Hala ere, azterketa hau partziala baino ez da. Ondorioz, ebaluatutako gizarte- eta hezkuntza-zeregin bakoitzaren betetze-maila ere jakitea beharrezkoa dela iruditu zaigu. Hala, egiaztatu ahal izan dugunez, betetze-mailaren aldakortasun handia dago, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala. Gizarte- eta hezkuntza-zereginetik 8 modutan itxi dituzte beren helburuak. Edonola ere, ikusten dugunez, horietako 43k (% 70,5ek) behar bezala bete dituzte helburu guztiak, eta beste 10ek (% 16,4k) behar bezala bete dituzte horietako batzuk, eta beste batzuek, berriz, eskakizuna jaitsi dute. Beraz, subjektu kopuru handi batek (53) bere helburu guztiak behar bezala amaitu ditu edo BHPn planteatutako eskakizuna jaitsi du, ia % 87ra iritsita.

Ez errepikatzeko, Justizia Zuzendaritzari egindako ondorioak eta gomendioak zaintzapeko askatasunaren txostenean nabarmendu genituen berberak dira. Ildo horretan, esan behar da jakin badakigula batzuetan BHP baten helburuak



zehaztugabeak direla, esku-hartzaileari diskrezionalitate-tarte zabal samarra eskaintzen baitiote balorazioa egiteko. Baina alderdi hori ezin da aitzakia edo alibi izan uko egiteko zehazte- eta kuantifikatze-ahaleginari. Ikus ditzagun **BETETZE-MAILAREN** zehaztapenari buruzko adibide batzuk:

Helburu batzuen formulazioak ez du inolako zalantzarik eragiten betetze-mailari buruz. Halaxe gertatzen da, esaterako, "Heziketa-ziklo jakin bat osatzea" helburuarekin. Helburu hau planteatzeko moduak argi uzten du zertan datzan. Prestakuntza osatzen bada, helburua bete da, eta helburua erdiesten ez bada, ez da bete. Partzialki osatzen badu, ez da bete, eta, beraz, hala jaso behar da.

Baina badira beste helburu batzuk ere, aurreko adibidean ikusi dugun izaera absolutuzko kontzeptuak sartzen ez dituztenak. Horren adibide da, esaterako, "Kirol-jarduera bat modu egonkorrean egitea" motako helburua; izan ere, gomendioko "modu egonkorrean" interpretatzeak oso tarte zehaztugabea ahalbidetzen du balorazioa egiteko. Kasu horretan, teknikariek zehaztu beharko lukete zein izango litzatekeen maiztasun egokia (adibidez, astean bi edo hiru aldiz?), kontuan hartuta, edonola ere, jarduera horren bidez adingabearen ongizate-sentsazioa hobetu nahi dela. Kirol-jarduera egiteak adingabearen ongizatean inolako eraginik izango ez balu, eta hori gertatzea zaila da baina posiblea, horrek esan nahi luke helburua ez dela egokia lortu nahi denerako. Gainera, adierazi dugun bezala, ezarritakoa baino kirol-jarduera gutxiago egiteak helburua ez betetzea ekarriko luke. Alde horretatik, esku-hartzaileak egokitzat jotzen duen adinako malgutasuna ezar daiteke, baina ez luke zentzurik izango lortu nahi den helburua lortzen benetan lagundu ez duen jarduera bat arrakastatzat jotzeak.

Azken batean, komenigarria litzateke adingabeak lagundu, bereganatu, erantzukizuna hartu eta abar egiteko helburuak ezartzen direnean, ahalik eta argien uztea **zenbat** lagundu behar duen, bereganatu behar duen edo erantzukizuna hartu behar duen, helburua benetan bete dela uste izateko. Betetze-maila horrek erabakiko du, hain zuzen ere, neurriaren eraginkortasuna. Helburua argi eta garbi definitu ondoren eta lortu dela ondorioztatzeko beharrezko betetze-maila ezarri ondoren, bideragarria izango litzateke, gutxienez, lorpen-hierarkia bat ezartzea, hiru mailatakoa: lortu gabeko helburua, partzialki lortutako helburua (horrek esan nahiko luke azpian bilakaera positiboa egon dela) eta lortutako helburua. Horrela, hala



badagokio, gizarte- eta hezkuntza-zereginen benetako eraginkortasuna egiaztatzeko moduan egongo ginateke.

2.5.6 Barneratzeko neurriari buruzko azterketa

Jarraian aurkezten dugun azken azterketa KREIk Justizia Zuzendaritzarekin batera 2017rako definitu zituen ikerketa-ildoetako bat da, eta Eusko Jaurlaritzaren Gazte Justiziaren IV. Planaren (2014-2018) 9.5.3.28. ekintzan jasota dago. Ekintza horretan, zehazki, honako hau ezartzen da: **"Hezkuntza-zentroan barneratzeko neurriaren helburuak, ekintzak, emaitzak eta balorazio orokorra aztertzea"**. Barneratze-neurriak aurreikusita daude adingabeari buruzko 5/2000 Lege Penalean ezarritako hezkuntza-zentroan betetzeko neurrien katalogoan. Barneratze horiek erregimen itxian, erdi-irekian, irekian eta terapeutikoan izan daitezke (azken hori ere itxia, erdi-irekia eta irekia). Ebaluazio-txosten honetan ez dira bereizi barneratze-neurrien motak; aitzitik, neurri horren ebaluazio orokorra egin da EAeko 2017ko gazte-justiziaren baitan, Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritzan 2016an sartu ziren barneratze-neurriak azterketa-unitate gisa hartuta.

Barneratze-neurria EAeko Adingabeen Epaitegiek maiz samar ezartzen duten neurria da (gehien jartzen den neurrien artean hirugarrena da, zaintzapeko askatasunaren eta gizartearentzako lanen atzetik). Gazte Justiziako Zuzendaritzaren azken urteko memoriak aztertuz gero (1. taula), ikus daiteke neurri hori neurri irmo guztien % 14 inguru izan dela azken lau urteotan (guztizko kopuruetan, ordea, nabarmen murriztu da, 2015ean 124 barneratze-neurri sartu baitziren, eta 2016an 99).

Horregatik guztiagatik, interesgarria da ikustea neurri horren adierazgarritasuna eta helburuak betetzean duen irismena barneratze-neurriak ezartzen zaizkien neska-mutilengan.



49. taula. Barneratzearen azterketa: Neurri irmoen eskariaren banaketa (2013-2016). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza.

NEURRIA	2013	2014	2015	2016
Zaintzapeko askatasuna	241 (% 31,5)	226 (% 30)	322 (% 37,7)	309 (% 42)
Gizartearentzako lanak	182 (% 23,8)	177 (% 23,5)	180 (% 21,1)	161 (% 22)
Barneratzea	104 (% 13,6)	109 (% 14,5)	124 (% 14,5)	99 (% 14)
<i>Gizarte- eta hezkuntza-zereginak</i>	<i>116 (% 15,2)</i>	<i>127 (% 16,9)</i>	<i>97 (% 11,3)</i>	<i>80 (% 11)</i>
Asteburuko egonaldia	76 (% 9,9)	59 (% 7,8)	69 (% 8,1)	44 (% 6)
Eguneko zentrora joatea	37 (% 4,8)	41 (% 5,4)	53 (% 6,2)	32 (% 4)
Tratamendu ambulatorioa	5 (% 0,7)	12 (% 1,6)	5 (% 0,6)	1 (---)
Hezkuntza-taldearekiko bizikidetza	4 (% 0,5)	2 (% 0,3)	4 (% 0,5)	3 (---)
NEURRI IRMOAK, GUZTIRA	765 (% 100)	753 (% 100)	854 (% 100)	729 (% 100)
Barneratzea	18 (% 58)	29 (% 50,9)	36 (% 48)	32 (% 49)
Zaintzapeko askatasuna	11 (% 35,5)	24 (% 42,1)	36 (% 48)	30 (% 46)
Hezkuntza-taldearekiko bizikidetza	2 (% 6,5)	4 (% 7)	3 (% 4)	3 (% 5)
KAUTELA-NEURRIAK, GUZTIRA	31 (% 100)	57 (% 100)	75 (% 100)	65 (% 100)
NEURRIAK, GUZTIRA	796	810	929	794

Azterketa honetan, 122 *barneratze-neurri* ebaluatu ditugu, honako baldintza hauek bete dituztenak:

- EAE-n egin dira.



- Neska-mutil desberdinek egin dituzte.
- 2016. urtean zehar amaitu dira.

Barneratze-neurriak bete dituzten neska-mutilen **sexua** aztertuz gero, 20 emakume (% 16,4) eta 102 gizon (% 83,6) ditugu. EAeko gazte-justiziari buruzko beste ebaluazio batzuetako ohiko batezbestekoa (% 18, gutxi gorabehera) baino ehuneko txikiagoa ikusten dugu nesken artean; neurri-tipologia horretan egoera hori espero zitekeena da.

Barneratze-neurrien xede diren pertsonen jaioterria aztertuz gero, ikusten da % 29,5 atzerritarrak direla, eta % 70,5 EAEn edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotakoak (2016an, neurri guztien artean atzerritarren % 24ri ezarri zitzaizkien barneratze-neurriak, eta 2015ean % 36,3ri).

Jatorrizko epaitegiei erreparatuz gero, % 34,4 Bilboko 1 zenbakiko Epaitegitik etorri dira, % 20,3 Bilboko 2 zenbakiko Epaitegitik (Bizkaian daude, beraz, barneratzeen ia % 55), % 29,7 Donostiako Epaitegitik eta % 15,6 Gasteizko Epaitegitik.

Aurrekoetan deskribatu dugun bezala, egin ditugun gainerako neurrien ebaluazioen antzekoa da jarraitu dugun prozedura. Ebaluazio hau egiteko lortutako informazioa Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritzak eman du. Lehenik eta behin, 2016an amaitutako barneratze-neurri guztiak hautatu ziren Justizia Zuzendaritzaren N-28 datu-basetik. Bigarrenik, neurri bakoitzari buruz eskura zegoen informazio guztia bildu zen. Alegia:

- Talde psikosozialaren txostena, ondoren barneratze-neurri bat beteko duen adingabeari buruzkoa.
- Dagokion Adingabeen Epaitegiaren epai irmoa.
- Adingabe bakoitzaren banako hezkuntza-proiektua.
- Jarraipen-txostena(k) (hala badagokio).
- Barneratzearen amaierari buruzko txostena (gogoan izan behar dugu barneratze-neurriekin batera zaintzapeko askatasuna egoten dela amaieran beti).
- Prozesu osoari buruzko beste edozein agiri (ezohiko txostenak, autoak, etab.).



Informazio hori guztia SPSS Statistics 22 datu-basean sartu da hainbat aldagairen bidez, horietako batzuk ad-hoc landuta. Estatistika-paketean sartutako aldagai guztiak KREiko ikerketa-talde batek kodetu ditu. Talde hori gutxienez bi pertsonak eta gehienez hiruk osatzen dute (epaileen arteko akordio bat egiteko).

Iraupena aztertuz gero, % 52k 6 hilabete baino gutxiago irauten dute eta % 14,8k 12 hilabete baino gehiago betetzen dituzte, nahiz eta xehetasun handiagoz ikus daitekeen hurrengo grafikoan.

Ebaluatutako neurriek berekin dakartzaten **delituak** aztertzen baditugu, aldakortasun handirik ez dagoela ikusiko dugu. Arau-hauste ohikoenak indarkeria/larderia bidezko lapurreta (% 36,1), familia- edo genero-indarkeria (% 22,2) eta erasoak/lesioak (% 18) dira. Hiru delitu horiek delitu guztien % 76,3 dira.

Talde psikosozialak, berriz, **neurri-proposamen** bat egiten du batzuetan. Ebaluatutako gizarte- eta hezkuntza-zereginen kasuan, % 87,5ek. Hala, % 12,5 proposamenik gabe izan dira, % 12,5 zaintzapeko askatasunekoak, % 12,5 eguneko zentrorra joatekoak, eta, azkenik, % 62,5 zentroetan barneratzeko neurriak izan dira.

Aldagai horri buruzko informazioak txosten psikosozialean berariaz jasotakoari egiten dio erreferentzia.

Bestalde, beste kontu interesgarri bat ere badago: talde psikosozialek proposatzen dituzten **jokabide-arau edo -jarraibideen** eta adingabeen epaileek azkenean ezartzen dituztenen arteko baliokidetasunen azterketa. Zaintzapeko askatasunaren neurriei eta gizarte- eta hezkuntza-zereginei buruz egindako aurreko txostenetan, bai txosten psikosozialetan bai epaietan, adingabe arau-hausleen esku-hartzean kontuan hartu beharreko jokabide-jarraibide edo -arauei buruzko argibideak agertzen ziren. Hori, ordea, nabarmen aldatzen da barneratze-neurrietan. Hala, ikus dezakegu kasuen % 90,9an ez dagoela jokabide-araurik, ez talde psikosozialen aldetik, ez epaian, eta beste % 9,1ean taldeen aldetik proposamenak edo oharrak daudela, baina adingabeen epaileak bere epaian horiek berariaz ez aipatzea erabaki duela.

Adingabe bakoitzaren banako hezkuntza-proiektuetan (aurrerantzean, BHP) planteatzen diren **helburuen** atalean sartuta, sei atal handiren inguruan biltzen direla



ikus dezakegu: prestakuntza- eta lan-arloa, arlo psikosoziala, biologia eta gorputza, gizartea eta familia, aisia eta denbora libre, eta, azkenik, arlo afektiboa.

Justizia Zuzendaritzarako egin ditugun beste ebaluazio-txosten batzuetan aurreratu dugun bezala, helburuek izen desberdinak dituzte adingabearen BHPa idazten duen hezitzaile-taldearen arabera. Zalantzarik gabe, gai hori berehala zuzendu beharreko zerbait da, hezkuntza-neurriak behar bezala ebaluatu ahal izateko. Aurkezten dugun ebaluazio-txosten honetan, helburuen izenak edukiaren arabera "egokitu" ditugu; adibidez, helburu psikosozialen bat arlo afektiboan sartuta bazegoen, arlo psikosozialean birkokatu dugu.

Jarraian, helburu bakoitza aztertuko dugu, hain zuzen ere egiaztatzeko ea zein neurritan bete diren modu egokian. Horretarako, BHPei buruzko txostenak eta azken txostenak irakurri ditugu, eta epaileen arteko akordio bat egin dugu, helburu bakoitza betetzen den ala ez baloratzeko. Horrela, helburu bakoitzaren aukerak honela sailkatu ditugu:

- Helburua betetzen du, eta azken txostenean ezarritako eskakizun-mailari eusten dio BHPn planteatutakoari dagokionez
- Helburua betetzen du, baina azken txosteneko eskakizun-mailak behera egiten du BHPn planteatutakoari dagokionez
- Ez du helburua bete
- BHPn planteatutako helburua azken txostenetik desagertu da
- Ez dago informazio eztabaiaezinik (ikerketa-taldeak uste du ez dagoela informazio nahikorik edo argirik BHPn planteatutako helburua bete den modu eztabaiaezinean zehaztu ahal izateko).

Hala, ikusten dugu **prestakuntza- eta lan-helburua** bete egiten dela, kasuen % 54,1ean bere eskakizun-mailari eutsiz; ondoren, % 37,7k bete dute helburua, baina jaitsi egin da eskakizuna BHPn planteatutakoarekin alderatuta. Nabarmentzekoa da helburuen % 8,2 ez direla bete.

Biologiaren eta gorputzaren helburua kasuen % 66,4an bete da eskakizun-mailari eutsiz; ondoren, % 28,7k bete dute helburua, baina eskakizuna jaitsi egin da BHPn planteatutakoarekin alderatuta. Kasu honetan, % 4,9k soilik ez dute bete.



Helburu psikosoziala kasuen % 41,8an bete da eskakizun-mailari eutsiz; ondoren, % 54,1ek bete dute helburua, baina eskakizuna jaitsi egin da BHPn planteatutakoarekin alderatuta. Helburuen % 4,1 ez dira bete.

Gizarte- eta familia-helburua ere bete da kasuen % 64an. Beste % 19,7k bete dute, baina eskakizun-maila jaitsiz. Azkenik, % 16,3k ez dute bete.

Aisialdiko eta denbora libreko helburuari dagokionez, eskakizun-mailari eutsi zaio kasuen % 73,8an; ondoren, % 21,3k bete dute helburua, baina eskakizuna jaitsi egin da BHPn planteatutakoarekin alderatuta. Nabarmentzekoa da helburuen % 4,9an horiek ez direla bete.

Helburu afektiboa % 52,4an bete da, eskakizun-mailari eutsiz, eta beste % 48,6an ere bete da, eskakizun-maila jaitsiz.

Laburbilduz, eta 122 barneratze-neurrietan planteatutako helburu guztiak kontuan hartuta, guztira 732 helburu deskribatu dira, eta banakako hezkuntza-proiektu bakoitzeko batezbestekoa 6 da (arlotan bakoitzari dagozkio); beraz, berez, are helburu gehiago planteatu dira, baina ebaluatzeko orduan ez dugu arlo bakoitzeko helburu bakoitza kontuan hartu, epigrafe osoa baizik.

Hala ere, azterketa hau partziala baino ez da. Ondorioz, ebaluatutako neurri bakoitzaren betetze-maila ere jakitea beharrezkoa zela iruditu zaigu. Hala, aurreko grafikoetan ikusi ahal izan den bezala, ikerketa-talde honek ahalegina egin du txostenean jasotako arlo bakoitza ebaluatzeko, eta, beraz, oraingo honetan ez daukagu ebaluatu gabeko alorrik. Horrela, ikusten dugu arlo gehienek behar bezala betetako helburuak dituztela, beste batzuek eskakizuna murriztu dutela eta, azkenik, bete ez diren helburuak daudela. Azterketa honen ondorioak eta gomendioak beste neurri batzuen azterketen oso antzekoak dira.

2.5.7 Neurrien aldaketei buruzko azterketa³²

Kriminologiaren Euskal Institutuak Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritzarentzat urtero egiten dituen ikerketa-ildoen artean, EAEko adingabeen lau

³² 2015., 2016. eta 2017. urteetako neurriak aldatzeko txostenak erantsi dira eranskinean.



epaitegietan izaten diren neurrien aldaketei buruzko txostenak ere badaude. Zehazki, azterketa horiek 2017an eta 2018an egin dira, eta 2015., 2016. eta 2017. urteetan izandako aldaketak aztertu dira.

Aldaketa horiek Adingabeen Erantzukizun Penala arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege penalaren hainbat artikulutan jasota daude. Zehazki, 13., 15., 40., 50. eta 51. artikuluek ari gara, eta haien deskribapena erantsitako txostenetan jasota dago.

Aldaketa horiek aztertzea garrantzitsua da Justizia Zuzendaritzaren kudeaketarako; izan ere, jarraian ikusiko dugun bezala, neska-mutilei ingurune irekian betetzeko ezarritako neurri askok aldaketak izaten dituzte, bai epaian bertan, bai epaia betetzen den bitartean, azkenean zentroan betetzeko neurriak izaten amaitzen dutelarik. Beste batzuk, aldiz, ingurune irekian betetzekoak ziren, eta azkenean zentroan betetzeko neurriak izaten amaitzen dute.

2015ean 158 aldaketa egin ziren, 2016an beste 181, eta 2017an 208. Zaila da zehatz-mehatz zehaztea adingabeen epaitegietan ezartzen diren neurri guztien aldaketen ehunekoa, batez ere neurria ezarri zen urtea ez datorrelako bat, askotan, neurria aldatu zen urtearekin. Nolanahi ere, erreferentzia gisa balio du (mugak ezarrita) 2015ean 929 neurri ezarri zirela eta 158 aldatu, hau da, neurri guztien % 17; 2016an, ordea, askoz neurri gutxiago ezarri ziren, zehazki, 794, eta 181 aldatu, hau da, % 22,8, eta 2017an 839 neurri ezarri ziren; beraz, aldaketak % 24,8 izan ziren.

Hurrengo taulan, aldatu diren neurri guztiak jaso dira (irrhoak nahiz kautelazkoak), eta zaintzapeko askatasuna da hiru urteetan gehien aldatzen den neurria, eta, ondoren, barneratze-neurri erdi-irekia.



50. taula. Aldatutako neurrien banaketa (2015-2016-2017). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.

JATORRIZKO NEURRIAK	2015		2016		2017	
<i>Zentroetako barneratze itxia</i>	1	% 0,6	3	% 1,7	6	% 3
<i>Zentroetako barneratze erdi-irekia</i>	23	% 14,6	45	% 24,9	35	% 17,8
<i>Zentroetako barneratze irekia</i>	2	% 1,3	1	% 0,6	1	% 0,5
<i>Barneratze erdi-ireki terapeutikoa</i>	1	% 0,6	2	% 1,1	4	% 2
<i>Asteburuko egonaldia</i>	8	% 5	7	% 3,9	14	% 6,7
<i>tratamendu ambulatorioa</i>	3	% 1,9	1	% 0,6	----	----
<i>eguneko zentrora joatea</i>	23	% 14,6	18	% 9,9	17	% 8,2
<i>zaintzapeko askatasuna</i>	58	% 36,8	77	% 42,3	91	% 43,9
<i>Hezkuntza-taldearen barruko bizikidetza</i>	----	----	1	% 0,6	2	% 1
<i>Gizartearentzako lanak</i>	19	% 12	11	% 6,1	15	% 7,2
<i>Gizarte- eta hezkuntza-zereginak</i>	13	% 8,2	13	% 7,2	14	% 6,7
IRMOAK, GUZTIRA	151	% 95,6	179	% 98,9	199	% 96
<i>Zentroetako barneratze itxia</i>	----	----	----	----	1	----
<i>Zentroetako barneratze erdi-irekia</i>	2	% 1,3	----	----	2	1
<i>Barneratze itxi terapeutikoa</i>	1	% 0,6	----	----	----	----
<i>Zaintzapeko askatasuna</i>	4	% 2,5	2	% 1,1	5	% 2
<i>Hezkuntza-taldearekiko bizikidetza</i>	----	----	----	----	1	% 0,5
KAUTELAZKOAK, GUZTIRA	7	% 4,4	2	% 1,1	9	% 4
NEURRIAK, GUZTIRA	158	% 100	181	% 100	208	% 100

Aldatutako neurri guztiak bost atal handitan bildu dira: ondoriorik gabe, preskribatuta, ordezkatuta, bete gabe eta ezabatuta.

2015ean, hezkuntza-zentroko neurri guztietatik (38 neurri: 30 barneratzeak eta 8 asteburuko egonaldiak), 2 geratu dira ondorerik gabe, beste 2 preskribatu dira, 22 ingurune irekiko izatera pasa dira eta 12k jarraitu dute hezkuntza-zentroko neurri izaten (ingurune irekian beste neurri bat betetzeko bertan behera utzi ziren neurriak dira, baina urratu egin zirenez, bertan behera utzi ziren). Bestalde, ingurune irekian



betetzeko neurri guztietatik (120 neurri: 62 zaintzapeko askatasun, 23 eguneko zentrorra joatea, gizartearentzako 19 lan, 13 gizarte- eta hezkuntza-zeregin eta 3 tratamendu ambulatorio) 10 ondoriorik gabe geratu dira, 5 preskribatu egin dira, 3 eten egin dira, 38k ingurune irekiko neurriak izaten jarraitu dute eta 64 hezkuntza-zentroko neurri izatera pasatu dira.

Bestalde, 2016an, hezkuntza-zentroko neurri guztietatik (57 neurri: 50 barneratze eta asteburuetakoko 7 egonaldi), 1 preskribatu da, 38 ingurune irekikoak izatera pasatu dira eta 18k neurri jarraitu dute hezkuntza-zentroko neurri izaten. Ingurune irekian betetzeko neurri guztiei dagokienez (124 neurri: 79 zaintzapeko askatasun, 19 eguneko zentrorra joatea, 13 gizarte- eta hezkuntza-zeregin, gizartearentzako 11 lan, tratamendu ambulatorio bat eta hezkuntza-taldearekiko bizikidetzatza bat), 15 ondoriorik gabe geratu dira, 12 preskribatu egin dira, 25ek ingurune irekiko neurriak izaten jarraitu dute eta 72 hezkuntza-zentroko neurriak izatera pasatu dira.

Azkenik, 2017an, hezkuntza-zentroan betetzeko neurri irmo guztietatik (60 neurri: 46 barneratze eta asteburuetakoko 14 egonaldi), 2 indarrrik gabe geratu dira, beste 2 preskribatu egin dira, 32 ez dira aldatu eta 24 ingurune irekikoak izatera igaro dira. Ingurune irekiko neurri irmoei dagokienez (139 neurri), 25 indarrrik gabe geratu dira, 1 preskribatu egin da, 48 ez dira aldatu eta 65 hezkuntza-zentro batean betetzera pasatu dira.

EAEko Adingabeen Epaitegiek urtero neurrien gainean egiten dituzten aldaketek ezarritako neurri guztien ehuneko esanguratsua adierazten dute. 2015ean, ezarri ziren 929 neurrietatik 158 aldatu ziren (% 17 gutxi gorabehera), 2016an 794 neurri ezarri ziren eta 181 aldatu (% 23) eta 2017an ehunekoa % 25era igo zen, 208 aldatu baitziren urte horretan ezarritako 839 neurrietatik.

Aldaketa horien arrazoiak honako hauek dira: ondoriorik gabe geratzen direlako, preskribatzen direlako (gutxien), bertan behera geratzen direlako, edo antzeko izaera duen beste neurri batera aldatzen direlako (ingurune irekiko neurri batetik ingurune irekiko beste neurri batera), murrizketa txikiagoko beste neurri batera aldatzen direlako (hezkuntza-zentro batean betetzeko neurri batetik ingurune



irekian betetzeko neurri batera) edo, azkenik, beste neurri murriztaileago batera aldatzen direlako (hezkuntza-zentro batean betetzeko neurri batetik ingurune irekiko neurri batera).

Gehien aldatzen den neurria zaintzapeko askatasuna da, eta, ondoren, barneratzeak.



2.6.5. kapitulua: Laburpena eta ondorioak

2.6.1 Kanpo-informazioaren 1. iturriaren ondorioak: Estatuko Fiskaltza Nagusia

- Ebaluatutako aldian, 11.672 **arau-hauste** egon dira: 7.177 delitu eta 4.495 falta. Delituei dagokienez, hiru ohikoenak etxeko indarkeria eta genero-indarkeria (1.015, % 14,1), lesioak (902, % 13,4) eta indarkeria eta/edo larderia bidezko lapurreak (881, % 12,3) izan dira. Hutsegiteak, berriz, 2014an 628 izatetik 2018an 989 izatera igaro dira, hau da, % 36 gehiago izan dira.
- Bestalde, guztira 3.488 **neurri** ezarri dira. Ebaluatutako aldian, neurri ohikoena zaintzapeko askatasuna da (1.336, % 38), eta, ondoren, gizartearentzako lanak (730, % 22) eta barneratzeak (608, % 17). 623 neurri-aldaketa gertatu dira. Ohikoena (% 48) urraketari dagokiona da (50.2. artikulua).
- **Epaietan**, 403 absoluzio-epai eta 2.995 kondena-epai izan dira (786 adostasunik gabe eta 2.209 adostasunarekin, % 26 eta % 74, hurrenez hurren).
- Azkenik, **atariko eginbideei** dagokienez, ikus daiteke hasitako eginbideek gorakada izan dutela 2014. urtearen (2.155) eta 2018. urtearen (2.696) artean, hau da, % 20ko igoera.

Guztira, 12.676 espediente hasi dira. **Erreforma-espedienteetan**, ikusten dugu hasitako espedienteek pixka bat gora egin dutela 2014 (1.140) eta 2018 (1.237) urteen artean. Guztira, 5698 erreforma-espediente hasi dira.

2.6.2 Kanpo-informazioaren 2. iturriaren ondorioak: Estatistikako Institutu Nazionala

- Arau-hausle adingabeen **adinaren araberako neurri kopurua** aztertuz gero, ebaluatutako aldi osoan neurri gehien dituzten taldeak 16 eta 17 urtekoak dira, bai EAEn, bai gainerako autonomia-erkidegoetan (bi taldeetan, % 60, batez beste).
- Adingabe arau-hausleen **nazionalitatearen araberako neurri kopurua** kontuan hartuta, atzerritarren ehuneko handiagoa da EAEn (% 26 batez beste) gainerako autonomia-erkidegoetan baino (% 23) ebaluatutako aldi osoan.



- Azkenik, **sexuaren araberako neurri kopuruaren** azterketak erakusten du neskak %18 direla bai EAEn bai gainerako autonomia-erkidegoetan, ebaluatutako aldi osoan.

2.6.3 Kanpo-informazioaren 3. iturriaren ondorioak: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia

- **Gai kopuruari** dagokionez, datuek erakusten dute 2014an 1.008 auzi sartu zirela, eta 2018an 1.241; ebatzitako gaiak pixka bat jaitsi dira 1.162tik 1.171ra, eta aldiaren amaieran izapidetzen ari diren gaiak ere igo egin dira, 2015ean 425 izatetik 2018an 623 izatera.
- **Gaien ebazpenei** erreparatuz gero, epaien kopuruak gora egin du: 2014an 692 izan ziren, eta 2018an 749. Autoak 457tik 425era murriztu dira.
- Azkenik, **ebazitako epaiak** murriztu egin dira: 2014an 738 ziren eta 2018an 503. Urte bakoitzaren amaieran: 2014an, 487 izapidetzen ari ziren; eta 2018an, 565.

2.6.4 Justizia Sailburuordetzaren ondorioak

2.6.4.1 Talde psikosozialen jarduerari buruzko ondorioak

- Talde psikosozial judizialen lanean, aldi horretan, **aholkularitza-txostenak** egiteko eskariaren gutxitze txiki bat ageri da (1.220 2014an eta 1.147 2018an, 2016a eskari txikieneko urtea izanik, 844 txostenekin). **Exhortoen txostenek** nabarmen egin dute behera aldi horretan (72 2014an eta 48 2018an), eta **betearazpen-txostenek** ere behera egin dute 2014an (118) eta 2018an (97), eta 38 izan dira 2016an.

Bestalde, **kautela-neurrietako agerraldien txostenek** ere behera egin dute: 2014an 61 izan ziren, eta 2018an 53. Hala ere, **audientzietara joateko egunak** egonkor mantendu dira: 2014an 206 ziren, eta 2018an, berriz, 211.

- Bestalde, 2014-2018 aldian egindako **bitartekaritza** guztietatik (1.812) 1.433k (% 79) emaitza positiboa izan zuten, eta beste 379k (% 21) negatiboa. Nolanahi



ere, bitartekaritza-prozesuek gero eta presentzia handiagoa dute EAEko Adingabeen Epaitegietan; izan ere, jarduketa guztietatik (5.810 ebaluatutako aldian), bitartekaritzak % 31 dira (1.812), neurrien % 69ren aldean (3.998). Azkenik, bitartekaritza-prozesua bete duten neska-mutilen adina kontuan hartzen baldin badugu, ikus dezakegu 16 urteko edo urte gehiagoko taldeak guztizkoaren % 70 hartzen duela.

2.6.4.2 Neurriei buruzko ondorio orokorrak

- Neurri irmoen eta kautela-neurrien eskaria, guztira, 2014ko urtarrilaren 1aren eta 2018ko abenduaren 31ren arteko aldian, 4.379koa izan da. Horietatik, 3.998 (% 91) irmoak izan dira eta 381 (% 9) kautelazkoak.
- Neurrietan igoera egon da: 2014an 810 neurri hartu ziren, eta 2018an 1.007.

2.6.4.3 Kautela-neurriei buruzko ondorioak

- Gorakada handia gertatu da 2014tik (57 neurri, % 7) 2018ra (109 neurri, % 11). Joera hori ikusten jarraituko dugu datozen urteetan.
- 198 barneratze-neurri jarri dira, 160 zaintzapeko askatasunekoak, eta 22 hezkuntza-taldearekiko bizikidetzakoak.
- Iraupenari dagokionez, zentroetan barneratzeko kautela-neurrien % 26k ez dituzte 3 hilabete gainditu, eta zaintzapeko askatasunaren neurri gehienek (neurri guztien % 74) 6 hilabete baino gutxiagoko iraupena izan dute.

2.6.4.4 Neurri irmoei buruzko ondorioak

- Neurri irmoak aztertuta, ikusten dugu 2014. urtetik (753 neurri) 2018. urtera (898 neurri) kopurua igo egin dela.
- Barneratzearen eta zaintzapeko askatasunaren neurriak nabarmen egin dute gora, beste neurri batzuen kaltetan, hala nola gizartearentzako lanak, gizarte- eta hezkuntza-zereginak, eguneko zentrorra joatea edo tratamendu ambulatorioa.
- Era berean, ingurune irekiko neurriak (2.982) neurri irmo guztien % 75a izan dira. Talde horren barruan, honako hauek nabarmentzen dira: zaintzapeko askatasuna, gizartearentzako lanak eta gizarte- eta hezkuntza-zereginak.



- Gazte-justiziako hezkuntza-zentroan (egoitza-ingurunea) bete beharreko neurriak 1.016 izan dira (25,4), barneratzeak izanik gehien jarritako neurria, eta, ondoren, asteburuetakako egonaldiak eta hezkuntza-taldearekiko bizikidetzak.

2.6.4.5 Adingabe arau-hausleei buruzko ondorioak

- Ebaluatutako aldian, 3.998 neurri irmo sartu dira 2.101 neska-mutil desberdinentzat.
- Ebaluatutako aldian, neurri irmoen proportzioa % 1,9koa da adingabe bakoitzeko.
- Profil psikosozialari dagokionez, gehienak EAEn jaio eta jatorrizko familian bizi diren gizonak dira. Arrisku-aldagai garrantzitsuak hauteman dira gurasoen arretarik ezari, toxikoen kontsumoari eta gurasoen edo erreferentziazko figuren kontrolik ezari lotuta. Eskola-mailari erreparatuta, eskolatu gabe edo adinagatik legozkiekeen mailak baino maila baxuagoetan dauden pertsona asko daude. Berdinen taldeak ere gabeziak ditu, eta gehienek ez dute gutxieneko aisialdi-jarduerarik egiten.

2.6.5 Neurriak betearazteko baliabideei buruzko ondorioak: Egoitza-zerbitzuak, zerbitzuak ingurune irekian eta baliabide ekonomikoak.

2.6.5.1 Egoitza-zerbitzuak

- Plaza eskuragarrien kopuruak gora egin du barneratze-eskariak gora egin ahala. Hala, punturik gorenenera heldu da 2018. urtean, 115 plazarekin.
- Ibaiondoko eta Bilboko autonomia-egoitzako hezkuntza-zentroek plaza kopuruari eutsi diote (39 eta 6, hurrenez hurren).

Hala ere, plazek gora egin dute pixkanaka, eskariaren arabera, honako hezkuntza-zentro hauetan: Uribarri (2014ko 8tik 2018ko 18ra), Urgozo (2014ko 10etik 2018ko 12ra), Andoiu/Gorbea (2014ko 15etik 2018ko 16ra) eta Txema Fínez (2014ko 11tik 2016ko 24ra).

- Hezkuntza-zentroetako plantillari dagokionez, egonkor mantendu dira zuzendaritza-postuak eta administrazio- eta zerbitzu-lanpostuak (9 eta 6, hurrenez hurren), eta gora egin dute koordinatzaile teknikoek (19 izatetik



2014an, 22 izatera 2018an), hezitzaileek (112 izatetik 2014an, 144 izatera 2018an) eta maisu-maistrek (24 izatetik 2014an, 26 izatera 2018an).

2.6.5.2 Ingurune irekiko zerbitzuak

- Zerbitzu horien barruan, eguneko zentroak daude (eguneko zentroetara joateko neurriak betetzeko) eta ingurune irekiko taldeak (neurri hauek betearazteko: zaintzapeko askatasunak, gizarte- eta hezkuntza-zereginak, gizartearentzako lanak, tratamendu anbulatorioak eta asteburuak etxean ematea).
- Ingurune irekiko plantillako pertsona kopuru osoa egonkor mantendu da 26 pertsonatan, eta eguneko zentroetan gora egin du 2014tik 2015era (13tik 14ra), eta egonkor mantendu da 2018ra arte.

2.6.6 Sail bakoitzaren helburu espezifikoei buruzko ondorioak

2.6.6.1 Herrizaingo Sailari buruzko ondorioak (gaur egun, Segurtasun Saila)

Ebaluatutako aldian, 2014tik 2016ko ekainera, zazpi ekintza zeuden aurreikusita (2014-2018 aldiko IV. Gazte Justiziaren planaren ekintzak: 9.1.2.1, 9.1.2.2, 9.1.2.3, 9.1.2.4, 9.1.2.5, 9.1.2.6 eta 9.1.2.7), eta guztiak gauzatu dira.

2.6.6.2 Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari buruzko gomendioak (gaur egun, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila)

Sail honi dagokion 9.4.2.1 ekintza osorik gauzatu da. 9.4.2.2 ekintza ez da egin.

2.6.6.3 Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari buruzko ondorioak (gaur egun, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila)

Ebaluatutako aldian bost ekintza zeuden aurreikusita (9.3.2.1, 9.3.2.2, 9.3.2.3 eta 9.3.2.4 ekintzak osorik gauzatu dira). Ez dakigu 9.3.2.5 ekintza egin den ala ez.

2.6.6.4 Osasun Sailari buruzko ondorioak

Ebaluatutako aldian hamar ekintza zeuden aurreikusita (2014-2018 aldirako Gazte Justiziaren IV. Planaren ekintzak: 9.2.2.1, 9.2.2.2, 9.2.2.3, 9.2.2.4, 9.2.2.5, 9.2.2.6, 9.2.2.7, 9.2.2.8, 9.2.2.9 eta 9.2.2.10), eta guztiak gauzatu dira, 9.2.2.7 izan ezik, azken horretan ez baita ekintza espezifikorik egin.



2.6.6.5 Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Saila (gaur egun, Lan eta Justizia Saila)

Ebaluatutako aldiaren berrogeita bost ekintza zeuden aurreikusita (2014-2018 Gazte Justiziaren IV. Planaren ekintzak 9.5.2.1etik 9.5.2.16ra eta 9.5.3.1etik 9.5.3.29ra), eta guztiak bete dira, honako ekintza hauek izan ezik: 9.5.2.13, 9.5.2.16, 9.5.3.3, 9.5.3.18, 9.5.3.20 eta 9.5.3.23 ez dira egin, dagokion atalean azaldu diren arrazoien ondorioz.

2.7 Atal ekonomikoa

Atal honetan, Justizia Sailburuordetzak, adingabeei ezarritako neurriak betearazteko eskumena duen erakunde publiko gisa, bere gain hartzen dituen jarduketan euskarri izan diren datu ekonomikoak biltzen dira.

Hurrengo tauletan jasotako datu ekonomikoak urtero gazte-justiziako hezkuntza-zentroei, eguneko zentroei, ingurune irekiko zerbitzuei, ebakuntza klinikoetarako terapeuten ordainketei (tratamendu ambulatorioak), gizartearentzako lanetarako neurriak egiten lankidetzan diharduten erakundeen ekarpenei eta Euskal Herriko Unibertsitateari –azterketak eta ikerketak eta aholkularitza-lanak egiten lankidetzan dihardu– egin beharreko ordainketei eusteko beharrezkotzat jo diren diru-ekarpenen ingurukoak dira.

2.7.1 Talde psikosozialen gastuak

Talde psikosozialak, gaur egun, honako profesional hauek osatzen dituzte:

<u>Araba</u>	7 pertsona: 3 psikologo (horietako bat koordinatzailea), 2 gizarte-langile, hezitzaile 1 eta administrazio-laguntzaile 1.
<u>Gipuzkoa</u>	9 pertsona: 4 psikologo (horietako bat koordinatzailea), 2 gizarte-langile, 2 hezitzaile eta administrazio-laguntzaile 1.
<u>Bizkaia</u>	17 pertsona: 9 psikologo (horietako bat EAeko koordinatzailea), 3 gizarte-langile, 3 hezitzaile eta 2 administrazio-laguntzaile.

Lantalde horietan lan egiten duten pertsonak, adingabeen jurisdikzioan egiten duten lanaz gain, peritazio-eginkizunak egiten dituzte beste jurisdikzio batzuetan (familia eta penala, batez ere). Gazte-justiziaren eremuan, organikoki Herri



Administrazio eta Justizia Sailaren mendekoa bada ere, "talde tekniko"en inguruan, adingabeen epaitegien eta fiskaltzen mendekoa da, eta, batez ere, Adingabeen Zigor Erantzukizunari buruzko 5/2000 Lege Organikoaren 27. artikuluan jasotzen diren funtzioak betetzen ditu.

Ekonomiari dagokionez, talde psikosozialetara bideratutako kostuak gora egin du urtetik urtera, eta ebaluatutako aldi osoan 8.963.181,86 €-ra iritsi da.

51. taula. Talde psikosozialetako langileen gastuak (2014-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Sailburuordetza

Urtea / Profesional kopurua	Ordainsariaren kostua + Gizarte Segurantzza	
2014	33	1.302.208,01 €
2015	33	1.783.864,33 €
2016	33	1.910.809,94 €
2017	33	1.996.153,9 €
2018	33	1.970.145,68 €
GUZTIRA		8.963.181,86 €

2.7.2 Ingurune irekiko programa eta zerbitzuetako gastuak

Hurrengo taulan, ingurune irekiko zerbitzuak kudeatzeko egin diren zenbateko ekonomikoak jasotzen dira; horietan jasotzen da tratamendu ambulatorko, zaintzapeko askatasuneko, gizarte- eta hezkuntza-zereginetako, gizartearentzako lanetako, asteburuetan etxean egoteko eta eguneko zentrorra joateko neurriak betearaztea. Atal honetan sartzen dira, era berean, terapeuta pribatuen inguruko gastuak (tratamendu ambulatorkoak) eta gizartearentzako lanak egiteko Sailarekin hitzarmenen bat sinatuta duten erakundeei ematen zaizkien haborokinak. Zenbatekoak, 2016tik aurrera, hazi egin dira, aurreikuspenen arabera: urtean % 2. Zerbitzuen artean, ez da agertzen gordailututa Arabako eguneko zentroa. Gastua Uribarri Hezkuntza Zentrorra bideratutako partida ekonomikoan sartzen da.



52. taula. Ingurune irekiko programa eta zerbitzuetako gastuak. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.

Zerbitzuak/programak		2014	2015	2016	2017	2018	Guztira
Zerbitzuak	Arabako ingurune irekia	184.600€	184.600€	184.600€	184.600€	186.630€	925.030€
	Bizkaiko ingurune irekia	637.016€	637.016€	637.016€	637.016€	644.023€	3.192.087€
	Gipuzkoako ingurune irekia	372.084€	372.084€	372.084€	372.084€	376.176€	1.864.512€
	Bizkaiko Eguneko Zentroa	450.000€	450.000€	450.000€	450.000€	454.950€	2.254.950€
	Gipuzkoako Eguneko Zentroa	378.000€	378.000€	378.000€	378.000€	382.158€	1.894.158€
Programak	Gizartearentzako lanak	6.593,85€	15.354,55€	5.503,85€	14.081,35€	9.955€	51.488,6€
	Tratamendu anbulatorioak	33.291,75€	48.444,82€	87.506,65€	59.569,22€	57.949,46€	286.761,9€
	Aita Menni	3.000€	12.000€	20.204€	41.678,8€	29.814,68€	106.697,48€
Guztira		2.064.585,6€	2.097.499,37€	2.134.914,5€	2.137.029,37€	2.141.656,14€	10.575.684,98€



2.7.3 Gazte Justiziako hezkuntza-zentroetako gastuak

Ibaiondo Hezkuntza Zentroko partida ekonomikoek honako atal hauek jasotzen dituzte:

- Justizia eta Herri Administrazio Sailaren mendeko langileen gastuak: soldatak, ordezkapenak, gizarte-segurantza, hobariak etab.
- Funtzionamenduko beste gastu batzuk: sukaldaritza, garbiketa, aisiako eta astialdiko jarduerak, joan-etorriak, ikasgelako eta tailerreko materialak etab.

Gainerako zentroetan (II. eta III. mailak) erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren artean sinatutako lankidetzeta-hitzarmenen artean ezarritakoa betetzeko egindako gastu guztiak jasotzen dira (Andoiu/Gorbeia eta Bilboko AE zentroetako gastuen % 100a da eta Uribarri, Urgozo eta Txema Fínez zentroetako gastuen % 100a, segurtasuneko kostua salbu).



53. taula. Gazte Justiziako Hezkuntza-zentroetako gastuak. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.

Maila	Hezkuntza-zentroak	2014	2015	2016	2017	2018	Guztira
I	Ibaiondo ³³	308.224€	255.190€	256.253€	5.429.625€	5.510.977€	11.760.268€
II.	Uribarri	982.800€	1.328.400€	1.650.000€	1.650.000€	1.844.150€	7.455.350€
	Txema Fínez	1.068.000€	1.413.600€	1.516.500€	1.590.000€	1.946.266 €	7.534.366€
	Andoiu/Gorbeia	1.500.000€	1.500.000€	1.549.992€	1.549.992€	1.567.041€	7.667.025€
	Urgozo	974.700€	974.700€	974.700€	1.027.433€	1.155.269€	5.106.802€
III.	Bilbo AE	415.650€	415.650€	415.650€	415.650€	420.222€	2.082.822€
Guztira		5.249.374€	5.887.540€	6.363.095€	11.662.700€	12.443.925€	41.606.633€

³³ Ez dira sartzen telefoniako, mantentze-lanetako eta eremu komunitario garbiketako gastuak, ez eta gasari dagozkionak ere; horiek Justizia Administrazioako Zuzendaritzaren kargura dauden programa orokorren barruan sartu dira. Bestalde, ezin izan dira eman 2014-2016 urteetako langile-gastuen datuak.



54. taula. Gazte-justiziako hezkuntza-zentroetako gastuak (obrak, mantentze-lanak, konponketak eta hornidurak). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.

Maila	Hezkuntza-zentroak	2014	2015	2016	2017	2018	Guztira
I	Ibaiondo	135.342€	206.359€	169.732€	206.455€	176.284€	894.172€
II.	Arrazua	550€	2.378€	4.247€	----	----	7.175€
	Txema Fínez	1.000€	612.452€	3.552€	2.544€	42.337€	661.885€
	Andoiu/Gorbeia	550€	----	----	33.313€	13.177€	47.040€
Guztira		137.442€	821.189€	177.531€	242.312€	231.798€	1.610.272€



2.7.4 Gazte Justiziako hezkuntza-zentroetako segurtasun-gastuak

Segurtasun-gastuei buruzko datuei buruz esan behar dugu ebaluatutako bost urteetan guztira 6.179.284 euroko gastua egin dela, baina, ikus daitekeenez, kopuru horren erdia baino gehiago Ibaiondokoa da, horixe baita gure erkidegoko I. mailako hezkuntza-zentro bakarra. Urteko batez besteko gastua 1.236.857 €-koa da.

55. taula. Gazte Justiziako hezkuntza-zentroetako segurtasun-gastuak. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza.

Maila	Hezkuntza-zentroak	2014	2015	2016	2017	2018	GUZTIRA
I	Ibaiondo	689.582€	766.395€	749.013€	876.878€	666.460€	3.748.328€
II.	Txema Finez	153.240€	153.240€	158.064€	138.925€	174.385€	777.854€
	Uribarri	199.106€	199.221€	200.412€	200.000€	219.788€	1.018.527€
	Urgozo	103.278€	103.961€	104.195€	105.198€	77.943€	494.575€
	Andoiu	----	----	----	----	140000	140.000€
GUZTIRA		1.145.206€	1.222.817€	1.211.684€	1.321.001€	1.278.576€	6.179.284€



3. 2019KO NEURRIEN ESKARIAREN MEMORIA

3.1 Sarrera

2019. urtean, Gazte Justiziaren IV. Planaren (2014-2018) ekintzak luzatu dira; horien ebaluazioa aurreko atalean aurkeztu da. Hala ere, hura ezagutzeko eta aztertzeko, Justizia Zuzendaritzako Gazte Justiziako Zerbitzuaren neurriei buruzko eskariari dagozkion datu esanguratsuenak aurkeztu dira, 2019an.

Hemen agertzen dena Gazte Justiziako Zerbitzuak berak emandako informazioa da, N-28 datu-basetik lortutako datuen bidez, KREIk berrikusi, aztertu eta lantzeko. Lehenengo atalean, Justizia Zuzendaritzaren datu orokorrak aurkezten dira, iaz jarritako kautela-neurriei eta neurri irmoei buruzkoak. Bigarren atalean, gure erkidegoko gazte-justizia aztertzeko oso garrantzitsua den informazioa azaltzen da; izan ere, adingabe arau-hausleak hartzen dira azterketa-unitatetzat. Eta, azkenik, neurriak betearazteko baliabideak erakusten dira.

3.2 Justizia Zuzendaritzako datu orokorrak

3.2.1 Alderdi orokorrak

Jarraian azaltzen diren datuak Justizia Zuzendaritzan 2019. urtean sartu diren neurriei dagozkie, bai Euskal Autonomia Erkidegokoei, bai beste autonomia-erkidegoetako. Neurriok Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren adingabeei buruzkoak dira, 5/2000 Lege Organikoaren 45. artikulua araberako betearaztekoak. Justizia Zuzendaritzak materialki bete beharreko neurrien kasuak honako hauek dira³⁴:

- Hezkuntza-zentroetan betearazten diren neurriak:
 - Zentroetako barneratze irmoak eta kautelazkoak, edozein erregimen eta modalitatetan.
 - Hezkuntza-taldearekiko bizikidetzak, irmoak eta kautelazkoak.
 - Asteburuko egonaldiak hezkuntza-zentroan.

³⁴ Kargu hartzeko, urruntze-aginduetako eta administrazio-izaerako neurriak –besteak beste, gidabaimenak eta armak–, berezko izaeragatik eta edukiagatik, ez zaizkio Justizia Zuzendaritzari bidaltzen, neurriak betearazteko eskumena duen erakunde publikoa den aldetik.



- Ingurune irekiko zerbitzuetan eta eguneko zentroan betearazten diren neurriak:
 - Eguneko zentrorra joatea.
 - Tratamendu ambulatorioa.
 - Zaintzapeko askatasuna, irmoa eta kautelazkoa.
 - Gizarte- eta hezkuntza-zereginak egitea.
 - Gizartearentzako lanak.
 - Asteburuetan bizilekuan egon beharra.

Izan ere, hurrengo taulako datuak irakurtzean ikusten da 2019. urtean neurriek jaitsiera txiki bat izan dutela aurreko urtearekin alderatuta (38 neurri gutxiago ezarri dira). 2016tik hona gertatu den lehenengo jaitsiera da, eta neurri irmoen atalean hamar gutxiago soilik sartu diren arren, kautela-neurrien atalean beherakada nabarmena izan da, 2018an baino 21 kautela-neurri gutxiago sartu baitira; horrela, % 8ko ehunekoak lortu da, 2017ko eta aurreko urteetako datuen antzekoa.

56. taula. Neurri irmoen eta kautelazkoen eskaria (2015-2019). Egilea: KREI. Iturria: Justiziako Zuzendaritza

NEURRIAK	2015	2016	2017	2018	2019
<i>Neurri irmoak</i>	854 % 92	729 % 92	764 % 91	898 % 89	888 % 92
<i>Kautela-neurriak</i>	75 % 8	65 % 8	75 % 9	109 % 11	81 % 8
NEURRIAK, GUZTIRA	929 % 100	794 % 100	839 % 100	1007 % 100	969 % 100

2019. urteko neurri guztiak (hurrengo taulan jasota daudenak) banan-banan aztertuz gero, ikusten da neurri irmoen artean gehien ezarri dena, orain arte gertatu izan den bezala, zaintzapeko askatasunarena dela (% 44). Gero, barneratze-neurriak (% 22) eta gizartearentzako lanak (% 17) izan dira gehien ezarri diren neurriak. Hiru neurri horien batura neurri irmo guztien % 83 da.



2018. urtearekin alderatuta, neurri hauek handitu dira (irmoak eta kautelazkoak):

- Barneratze irmoak, % 18tik % 22ra igaroz, ehunekorik altuena izan ziren 2016tik, orduan ere % 22 izan baitziren.
- Gizartearentzako lanek, % 15etik % 17ra igaroz, gora egin dute urtetik urtera 2016tik (2015ean, % 21 ziren).
- Kautelazko zaintzapeko askatasuna % 33tik % 48ra igo da, eta 2015eko eta 2016ko antzeko ehunekoetara itzuli da.
- Kautelazko hezkuntza-taldearekiko bizikidetzak, oso gutxi diren arren, % 3tik % 7ra igo dira.

Beste alde batetik, honako neurri hauek izan dute beherakada:

- Gizarte- eta hezkuntza-zereginak % 9tik % 6ra murriztu dira. 2015etik, urtez urte murrizten ari den neurria da.
- Asteburuko egonaldiak % 7tik % 4ra jaitsi dira (ondo ondo jaitsi den bigarren urtea da).
- Kautelazko barneratzeak % 64tik % 45era jaitsi dira, aurreko urteetako antzeko ehunekoa lortuz (2018an izan ezik, orduan neurri hori modu esponontzian handitu baitzen).

Azkenik, ehuneko berdinekin mantentzen diren neurriak honako hauek dira:

- Zaintzapeko askatasuna irmo, % 44an.
- Eguneko zentrora joateak % 5ean.
- Tratamendu anbulatorioa % 1ean.
- Hezkuntza-taldearekiko bizikidetzak irmo, % 1ean.

Bestalde, 2015etik 2019ra bitarteko neurrien bilakaera aztertuz gero, oro har, neurri irmoen taldean ikusten dugu zaintzapeko askatasunaren neurria dela gehien jartzen dena, eta, ondoren, zentroetan barneratzea eta gizartearentzako lanak datozela.



Kautela-neurriei dagokienez, ikusten dugu 2019an zaintzapeko askatasuna dela berriz ere neurri ohikoena, eta, ondoren, zentroetako barneratzeak. Hezkuntza-taldearekiko bizikidetza oraindik ere oso txikia da neurri kopuruan.



57. taula. Neurri irmoen eta kautelazkoen eskariaren banaketa (2015-2019). Egilea: KREI. Iturria: Justiziako Zuzendaritza

NEURRIAK	2015	2016	2017	2018	2019
Zaintzapeko askatasuna	322 % 38	309 % 42	312 % 41	391 % 44	387 % 44
Barneratzea	124 % 15	161 % 22	135 % 18	160 % 18	194 % 22
Gizartearentzako lanak	180 % 21	99 % 14	115 % 15	141 % 15	152 % 17
Gizarte- eta hezkuntza-zereginak	97 % 11	80 % 11	90 % 11	81 % 9	56 % 6
eguneko zentrorra joatea	53 % 6	32 % 4	31 % 4	44 % 5	42 % 5
Asteburuko egonaldiak	69 % 8	44 % 6	65 % 9	65 % 7	37 % 4
Tratamendu ambulatorioa	5 % 1	1 % 0	10 % 1	6 % 1	11 % 1
Hezkuntza-taldearekiko bizikidetza	4 % 0	3 % 0	6 % 1	10 % 1	9 % 1
NEURRI IRMOAK, GUZTIRA	854 % 100	729 % 100	764 % 100	898 % 100	888 % 100
Zaintzapeko askatasuna	36 % 48	32 % 49	32 % 43	36 % 33	39 % 48
Barneratzea	36 % 48	30 % 46	33 % 44	70 % 64	36 % 45
Hezkuntza-taldearekiko bizikidetza	3 % 4	3 % 5	9 % 12	3 % 3	6 % 7
Biktimarengana hurbiltzeko debekua	---- ----	---- ----	1 % 1	---- ----	---- ----
KAUTELA-NEURRIAK, GUZTIRA	75 % 100	65 % 100	75 % 100	109 % 100	81 % 100
NEURRIAK, GUZTIRA	929	794	839	1007	969



3.2.2 Kautela-neurriak³⁵

2019. urtean, 81 kautela-neurri sartu dira Justizia Zuzendaritzan. Neurri horietatik % 52 izan dira hezkuntza-zentroan betetzekoak, eta ingurune irekiko neurriak, berriz, % 48.

Nolanahi ere, argi eta garbi, zaintzapeko askatasuna da gehien ezartzen den neurria, eta, ondoren, barneratze erdi-irekia (kautela-neurrien % 75 dira biak).

Sexuaren aldagaiari dagokionez, kautela-neurri gehienak mutili ezarri zaizkie (61 mutil, % 75); ehuneko hori iazkoa baino nabarmen txikiagoa da, % 92 izan baitzen (% 84 2015ean, % 88 2016an eta % 93 2017an).

Neurri bakoitzean neskek duten presentzia ikusita, gogoan izan behar dugu zenbakiak ez direla ugariak; beraz, datu horiek kontuan hartuta, barneratuta dauden nesken ehunekoak % 28koa da, zaintzapeko askatasunetan % 21ekoa eta hezkuntza-taldearekiko bizikidetzetan % 33koa.

Jaioterria kontuan hartuta, ikusten da % 36 atzerrian jaio zirela eta beste % 64a EAEn edo beste autonomia-erkidego batzuetan. Beraz, datu horiek erakusten dute, aurten, kautela-neurriak ezarri zaizkien atzerritarren ehunekoak nabarmen egin duela behera aurreko urteko datuekin alderatuta, orduko datua % 50ekoa baita (2015. urtean % 37, 2016. urtean % 43 eta 2017. urtean % 39). Aurrekoaz gain, ikusten da neurri gehienetan EAEn edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotako pertsonak daudela; hala ere, adingabe atzerritar asko daude (batez ere, bakarrik daudenak) hezkuntza-zentroetan betetzeko neurrietan.

3.2.3 Neurri irmoak

5/2000 Lege Organikoaren 7. artikulua ezarri du adingabeen epaileek epaietan ezar ditzaketen neurrien katalogoa. Eusko Jaurlaritzak, neurri horiek betearazteko erakunde publiko eskuduna den aldetik, horien ardura hartzen du, dagokion adingabeen epaitegiak hala eskatuta.

³⁵ 5/2000 Lege Organikoak, 28. artikuluan, Adingabeen Epaitegiek kautelaz jar ditzaketen neurriak ezartzen ditu. Neurri horiek honako hauek dira: edozein modutako barneratzea, zaintzapeko askatasuna, hezkuntza-taldearekin, familiarekin edo pertsonarekin bizitzea, eta urruntzea (azken hori polizia-kidegoek gainbegiratu eta/edo kontrolatzen dute). Eusko Jaurlaritzak, erakunde publikoa den aldetik, lehenengo hirurak betearazten ditu.



Justizia Zuzendaritzan sarrera izan duten neurri irmoak aztertuko ditugu atal honetan, 2019an betearaztekoak zirenak. Bilboko adingabeen 1 eta 2 zenbakiko epaitegiek, Donostiakoak, Gasteizkoak eta beste autonomia-erkidego batzuetakoek eman dituzte neurri horiek, EAEn bizi diren adingabeen kasuan edo, salbuespen gisa, beste autonomia-erkidego batzuetako adingabeen kasuan, baldin eta, zenbait arrazoiengatik, neurria ezin bazen zegokien autonomia erkidegoan betearazi.

Lehenik eta behin, ikusten denez, ingurune irekian bete beharreko neurri irmoen kopurua hezkuntza-zentroetan bete beharrekoak baino askoz handiagoa da (lehenak % 73 eta bigarrenak % 27).

Hezkuntza-zentroetan bete beharreko neurrien artean, ohikoena barneratze erdi-irekia izan da (% 61), ondoren, distantzia askora, barneratze terapeutikoak (% 17) eta, gero, asteburuko egonaldiak (% 15). Ingurune irekian betetzeko neurrien artean, hamarretik zazpi dira zaintzapeko askatasunak. Talde honetan argi eta garbi horixe izan da EAeko adingabeen epaitegiek gehien ezarri duten neurria.

Bestalde, 2019ko neurri irmo guztietatik, 145 (% 16) neskei ezarri zaizkie. Ehuneko hori 2018koaren antzekoa da (% 15), baina, nolanahi ere, 2017koa baino txikiagoa (% 18).

Ezarritako neurri-motaren arabera banaketa aztertuz gero, ikus daiteke hezkuntza-zentroko neurrien taldean nesken ehunekoak % 10 baino ez dela, ingurune irekiko betetze-neurrien taldean lortutako ehunekoaren aldean, azken hori % 19ra igotzen baita. Neurri bakoitza aztertuz gero, bistakoa da, lehenengo eta behin, hezkuntza-zentroan betetzeko neurriak oso gutxi direla emakumezkoen artean (barneratze-neurriak % 10, asteburuko egonaldiak % 8 eta hezkuntza-taldearekiko bizikidetza % 22, nahiz eta azken kasu horretan kontuan hartu behar den izaera horretako 9 eskari baino ez direla egon).

Ingurune irekian betetzen diren neurriei dagokienez, gizartearentzako lanak eta zaintzapeko askatasuna dira gehien ezarri direnak (% 22 eta % 21, hurrenez hurren). Gainerako neurrietan, datuak oso txikiak dira: % 9 ingurukoak dira tratamendu ambulatorioan eta % 7 ingurukoak gizarte- eta hezkuntza-zereginetan eta eguneko zentroetarako joateetan, hurrenez hurren.



3.2.4 Neurri irmoen eskaria, "jaioterra" aldagaiaren arabera

Jaioterriari erreparatuz gero, 2019. urtean mantendu egin da adingabe atzerritarrentzako neurri irmoen eskariaren ehuneko handi bat: guztira % 41era iritsita. 2018an hasi zen egoera hori (% 42); beraz, arretaz jarraituko dugu datu horien bilakaera etorkizuneko memorietan.

Bestalde, hezkuntza-taldean betetzeko neurrien artean, atzerritarrei ezarritako neurrien ehunekoa % 52koa da. Ingurune irekian betetzeko neurrien taldean, ehuneko hori % 37ra jaisten da.

Aurrekoaz gain, atzerritarren proportzio handiena asteburuetako egonaldi-neurrietan (% 57) eta zentroetan barneratzeko neurrietan (% 53) aurkitzen dugu. Gainerako neurrietan, EAEn edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotakoen proportzioa handiagoa da atzerritarrena baino.

Neurri irmoen xede diren neska-mutilen jatorri zehatza aztertuta, ikusten dugu Magreben jaiotako adingabeek dutela presentzia handiena atzerritarren taldean (% 56), eta ondoren latinoamerikarrek (% 30). Ekialdeko Europatik etorritako neska-mutilak eta "beste batzuk" kategoriakoak % 7 dira, hurrenez hurren.

Era berean, Magreben jaiotako pertsonen kolektiboa da nagusi ia neurri irmo guztietan, eta asteburuetako egonaldi-neurriak eta barneratzeak dira ehunekoengatik gehien nabarmentzen direnak (% 81 eta % 77, hurrenez hurren). Gizartearentzako lanak, eguneko zentroetara joatea eta zaintzapeko askatasuna ere argi eta garbi ezartzen zaizkie pertsona horiei. Gizarte- eta hezkuntza-zereginen eskaria soilik da handiagoa Latinoamerikako pertsonen artean, bai eta tratamendu anbulatorioa ere, nahiz eta kasu honetan guztira 5 neurri baino ez dituzten hartzen 2019an.

3.2.5 Neurri irmoen eskaria, "delitu-egitateak" aldagaiaren arabera

Zehaztu beharra dago, adingabeen artean ohikoa den moduan, zehazten diren delitu-egitateak askotarikoak direla; horrek esan nahi du neurri batean mugatu behar direla aurkitzen ditugun egitate guztiak. Ondorioz, gutxienez % 10eko ehunekoarekin egin diren delitu-egitateei buruzko informazioa jaso dugu. "Beste batzuk" kategoria



guztizkoaren % 35 izan da, eta haren zigor-erantzuna, gehienbat, ingurune irekian betetzeko neurriak izan dira (% 72).

Lehenik eta behin, ikusten dugu hezkuntza-zentroetan betetzeko neurriak, "Beste delitu batzuk" atala alde batera utzita, batez ere indarkeriaz eta/edo larderiaz egindako lapurreta-delituei aplikatzen zaizkiela (% 25), eta, ondoren, familia-indarkeriari eta indarrez egindako lapurretari (% 13 eta % 12, hurrenez hurren). Ingurune irekiko betetze-neurriei dagokienez, ehunekoak banatuagoak daude: ebasketa da nagusi (% 17), eta ondoren, familia-indarkeria eta lesioak (% 14, hurrenez hurren). Indarkeriaz eta/edo larderiaz egindako lapurretak % 11 dira neurri-multzo honetan.

3.2.6 EAEko eta beste autonomia-erkidego batzuetako neurri irmoen eskaria

Beste autonomia-erkidego batzuetako epaitegiei buruzko neurriak alde batera utzita (% 4 baino ez dira), lehenik eta behin ikus dezakegu Bilboko 1 zenbakiko Adingabeen Epaitegiak eskatu dituela neurri gehien 2019an (% 28), eta, ondoren, Gasteizkoak, Donostiakoak eta Bilboko 2 zenbakikoak, oso antzeko datuekin: % 23 dira lehenengo biak eta % 22 azkena. Aurrekoaz gain, hezkuntza-zentroan betetzeko neurriak eta ingurune irekian betetzeko neurriak kontuan hartzen baditugu, Gasteizko eta Donostiako Adingabeen Epaitegiek eskatzen dituzte gehien ingurune irekian betetzeko neurriak (% 80 eta % 74, hurrenez hurren). Bilboko 2 zenbakiko Epaitegia da EAEko Adingabeen Epaitegi guztien artean hezkuntza-zentroan betetzeko neurrien eskari gehien egiten duena.

Bestalde, adingabeen epaitegi bakoitza labur aztertuta, Bilboko 1 zenbakiko epaitegiak zaintzapeko askatasuna, barneratzea eta gizartearentzako lanak ezarri ditu gehienbat (% 86), ordena horretan. Gasteizek zaintzapeko askatasuna, gizartearentzako lanak eta barneratzea (% 77) ezarri ditu. Donostiako Adingabeen Epaitegiak ordena berean ezarri ditu aurreko hiru neurriak, % 80an, eta, azkenik, Bilboko 2 zenbakiko Epaitegiak zaintzapeko askatasuna eta barneratzea ezarri ditu, % 79an. Epaitegi honetan gizartearentzako lanak gutxi batzuk baino ez dira. Neurri irmoen eskariaren mota



3.2.6.1 Zaintzapeko askatasuna

Lehenik eta behin, zaintzapeko askatasunerako 387 neurri dauzkagula esan dezakegu. Neurri horien iraupen ohikoena 91 eta 180 egun artekoa da (% 39), eta, ondoren, 181 eta 270 egun artekoa (% 22). % 11k soilik gainditzen du urtebeteko iraupena.

Epaitegiei dagokienez, neurri hori nahiko modu homogeneoan banatzen da, eta Bilboko 1 zenbakiko Epaitegia nabarmentzen da, % 31rekin.

Azkenik, neurriaren banaketari dagokionez, sexuaren aldagaia kontuan hartuta, nesken ehunekoa nahiko altua da (% 21), eta neurri guztietan nesken ehunekoaren batezbesteko orokorra gainditzen du. Donostiako Epaitegia da neurri horretan nesken ehunekorik handiena duena (% 25).

3.2.6.2 Barneratzeak³⁶

2019. urtean barneratze-neurriak ezartzeko 194 eskari aurkeztu dira, eta, hala, 2018ko datuekin alderatuta, 30 neurri gehiago dira. Neurri gehienek (% 53) sei hilabete eta urtebete arteko iraupena izan dute, ikus daitekeen bezala. 194 neurri horietatik bakar batek hiru hilabetetik beherako denbora izan du, eta oso iraupen luzekoak, urte eta erdi baino gehiagokoak, barneratze-neurri guztien % 9 dira (194etatik 17). Neurriak epaitegien artean duen banaketari dagokionez, Bilboko 1 zenbakiko eta Bilboko 2 zenbakiko Epaitegiek ezartzen dute gehien (% 61), eta, ondoren, Donostiako Adingabeen Epaitegiak (% 21). Neurri hori, argi eta garbi, mutilei ezartzen zaie gehienbat (guztizkoaren % 10 baino ez da neskena, nahiz eta adierazten dugun 2018an ehuneko hori % 7,5ekoa izan zela). Azkenik, ehunekoak antzera banatzen dira epaitegi guztien artean, Gasteizko Epaitegian izan ezik, bertan barneratze-neurrien % 23 neskek hartzen baitute.

3.2.6.3 Gizartearentzako lanak

Iraupena orduka adierazita duen neurri bakarra da, eta gehienek (% 71) gehienez 40 orduko iraupena dute. Epaitegien araberrako banaketari dagokionez, Gasteizkoak % 36an ezartzen du, eta, ondoren, Donostiakoak, % 30ean. Deigarria da

³⁶ Barneratze-neurri osoari buruzko informazioa jasotzen da, zentroko betetze-fasea eta ingurune irekiko betetze-fasea (zaintzapeko askatasuna) kontuan hartu gabe.



Bilboko 2 zenbakiko Epaitegiak 11 aldiz bakarrik ezarri izana. Sexuaren aldagaia aztertuz gero, esan behar dugu gizartearentzako lanak neskei maiz ezartzen zaizkien neurriak direla (% 22). Epaitegiek neurri horien gainean egiten duten ezarpenari erreparatzen badiogu, guztiek dute proportzio handi samarra, Donostiakoak izan ezik, han mota horretako hamar neurritatik bat baino ez baitzaie ezartzen neskei.

3.2.6.4 Gizarte- eta hezkuntza-zereginak

Neurri horien % 39k hiru eta sei hilabete arteko iraupena izan dute, eta beste % 23k sei eta bederatzik hilabete artekoa. Neurrien % 16k bederatzik hilabetetik gorako iraupena dute. Halaber, ikusten dugu Gasteizko Adingabeen Epaitegiak egiten duela eskari gehien (% 36), Bilboko 1 zenbakiko Epaitegiak baino gehiago (% 30). Donostiako Epaitegia % 14 baino ez da neurri horretan. Sexu-aldagaiaren arabera eskaria aztertuta, neurri horren ezarpena nabarmen handiagoa da mutilen artean (% 93, nesken % 7aren aldean). Epaitegien arabera banaketa aztertuz gero, nesken ehunekoak oso txikiak dira (gizarte- eta hezkuntza-zereginen neurria ezarri zaien lau neskak ekitatez banatuta daude EAEko Adingabeen Epaitegi bakoitzean).

3.2.6.5 Eguneko zentrora joatea

Eguneko zentrora joateko neurriak erreparatuz gero, guztira 42 ezarri dira 2019an. Neurri horien % 52k sei hilabetetik beherako iraupena dute, eta horietatik hiruk soilik dute 10 hilabetetik gorako iraupena. Gainera, nabarmentzekoa da gehien-gehien gizonezkoek aplikatzen zaien neurria dela, oraingoan ere (% 93). Horietatik 3 bakarrik ezarri zaizkie neskei (bat Gasteizko Adingabeen Epaitegian eta beste bi Bilboko 2 zenbakiko Epaitegian). Azkenik, datuek erakusten dute Donostiako Adingabeen Epaitegiak egiten duela eskaera gehien (% 38), eta, ondoren, Gasteizek (% 31). Bilboko 2 zenbakiko Epaitegiak % 24 ordezkatzen du eta Bilboko 1 zenbakiko Epaitegiak % 5.

3.2.6.6 Asteburuko egonaldia

Asteburuan hezkuntza-taldean egoteko neurria asteburu kopuruaren arabera neurtzen da, eta ez egun kopuruaren arabera. Neurri horrek beherakada handia izan du 2018. urtearekin alderatuta; izan ere, 2019an 37 aldiz eskatu da, aurreko urtean baino 65 aldiz gutxiago (28 neurri gutxiago). Horietatik % 32k oso iraupen laburra dute (1-2 asteburu), eta % 22k 7 asteburutik gorako iraupena dute. Sexuaren arabera



banaketari dagokionez, gehienbat gizonezkoei aplikatzen zaiela ikusten da (% 92). Neskei hiru neurri baino ez zaizkie ezarri (epaitegi bakoitzean bat, Bilboko 2 zenbakiko Epaitegian izan ezik). Azkenik, Donostiako eta Bilboko 1 zenbakiko Adingabeen Epaitegiek ezartzen dute neurri horren gehiengoa (% 70). Gainerakoa ia modu paretsuan banatzen da Bilboko 2 zenbakiko Epaitegiaren eta Gasteizko Epaitegiaren artean.

3.2.6.7 Tratamendu anbulatorioa

Azkenik, tratamendu anbulatorioaren neurriari dagokionez, konturen bat aipatuko dugu, baina horrelako neurri gutxi daudenez (11 baino ez daude), azpimarratzekoa da horietako gehienek (hamaiketatik zazpik) bost eta hamar hilabete arteko iraupena izan dutela. Bi bakarrik gailendu dira hamabost hilabetetik gorako denborarekin. Bestalde, argi eta garbi mutilei eskatu zaien neurria da (2019an neska bakar bati jarri zaio). Eta, azkenik, epaitegien banaketari dagokionez, batez ere Gasteizko eta Donostiako Adingabeen Epaitegietan ezarritako neurria izan da (horietako bakoitzean lau). Bilboko 1 zenbakiko Epaitegiak bi neurri gehiago eskatu ditu eta Bilboko 2 zenbakiko Epaitegiak bat.

3.2.6.8 Hezkuntza-taldearen barruko bizikidetzak

Hezkuntza-taldearekiko bizikidetzaren neurria oso gutxitan ezarri da, oraingoz, EAEko adingabeen epaitegietan. Urte osoan 9 neurri baino ez dira izan, eta horietako zazpik sei hilabete eta urtebete arteko iraupena izan dute. Sexuaren araberako banaketari dagokionez, zazpi mutilei ezarri zaizkie eta 2 neskei. Horietako lau Bilboko 2 zenbakiko Adingabeen Epaitegiak ezarri ditu, beste hiru Gasteizek eta beste bi beste autonomia-erkidego batzuetako adingabeen epaitegietan ezarri dira. Neurri horietako bakarrak izan du urtebetetik gorako iraupena; ohikoena da neurri horiek 6 hilabete eta urtebete arteko iraupena izatea.

3.3 Delitu-egitateak

3.3.1 Neurri irmoa jaso duten delitu-egitateak

Lehenik eta behin, lehen aipatu dugun bezala, adingabeen kasuan ohikoa da askotariko delitu-egitateak egitea; beraz, azterketa errazteko, gutxienez % 10eko ehunekoarekin egin diren delitu-egitatei buruzko informazioa jaso dugu, eta horrek



esan nahi du "beste batzuk" kategoriaren ehunekoa % 35ekoa dela. Nolanahi ere, ikusten da ez dagoela ehuneko oso alturik; izan ere, indarkeriaz eta/edo larderiak egindako lapurretak (delitu nagusia) % 15 du.

Bigarrenik, bost delitu-egitate ohikoenak honako hauek izan dira (ordena honetan): indarkeria edo larderia erabiliz egindako lapurreta, ebasketa, familia-indarkeria, lesioak eta indarra erabiliz egindako lapurreta. Gertakari horiek guztiak azken urteotan agertu dira nagusiki. Aparteko aipamena egin behar zaio familia-indarkeriaren delituari. Urtez urte, gorakada ez da oso handia izan, baina bai jarraitua. Aurten, hirugarren delitu ohikoena da, % 14koa (2017an % 9,4 zen, eta 2018an % 8).

Dagoeneko aurreratu dugun bezala, indarkeria edo larderia erabiliz egindako lapurretak izan dira, berriz ere, gehienak: guztirakoaren % 15 (888tik 130). Zigor-arloko erantzuna % 54an erregimen irekiko neurrietan oinarritzen da (neurri ohikoena zaintzapeko askatasuna da), baina guztizko kopuruetan, neurri ohikoena zentroetako barneratzea da.

Jarraian, ebasketak delitu guztien % 14 dira (888 horietatik 125), eta horien neurriak ingurune irekian betetzekoak dira argi eta garbi (% 88), batez ere gizartearentzako lanak eta zaintzapeko askatasuna.

Delitu-egitate ohikoenen artean hirugarrena familia-indarkeria da (888tik 121), guztirakoaren % 14 baita. Erantzun penala, batez ere, ingurune irekian betetzeko neurrietan oinarritzen da (% 74), bereziki zaintzapeko askatasunean; ondoren, barneratze-neurriak daude, baina alde nahikoarekin.

Lesioek (% 12, 888 horietatik 108) zigor-erantzun argia dute, batez ere ingurune irekiko neurrietan (% 87). Horien artean, zaintzapeko askatasuna eta gizartearentzako lanak nabarmentzen dira. Azkenik, indarra erabiliz egindako lapurretak izan dira bosgarren delitu nagusia (% 10), eta horietan batez ere ingurune irekiko neurriak aplikatu dira (% 72). Nolanahi ere, zenbakizko datuei erreparatzen badiegu, zaintzapeko askatasunerako eta zentroetan barneratzeko neurrien kopuru bera aplikatu da.



3.3.2 Neurri irmoak jaso dituzten delitu-egitateak, "sexua" aldagaiaren arabera

Neurri irmo guztietatik, 16 neskei aplikatu zaizkie, baina ehuneko hori 10era jaisten da hezkuntza-zentroan betetzeko neurrien taldean, eta % 19ra igotzen da ingurune irekian betetzeko neurrien taldean.

Oro har, "Beste batzuk" atala kontuan hartu gabe, neurriak ezarri zaizkie indarkeriaz edota larderiaz egindako lapurretak eta indarrez egindako lapurretak egiten dituzten mutilei (% 93, hurrenez hurren); ondoren datoz lesioak (% 80), ebasketak (% 74) eta, azkenik, familia-indarkeria (% 69). Bestalde, neskei ezarri zaizkien neurriak honako hauek izan dira: lehenik, familia-indarkeriarekin lotutako delituak (% 31), ondoren ebasketak (% 26) eta, jarraian, lesioak (% 20). Indarkeriaz eta/edo larderiaz egindako lapurretak eta indarrez egindako lapurretak oso gutxi dira (% 7, hurrenez hurren).

Hezkuntza-zentroan betetzeko neurrien taldea aztertuta, ikusten dugu neskek egindako delitu-egitateei ematen zaien erantzun penal hori ez dela ia kasu batean ere % 10etik gorakoa, familia-indarkerian izan ezik; izan ere, familia-indarkeriako delitu batengatik kondenatuak izan diren pertsonen hezkuntza-zentroan betetzeko ezarri zaizkien 32 neurrietatik 10 (% 31) neskenak dira. Ingurune irekian betetzeko neurrien taldean, ordea, nesken presentzia orekatuagoa da delitu guztien artean; nolana ere, oso txikia da indarkeriaz eta/edo larderiaz egindako lapurretetan eta indarrez egindako lapurretetan.

3.3.3 Neurri irmoak jaso dituzte delitu-egitateak "jaioterria" aldagaiaren arabera

Jaioterriari dagokionez, neurri irmo guztien % 41 atzerritarrei aplikatu zaie, baina ehuneko hori % 52ra igo da hezkuntza-zentroan betetzeko neurrien taldean, eta % 37ra jaitsi da ingurune irekian betetzeko neurrien taldean.

Oro har, "Beste batzuk" atala kontuan hartu gabe, neurriak ezarri zaizkie EAEn edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaio eta familia-indarkeriako delituak egiten dituzten pertsonen (% 74), eta, ondoren, lesioen (% 64) eta indarrez egindako lapurreten (% 60) delituak egin dituztenei. Indarkeriaz eta/edo larderiaz egindako lapurretak eta ebasketak % 56 dira, hurrenez hurren. Bestalde, atzerritarrei ezarri zaizkien neurriak indarkeria eta/edo larderia bidezko lapurretak eta ebasketak izan dira (% 44, hurrenez



hurren), ondoren indarra erabiliz egindako lapurretak (% 40) eta lesioak (% 36). Familia-indarkeriak % 26 ordezkatzeko du.

Hezkuntza-zentroan betetzeko neurrien multzoa aztertuta, besteen atala kontuan hartu gabe, ikusten dugu atzerritarrek egindako delitu-egitateei ematen zaien erantzun penal hori nagusi dela ebasketa, lesio eta indarrezko lapurreten delituetan. Ingurune irekian betetzeko neurrien taldean, ordea, delitu-egitateerik ez da nagusi atzerritarren taldean.

3.4 Adingabe arau-hausleak

3.4.1 Delitu-jarduera

Justizia Zuzendaritzan 2019. urtean jasotako jarduera aztertzean, halaber, nabarmentzekoa da guztizko kopuru hau: hezkuntza-neurriak ezarri zitzaizkien neska-mutilena. Orain arte, EAEko adingabeen epaitegiek edo beste autonomia-erkidego batzuek egindako neurrien eskariari buruzko informazioa aurkeztu da, baina atal honetan lehen aipatutako adingabeen epaitegietako neurrien eskariaren xede diren arau-hausle adingabeei buruzko datuak ematen dira.

Taulan ikusten den bezala, guztira 969 neurri ezarri zaizkie (irmoak eta kautelazkoak) 588 neska-mutili.

Aipatu 588 pertsonen artean, 510i (% 87) neurri irmoak bakarrik ezarri zaizkie (guztira, 779 neurri irmo), 27 pertsonari (% 5) kautela-neurriak bakarrik ezarri zaizkie (guztira, 27 kautela-neurri) eta, azkenik, 51 adingaberi (guztira, % 8) neurri irmoak nahiz kautelazkoak jarri zaizkie (guztira, 109 neurri irmo eta 54 kautela-neurri).

Beraz, datu orokorrak kontuan hartuta (neurri irmoak zein kautelazkoak), adingabe bakoitzak 1,6 neurri izan ditu. Datu hori egia bada ere, are zehatzagoa izan dadin, alde batera utziko ditugu kautela-neurriak ezarri zaizkien adingabeak. Hau da, neurri irmoak baino ez dituzten neska-mutilak soilik hartuko dira kontuan. Horrela, 2019. urtean, adingabe bakoitzari ezarritako neurrien proportzioa 1,5 da.



58. taula. 2019. urtean neurriak eskatu zaizkien adingabeen kopurua. Egilea: KREI. Iturria: Justizia Zuzendaritza.

	PERTSONA EZBERDINEN KOPURUA	NEURRI kopuruA
IRMOAK soilik	510	779
KAUTELAZKOAK soilik	27	27
Irmoak + kautelazkoak	51	109+54.
GUZTIRA	588	969

Adingabe bakoitzak metatzen dituen neurrien kopuruari dagokionez, neurri irmoetan soilik jarriko dugu arreta. Horrela, pertsona gehienek hezkuntza-neurri bakarra dutela ikus dezakegu (396 subjektu, % 71). Bestalde, 95 adingabek (% 17) bi hezkuntza-neurri izan dituzte. Hiru hezkuntza-neurri izan dituzten adingabeen kopurua % 6ra jaitsi da (35 neska-mutil, 561etik). Eta, azkenik, lau hezkuntza-neurri edo gehiago ezarri zaizkien adingabeak guztien % 6 izan dira (beste 35 pertsona). Hala ere, azpimarratu behar da 35 neska-mutil horiek guztizkoaren 197 neurri metatzen dituztela, hau da, 2019an eskatutako neurri irmoen % 22.



59. taula. Neurri irmoen kopurua adingabe desberdinengan. Egilea: KREI. Iturria: Justizia Zuzendaritza.

Neurri kopurua	Neurri irmoak jaso dituzten adingabeak		Neurriak, guztira	
1	396	% 71	396	% 45
2	95	% 17	190	% 21
3	35	% 6	105	% 12
4	12		48	
5	12		60	
6	1		6	
7	3	% 6	21	% 22
8	3		24	
9	2		18	
10	2		20	
1-10	561		888	

3.4.2 Profil psikosoziala³⁷

Adingabe arau-hausleen profil psikosozialari buruz jarraian aipatuko ditugun datuak 2019. urtean talde psikosozialek egindako aholkularitza-txosten psikosozialetatik lortutako informazioari dagozkio. Garrantzitsua da zehaztea 2019an neurri bat baino gehiago izan duten neska-mutilei aurreko txostenak eguneratu dizkietela talde psikosozialek. Hori dela eta, aurreko urtean neurri bat eskatu zaien adingabeen profil psikosoziala lortze aldera, eskuragarri dauden txostenetako bat baino ez da hautatu (zehazki, aztertutako pertsonari buruzko informazio gehien zuena eta berriena zena). Era berean, kontuan izan behar da kautela-neurriak zituzten

³⁷ Ohartarazi nahi dugu puntu horri buruzko informazioa 534 txosten psikosozialetatik baino ez dela lortu.



adingabeei, memoria hau prestatzeko unean, ez zitzaiera oraindik txosten psikosozialik egin. Horrela, atal hau egiteko, 2019. urtean neurri bat ezarri zaien neska-mutil desberdinei buruzko 534 txosten psikosozialen lagina hartu da kontuan.

Sexua kontuan hartuta, 431 gizonetzkoak dira (% 81), eta 103 emakumezkoak (% 19). Gehienak EAEn jaiotakoak dira (313 pertsona), eta 35 pertsona beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotakoak. Denak batuta, % 65 dira Espainian jaiotako neska-mutilak. Beraz, % 35 atzerritarak dira, gehienak Magrebeko herrialdeetakoak eta, gero, Hego Amerikakoak. Garrantzitsutzat jotzen dugun datu bat, aurreko urtean jasotzen hasi ginena, adoptatutako pertsonen kopurua da: 20 pertsona (14 mutil eta 6 neska), guztien % 4 (iaz % 2,4 izan ziren). Aurreko txostenean esan genuen bezala, gai hori aztertzen jarraituko dugu hurrengo ebaluazioetan.

Egoera zibilar dagokionez, zortzi pertsona bakarrik zeuden ezkondata elizan edo ijitoen errituan, hau da, guztien % 1,5. Eta seme-alaben kopuruarekin datu antzekoa lortu da. Pertsona guztien % 1,7k izan du seme-alabaren bat edo haurdun egon da (edo haurdun du bikotekidea).

Bizikidetza-nukleoa aztertuz gero, esan dugun bezala, talde psikosozialarekin elkarrizketa egin zen unean lortu zen informazioa eta, hori kontuan hartuta, % 57 jatorrizko familiarekin bizi dira, eta % 22 babes-zentro batean bizi dira. Era berean, 62 adingabe Gazte Justiziako zentro batean zeuden (guztien % 12). Gainerako aukerak (familia zabala, harrera-familia, etab.) oso ehuneko txikiak izan dituzte.

Mutilen eta nesken familien maila sozioekonomikoari buruzko aldagaiak aztertuta, ikusten da kasuen % 71n ez dugula aldagai horri buruzko informaziorik, talde psikosozialen txostenetan ez delako informazio hori jaso. Nolanahi ere, informazio hori jaso dugun neska-mutilei dagokienez, mutilen eta nesken familien % 41 laguntza publikoetatik soilik bizi dira, gurasoen % 36k modu egonkorrean lan egiten dute eta % 23k modu prekarioan (nahiz eta, kasu batzuetan, laguntza publikoak ere jasotzen dituzten). Etxebizitza berean bizi diren pertsonen kopuruari dagokionez, berriz ere espedienteen % 47tan informazio hori falta da. Gainerakoan, % 43 lau edo bost pertsonako bizikidetza-unitateek osatzen dute, % 41 hiru pertsonako edo gutxiagoko bizikidetza-unitateek, eta beste % 15 bost pertsonatik gorakoek.

Familiari buruzko aldagairen bat gehiago aztertuz gero, ikusten da familien % 10ak espezialista batek behar bezala diagnostikatutako arazo fisikoren bat dutela, eta



beste % 10ak osasun mentalari lotutako problematikaren diagnostiko bat dutela (534 pertsonatik soilik 9k dituzte bi arazo horiek). Familia-kriminalitateari dagokionez, halakotzat hartuta espetxeratzea eragin duen deliturik egin izana, adibidez, aldagai hori familien % 17an ikusten da. Halaber, kasu guztien % 13an toxikomania-arazoak daude.

Azkenik, alderdi azpimarragarri batzuk daude: gurasoek etxean indarkeria erabili izana, nahiz eta, zorionez, neska-mutilen % 7k soilik ikusi dituzten beren etxean indarkeriazko gertaerak noizean behin edo modu kroniko edo larrian, bai eta adingabeek edo haien zuzeneko familiek gizarte-zerbitzuak erabili izana ere, horien ehunekoa % 70era iristen baita.

Aztertutako esku-hartze judizial eta hezitzailearen aurrean neska-mutilek izan duten jarrerari dagokionez, ikusten dugu % 61ak jarrera positiboa izan dutela a priori, % 8k ez dutela esku hartzeko premiarik ikusten, eta kasuen % 31n ez dela informazio hori agertzen.

Nesken eta mutilen eboluzio-etapa honetan aztertzeko aldagai garrantzitsu bat inpultsibitatea da. Aztertutako adingabeen % 52k arriskuak hartzeko edo inpultsibitaterako jokabide nabarmenak dituzte, araurik eta kontrolik ezari berezko zaizkionak; % 4k halako portaera txikiak edo garrantzi txikikoak dituzte, adinari dagozkionak, edo ez dute arazorik arlo horretan, txostenean berariaz jasotzen denez. Gainerako % 44ak ez du informazio hori jasotzen bere txostenean.

Loturak hausteari buruzko kontuei dagokienez, lehenik eta behin ikusten da aztertutako adingabeen % 9k ama, aita edo bi gurasoak galdu dituztela. Aipatzekoa da, era berean, ebaluatutako pertsonen % 51 bikote bereizien seme-alabak direla.

Interesgarriak dira, azkenik, familia-arretarik ezari buruzko datuak; izan ere, mutilen eta nesken % 45ak amaren (% 4), aitaren (% 9) edo bi gurasoen (% 32) arreta-falta handia jasan dute edo pairatzen du. Adingabeen % 14k argi eta garbi ez dute gabeziarik alde horretatik, eta gainerako % 41ean ez da informazio hori jasotzen; beraz, pentsatzekoa da ez dutela alderdi horri lotutako gabeziarik.

Arestian azaldutako guztiaz gainera, gurasoen kontrola funtsezko elementua da aztergai diren neska-mutilen artean. Eskura dugun informazioaren arabera, % 32k argi eta garbi ez dute gurasoen inolako kontrolik, eta % 27k ere ez dute kontrol zorrotzik, baina gurasoek, gutxienez, kontrolatzeko ahalegin batzuk egiten dituzte. Adingabeen



% 19k gurasoen kontrola apur bat dute, baina koherentziarik gabeko kontrola (hau da, gurasoek ez dute irizpide bera, edo gertaera berean erantzun desberdinak ematen dituzte), eta % 15ek soilik dute gurasoen kontrola, ohikotasunez eta etengabe.

Beste aldagai batzuk ere aztertu ditugu, neska-mutilek kontsumitzen dituzten toxikoen aldagaia, adibidez; kasu horretan, % 56k diote ohikotasunez kontsumitzen dituela toxikoak, kontsumo horrek eragin desberdina badu ere haien eguneroko bizitzan. Dena den, kasuen % 40an ez daukagu horri buruzko informaziorik.

Era berean, garrantzitsua da jakitea adingabeen artean osasun mentalari lotutako arazorik dagoen: % 47k dute osasun mentaleko espezialista batek behar bezala egindako diagnostikoren bat edo beren bizitzako unereren batean osasun mentaleko espezialista batengana jo dute.

Eskola-maila aztertuta, adingabeen % 45ek lehen hezkuntza gainditu dute (238 pertsona); % 17k, DBHko 1. zikloa (89 pertsona), eta % 9k, DBHko 2. zikloa (49 pertsona). % 1ek bigarren hezkuntza gaindituta dauka (4 pertsona), eta beste % 1 (4 pertsona) analfabetoa da edo irakurtzen eta idazten baino ez daki, eta haur-hezkuntza egin du. Nabarmentzekoa da, alabaina, ez daukagula % 27aren gaineko informaziorik (150 pertsona).

Txosten psikosoziala egiteko unean egiten ari ziren ikasketak sakonago aztertuz gero, ikusten dugu % 31 enplegurako prestakuntza egiten ari zirela (LHI, HLPP, etab.), bai eta erdi-mailako edo goi-mailako prestakuntza-moduluak ere (164 pertsona), eta % 23 DBHn edo Batxilergoan zeudela (124 pertsona). Hala ere, datu kezkarri gisa adierazi behar dugu % 38 eskolatu gabe zeudela (203 pertsona). 43 pertsonaren kasuan, ez daukagu informazio hori (% 8).

Amaitzeko, beste aldagai sozialago batzuk aztertu dira, hala nola berdinkideen taldea, bikotekidea edo aisialdi antolatua. Bada, berdinkideen taldeari dagokionez arrisku-aldagaiak aurkitu dira; izan ere, erdiek baino gehiagok (% 54k, 286 pertsona) adierazi dute gizarte-arriskuko egoeran dauden lagunak dituztela, eta % 59k (313 pertsona) adierazi dute ez dutela egiten aisialdi antolatuko inolako jarduerarik (kirolen bat edo jolas- eta musika-jardueraren bat). Bikotekideari dagokionez, soilik adingabeen % 4k adierazi dute arrisku-bikotekidea dutela.



3.5 Neurriak betearazteko baliabideak: Egoitza-zerbitzuak eta ingurune irekiko zerbitzuak.

Adingabeen jurisdikzioan ezarritako neurriak betearazteko, edozein nerabek edo gaztek gure erkidegoan eskura dituen baliabide ia guztiak erabiltzen dira. Hezkuntza-sareko zerbitzuez dihardugu, osasun-zerbitzuez, enplegura jotzeko zerbitzuez, enplegu-zerbitzuez, prestakuntza, aisia eta denbora sozialen zerbitzuez, haurrak babesteko zerbitzu eta programez, eta abar. Zerbitzu komun horiez gainera, Euskal Autonomia Erkidegoan badaude berariazko baliabide batzuk, neurri judizialak betetzeko. Horiek, eskematikoki, bi kategoriatan azpisailka ditzakegu:

- A. Egoitza-zerbitzuak = Gazte Justiziako hezkuntza-zentroen sarea.
- B. Ingurune irekiko zerbitzuak.

3.5.1 Egoitza-zerbitzuak

Gazte Justiziako hezkuntza-zentroen sarean zentro espezifikokoak daude, langile espezializatuekin, eta arau-hausle adingabeak hartzen dituzte, honelako neurri irmo edo kautelazkoren bat bete behar dutenean: barneratzea –nolanahikoa dela ere erregimena–, asteburuko egonaldiak, eta, salbuespen modura, hezkuntza-taldearekiko bizikidetza.



6o. taula. Gazte Justiziako hezkuntza-zentroen sarea 2019an. Egilea: KREI. Iturria: Justizia Zuzendaritza.

MAILA	ZENTROA	PLAZA LIBREAK
I	IBAIONDO Hezkuntza Zentroa (mutilak)	39
II.	URIBARRI Hezkuntza Zentroa (mutilak)	18
	URGOZO Hezkuntza Zentroa (mutilak)	12
	ANDOIU/GORBEIA Hezkuntza Zentroa (mistoa)	16
	TXEMA FÍNEZ Hezkuntza Zentroa (mutilak)	28
	ARRATIA Hezkuntza Zentroa (mistoa)	20
III.	BILBOko Autonomia Egoitza (mistoa)	6
PLAZAK, GUZTIRA		139

Indarreko araudian ezarritakoarekin bat etorrituz, zentro horiek hiru mailatan sailkatzen dira: I, II eta III. Modu sinplifikatuan esan dezakegu I. mailako zentroak erantzukizun eta kudeaketa publikoko zentroak direla eta, haietan, eskubideen neurri murriztaileenak eta luzeenak betetzen direla. 2019an, 39 plaza egon dira erabilgarri. II. mailakoak erantzukizun eta kudeaketa publikokoak dira, irabazi-asmorik gabeko erakunde batekin itunduta daudenak, tamaina txikikoak: erregimen erdi-irekiko eta irekiko neurriak betetzen dira, edo erregimen itxian, laburrak badira. 2019an, maila horretan 94 plaza egon dira erabilgarri. III. mailakoak, «autonomia-egoitzak», oso tamaina txikikoak dira, gehienez 6 plazakoak, erkidegoan erabat integratuta, erregimen irekiko edo erdi-irekiko azken barneratze-faseak betetzeko.



61. taula. Gazte Justiziako hezkuntza-zentroetako plantilla 2019an. Egilea: KREI. Iturria: Justiziako Zuzendaritza.

ZENTROA	Zuzendaritza / Administrazioa	Koordinatzaile ak eta teknikariak	Hezitzaileak	Maisu- maistrak	Zerbitzuak
IBAIONDO HZ	5	9	50	13	1
URIBARRI HZ	1	4	21	4	2
URGOZO HZ	1	2	15	3	----
ANDOIU/GORBEIA HZ	1	3	20	3	2
TXEMA FÍNEZ	1	4	31	3	1
ARRATIA	1	4	23	3	2
BILBOKO AUTONOMIA EGOITZA	----	1	7	----	----
GUZTIRA:	10	27	167	29	8

Ikusten den moduan, Gazte Justiziako hezkuntza-zentroetan lan egiten duten pertsona gehienak hezitzaileak dira. Pertsona horiek, txandaka, zentroko mutilekin eta neskekin bizi dira urteko 365 egunetan, eguneko 24 orduetan, «eguneroko bizitzarako» espazio deitzen duten eremuan. 2019an zehar, 167 pertsona egon dira plantillan. Bigarren taldea (29 pertsona) «ikasgela» eta «tailerrez» arduratzen diren pertsonak osatzen dute, alegia, zentroko prestakuntzaz arduratzen direnak. Hirugarren taldekoek koordinazio-funtzioak betetzen dituzte: eguneroko bizitzako taldeak eta esku-hartze soziofamiliarreko eta psikologikoko arloetan esku hartzen duten teknikariak ere hartzen dituzte (27 pertsona). Azkenik, zerbitzu eta administrazioko funtzioak betetzen dituztenak daude (18 pertsona).

Zuzenean diharduten langileez gainera, I. eta II. mailako zentro batzuek segurtasuneko langileak dituzte, hezkuntza-taldeei laguntza emateko.



3.5.2 Ingurune irekiko zerbitzuak

Zerbitzu horien barruan, eguneko zentroak daude (eguneko zentroetara joateko neurriak betetzeko) eta ingurune irekiko taldeak (neurri hauek betearazteko: zaintzapeko askatasunak, gizarte- eta hezkuntza-zereginak, gizartearentzako lanak, tratamendu ambulatorioak eta asteburuak etxean ematea).

EAEko eguneko zentroen sareak 48 plaza izan zituen 2019. urtean: 22 plaza Zabali eguneko zentroan (Bizkaia), 18 plaza Ireki eguneko zentroan (Gipuzkoa) eta, azkenik, 8 plaza Uribarri eguneko zentroan (Araba).

62. taula. 2019. urtean eguneko zentroetan arreta jaso zuten pertsonak. Egilea: KREI. Iturria: Justizia Zuzendaritza.

ZERBITZUAK	Arreta jaso dutenak (mistoa)
ZABALIK EGUNEKO ZENTROA (BIZKAIA)	22
IREKI EGUNEKO ZENTROA (GIPUZKOA)	18
URIBARRI EGUNEKO ZENTROA (ARABA)	8
<i>Plazak, guztira</i>	48

Plantillari dagokionez, hurrengo taulan ikusten da Bizkaian guztira 8 profesional daudela eta Gipuzkoan beste 6 pertsona. Uribarri eguneko zentroko langileak ez dira taulan agertzen, Uribarri Hezkuntza Zentroko langileen artean baitaude.



63. taula. Eguneko zentroetako plantilla 2019an. Egilea: KREI. Iturria: Justizia Zuzendaritza.

LANGILEAK	Zerbitzuko arduraduna	Tailerreko maisu-maistrak	Hezitzaileak	GUZTIRA
ZABALIK (BIZKAIA)	1	2	5	8
IREKI (GIPUZKOA)	1	1	4	6
URIBARRI (ARABA) ³⁸	----	----	----	----

Ingurune irekiko zerbitzuetan hezitzaileek eta zerbitzu-arduradunek baino ez dute lan egiten. Pertsona horiek arduratzen dira zuzenean ingurune irekiko neurriak betearazteaz, neska-mutil bakoitzarekiko eta haren inguruarekiko hezkuntza-harreman pertsonalaren bidez. Zerbitzu horien kudeaketa irabazi-asmorik gabeko elkarteekin dago hitzartuta. Bizkaian 16 pertsona ditugu, Gipuzkoan 8 eta, azkenik, Araban 5.

64. taula. Ingurune irekiko zerbitzuetako plantilla 2019an. Egilea: KREI. Iturria: Justizia Zuzendaritza.

ZERBITZUAK	Langileak
BIZKAIKO INGURUNE IREKIA	16
GIPUZKOAKO INGURUNE IREKIA	8
ARABAKO INGURUNE IREKIA	5

³⁸ Uribarri eguneko zentroko plantilla Uribarri Hezkuntza Zentroan dago sartuta.



3.6 Ondorioak

4.6.1 Neurri irmoak eta kautelazkoak: Alderdi orokorrak

- ✓ 969 neurri betearaztea eskatu da. Haietatik, 81 (% 8) kautela-neurriak izan dira eta 888 (% 92) irmoak.
- ✓ % 69 ingurune irekian betetzeko neurriak dira (699) eta % 31 hezkuntza-zentroan betetzekoak (308).

4.6.1.1 Kautela-neurriak

- ✓ 81 kautela-neurrietatik, 39 zaintzapeko askatasunekoak izan dira (% 48), 36 barneratzekoak (% 45) eta 6 hezkuntza-taldearekiko bizikidetzakoak (% 7).
- ✓ Neurri gehienak gizonezkoei ezarri zitzaizkien (61 neurri, % 75) eta 20 neurri emakumezkoei (% 25).
- ✓ Kautela-neurriak ezarri zaizkien pertsonen nazionalitateari dagokionez, neurrien % 64 EAEn edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotako pertsoneri ezarri zitzaizkien, eta % 36 atzerrian jaiotakoei.

4.6.1.2 Neurri irmoak

- ✓ Ezarri diren 888 neurrien artean, zaintzapeko askatasunaren neurria izan da gehien ezarri dena: 387 neurri (% 44), barneratzeak: 194 neurri (% 22), gizartearentzako lanak: 142 neurri (% 17) eta gizarte- eta hezkuntza-zereginak: 56 neurri (% 6).
- ✓ Gehienak ingurune irekian betetzen dira (648 neurri, % 73), eta 240, berriz, hezkuntza-zentroan (% 27).
- ✓ 145 neurri (% 16) emakumezkoei ezarri zaizkie eta 743 neurri (% 84) gizonezkoei.
- ✓ Neurri irmoak aplikatu zaizkien pertsonen nazionalitatea kontuan hartuta, % 59 EAEn edo estatuko beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotakoak izan dira, eta % 41 atzerrian.
- ✓ Bost delitu-egitate ohikoenak indarkeria eta/edo larderia bidezko lapurreta izan dira (130, % 22), eta haien artean ingurune irekiko neurriak ezarri dira batez



ere (% 54). Bigarrenik, ebasketa egon da (125, % 14), eta kasu horretan ingurune irekian betetzeko neurriak ezarri dira gehienbat (% 88). Jarraian, familia-indarkeria (121, % 14) dago, berriz ere ingurune irekian betetzeko neurriak gailentzen direlarik (% 74). Laugarrenik, lesioak (108, % 12), berriz ere ingurune irekian betetzeko neurriak hartuta gehienetan (% 87). Azkenik, indarra erabiliz egindako lapurretak izan dira nagusi (87, % 10), eta horietan ingurune irekiko neurriak gailendu dira berriz ere (% 66).

- ✓ Bizkaian ezarri dira neurri gehien (% 50), ondoren Araban eta Gipuzkoan (% 23, hurrenez hurren). Halaber, neurrien % 4 beste autonomia-erkidego batzuetako epaitegiek ezarri dituzte.

4.6.2 Adingabe arau-hausleak

- ✓ 969 neurri irmo eta kautelazko ezarri zaizkie 588 neska-mutili, hau da, batez beste 1,6 neurri ezarri da adingabe bakoitzeko.
- ✓ % 71k neurri irmo bakarra izan dute (396 pertsona), % 21ek (95 pertsona) bi hezkuntza-neurri irmo izan dituzte, % 6k (35 kasu) hiru hezkuntza-neurri izan dituzte eta, azkenik, lau neurri edo gehiago izan dituzten neska-mutilak % 6 izan dira (35 pertsona).
- ✓ 2019an neurri gehien ezarri zaizkien neska-mutilen taldeak (% 6) neurri irmo guztien % 22 pilatu du.
- ✓ Adingabe arau-hausleen profil psikosozialari dagokionez³⁹, honako ezaugarri hauek nabarmentzen dira: gehienak mutilak izan dira (% 81), EAEn edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaioak (% 66), jatorrizko familian, familia zabalean edo familia-harreran bizi dira (% 61), gizarte-zerbitzuekin harremana dute edo izan dute (% 70), inpulsibitate-portaera garrantzitsuak dituzte (% 52), gurasoen kontrol eraginkor eta jarraitu eskasa izan dute (% 15ek soilik izan du kontrol hori) eta toxikoak ohikotasunez kontsumitu dituzte, arazoak izateraino batzuetan (% 37). Halaber, % 38 eskolatu gabe egon dira. Adingabeen % 52k arrisku sozialeko portaerak dituzten berdinkideen taldea dute, eta, azkenik, % 59k ez dute aisialdi egituratuko inolako jarduerarik egiten.

³⁹ Ohartarazi nahi dugu puntu horri buruzko informazioa 534 txosten psikosozialetatik baino ez dela lortu.



4.6.3 Neurriak betearazteko baliabideak: Hezkuntza-zentroak

- ✓ Hezkuntza-zentroetan 139 plaza egon ziren. Zentro horietan, guztira, 241 pertsona izan ziren plantillan.

4.6.4 Neurriak betearazteko baliabideak: Ingurune irekiko zerbitzuak

- ✓ Eguneko zentroetan 48 plaza egon ziren.
- ✓ Eguneko zentroetan eta ingurune irekiko taldeetan 43 langile egon dira guztira (nahiz eta Uribarri eguneko zentroko langileak Uribarri Hezkuntza Zentroan sartuta egon).



5 EAE-KO GAZTE JUSTIZIAREN JOERAK

Kontuan hartuta IV. Planaren (2014-2018) ebaluaziotik eta 2019ko neurri-
eskariaren memoriatik ateratako ondorio nagusiak, EAEko gazte-justizian ikusten diren
joera nagusiak honako hauek dira:

- 1.- Neurriak betetzeko eskaria pixka bat igo da.
- 2.- Neskei ezarritako neurrien eskaria egonkortu egin da (% 18-20).
- 3.- Atzerrian jaio diren eta jatorrizko herrialde batzuetan presentzia nabarmena duten
pertsontzako neurrien eskaria handia da.
- 4.- Ingurune irekian esku hartzeko eredua sendotu da.
- 5.- Kontziliazio- eta konponketa-prozesuen ehuneko handi bat (% 30) finkatu da, neurri
irмоen aldean (% 70).
- 6.- Gurasoen eta seme-alaben arteko indarkeria-kasuak igo egin dira. Berariazko
errekurtoak behar dira.
- 7.- Sortzen ari diren arazoak eta finkatuta dauden arazoak:
 - Emakumeen aurkako indarkeria-delituak igo egin dira.
 - Osasun mentaleko arazoak dituzten gazteen presentzia garrantzitsua da.
 - Iraupen luzeko eta oso luzeko neurriak jartzen dira.
 - Beren neurri judiziala amaitzean gizarteratzeko aukera errealik ez duten
gazteak daude.
 - Delituan behin eta berriz erortzen diren pertsonen taldea dago (4 neurri edo
gehiago dituzte).
- 8.- Delituen errepikapen-tasek baxu jarraitzen dute (% 20tik behera).
- 9.- Beste erakunde batzuen (hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, enplegua, osasuna,
atzerriartasuna, etab.) jarduerak eragin handia dute gazte-justiziaren prozesuetan.
- 10.- Sailen arteko lankidetzarako mekanismoak eta prozedurak hobetu dira.



- 11.- Neurrien aldaketak igo egin dira, neurriok bete bitartean.
- 12.- Profesionalen etengabeko prestakuntza beharrezkoa da.
- 13.- Eskarira egokitzearen ziozko zerbitzuen balio-aniztasuna handitu da.



6 JAURLARITZAREN PROGRAMAN SARTZEA

Gazte Justiziaren V. Plana, zehazki, 2020-2024 aldiko XII. legegintzaldirako Gobernu Programan sartzen da. Programa horrek "Euskadi martxan" estrategiaren barnean garatzen da, estrategia horren funtsezko hiru printzipioen ardatzean. Printzipio horiek honako hauek dira: osasuna bermatzea, ekonomia eta enplegua suspertzea eta inor atzean ez uztea.

Printzipio horien gainean, Eusko Jaurlaritzak lau jarduera-ardatzetan egituratzen ditu bere gobernu-konpromiso programatikoak, Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuekin eta gure errealitate ekonomiko, sozial eta instituzionalarekin lerrokatuta. Hauexek dira:

I. ardatza: Oparotasuna. Enplegua eta suspertze ekonomikoa.

II. ardatza: Pertsonak. Osasuna, hezkuntza, zerbitzu publikoak, berdintasuna, gizarte- eta kultura-politikak, bizikidetzeta eta giza eskubideak.

III. ardatza: Planeta. Bidezko trantsizio energetikoa eta klimatikoa.

IV. ardatza: Autogobernua. Autogobernu gehiago eta hobea.

Gazte Justiziaren V. Plana II. ardatzean kokatzen da, zehazki **14. jarduketa-arloan ("Justizia")**. Hala ere, badira beste ardatz batzuei buruzko ekintzak, hala nola enpleguari, osasunari eta abarri buruzkoak, eta horiek ere lotura zuzena dute adingabe arau-hausleekin.

Era berean, programan ezarritako 10 herri-helburuen barruan, gazteekin zuzenean lotutako helburu batzuk ditugu, hala nola:

- 1. helburua: "Langabeziaren tasa % 10 baino txikiagoa izatea".
- 5. helburua: "Euskadi genero-indizerik altuena duten Europako 6 herrialdeen artean kokatzea".
- 6. helburua: "Eskola-uztearen tasa % 7aren azpitik finkatzea".

I. ardatzean, *OPAROTASUNA. Enplegua eta suspertze ekonomikoa* deritzon horretan, 1. jarduketa-arloaren barruan ("*Lehentasun bat: Enplegua*"), 2. konpromisoa daukagu: Enplegu Plan bat onartzea, Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko Sail arteko Esparru



Programarekin bat datorrena. Plan horren 4. ekinbideak 30.000 gazteri lehen lan-espereientzia ematea proposatzen du, hainbat jarduera-ardatzen bidez: prestakuntza duala, gazteen laneratzeko eta enplegurako programa espezifikoak nahiz kontratatzeko konpromisoa duen lanbide-espereientzia; halaber, 7. konpromisoa ere badago: zailtasun handiagoak dituzten langabeen laneratzeari sustatzea eta enpleguarekiko sarbidea hobetzea. Haren 1. ekinbideak gizarte-bazterkeria arriskuan dauden pertsonak, gazteak eta abar lehenesten ditu. Era berean, 6. jarduketa-arloan (Hiri-Agenda, Etxebizitza eta Hiri-Berroneratzea) 38. konpromisoa nabarmendu behar dugu: Berariazko etxebizitzarako sarbide-ekintzak espezifikoak gazteentzat. Horren 1., 2. eta 5. ekinbideen helburua, zehazki, gazteek etxebizitza bat eskuratu ahal izateko programa espezifikoak martxan jartzea da.

II. ardatzean (*PERTSONAK. Osasuna, hezkuntza, zerbitzu publikoak, berdintasuna, gizarte- eta kultura-politikak, bizikidetzaren eta giza eskubideak*), gazte-justiziarekin lotutako hainbat jarduketa-arlo planteatu dira. 12. jarduketa-arloan (Gizarte-politikak eta Gazteria), 77. konpromisoa nabarmendu behar dugu: Bazterkeria-arriskuko egoeran dauden pertsonen arreta emateko lurralde-sareen finkapena babestea, bereziki zaugarriak diren haur eta gazteekin prebentzio-jarduerak indartzeko ekimenen bidez; eta 90. konpromisoa: Zaugarritasun-egoeran dauden migratzaileentzako babesa eta estaldura eta laguntza. Haren 1. ekinbideak erakunde arteko lankidetzaren bultzatzea du xede, bakarrik dauden haur migratzaileei behar duten babesa bermatzeko. 2. ekinbideak zaugarritasun-egoeran dauden adingabe eta gazte migratzaileak gizarteratzea eta laneratzeari sustatzea du xede, eta, azkenik, 3. ekinbidearen bidez, proposamen bat aurkeztuko zaio Espainiako Gobernuari, lan-baimena errazteko migratzaileak 16 urte betetzean. 91. konpromisoa: Gazteria-politika integrala garatzea. Ekinbide bakarra du, Gazteriaren legea onartzea; eta 92. konpromisoa: Gazteen emantzipaziorako estrategia, zeinaren funtsezko oinarriak izango baitira Gazteen Enplegu Plana egin eta martxan jartzea, bai eta Gazteen Etxebizitza errazteko neurriak garatzea ere.

99. konpromisoa aparte irakurri beharrekoa da: **Pertsonengan zentratutako justizia hurbilagoa eta errestituzioa sustatzea.** Bertan, argi eta garbi sartzen da Gazte Justiziaren V. Plana, eta honako hauek ditu ekinbide nabarmenenak:



- 7. ekinbidea: Gazte Justiziaren V. Plana onestea, eta, haren bidez, gatazken ebazpenean bitartekaritzaren, kontziliazioaren eta konponketaren alde egiten duen gazte justiziako zerbitzu bat garatzea EAEn, gazteen berrerortze-tasa murrizteko eta % 15etik behera kokatzeko.
- 8. ekinbidea: plaza nahikoak daudela ziurtatzea, zigor-arloko legea urratu duten adingabeei judizialki ezarritako neurri guztiei erantzuteko.
- 9. ekinbidea: kanpoko profesionalek aldizka ikuskatzea adingabe arau-hausleak barneratzeko hezkuntza-zentroyen funtzionamendu-sistemak eta langileen lana.

Azkenik, 17. jarduketa-arloan (Segurtasuna), 109. konpromisoa nabarmendu behar da: Prebentziozko segurtasuna ezartzea. Haren 1. ekinbideak berariazko prebentzio-programak ezartzen ditu, bereziki gazteen kolektiboaren drogen kontsumoari edo bestelako portaera-mendekotasun batzuei dagokienez.

Azaldutako guztiaz gain, plan asko martxan daude, baita gazte-justiziaren jarduketa-arloekin lotuta laster onartuko diren beste batzuk ere. Horien printzipioak eta jarduketa-lerroak V. Plan honetako beste atal batzuetan deskribatuta daude. Plan horren zeharkako izaeraren lekuko dira sail desberdinek adingabe hausleekin neurri handiagoan edo txikiagoan planteatu dituzten helburuak: osasuna, etxebizitza, enplegua, segurtasuna eta abar. XII. legegintzaldiko gobernu-programan ezarritako ekinbide, konpromiso, plan eta abarretako askok eragin zuzena dute gure erkidegoko gazte-justiziaren arrakastan. Horietako batzuk soilik aipatzearren, honako hemen hauek:

- Gizarteratzeko V. Euskal Plana, 2022-2025
- Lanbide Heziketako Euskal Plana
- Gazteen Enplegu Plana
- Haurren babeserako, prebentziorako eta sustapenerako plan integrala
- Osasun Plana 2021-2028
- Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa
- Herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruan jarduteko VI. plana
- Justiziaren plan Estrategikoa



- Justizia digitalaren plana
- Gatazkak konpontzeko baliabide alternatiboak bultzatzeko eta sendotzeko plana
- Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko Jarduera Plana



7 GAZTE JUSTIZIAREN PRINTZPIOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

Gazte-justiziaren jarduera-eremua oso mugatuta dagoen pertsona-talde bati zuzentzen zaio. Talde horren ezaugarriak honako hauek dira:

- Hamalau urtetik gora dituzte eta hemezortzitik behera.
- Zigor-legeekin bat, delitua dakarren jokabideren bat izan dute.
- Fiskaltzekin eta adingabeen epaitegiekin harremanetan egon dira, aurretik jarritako salaketa baten bidez.
- Zehapen- eta hezkuntza-erantzunen bat jaso dute.

Zehaztu behar da zigor-arloan tipifikatuta dauden egitateengatik esku hartzen hasten dela gazte-justizia, pertsona adingabea denean, baina esku-hartzea adin-nagusitasuna (hemezortzi urtetan ezarria) beteta ere luza daiteke. Zigor-erantzukizunean adingabe gisa tratatzen da, baina, gainerako jarduketetan, heldu gisa.

Garatu beharreko jarduketa ororen erreferentziazko abiapuntua honako hau da: pertsona horiek nerabeak dira.

Eremu guztietan –psikologikoa, afektiboa, emozionala, soziala, familiarra, prestakuntzakoa, biologikoa etab.– aldaketez beteriko bizitzakoaldi batean daude, helduaren bizitzara igarotzeko aldian, etengabe bilakatzen ari den errealitate batean sartuta, non gatazka, ingurunearekiko eta helduen munduarekiko konfrontazioa eta bere izaera banaezinak diren.

Errealitate horretatik abiatuta baino ez du zentzua gazte-justiziaren esku-hartzeak eta, batez ere, hala soilik izan daiteke eraginkorra. Horretarako, martxan jartzen diren erantzunek zehatzak eta pertsona horientzat diseinatuak izan behar dute eta, beraz, helduentzat ezarritakoez bestelakoak. Zenbait kontzeptuk, besteak beste, sormenak, dinamismoak, zentzuaren bilaketak, eraginkortasunak eta arrakastak, pertsonaren eta bere ingurunearen eraldaketak, segurtasunak, aniztasunak eta berdintasunak eta abar eratzen dute ereduaren DNA.



Jarraian garatzen diren printzipioak azken urteotan pilatutako esperientziaren emaitza dira: arrakasta izan duten beste eredu batzuk konparatu dira, eta ez bakarrik gazte-justiziaren arlokoak, baizik eta, batez ere, hezkuntzaren eta esku-hartze sozialaren arlokoak, eta indarreko ordenamendu juridikoaren potentzialitateak ikertu eta sakondu dira, barrukoak zein nazioartekoak; azken urteotan nazioartean egindako ikerketak eta ebaluazioak aztertu dira, eta, batez ere, kontuan hartu da Justiziarekin harremanak dituzten nerabeekiko eguneroko kontaktua.

“**Gazte-delinkuentziaren prebentzioari**” dagokionez, aipatzekoa da prebentziorik hoberena adingabeek jaiotzen direnetik 18 urte bete arte dituzten eskubideak betetzea dela, nazioarteko, estatuko, autonomiako eta tokiko araudiaren arabera; jarrera antisozialen prebentzio-ikuspegitik etorkizunera begira ez ezik, batez ere orainera begira, eskubideak betetzea helburu bat baita, nahiz eta jarrera irregularrak prebenitzea bigarren mailako ondorio izan. Horrela, bada, ekintza **adingabe guztientzat** izango da, inolaz ere ez pertsona batzuk hartuz delitu-jokabideak prebenitzeko jarduera berezien hartzaile gisa, zeren egiaztatuta baitago seinalatze hutsak lortu nahi direnaren kontrakoak diren ondorioak eragiten dituela.

Gazteen arau-hausteei erantzuna emateaz arduratzen diren instituzioek ez dute lehen mailako prebentzioan esku hartu behar; aldiz, biztanleria osoan lan egiten duten instituzioek egin beharko dute lan hori. Eta lantzen ari garen adingabeen eremuari dagokionez, adierazi beharra dago instituzio nagusia eta garrantzitsuena eskolaren, familiaren eta erakunde-mailako babesaren eremukoa dela, eta baita eremu horietan eragiteko eskumena duten instituzioak ere.

Izaera juridikoko nazioarteko jarraibide horietaz gain, Planaren ildo estrategikoak **hezkuntzako eta esku-hartze sozialeko paradigmetan** oinarritzen dira, eta horien baliozkotasuna eta sendotasuna ondo konparatu dira; paradigma horien helburua da nerabeak esku-hartzearen muinean kokatzea, esku-hartzeko ereduaren abiapuntu gisa. Premisa horretatik abiatuta, eredu ikuspegi desberdinetara irekita dago, egoera bakoitzari aurre egiteko, eta, beraz, eredu eklektikoa da, elkarri lotutako harremanen sistema batean integratutako pertsona gisa nerabearen portaeran eragiten duten harreman-faktoreen gaineko esku-hartze integrala oinarritzat duen eredu; adingabearen errealitatea osatzen duten harremanen



sistemako zati batean gertatzen diren aldaketek sistema osoan eta sistema osatzen duten pertsonengan eragiten dute.

Printzipioak abiapuntu dinamiko gisa aurkezten dira, globalitatera eta etorkizunean agertzen doazen egoera eta eskari berrietara zabalik, gazte-justiziaren eragilean jarduketak arautu behar dituzten printzipio gisa: epaiketak, fiskaltzak, talde psikosozialak, neurriak betearazteko erakunde publikoa eta 14 eta 18 urte bitarteko nerabeei arreta emateko beste erakunde batzuk. Gaur egun, 70.000 baino pixka bat gehiago dira.

7.1 Zigor-erantzukizuneko eredia: izaera zehatzaile-hezitzailea

Espainiako Estatuan, 1991ko otsailaren 14ko Konstituzio Auzitegiaren epaiaren ondoren, adingabeen babeserako auzitegien jarduketa arautzen zuten zenbait lege-agindu "konstituzioaren aurkako" aitortu dituenaren ondoren, eta Nazio Batuen Batzar Nagusien 1989ko azaroaren 20ko Umeen Eskubideei buruzko Hitzarmena indarrean sartu zenean (1990eko abenduaren 31ko BOE) hasi zen gazte-justiziaren kontratua funtsean aldatzen.

Aldaketa horrek herritar-agiriaren izaera hartu zuen, Adingabeen Zigor Erantzukizunari buruzko 5/2000 Lege Organikoa indarrean jarri zenean.

Legez ezarritako eta gaur egun indarrean dagoen eredia erantzukizuneko eredia da, hau da, botere judizialak, zigor-lege baten aplikazioaren ondorioz, zigorarloan legez kanpoko den egitate bat egiteagatik arduradun gisa hartuko ditu 14 urtetik gorako eta 18 urtetik beherako gazteak. Adingabeak askatasunez jokatzeko eta, beraz, beren ekintzez arduratzeko gaitasuna duten pertsona gisa onartzen dira. Onarpen horrek hezkuntza-erantzun baten katalizatzaile gisa dihardu, eta nerabea aldaketako hezkuntza-prozesuaren arduraduntzat hartzen du.

5/2000 Lege Organikoaren Arrazoen Azalpenak "adingabe arau-hausleei aplikatzekoak diren neurrien eta prozeduraren izaera formalki penala eta materialki zehatzaile eta hezitzailea" deklaratu du.

Aintzat hartzen da "zehapen-xedapenaren izaera, adingabeko arau-hausleekiko benetako erantzukizun juridikoaren eskakizuna garatzen baitu, Zigor Kodeak eta



gainerako lege penal bereziek delitu gisa tipifikaturiko ekintzak egiteari berariaz badagokio ere. Adingabe arau-hauslearentzako erreakzio juridikoa hezkuntzako esku-hartzea izatea nahi denez, intentsitate berezikoa betiere, helduen zigor-zuzenbidearen beste helburu batzuk espresuki baztertuz, hala nola ekintzaren eta zehapenaren edo arauaren hartzaileengan sorturiko larderiaren arteko heinekotasuna, adingabekoarentzako kalterakoa izan daitekeen guztia saihestu nahi da, biktimak edo beste partikular batzuk akzioa baliatzea, esaterako”.

Hortaz, adingabeen zigor-zuzenbidea lehenik eta behin Zigor Zuzenbidea da, hau da, Kode Zibilak delitu gisa kalifikatutako egitate baten aurreko erantzun zehatzailea ezartzen duten arauen multzoa da. Hala ere, ez dugu nahi zehapenak soilik eduki ordainarazlea izatea, eta ez du eduki hori soilik izan behar, baizik eta zehapenaren aplikazioak eta betearazpenak adingabearen interesa bete behar dute, inplikaturiko besteen gaintetik, eta helburu hezitzailea izan behar dute.

Hezkuntza-erantzun egokia emateko bilaketak orientazioa zehazten du neurriak betearaztean. Orientazio hori gorabehera, argi izan behar dugu gazte-justiziak duen funtzioa ez dela adingabeak heztea edo babestea, ezin dugu "zigor-kodearen edo erreformaren bidez babestu", ezin dugu aprobeztatu zigor-zehapen baten ezarpena hezkuntza-, babes-, gizarteratze-lana egiteko, xede horietarako instantzia komunek egin ez dutelako.

Era berean, proportzionaltasun-printzipioa nabaria da; izan ere, adingabearekin hezkuntzako esku-hartzea egiteko beharrak ezin du gainditu egindako egitatearen larritasunaren arabera adingabeari legez ezarri behar zaion eskubide-muga. 5/2000 Lege Organikoak, 7.3. artikuluan adingabearen bi egoera ezartzen ditu. Horiek ezin dute justifikatu egitatearen larritasunak ahalbidetzen duenaren gaintetik adingabearen eskubideak murrizten dituen neurri bat ezartzea; norberaren egoerek, familiakoek, gizartekoek, prestakuntzakoek eta abarrek aukera ematen dute neurriaren izaera eta iraupena hezkuntza-interesera egokitu, finkatu eta modulatzeko, baina pertsonaren proportzionaltasunerako eskubide konstituzionala ezin da urratu.



7.2 Sistema berme-emailea: eskubide guztiak zorrotz baino zorrotzago errespetatzea

5/2000 Lege Organikoaren Arrazoiak Azalpenak, era berean, honako hau ezartzen du: "eskubide konstituzionalen eta adingabearen intereseko eskaera berezien errespetutik ondorioztatzen diren berme guztien esanbidezko errekonozimendua".

Eta "Konstituzio Auzitegiak aitortutako orientazioekin bat –aurretik aipatu dira–, uzi prozesalera egokitutako berme-sistema ezartzen da, zehapena inozentzia-presuntzioaren ondoren ezarriko dela ziurtatuz, baina prozesu honen buru den adingabearen interesaren hezkuntza- eta balioespen-irizpideak oztopatu gabe, aldi berean gutxieneko esku-hartzearen printzipioaren erabilera malgua eginez".

Nazioarteko eta estatuko legediak adierazitakoaren arabera, adingabeen interesak beste edozeinen gainetik egon behar du. Operadore guztien papera –juridikoak zein bazkide hezitzaileak– da gazte-justiziarekin harremanetan daudenean babesten dieten eskubide eta betebeharrak guztiak zaintzeaz gain, nagusiki, normaltasunez betetzen direla bermatzea.

"Adingabe"aren izaerak ez du inolaz ere justifikatzen estatuaren aurrean pertsona gisa dauzkan eskubideak gutxitzerik edo murrizterik –polizia-jarduketaren, fiskalaren, judizialaren edo neurriak betearazteko jarduketaren aurrean–. Aldiz, pertsona eta herritar gisa dagozkion eskubide guztien titularra da adingabea, eta, gainera, adingabea izateagatik berariaz dagozkion eskubideak ditu, estatuaren botere positiboaren aurrean edo beste arlo batzuetan eskumena duten instituzioen aurrean.

7.3 Erantzukizuna hartzea

Gazte-justiziaren esku-hartzea erantzukidetasun penalaren deklarazio eta errekonozimenduaren ondorioa da; arduradun egitea, hau da, norberaren ekintzen arduradun egitea, pertsonaren eraikuntzarako eta hazkunderako ezinbesteko baldintza gisa ezartzen da. Une oro jarri behar da neska edo mutila erantzukizun horren aurrean eta ahaleginak batu eskubidea/erantzukizuna binomioa lortzeko, bereizezin gisa.

Erantzukidetasuna norberaren gain hartzearen ezinbesteko elementua da adingabe arau-hauslea biktimaren bizipenean kokatzea, horien erantzukidetasuna



benetan bere gain hartzeko atea irekitzea, gatazkaren konponketa baketsua sustatzea, eta eragindako kaltea zuzenean edo sinbolikoki konpontzea.

Biktimarekin adiskidetzea eta pertsona bati edo erkidegoari kalte bat eragin zaiola onartzea etengabeko erreferentzia izan behar dira eta neurrien betearazpen-prozesuan agertu behar dira.

Azken batean, daukatenei protagonismoa ematea da kontua, eta, sarritan, ebatsi egiten zaie.

Eskubideak eta betebeharrak kontzeptuak bereizezinak dira, txanpon baten bi aldean moduan; lan hezitzailea ezin da zentzu bakar batean desorekatu. Hezkuntza-zereginak eskubideen defentsa eta eskubideen betearazpena sustatu behar ditu.

7.4 Behar den gutxieneko esku-hartzea

Zigor-arauen aplikazioaren funtsezko printzipioa da gutxieneko esku-hartzea, zeina Zigor Zuzenbideak eta zehapen penalek legez ezarritakoaren zuzeneko ondorioa den: erabilgarritasuna, beharra, gizarte-bizikidetzeta babesteko. Horren ondorioz, Zigor Zuzenbidearen baliabidea azken baliabide gisa erabili behar du legegileak; adingabearen portaera arau-hausleari eraginkortasun berarekin erantzuteko beste biderik ez dagoenean bakarrik aplikatu behar da zehapen penala; barneratzeko neurria eraginkortasun bereko beste biderik ez dagoenean aplikatu eta mantendu behar da bakarrik.

5/2000 Lege Organikoaren Arrazoiaren Azalpenak honako hau egitea ezartzen du: “gutxieneko esku-hartzearen irizpidea malgutasunez erabiltzea, hau da, honakoei gailentasuna ematea: prozedura ez zabaltzeko edo prozedurari uko egiteko aukerei, kalte-ordain aurreratuari edo arau-hauslearen eta biktimaren arteko adiskidetzeari, eta ezarritako neurria baldintzapean eteteari edo betetzen ari den bitartean neurri hori ordezkatzeari.”

Berehalakotasunaren, gutxieneko esku-hartzearen, adingabearen interesaren eta justizia berrezartzailearen printzipioak eta bestelako printzipioak aplikatzeak, zalantzarik gabe, nagusiki Fiskaltzaren esku geratzen diren esku-hartze ez zehatzaileen



aukera indartzea dakar, lantalde teknikoen laguntzarekin, eta nagusiki egilearen eta biktimaren arteko bitartekotza-programak edo hezkuntza-arloko jarduerak egitea.

Apustu horrek ikuspegi-aldaketa bat dakar operadore juridikoengan, magistratuengan, fiskalengan, abokatuengan eta akusazioengan, eta epaileen eta fiskalen laguntzarako lantalde teknikoetan lan egiten duten profesionalen kualifikazio berezia dakar.

Jauzi garrantzitsu hori osatu gabe geratuko da, neurrien betearazpenean parte hartzen dutenen inplikazio arduratsu eta profesional bat ez badago; biktimarekin adiskidetzak etengabeko erreferentzia izan behar du, eta neurrien betearazpen-prozesu guztietan aurkitu behar da.

Idea horrek aurrez aurre talka egiten du eredu asistentzialisten eta/edo babesleen defendatzaileekin. Azken horiek, hezkuntzako esku-hartzearen “beharraren” babespean, auzibidea gehiegizko moduan erabiltzen dute. Zailtasun sozialeko egoeran dauden nerabeen ongizatearen bermatzaile-papera justizia penalari ematen bazaio, Adingabeen Tutoretzako Auzitegien 1948 legedia eragin zuten esku-hartze eruedetara itzuliko gara.

5/2000 Lege Organikoak eta horren ondoz ondoko aldaketek argi eta garbi finkatzen dituzte “jokoaren arauak”. Horren esku-hartze mota eta gehieneko denboramuga epaian adierazten dira. Sareko lana eta sistema bakoitzaren –hezkuntzako, sanitarioa, soziala, judiziala, eta abar– betebeharrak bere gain hartzea izan behar dira nerabe horri bere testuinguruan erantzuna emango diotenak. Gazte-justizia arau-hauste penal bat egin duen adingabeari erantzun hezitzaile bat emateaz arduratu beharko da. Arau-hauste penal bat egin ez duten adingabeen –baita arau-haustea egin dutenak ere, zehaztapenaren edukia gaindituta– hezkuntzaz, gizarteratzeaz, babes orokorraz eta haurtzaroaren eskubideak betetzeaz arduratu behar direnak instituzio eta agente eskudunak dira. Horrek argi eta garbi adierazten du normalizazio-printzipioa.

“Erreformarekin babesteak”, aurrerapenerako elementu bat baino, nagusiki, babesik gabeko nerabeen kriminalizazioa eta gizarteak bere betebeharretan hutsegitea eragin dezake.



Adingabeen jurisdikzioko organo judizialak, erreformako erakunde publikoa, zein horien erakunde laguntzaileak ez dira haurren babes-sistemako osagaiak –babestu edo hezi beharreko pertsonaren borondatearen aurka babes edo hezkuntza nahitaez ezartzeko azken babes-istantzia izango balira bezala–; gazteen erantzukizun penalaren sistema osatzen dute, eta bertan adingabe bati egitate batzuk egitearen arduradun deklaratzeko zaio, zehapen bat ezartzen zaio eta, orain bai, esparru horretan, hezkuntza-arloko eta arreta integraleko esku-hartzea egiten da.

7.5 Goi-mailako interesa: banakako egokitzapena

5/2000 Lege Organikoak honako hau deklaratu du: “Adingabekoen Zuzenbide penalean adingabekoaren interesaren nagusitasuna lehenetsi behar dela, prozeduraren eta hartzen diren neurrien elementu erabakigarri gisa. Interes hau zientzia ez-juridikoen arloko profesional espezializatuen ekipoek irizpide teknikoak eta ez-formalistak erabiliz balioetsi behar dute, betiere neurrien aplikazioa honako printzipio berme-emaila orokor eztabaidaezinetara egokitzea alde batera utzi gabe: akusazio-printzipioa, defentsa-printzipioa edo errugabetasun-presuntzioaren printzipioa”.

Helduen jurisdikzioan ez bezala, 5/2000 Lege Organikoaren 7.3. artikulua, neurria eta horren iraupena hautatzeko, arau-haustearen larritasuna kontuan hartzerako behartzen du, eta baita adingabearen zirkunstantzia pertsonalak eta hezkuntza-interesak aintzat hartzerako ere. Era berean, betearazpenean zehar etengabeko arreta eman behar zaio adingabe bakoitzaren interes indibidualari, arau-haustearen erantzun gisa adingabearen hezkuntza integralerako egokiena dena kontuan hartuta.

Erabakiak hartzerakoan interesak haztatu behar direnean, adingabearen interesak bestelako baldintzen gainera egon behar duela ezartzen da araubidez.

Atal honetan, egiteko garrantzitsua dute talde tekniko-psikosozialen eta neurriak betearazteko eskumena duen erakunde publikoaren txostenek; horietan, adingabearen egoera pertsonalak, familiakoak, gizartekoak eta abar zehazten dira, erabakiak hartzeko une bakoitzean.

Beraz, gazte-neurriak aplikatu eta betearazteko bide bakarra neska eta mutil bakoitzaren errealitaterako erantzun egokiena bilatzea eta horren bilakaerari egokitzea da, gaztearen testuingurua kontuan hartuta.



7.6 Erkidegoaren ikuspegiaren normalizazioa

Adingabe batek neurri judizial bat bete behar izateak ez du urruntze sozialik edo erkidegoaren eta herritar garen aldetik aitortuta ditugun zerbitzuen urruntzerik ekarri behar. Horretarako, edozein neurri betearaztean, neurriak betearazteko eskumena duen erakunde publikoaren eta hezkuntzako, osasuneko, etxebizitzako, enpleguko, prestakuntzako, gizarteratzeko, eta abarreko erakundeen artean, lankidetzat trinkoa eta eraginkorra behar da.

Azaldutakoa oinarri hartuta, posible denean, neurriak betearazteko herritar guztiei zuzendutako baliabide orokorrak izango dira. Baliabide bereziak sortzeak salbuespena ekarriko du.

Gizartean, gizartearekin eta gizartearentzat lan egitea gazte-justiziako lanaren oinarrizko euskarrietako bat da. Ezin dugu alde batera utzi pertsonen eta osatzen dituzten taldeen garapena pertsona horien inguruarekin lotuak daudela. Ikuspegi horretan oinarrituta, eta kontuan hartuta helburua dela esku-hartzearen xede den pertsonen garapena optimizatzea, gazte-justiziak pertsona horien ingurua eraldatzera bideratu behar ditu bere ahaleginak. Helburu hori bilatzen ez duten gainerako ereduak ez dira inoiz eredu ontzat hartuko.

Aukera-berdintasunen printzipiotik arrakastarako eskubidera igarotzeak lanean eta, argiago, defizit edo gabezia gehiagoko testuinguruetan dauden erreferentziak dauzkaten pertsonekin lanean jarraitu beharreko ildoak markatzen du.

Testuinguru horietan –gizarte-baliabide ahul gisa ere definituta–, sarritan egiaztatu den bezala, asmoak txikitu eta bitartekora egokitzeko joeratik aldendu behar gara. Ikuspegi "egokitzaille" horrekin, errealitatea eraldatu eta aberastu beharrean, desberdintasunak areagotu edo, kasurik onenean, mantendu egiten dira.

Gizartearen tolerantzia handitzean, alarma sozialak itzaltzean, partaidetza aktiboa eragitean, aniztasunari eta aniztasunaren berdintasunari baliozkotasuna ematean, arrakasta hobetzeko aukerak sortzean, eta abarretan lan egitea ezinbestekoa da solidaritatea eta gatazken konponketa baketsua lortzeko.



8. ILDO ESTRATEGIKOAK

Plan berri honen ildo estrategikoek azken planak –aztertu ondoren– bideratutako ibilbidetik jarraitzen dute. Hori dela eta, ildoetako batzuk jarraitzeko eta hobetzeko asmo argiarekin hartzen eta birformulatzen dira.

8.1 Prebentzioa

"Goiz esku hartzea berandu da" esaldiak garrantzi handiagoa hartzen du gazte-justiziaren eremuari gagozkionean. Hainbat irizpenek eta txostenek agerian utzi dute prebentzioaren alde egiten ez duten eta hura sustatzen ez duten sozietate antolatuek, azkenean, errepresioaren bidez esku hartu ohi dutela.

Gaur egungo krisi-etapa sakon honetan, gizarte-ongizateko, osasuneko, eta abarreko estandarrek eragina dute pertsona guztiengan eta, bereziki, adingabeetan. Bereziki familiaren bidez, erkidegoaren, berdinen taldearen, lanbidea gauzatzeko edo lan-merkaturako gaikuntza-eskolaren bidez (gehienek ustez laneratzea bide pribilegiatua da arazoak/gatazka judizialak dituzten neska-mutilek integrazioko eta egonkortasuneko espazioetara jo dezaten) adingabe guztiak sozializatzeko eta integratzeko prebentzio-politiken ahultasunak eragin negatiboa du eta izango du biztanle horiengan.

Aurreko planak deskribatzen zuen bezala, "prebentziorik onena da adingabeei jaiotzen direnetik 18 urte betetzen dituzten arte dagozkien eskubideak betetzea...".

Adingabe guztiekin lan egiten duten erakundeak dira modurik erabakigarrienean eragingo dutenak adingabeengan eta uneren batean gazte-justiziarekin harremanetan jartzen direnen arazoetan. Eskolaren, familiaren, osasunaren, erakunde-babesaren eta abarren eremuan lan egiten dutenez ari gara.

Gazte-justizian lan egiten duten erakundeetatik sistema orokorretan esku hartzea lehenetsi beharko da, eta salbuespen-egoeretan bakarrik jo esku-hartze espezializatura eta bereizira, betiere kontuan hartuta herritar guztientzako sistema komunetara "itzultzeko" helburua.



8.2 Sailartekotasuna eta erakundeen arteko lankidetzak

Aurreko ildoarekin jarraituta, bigarrena sakonago ari da sartzen Euskadiko Gazte Justiziako operadore guztien egunerokotasunean. Beste sail eta administrazio batzuekin lan egitean, Euskal Autonomia Erkidegoko Gazte Justiziaren DNAn sakondu da.

Ildo horretan, plan honek Eusko Jaurlaritzaren hainbat sailen jarduketak planteatzen ditu; horiek gabe eta horien inplikaziorik gabe, ezingo litzateke aurrera eramane. Osasuna, Hezkuntza, Segurtasuna, Enplegua, Gizarte Politikak, Justizia... Plan honen zati eta euskarri dira.

Beste erakunde batzuen ekintza, besteak beste, foru-aldundiena eta udalena, elementu nagusia da plan honen jasagarritasunerako eta gazte-justiziaren eguneroko jarduerarako. Haurren eta nerabeen babesa, laguntza eta familiako esku-hartzea, oinarrizko gizarte-zerbitzuak, larrialdikoak eta gizarte-larrialdietakoak, emakumea... egunero alternatibak eraikitzeke zerbitzu eta programetako batzuk dira.

8.3 Esku-hartzearen kalitatea: ebidentzian oinarritutako tratamendu-programak

Azken urteotan, adingabeentzako tratamendu-programen eraginkortasunari buruzko ebidentzia enpirikoa erakutsi duten zenbait azterketa egin dira. Horrela, erkidego zientifikoa berrerortzearen murrizketan arrakasta-tasarik onenak dauzkaten programak identifikatzen hasi da, Redondoren (2011) hitzetan, honako ezaugarriak dituztenak:

- Oinarri teoriko sendoa, jokabide antisozialaren azalpenaren eta prebentzioa erraztu ditzaketan eragile garrantzitsuen berri ematen duena. Oinarri sendoa da tratamenduaren programetarako ikaskuntza sozialaren teoria, jokabidearen modelatuaren, jokabidearen indartzearen, komunitate sozialean bertan subjektuekin lan egitearen eta zigor-estrategien saihestearen dimentsioetan.
- Programa egituratuak eta gidatuak.
- Subjektuak trebetasunetan eta ohitura prosozialetan trebatzen dituztenak.



- Pentsamenduaren, jokabideen eta balioen berregituraketa sustatzen dutenak.
- Aplikazio-denbora gehiago, intentsitate handiagoa eta integritate gehiago tratamenduaren osagai guztien administrazioan.
- Alderdi anitzeko programak, alegia, arrisku dinamikoko alderdietara –bai banakakoak, bai familiakoak eta sozialak– bideratutako teknikak eta osagaiak dituztenak.
- Subjektuen arrisku-mailak ebaluatzen dituztenak eta, maila horien arabera, tratamenduen intentsitatea modulatzeko dutenak. Arriskurik handienak programa intentsiboagoak inplikatu behar ditu.
- Trebetasun pertsonal eta tekniko egokiak dituzten terapeutak dauzkatenak, programaren aplikazioan modu berezian trebatuak izan direnak.
- Eskuliburu estandarizatuak dituztenak, lan terapeutikoa behar bezala bideratzeko.
- Ahalik eta osotasun gehienarekin aplikatuak; horrek eskatzen du erakunde-arduradunak tratamenduekin konprometituta agertzea.
- Erkidegoari orokortzeko estrategia bereziak sartzea, besteak beste, berrerortzeak prebenitzeko teknikak.

Ildo horretatik, azterketek erakusten dute berrerortzea prebenitzeko programa batzuek jardunbide egokiak partekatzen dituztela eta horiek gure ingurunean ezarri beharko lirakeela.

Planaren indarraldian, praktika horien onarpenean eta berrerortzeko jokabideen prebentzioan emaitzarik onenak ematen dituen prozesuaren onarpenean edo delituaren atzera-egitean sakondu beharko da. Testuinguru horretan, bitartekaritza-programek leku berezia dute, eta informazioaren bilketa, prozesuen definizioa eta emaitzen ebaluazioaren diseinua hobetu beharko dira.

8.4 Erantzukizun publikoa eta kudeaketa-eredu mistoa

Aurretik aipatu den bezala, III. Plana gauzatzeko erantzukizun publikoa "Justizia-arloan eskumena duen sail"ean kokatzen zen. Lan berri honetan, hura ere ildo estrategikoa da, baina haren edukia moldatu egin da.



Adingabeen epaitegiek ezarritako neurrien betearazpen "materiala" justizia-arloan eskuduna den Gobernu Sailarena da eta izaten jarraituko du, baina zeregina partekatu egingo da, garapenerako lankidetzan gisa, beste sail batzuekin. Sailaren zeregin berria Planaren ekintzak Gobernuaren beraren beste instantzia batzuetan lasaitasunez eta egunero inplikatzeko lidergo-modua gauzatzearekin lotuta egongo da.

Kudeaketari dagokionez, jarraitzen da kudeaketa-eredu mistoaren alde egiten (titulartasun publikoko eta kudeaketa publikoko zerbitzuak eta titulartasun pribatuko eta kudeaketa pribatuko zerbitzuak), bai eta erantzukizun publikoaren alde ere.

Une hauetan, ereduaren finkapen-maila kontuan hartuta, zerbitzu eta unitateen arteko lankidetzan sakonduko da, jarduketan sistematizazioa lortzeko.



9. HELBURU OROKORRAK

Jarraian azalduko diren Gazte Justiziaren V. Planaren (2020-2024) helburu orokorrek aurreko ataletan deskribatutako hiru zutabe dituzte funtsean: IV. Planaren (2014-2018) ebaluazioa, Euskal Autonomia Erkidegoko gazte-justiziaren printzipioak eta ildo estrategikoak. Hauexek dira:

- O1: EAEko Administrazio Orokorraren eskumenekoak diren Adingabeen Epaitegiek emandako ebazpen judizial guztiak betearaztea.
- O2: 5/2000 Legean deskribatutako baldintzak betez gero, gazte-justiziarekin zerikusia duten pertsona guztiei adiskidetze-erreparazio programetarako sarbidea erraztea.
- O3: Gazte-justiziaren erantzunak pertsona bakoitzaren errealitatera egokitzea, programa, zerbitzu eta zentro desberdinen bidez. Aukera horiek azkarrak eta eskarietara egokitzeko modukoak izan behar dute, eta neurri zehatzailea nahiz hezitzailea bete behar duten adingabe guztientzako bikaintasunean oinarritutako erantzuna bermatu behar dute.
- O4: Adingabeek egiten dituzten arau-hausteak prebenitzea eta gutxiaraztea.
- O5: Gazte-justizian inplikaturik dauden eragileei prestakuntza espezializatua eta espezifikoa eskaintzea.
- O6: Informazioa biltzeko sistema hobetzea, esku-hartze efizienterako eta eraginkorrerako aukera emango duena.
- O7: Adingabeek egindako zigor-arloko arau-hausteen erakunde-erantzunaren kudeaketa ebaluatzea.



10. SAILEN ARABERAKO HELBURUAK

Hurrengo atalean, Justizia Zuzendaritzaren eta sailen artean adostuta, sail bakoitzaren helburuak, funtzionamendu-jarduerak eta hobekuntza-ekintzak ezartzen dira.

Funtzionamendu-jarduerak eta hobekuntza-ekintzak modu jarraituan ebaluatu beharko dira, edo, hala badagokio, V. Plana (2020-2024) amaitzean, baina bereizita aurkeztuko dira, funtzionamendu-jarduerak sail bakoitzaren berezko jarduera ebaluatzerantz bideratuta daudelako, eta hobekuntza-ekintzak, berriz, eraginkortasuna ebaluatzerantz.

10.1 Segurtasun Saila

10.1.1 Helburuak

10.1.1.1 Urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren adingabe arau-hausleen atxiloketari, zaintzari, lekualdatzeari eta bestelako gaiei buruz indarrean dagoen legedian ezarritakoa betetzen dela bermatzea.

10.1.1.2 Adingabeak egin ditzaketen arau-hausteen prebentzio espezifikorako ekintzak egitea.

10.1.2 Funtzionamendu-jarduerak, aldia eta ebaluazioa

- **AF 10.1.2.1:** Justizia Zuzendaritzak eskatuta, askatasunaz gabetzeko neurriak betetzen ari diren adingabeen lekualdaketak egitea.

Aldia: 2020-2024

Ebaluazioa: Egindako lekualdaketa kopurua jaso beharko da.

10.1.3 Hobekuntza-ekintzak, aldia eta betearazpen-adierazleak

- **AM 10.1.3.1:** Ertzaintzaren oinarrizko mailan eta Udaltzaingoko kidegoetan sartzeko ikastaroetan eta adingabeekin zerikusia duten ikastaroetan gazte-justiziaren arloko prestakuntza espezifikoa ematea.

Aldia: 2020-2024

Adierazleak: Prestakuntza-ekintzen kopurua eta prestatutako ikasleen kopurua.



- **AM 10.1.3.2:** Adingabeekin jarduketan urteko estatistika espezifikoak antolatzea.
Aldia: 2020-2024
Adierazleak: Urteko estatistikak.

- **AM 10.1.3.3:** Adingabeekin jarduteko berariaz erabiltzen diren ibilgailuen eta bulegoen errolda egitea.
Aldia: 2020-2021
Adierazleak: Balorazio-txostena.

- **AM 10.1.3.4:** Eskura jarritako baliabideen egokitasunari eta adingabeekin jarduteko berariaz erabiltzen diren eskaerei buruzko azterketa egitea.
Aldia: 2021-2022
Adierazleak: Proposamen-txostena.

- **AM 10.1.3.5:** Poliziak adingabeekin egiten dituen jardueri buruzko instrukzioa eguneratzea: identifikazioa, fiskaltzekin, adingabeen epaitegiekin, Justizia Zuzendaritzarekin eta abarrekin komunikatzea, zaintza, lekualdaketak, euste-baliabideen erabilera, etab.
Aldia: 2021-2022
Adierazleak: Instrukzio eguneratua.

- **AM 10.1.3.6:** Jarraipen-batzorde misto bat sortzea Segurtasun Sailaren eta Justizia Sailaren artean, gazte-justiziaren arloan.
Aldia: 2021
Adierazleak: Batzorde mistoa sortzea eta martxan jartzea.

10.2 Osasun Saila

10.2.1 Helburuak

- 10.2.1.1 Neurri judizial bat betetzen duten adingabe guztiei osasun-arretarako sarrera bermatzea.



10.2.1.2 Prebentzioaren bidez esku hartzea osasunaren eremuan, batez ere osasun mentalaren, kontsumo arazotsuen eta sexu-harreman arriskutsuen arloan.

10.2.1.3 Osasunaren baliabide arruntak egokitzea neurri judizial bat betetzen ari diren, osasun mentaleko arazoak dituzten eta gizarte-bazterketako egoeran dauden adingabeen arreta-beharretara.

10.2.2 Funtzionamendu-jarduerak, aldia eta ebaluazioa

- **AF 10.2.2.1:** Askatasunaz gabetzen duen neurri judiziala betetzen ari diren adingabe guztiei Osasun Identifikazioko Txartela ematea⁴⁰.

Aldia: 2020-2024

Ebaluazioa: Osasun-txartel indibiduala zenbat pertsonari eman zaion jaso beharko da.

- **AF 10.2.2.2:** Gazte-justiziako hezkuntza-zentroetan hartutako adingabe guztiei asistentzia sanitarioa bermatzea adingabea kokatua dagoen hurbileneko osasun-zentroan.

Aldia: 2020-2024

Ebaluazioa: Egindako asistentzia kopurua jaso beharko da.

- **AF 10.2.2.3:** Beren neurria dela-eta, osasun-zentrora joan ezin duten adingabeei asistentzia sanitarioa ahalbidetzea gazte-justiziako hezkuntza-zentroetan. Arreta hori etxez etxeko arreta balitz bezala emango da.

Aldia: 2020-2024

Ebaluazioa: Egindako asistentzia kopurua jaso beharko da.

- **AF 10.2.2.4:** Egunero osasun-arreta ematea, astelehenetik ostiralera bitartean, 2 orduz, Zumarragako Osasun Zentroko mediku baten eskutik. Ordu berean,

⁴⁰ Hala ere, Osasun Sailak adierazi du neurri judizial bat betetzen duten adingabeentzat ez dagoela titulu espezifikorik; ez dago kolektibo berezi gisa, inguruabar hori ez baita kontuan hartzen osasun-aseguramenduaren eta/edo osasun-laguntzarako eskubidearen esparruan sailkatzeko. Garrantzitsuena da EAEn bizi diren adingabe guztiek, haien egoera administratiboa, judiziala, nazionalitatea edo dena delakoa edozein motatakoa izanda ere, osasun-laguntza publiko osorako eskubidea dutela, eta, beraz, osasun-txartel indibiduala eskuratzeko eskubidea.



erizain bat joango da, 4 egun astean, Zumarragako Ibaiondo Hezkuntza Zentroaren bulegoetara.

Aldia: 2020-2024

Ebaluazioa: Egindako asistentzia kopurua jaso beharko da.

- **AF 10.2.2.5:** Haurren, gazteen eta helduen osasun mentaleko zentroetako laguntza hobetzea, zabaltzea eta neurri judiziala betetzen dutenen beharretara egokitzea.

Aldia: 2020-2024

Ebaluazioa: Berariaz jaso beharko dira lehen hitzordurako epeak, hitzorduen arteko epeak, eta terapia indibidualak, familiakoak edo taldekoak baliatzeko aukera.

10.2.3 Hobekuntza-ekintzak, aldia eta betearazpen-adierazleak

- **AM 10.2.3.1:** Osasunaren sustapenari eta drogaren kontsumoa eta beste adikzio batzuk prebenitzeari buruzko prestakuntza-programetarako sarbidea erraztea gazte-justiziako hezkuntza-arloko langileei.

Aldia: 2020-2024

Adierazleak: Prestakuntza-egitekoen kopurua eta prestatutako langileen kopurua.

- **AM 10.2.3.2:** Gazte-justiziako zentro eta zerbitzuei osasunaren sustapenari eta drogaren kontsumoa eta beste adikzio batzuk prebenitzeari buruzko material espezifikoak ematea.

Aldia: 2020-2024

Adierazleak: Hornitutako materialak.

- **AM 10.2.3.3:** Neurri judizial bat betetzen ari diren adingabe guztiei osasun-arreta emateko indarrean dagoen protokoloa berrikustea.

Aldia: 2020-2021

Adierazleak: Balioespen-txostena edo protokolo berriaren sinadura.



- **AM 10.2.3.4:** Gazte-justiziako zentro eta zerbitzuen sareko profesionalei prestakuntza ematea suizidioen prebentzioaren arloan.

Aldia: 2020-2021

Adierazleak: Egikaritutako prestakuntza-ekintzak.

10.3 Hezkuntza Saila

10.3.1 Helburuak

10.3.1.1 Gazteen gatazkak prebenitzea eta hezkuntza-zentroetan bizikidetzaz sustatzea.

10.3.1.2 Behar baino lehen eskola uzten dutenen kopurua murriztea, eta bazterkeria-arriskuan dauden adingabeen eskolatze efektiboa bermatzea.

10.3.1.3 Neurri judizial bat betetzen ari diren neska-mutil guztiei hezkuntza-arreta bermatzea.

10.3.1.4 Hezkuntzaren arloan bizikidetzaren eta gatazken konponketa baketsuaren kultura eta balioak bultzatzea.

10.3.2 Funtzionamendu-jarduerak, aldia eta ebaluazioa

- **AF 10.3.2.1:** Gazte-justiziako zentroetan hezkuntza-arretari buruz, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren eta Hezkuntza Sailaren arteko agindu bateratua eguneratzea.

Aldia: 2021

Ebaluazioa: Agindua EHAAn argitaratzea.

- **AF 10.3.2.2:** Zumarragako Ibaiondo Hezkuntza Zentroan ikasgelako eta tailerreko irakasleak hornitzen direla bermatzea.

Aldia: 2020-2024

Ebaluazioa: Esleitutako irakasleak eta ikasgelako eta tailerreko orduen betetzea.

- **AF 10.3.2.3:** Gazte-justiziako zentroetan neurri judiziala betetzen ari diren neska-mutilen matrikulazioa mantentzen dela eta aipatutako hezkuntza-zentroak horien jarraipena egiten duela bermatzea.

Aldia: 2020-2024



Ebaluazioa: Matrikulatutako ikasle kopurua.

- **AF 10.3.2.4:** Barneratzeko edo eguneko zentroetako neurri judizialak betetzen dituzten 16 urtetik gorako mutil eta neska “urrutiko hezkuntza” programetan sartzea bermatzea.

Aldia: 2020-2024

Ebaluazioa: Onartuak izan diren ikasleen kopurua eta eskuratutako prestakuntza.

10.3.3 Hobekuntza-ekintzak, aldia eta betearazpen-adierazleak

- **AM 10.3.3.1:** Erdi-mailako irakaskuntza-zentroetako arduradun, irakasle eta ikasleei zuzendutako zabalkunderako ekintzak egitea: material didaktikoak argitaratzea eta aurrez aurreko hitzaldiak ematea.

Aldia: 2020-2024

Ebaluazioa: Egindako jardueren kopurua eta horietan parte hartu dutenen kopurua.

10.4 Lan eta Enplegu Saila

10.4.1 Helburuak

- 10.4.1.1 Neurri judiziala betetzen ari diren edo bete duten neska-mutilek Lanbideren programetara sarbidea dutela bermatzea.

10.4.2 Funtzionamendu-jarduerak, aldia eta ebaluazioa

- **AF 10.4.2.1:** Justizia Zuzendaritzari aitortza ematea ziurtagiriak igortzeko erakunde eskudun gisa, neurri judizial bat betetzen ari diren pertsonen edo beren familiei prestazio espezifikotarako sarbidea emateko (espetxetik ateratzearen subsidioa, DSBE, prestakuntza-ikastaroetarako sarbidea, inklusio-hitzarmenerako gizarte-esklusioaren ziurtagiria etab.).

Aldia: 2020-2024

Ebaluazioa: Igorritako ziurtagiriak.



10.4.3 Hobekuntza-ekintzak, aldia eta betearazpen-adierazleak

- **AM 10.4.3.1:** Neurri judizial bat betetzen ari diren neska-mutilei programa, prestakuntza-jarduera, erregistro eta abarretarako sarbide normalizatua bermatzea. Protokolo zehatzaren sorrera, hala badagokio.

Aldia: 2020-2024

Ebaluazioa: Programetara sartzen ez diren pertsonen erregistroa eta horretarako arrazoiak.

10.5 Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila

10.5.1 Helburuak

- 10.5.1.1 Arau-haustea egiten denetik zigor-erantzuna betearazten hasten den arte igarotako denbora murriztea.
- 10.5.1.2 Informatikako sistemak hobetzea, esku hartzen duten instantzien erantzun egokiagoa izateko (fiskaltzak, talde psikosozialak, epaileak eta erakunde publikoa).
- 10.5.1.3 Ikerketa zientifikoa sustatzea, batez ere Euskal Herriko Unibertsitatearekin eginiko hitzarmenen bidez, gazte-justiziaren sistemaren erantzunak hobetuko dituzten esku-hartzeko ereduak lortzeko.
- 10.5.1.4 Erakunde, ikerketa-institutu, beste autonomia-erkidego edo beste herrialde batzuekin lankidetzan jardutea, adingabe arau-hausleekin esku hartzeko eredu efizienteak garatzeko.
- 10.5.1.5 Adingabe arau-hausleei buruzko informazio-bilketa eta balorazio-irizpideak bateratzea epai aurreko txostenetan, bakarkako hezkuntza-proiektuetan eta txostenetan, neurriak martxan diren bitartean.
- 10.5.1.6 Prozeduraren fase guztietan -izapidetzea, epaitzea eta betearaztea- biktimaren ikuspegia eta kalteagatiko erantzukizuna sartzea.
- 10.5.1.7 Gazte-justiziarekin zerikusia duten tokiko, Europako eta nazioarteko foro, jardunaldi, kongresu eta jarduerak sustatzea eta horietan parte hartzea.
- 10.5.1.8 Gazte-justiziako hezkuntza-zentroen eta ingurune irekian neurriak betearazteko zerbitzuen sarea Adingabeen Epaitegietatik datorren eskariari egokitzea.



- 10.5.1.9 Gazte-justiziaren sistemaren instalazioen mantentze egokia bermatzea.
- 10.5.1.10 Profesionalen jarduketa egokia bermatzea segurtasun- eta babes-zereginetan, gazte-justiziako hezkuntza-zentroen sareetan.
- 10.5.1.11 Gazte-justiziari buruzko informazio estatistikoa zabaltzeko sistema ezartzea: epaitegiak, fiskaltzak, talde psikosozialak eta erakunde publikoa.
- 10.5.1.12 Gazte-justizian parte hartzen duten profesionalen etengabeko prestakuntzako ekintzetara sarbidea ziurtatzea.
- 10.5.1.13 EAEn Gazte Justiziari buruz indarrean dagoen araudia eguneratzea.
- 10.5.1.14 Gazte-justiziaren inguruan dihardutenen artean lankidetzaz sustatzea eta, horretarako, jardunaldi bereziak egitea, bilerak, zerbitzuetara bisitak, eta abar.
- 10.5.1.15 Ebaluazioaren kultura indartzea gazte-justizian egiten diren prozesuetan.
- 10.5.1.16 Genero-ikuspegia sartzea gazte-justiziaren eremuan egiten diren jarduketa, azterketa eta ikerketa guztietan.
- 10.5.1.17 Gatazkak modu baketsuan konpontzeko kulturaren sakontzea.

10.5.2 Justizia Administrazioako Zuzendaritzaren funtzionamendu-jarduerak, aldia eta ebaluazioa

- **AF 10.5.2.1:** Ibaiondo Hezkuntza Zentroko mantentze-lanak egitea, bai eta gainerako gazte-justiziako zentroak mantentzeko lanen inguruko betebeharrak betetzea ere.
Aldia: 2020-2024
Ebaluazioa: Egindako zereginen kopurua.
- **AF 10.5.2.2:** Beharrezko segurtasun-langileez hornitzea gazte-justiziako I. eta II. mailetako zentroak.
Aldia: 2020-2024
Ebaluazioa: Atxikitako langile kopurua.
- **AF 10.5.2.3:** Beharrezko baliabide teknikoek eta materialez hornitzea, segurtasun-zereginak betetzeko gazte-justiziako zentroen sarean.
Aldia: 2020-2024



Ebaluazioa: Eskura jarritako baliabideak.

- **AF 10.5.2.4:** Fiskaltzentzat, adingabeen epaitegientzat eta talde psikosozialentzat berezko espazioak eta instalazioak mantentzea.

Aldia: 2020-2024

Ebaluazioa: Berezko espazioen kopurua.

- **AF 10.5.2.5:** Talde psikosozialek beren jarduera kudeatzeko, txostenak igortzeko eta estatistikak egiteko behar diren informatikako tresnen gainean egiten duten erabilera normalizatzea.

Aldia: 2020-2024

Ebaluazioa: Erabilitako tresnak.

- **AF 10.5.2.6:** Taldeen ordezkarien eta Justizia Zuzendaritzaren artean lantalde egonkorra sortzeko eguneroko ekintzekin jarraitzea, artatutako adingabeen datuak biltzeko, entzunaldi eta agerraldietarako informazioa elkarrekin trukatzeko, neurriak betearazten dituzten zerbitzuak bisitatzeko eta abar.

Aldia: 2020-2024

Ebaluazioa: Egindako bilera kopurua eta adostutako protokoloak eta dokumentuak.

10.5.3 Justizia Administrazioiko Zuzendaritzaren hobekuntza-ekintzak, aldia eta betearazpen-adierazleak

- **AM 10.5.3.1:** Fiskaltzetan eta adingabeen epaitegietan lanean ari diren langileen egitura eta prestakuntza-sistemak egokitzea.

Aldia: 2020-2024

Ebaluazioa: Langileen lan-karga eta jasotako prestakuntza.

- **AM 10.5.3.2:** Prestakuntza-ekintzak programatzea, Justizia Zuzendaritzarekin lankidetzan, talde psikosozialei zuzenduta, gazte-justiziari buruzko bitartekaritza eta aholkularitzaren inguruan.

Aldia: 2020-2024



Ebaluazioa: Egindako prestakuntza-ekintzen kopurua eta horietan parte hartu dutenen kopurua.

- **AM 10.5.3.3:** Gazte-justiziako zentroen sarearen segurtasunari buruzko eskuliburuak eguneratzea eta, Justizia Zuzendaritzarekin lankidetzan, gazte-justiziari buruzko prestakuntza berezia eskaintzea gazte-justiziako zentroen sarean lanean ari diren segurtasuneko langileei.

Aldia: 2020-2024

Ebaluazioa: Eguneratutako eskuliburuak.

- **AM 10.5.3.4:** Bitartekotzaren eta aholkularitzaren arloan talde psikosozialen jarduera-memoriak egiteko behar den informazioa sistematikoki biltzea.

Aldia: 2020-2023

Ebaluazioa: Memoriak egitea.

- **AM 10.5.3.5:** Talde psikosozialen, fiskaltzen eta adingabeen epaiketen eta gazte-justiziako zerbitzuen arteko konexio informatikoa sustatzea, gazte-justiziaren inguruan.

Aldia: 2021-2023

Ebaluazioa: Egindako konexioa.

- **AM 10.5.3.6:** Talde psikosozialen jarduketaren inguruko iradokizun eta kexen protokoloa egitea eta onestea.

Aldia: 2020-2024

Ebaluazioa: Jasotako kexa eta/edo iradokizunen kopurua.

- **AM 10.5.3.7:** Barne-tutoretzen sistema bat antolatzea, TPJra heltzen diren teknikariak prestatzeko.

Aldia: 2020-2024

Ebaluazioa: Egindako tutoretza kopurua.



10.5.4 Justizia Zuzendaritzaren funtzionamendu-jarduerak, aldia eta ebaluazioa

- **AF 10.5.4.1:** Gazte-justiziaren sarean dauden plazen eskaintza egokitzea.

Aldia: 2020-2024

Ebaluazioa: Urtero erabilgarri dauden zentro eta plazen kopuruak.

- **AF 10.5.4.2:** Neurriak ingurune irekian betearazteko zerbitzuen egitura egonkorrari eustea, eta Bilbon, Gasteizen eta Donostian izatea egoitzak, gehienezko arreta-ratioa 1/15 izanik.

Aldia: 2020-2024

Ebaluazioa: Zerbitzu erabilgarriak eta zerbitzu bakoitzeko profesionalak.

- **AF 10.5.4.3:** Haurrak eta nerabeak babesteko Foru Aldundiek dituzten zerbitzuek eta autonomia-erkidegoko gazte-justiziaren arloko eskumena duen sailak lankidetzan jarduteko eta koordinatzeko protokoloa eguneratzea.

Aldia: 2020-2024

Ebaluazioa: protokolo eguneratua.

- **AF 10.5.4.4:** Sarearen bidez, artxiboen kudeaketan eta trukean datuen babesa bermatzea.

Aldia: 2020-2024

Ebaluazioa: Informazio konfidentziala bidaltzeko bitarteko seguruak erabiltzea.

10.5.5 Justizia Zuzendaritzaren hobekuntza-ekintzak, aldia eta ebaluazio-adierazleak

- **AM 10.5.5.1:** Aldian behin azterketak egitea, neurri judizialen eta berrerortzearen eraginkortasunerako.

Aldia: 2021 (2018-2021).

Ebaluazioa: EHUK (KREI) eginiko ebaluazio-txostenak.

- **AM 10.5.5.2:** Talde psikosozialek egindako bitartekaritza-prozesuak ebaluatzea: eraginkortasuna eta berrerortzea.

Aldia: 2021 (2018-2021).

Ebaluazioa: EHUK (KREI) eginiko ebaluazio-txostenak.



- **AM 10.5.5.3:** Gazte-justiziari buruzko gune espezifiko bat sortzea justizia.net webgunean.
Aldia: 2020-2024
Ebaluazioa: Espazioaren sorrera.
- **AM 10.5.5.4:** Gazte-justiziaren inguruko eskariari, betearazpenari eta kudeaketari buruzko urteko memoriak egitea.
Aldia: 2020-2024
Ebaluazioa: Urteko memoriak egitea.
- **AM 10.5.5.5:** Justiziako hezkuntza-zentroen dekretu arautzailea berrikustea.
Aldia: 2020-2023
Ebaluazioa: Berrikusketa aztertzea edo dekretu berria EHAAan argitaratzea.
- **AM 10.5.5.6:** Prestakuntzako jardunaldi bereziak egitea, erakunde laguntzaileekin eta Unibertsitatearekin batera.
Aldia: 2020-2024
Ebaluazioa: Gauzatutako prestakuntza-jardunaldien kopurua.
- **AM 10.5.5.7:** Zentro, zerbitzu eta programei buruzko zabalkunde-materialak eguneratzea.
Aldia: 2020-2023
Ebaluazioa: Materialen zabalkundea.
- **AM 10.5.5.8:** Beste autonomia-erkidego, herrialde eta nazioarteko erakunde batzuekin gazte-justiziaren inguruko lankidetzaren sustatzea.
Aldia: 2020-2024
Ebaluazioa: Sinatutako hitzarmen kopurua eta egindako ekintza kopurua.
- **AM 10.5.5.9:** Talde psikosozialekin eta fiskaltzekin eta adingabeen epaitegiekin komunikazio-kanal etengabeak sustatzea.



Aldia: 2020-2024

Ebaluazioa: Irekitako kanal kopurua eta egindako bilera eta topaketen kopurua.

- **AM 10.5.5.10:** Herriaren Defendatzailearekin, Arartekoarekin eta antzeko erakundeekin lankidetzan aritzea informazioa biltzeko, bisitak egiteko, ikuskapenak egiteko, neurriak betetzen dituzten pertsonekin komunikatzeko, etab.

Aldia: 2020-2024

Ebaluazioa: Egindako lankidetzakopurua.

- **AM 10.5.5.11:** Neurriak betearaztean bitartekaritza-prozesuak areagotzea.

Aldia: 2020-2024

Ebaluazioa: Egindako prozesu kopurua.

- **AM 10.5.5.12:** Urtero ezarritako diziplina-espedienteei buruzko azterketa bat egitea.

Aldia: 2020-2024

Ebaluazioa: Egindako azterketak.

- **AM 10.5.5.13:** Neurriak betearaztean egindako aldaketari buruzko azterketa egitea, urtero.

Aldia: 2020-2024

Ebaluazioa: Egindako azterketak.

- **AM 10.5.5.14:** Txosten-eredu estandarizatuak egitea, AZELOren 7. artikuluan jasotako neurri bakoitzerako.

Aldia: 2020-2024

Ebaluazioa: Estandarizatutako ereduak.

- **AM 10.5.5.15:** Hezkuntza-zentroen sareko erregistro-liburuetarako eredu komunak prestatzea: bisitena, zehapen-prozedurena, euste-bitartekoen erabilerarena, suizidioak prebenitzeko protokoloarena, janari-laginena, etab.



Aldia: 2021

Ebaluazioa: Estandarizatutako ereduak.

- **AM 10.5.5.16:** Neurriak hautatzeko adierazleak ebaluatzea eta berrikustea.

Aldia: 2020-2024

Ebaluazioa: Adierazleei buruzko txostena.

- **AM 10.5.5.17:** Osasun mentalari eta gazte-justiziari buruzko ikerketa bat egitea.

Aldia: 2020-2024

Ebaluazioa: Egindako ikerketa.

- **AM 10.5.5.18:** Osasun-zerbitzuekin koordinatuta, neurri judizialen ordeztan, osasuna sustatzeko eta drogen kontsumoa eta beste adikzio batzuen prebenitzeko programa berezietan parte hartzea sustatzea.

Aldia: 2020-2024

Ebaluazioa: Osasun-zerbitzuetan betetako neurri kopurua.

- **AM 10.5.5.19:** "Adingabe"en txanda berezia eratzen duten letradunen hasierako eta etengabeko prestakuntza-prozesuan laguntzea.

Aldia: 2020-2024

Ebaluazioa: Egindako lankidetzakopurua.

- **AM 10.5.5.20:** Aldian behin laguntza psikiatrikoa ematea Zumarragako Ibaiondo Hezkuntza Zentroaren bulegoetan.

Aldia: 2020-2024

Ebaluazioa: Artatutako pertsonen kopurua jaso beharko da.

- **AM 10.5.5.21:** Gazte Justiziako hezkuntza-zentroetan osasunerako, jarduerak fisikorako eta elikadura osasungarrirako hezkuntza-jarduerak garatzea.

Aldia: 2020-2024

Ebaluazioa: Eskainitako jardueren kopurua eta partaideen kopurua jaso beharko dira.



- **AM 10.5.5.8.22:** Plan honetan jasotako ekintzei buruzko informazioa biltzeko behar diren tresnak diseinatzea eta sortzea.

Aldia: 2020

Ebaluazioa: Sortutako tresnen kopurua.

10.5.6 Giza Eskubide eta Bizikidetzaren Zuzendaritzaren ekintzak, aldia eta ebaluazioa

- **10.5.6.1. ekintza:** Ibaiondo Hezkuntza Zentroaren partaidetza Ados programan (Uztartu).

Aldia: 2020-2021

Ebaluazioa: Esperientzia pilotuko partaidetza.



11. KUDEAKETA EREDUA

11.1 Zuzendaritza koordinatzailea: Justizia Zuzendaritza

Justizia Zuzendaritzari dagokio, apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuak (Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak) 5. artikuluan oro har esleitzen dizkion eskumenez gain, aipatutako Dekretuaren 14. artikuluan deskribatutako eskumena baliatzea: “gazte-justiziaren arloko jarduerak diseinatu, planifikatu, antolatu eta ebaluatzea, Jaurlaritzako sail guztien lana koordinatuz”.

Aipatutakoarekin bat, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Justizia Zuzendaritza izango da Gazte Justiziaren V. Planaren (2020-2024) erakunde kudeatzailea.

V. Plan honek, aurreko ataletan zehaztu den bezala, adingabeekin zerikusia duten Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuek garatu beharreko helburu eta ekintza zehatzak biltzen ditu. Ondorioz, Justizia Zuzendaritzak zentralizatuko du horri buruzko informazioa, sailek V. Planaren (2020-2024) tarteko eta amaierako ebaluazioan emandako datuak barne.

11.2 Gazte Justiziaren V. Planaren (2020-2024) ebaluazioa

Gure erkidegoko gazte-justiziaren planen kanpo-ebaluazioa lehentasunezkoa da Justizia Zuzendaritzarentzat, eta, halaber, duela urte askotatik egiazta daitekeen ebidentzia da. Euskal Herriko Unibertsitateak egin ditu, Kriminologiaren Euskal Institutuaren bidez, 2008-2012 aldiko Gazte Justiziaren III. Planaren eta 2014-2018 aldiko IV. Planaren ebaluazioak, metodologia zientifiko eta egiaztagarria erabiliz. Ebaluazio jarraitu horiek oso garrantzitsuak dira, lortutako ondorio nagusiak gehitzen baitira, gazte-justiziaren planak diseinatzeko oinarri gisa.

IV. Plan honen ebaluazioaren helburua izango da organo kudeatzaileei eta ekintzak martxan jartzeko gainerako eragile inplikatuiei planteatutako helburuen bidez kotasanari, eraginkortasanari eta efizientziari buruzko informazio fidagarria eta objektiboa ematea. Prozesu hori prozedura jarraitu eta parte-hartzaile gisa planteatzen da, ahal den neurrian zuzendaritza kudeatzaileen, erakunde laguntzaileen, epaileen eta



fiskalen, aholkularitza-taldeen, kanpoko ikertzaileen (publikoak eta pribatuak) eta abarren artean.

Ondorioz, honako erronka hauek ezarri dira:

- a) Gazte Justiziaren Zerbitzuaren urteko jarduera-memoriak.
 - Adingabeen epaitegietatik datorren eskariari buruzko datuak: neurri kopurua eta mota, horien iraupena, delituen analisia, neurriak betetzen dituzten pertsonen profila etab.
 - Kudeaketari buruzko datuak: hasi diren, amaitu diren eta betearazten ari diren neurriak. Zentroak eta zerbitzuak. Datu ekonomikoak. Neurriak aldatzea, eskarira egokitzea etab.
- b) Tarteko ebaluazioa.
 - 2022. urteko azken hiruhilekoan egingo da, eta 2020ko urtarrilaren 1etik 2022ko ekainaren 30era bitartekoa izango da. Ekintzen garapena aztertuko du, bai eta helburuen eta ekintzen berrikuspena eta, hala badagokio, eguneratzea ere. Halaber, Planean jasotako azterketak eta ebaluazioak eta hirugarrenek (Arartekoa, Herriaren Defendatzailea, etab.) egindako ekintzen laguntza ere aztertuko dira.
- c) Planaren amaierako ebaluazioa.
 - 2025. urtean egingo da, eta diagnostikoa emango da EAEko gazte-justiziaren egoerari buruzkoa, V. Plana amaitzean. Halaber, beste plan bat egitea egokia den balioetsiko da.

Azken ebaluazio horren aurrekariak izango dira a, b eta c ataletan jasotakoa eta, funtsean, emaitzen kontu-ematea, ekintzen ezarpenaren bidez planteatutako helburuen lorpenari buruzkoa.

Prozesu honen lidergoa Justizia Zuzendaritzari dagokio; berak bilduko du ebaluazio-zirriborroa; zirriborro hori inplikaturik dauden gainerako eragileei aurkeztuko zaie, azter dezaten eta proposamenak egin ditzaten. Ebaluazio horien erantzukizuna eta zuzendaritza publikoa abiapuntu hartuta, aholkularitza metodologikoko, kanpoko informazio-bilketarako, emaitzak emateko eta beste hainbat



lanetarako Euskal Herriko Unibertsitateko (KREI eta beste batzuk) ikertzaileen parte-hartzea egongo da.

Sistematikoki, honako datu-iturri hauetara joko da:

- Arartekoaren urteko eta aparteko txostenak.
- Herritarren Defendatzailearen txostenak.
- Estatuko Fiskaltza Nagusiaren urteko memoriak.
- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren urteko memoriak.
- EINeren datuak (epaien erregistro nagusia).
- Haurren behatokiaren memoriak eta txostenak.
- Justizia Sailburuordetzaren datu-baseak.
- Kanpo-eragileek gazte-justiziaren inguruan egindako txostenak eta ikerketak.

Iturri horiez gainera, kontuan hartuko dira sistematikoki egiten diren ekarpen kualitatiboak:

- Urteko memoriak, kasuen analisiak, EAEko zentro eta zerbitzuen erakunde kudeatzaileek egindako proposamenak.
- Adingabeen epaile eta magistratuen bilerak / foroak.
- Adingabeen fiskalen bilerak / foroak.
- EAEko talde psikosozialen memoriak eta ekarpenak.
- Profesionalen elkargoen ekarpenak.

Kongresu, sinposio, jardunaldi eta abarretan eginiko ekarpenak eta orientazioak.



12. AURREIKUSPEN EKONOMIKO OROKORRAK (2020-2024)

Atal honetan, 2020-2024 aldian zehar Justizia Sailburuordetzak, adingabeei ezarritako neurriak betearazteko eskumena duen erakunde publiko gisa, bere gain hartzen dituen jarduketan euskarri izango diren datu ekonomikoak biltzen dira.

Hurrengo tauletan jasotako datu ekonomikoak urtero gazte-justiziako hezkuntza-zentroei, eguneko zentroei, ingurune irekiko zerbitzuei, ebakuntza klinikoetarako terapeuten ordainketei (tratamendu ambulatorioak), gizartearentzako lanetarako neurriak egiten lankidetzan diharduten erakundeen ekarpenei eta Euskal Herriko Unibertsitateari –azterketak eta ikerketak eta aholkularitza-lanak egiten lankidetzan dihardu– egin beharreko ordainketei eusteko beharrezkoak izango diren diru-ekarpenen ingurukoak dira.

12.1 Talde psikosozialen gastuak

Talde psikosozialak, gaur egun, honako profesional hauek osatzen dituzte:

<u>Araba</u>	7 pertsona: 3 psikologo (horietako bat koordinatzailea), 2 gizarte-langile, hezitzaile 1 eta administrazio-laguntzaile 1.
<u>Gipuzkoa</u>	9 pertsona: 4 psikologo (horietako bat koordinatzailea), 2 gizarte-langile, 2 hezitzaile eta administrazio-laguntzaile 1.
<u>Bizkaia</u>	17 pertsona: 9 psikologo (horietako bat EAeko koordinatzailea), 3 gizarte-langile, 3 hezitzaile eta 2 administrazio-laguntzaile.

Lantalde horietan lan egiten duten pertsonen, adingabeen jurisdikzioan egiten duten lanaz gain, peritazio-eginkizunak egiten dituzte beste jurisdikzio batzuetan (familia eta penala, batez ere). Gazte-justiziaren eremuan, organikoki Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren mendekoa bada ere, "talde tekniko"en inguruan, adingabeen epaitegien eta fiskaltzen mendekoa da, eta, batez ere, Adingabeen Zigor Erantzukizunari buruzko 5/2000 Lege Organikoaren 27. artikuluan jasotzen diren funtzioak betetzen ditu.



Ekonomiari dagokionez, 2020-2024 aldirako kalkulua egin dugu, 2020an talde psikosozialetara bideratutako kostuaren arabera. Aurreikuspenen arabera, urtean % 2ko igoera izango du, hurrenez hurren.

65. taula. Talde psikosozialetako langileen gastuen aurreikuspena (2020-2024). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Sailburuordetza

Urtea / Profesional kopurua		Ordainsariaren kostua + Gizarte Segurantza
2020	33	2.049.739,56€
2021	33	2.090.734,35
2022	33	2.132.549,03€
2023	33	2.175.200,01€
2024	33	2.218.704,01€
GUZTIRA		10.666.926,96€

12.2 Ingurune irekiko programa eta zerbitzuetako gastuak

Hurrengo taulan, ingurune irekiko zerbitzuak kudeatzeko aurreikusten diren zenbateko ekonomikoak jasotzen dira (urtean ondoz ondo % 2 igota); horietan jasotzen da tratamendu ambulatorko, zaintzapeko askatasuneko, gizarte- eta hezkuntza-zereginetako, gizartearentzako lanetako, asteburuetan etxean egoteko eta eguneko zentrorra joateko neurriak betearaztea. Halaber, terapeuta pribatuen inguruko gastuak (tratamendu ambulatorkoak) eta gizartearentzako lanak egiteko Sailarekin hitzarmenen bat sinatuta duten erakundeei ematen zaizkien haborokinak ere sartzen dira. Zerbitzuen artean, ez da agertzen gordailututa Arabako eguneko zentroa. Gastua Uribarri Hezkuntza Zentrorra bideratutako partida ekonomikoan sartzen da.



66. taula. Ingurune irekiko programa eta zerbitzuetan aurreikusitako gastuak (2020-2024). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.

Zerbitzuak/programak		2020	2021	2022	2023	2024	Guztira
Zerbitzuak	Arabako ingurune irekia	229.123€	233.705€	238.379€	243.147€	248.010€	1.192.364€
	Bizkaiko ingurune irekia	738.876€	753.654€	768.727€	784.102€	799.784€	3.845.143€
	Gipuzkoako ingurune irekia	378.057€	385.618€	393.330€	401.197€	409.221€	1.967.423€
	Bizkaiko Eguneko Zentroa	457.225€	466.370€	475.697€	485.211€	494.915€	2.379.418€
	Gipuzkoako Eguneko Zentroa	384.068€	391.749€	399.584€	407.576€	415.728€	1.998.705€
Programak	Gizartearentzako lanak	10.000€	10.000€	10.000€	10.000€	10.000€	50.000€
	Tratamendu ambulatorioak	30.000€	30.000€	30.000€	30.000€	30.000€	150.000€
	Aita Menni	30.000€	30.000€	30.000€	30.000€	30.000€	150.000€
Guztira		2.257.349€	2.301.096€	2.345.717€	2.391.233€	2.437.658€	11.733.053€



12.3 Gazte Justiziako hezkuntza-zentroetako gastuak

Ibaiondo Hezkuntza Zentroko partida ekonomikoek honako atal hauek jasotzen dituzte:

- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren menpeko langileen gastuak: soldatak, ordezkapenak, gizarte-segurantza, hobariak etab.
- Funtzionamenduko beste gastu batzuk: sukaldaritza, garbiketa, aisiako eta astialdiko jarduerak, joan-etorriak, ikasgelako eta tailerreko materialak etab.

Gainerako zentroetan (II. eta III. mailak) erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren artean sinatutako lankidetzaz hitzarmenen artean ezarritakoa betetzeko egindako gastu guztiak jasotzen dira (Andoiu/Gorbeia eta Bilboko AE zentroetako gastuen % 100a da eta Uribarri, Urgozo eta Txema Fínez zentroetako gastuen % 100a, segurtasuneko kostua salbu).



67. taula. Gazte-justiziako hezkuntza-zentroetako gastuen aurreikuspena (2020-2024). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.

Maila	Hezkuntza-zentroak ⁴¹	2020	2021	2022	2023	2024	Guztira
I	Ibaiondo	5.733.621€	5.848.293€	5.965.259€	6.084.564€	6.206.255€	29.837.992€
II.	Uribarri	1.815.150€	1.851.453€	1.888.482€	1.926.252€	1.964.777€	9.446.114€
	Txema Fínez	2.274.318€	2.319.804€	2.366.200€	2.413.524€	2.461.794€	11.835.640€
	Andoiu/Gorbeia	1.574.877€	1.606.375€	1.638.503€	1.671.273€	1.704.699€	8.195.727€
	Urgozo	1.122.046€	1.144.487€	1.167.377€	1.190.724€	1.214.539€	5.839.173€
	Arratia	1.991.220€	2.031.044€	2.071.665€	2.113.098€	2.155.360€	10.362.387€
III.	Bilbo AE	422.323€	430.769€	439.384€	448.172€	457.136€	2.197.784€
Guztira		14.933.555€	15.232.225€	15.536.870€	15.847.607€	16.164.560€	77.714.817€

12.4 Gazte Justiziako hezkuntza-zentroetako segurtasun-gastuak

Segurtasun-gastuei buruzko datuei dagokienez, esan behar dugu, guztira, gastuen aurreikuspena 7.571.577 eurokoa dela, baina, ikus daitekeenez, zenbateko horren ia erdia Ibaiondo Hezkuntza Zentroari dagokio, hots, gure erkidegoko titulartasun publikoko I. mailako hezkuntza-zentro bakarrari.

⁴¹ Urteko % 2ko igoera kalkulatu da, hurrenez hurren, 2020ko gastua erreferentziatzat hartuta. Ez dira sartzen telefoniako, mantentze-lanetako eta eremu komunitario garbiketako gastuak, ez eta gasari dagozkionak ere; horiek Justizia Administrazio Zuzendaritzaren kargura dauden programa orokorren barruan sartu dira. Era berean, gaur egun ezinezkoa da obren, mantentze-lanen, konponketen eta horniduren gastuak zenbatzea.



68. taula. Gazte-justiziako hezkuntza-zentroetako segurtasuneko gastuen aurreikuspena (2020-2024). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza.

Maila	Hezkuntza-zentroak	2020	2021	2022	2023	2024	GUZTIRA
I.	Ibaiondo	693.385€	707.253€	721.399€	735.827€	750.544€	3.608.408€
II.	Txema Finez	181.430€	185.059€	188.760€	192.535€	196.386€	944.170€
	Uribarri	228.668€	233.241€	237.906€	242.664€	247.517€	1.189.996€
	Urgozo	81.092€	82.714€	84.368€	86.055€	87.776€	422.005€
	Andoiu	88.936€	90.715€	92.529€	94.380€	96.268€	462.828€
	Arratia	181.430€	185.059€	188.760€	192.535€	196.386€	944.170€
GUZTIRA		1.454.941€	1.484.041 €	1.513.722€	1.543.996 €	1.574.877€	7.571.577€



13. GIZA BALIABIDEAK: ZENTROAK ETA ZERBITZUAK

13.1 Ingurune irekiko zerbitzuak/programak: profesionalak

Ingurune irekiko zerbitzu eta programetako profesionalen aurreikuspena, 2020-2024rako, hurrengo taulan ikusten da. Ingurune irekiko taldeetan arretarako ratio egokia honela ezartzen da: profesional bat, 15 neska edo mutilentzat. Beraz, aurreikusitako profesionalen kopurua, batez ere, proportzio hori baino handiagoa da. Izan ere, eguneko zentrozen edukiera 22 plazakoa da Bizkaian, 18koa Gipuzkoan eta 6/8koa Araban.

69. taula. Ingurune irekiko zerbitzuei atxikitako langileak (2020-2024). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza

	2020/2024
Bizkaiko ingurune irekia	16
Gipuzkoako ingurune irekia	8
Arabako ingurune irekia	5
Bizkaiko Eguneko Zentroa	7
Gipuzkoako Eguneko Zentroa	6
Arabako Eguneko Zentroa⁴²	2

⁴² Uribarriko Hezkuntza Zentroko plantillan sartuta.



13.2 Hezkuntza-zentroak: profesionalak

70. taula. Gazte Justiziako hezkuntza-zentroiari atxikitako langileak (2020-2024). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza

Zentroak/Titulartasuna/2020-2024	Plaza kopurua	Zuzendaritza eta administrazioko lan.	Teknikariak eta koordinatzaileak	Hezitzaileak	Maisu-maistrak	Zerbitzua
Ibaiondo HZ Publikoa	39	5	9	50	13	1
Uribarri HZ Pribatu itundua	16	2	3	20	3	2
Txema Finez HZ Pribatu itundua	24	1	3	29	3	1
Urgozo HZ Pribatu itundua	10	1	2	12	3	----
Andoiu/Gorbeia HZ Pribatu itundua	16	1	3	20	3	2
Areatza HZ Pribatu itundua	20	2	5	23	3	2
Bilbo AE Pribatu itundua	6	----	1	7	----	----

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO